


Jesusen bizitza

Salbador Zampirain "Ataño"





Salbador Zapiroain “Ataño”

Salbador Zapiroain Ezeiza, 1913-an jaio zan Errenteriko Bordaxar baserrian eta Iruñan il, 2000-I-2-an.

Jose Zapiroain bertsolariaren semea zan, eta Juan Krutz bertsolariaren illoba. Enborretik ezpala, beraz.

Idazle ugaria izan da, bai prosaz eta bai bertsoan ere. Baiña bere idazlanak *Ataño* izenordearekin agertu ditu, danak ere *Auspoa* Liburutegian.

Bere liburuen zerrenda: *Txantxan-gorri kantaria* (1979), *Txori* (1981), *San Frantziskoren bizitza*, (bertsoan, 1981), *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpean* (1984), *Eltzaorra* (1985), *Odol-kutsua* (1986), *Maitasunaren lanak* (1988), *Etorkizuna* (1988), *Maite itzazute etsaiak* (1989), *Aztia usnari* (1990), *Azkeneko saskigillea* (1991), *Lotsaren iges* (1995), *Askatasun billa* (1996), *Gorrotoa ondareztat* (2000), eta onako au: *Jesusen bizitza* (2001).

Aurki agertuko diranak: *Markesgaiak* (nobela) eta beste zenbait idazlan.

**Salbador Zapiroin
"Ataño"**

Jesusen bizitza

Auspoa Liburutegia
271



AUSPOA



• SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Salbador Zampirain
“Ataño”

Jesusen bizitza

Auspoa Liburutegia
(2001)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-95378-29-9

Depósito Legal: NA.: NA. 173-2001

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.L., Lizarra (Nafarroa)

Itzaurrea

ORAIN urte t'erdi, Aiako alaba dan Sor Justina Aldalurren *Ama Birjiñaren bizitza* liburu mardula eman genduan argitara, oso-osorik bertsoan moldatua, 1.532 bertso guzira. Kontra-azalean onela esaten genduan idazlan luze orrengatik: “bearbada, iñoiz argitara atera dan saillik luzeena”.

Ori baiño luzeagoa argitara gabe bai-baizegoan, eta gure mende, gaiñera: Salvador Zapirain *Ataño* zanaren *Jesusen bizitza*, au ere bertsoan, baiña 2.202 bertso guzira. Olako izketa-modua euskaldunen gustokoa danez, onela esan dezakegu: Aiako mojaren marka Erreteriko fraileak ondu egiten duala.

Idazle ugari au Bordaxar baserrian jaio zan, 1913 urtean. Bertsolariak zituan aita eta osaba: Joxe eta Juan Krutz, alegia, biak ere bertso-sail bikain askoak utzi zizkigutenak. Aitaren bizitza idatziko zuan gero gure *Ataño* onek, liburu zoragarri orri *Txantxangorri kantaria* izenburua eman ez.

Apaiz-ikasketak egiten ari zala, filosofiako iru urteak bukatutakoan ain zuzen, 1936-ko gerrak bete-betean arrapatu zuan. Bi anai il eta bera kartzelara eramana izan zan Donostiako Ondarretara, gero Iruñe ondoko San Kristobal mendira, eta urte batzuk giltzapean pasa bear izan zituan. Orduko oroipenak bi liburutan utzi zizkigun: *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpean*.

Gerra ondorenean, fraile sartu zan, kaputxinoetan. Lekarotzen urte-mordoa egin zuan; eta andik Ondarribira aldatu zan, komentuko baratza-lanak egitera.

Bertsolari-kastakoa izanik, bide ori artu zuan bere leenen-

go idazlanentzat, *Zeruko Argia* astekarian bertso-sail batzuk argitaratuz.

Orain ogei ta bost urte ezagutu nuan nik bera: 1975-ean, alegia. Beraren aita eta osabaren bertsoak argitara eman nai nintuan, aurretik aien biografia eskeiñiz. Orduan etorri zan gure eskuetara, leen aitatu degun *Txantxagorria kantaria* liburuaren esku-idatzia.

Au argitaratu ondoren, idazten jarrai zezan eskatu nion. Etzuan ortarako bultzakada aundirik bear, eta bereala asi giñan beraren idazlanekin gure *Auspoa Liburutegia* aberasten. Urrena, *Txori* izeneko nobela argitaratu genduan; eta gero gerokoak, amabostera iritxi arte. Gaurko au amaseigarrena, beraz, eta oraindik bidean diranak.

Bion artean arremian ugariak izan genituan, beraz. Neroni joaten nintzaion Ondarribiko komentura. Beraren galdea egin eta denbora-puska bat bear izaten zuan nigana azaltzeko, beti edo geienetan baratzatik atera arazten nuan eta. Joko ori zenbat aldiz egin genduan, Jainkoak bakarrik daki.

Alkarrengana bildu eta konpondu-aldi ederra ematen genion leenengo munduari. Ondoren, urrena argitaratu nai genduan liburuaz izketan asiko giñan. Batez ere, beraren idazkia ordenadorez pasatzerakoan neri sortutako dudak, zalantzak eta ezin-ulertuak argituz.

Egun aietako batean, neri leenagotik ezertxo ere aitatu gabe, liburu-moduko bat ekarri zuan esku artean. Lodikotea bera, eta nolana ere orrialde-mordo aundia zuana. Onela esan zidan Atañoak:

–Ementxe daukazu Jesusen bizitza bertsoan jarria. Nere lan onek zer balio duan ez dakit. Ar zazu eta derizkiozuna egin.

Etixerakoan, maai gaiñean jarri eta zabaldu nuan. Aurrena, kontua egiten asi nintzan, zenbat bertso ote ziran, zenbakirik gabe zeuden eta. Eta orrialdeak ere berdin. Leen begiratu artan jo nuanez, ia bi millaraiño iritxiko ziran. Baiña motz gelditu nintzan: bi milla berreun eta bi izan dira.

Baiña bertso-pilla ori nun eta nola argitara eman? Nik nere mende *Auspoa Liburutegia* nuan. Baiña sail ontako liburuak neurri laburrak zituzten garai artan luze-zabalean; eta orrialdeko iru bertso besterik ezin sartu. Edo lau, geienaz jota ere. Ia zazpireun bat orrialde bearko ziran, beraz, lan ori plazaratzeko. Guretzat eziña, beraz. Ala, nere beste liburuen artean utzi nuan Atañooren idazki au, eta urteetan antxe egon da. Noizean bein apaletik artu, bertso bat edo beste irakurri eta nere buruari galdera au egiten nion: “Onekin zer egin?”.

Gauza batez nago orain benetan damututa: ez niola Atañoori galdetu *Jesusen bizitza* au noiz moldatu zuan. Esku-idazkia noiz eman zidan ere ez nuan kontuan artu. Ortik bide bat izango genduan idazlan au noizkoa dan sumatzeko. Baiña esaera zaarrak diona: “denbora joan da gero salda bero”; eta: “arraia pasa ta gero sarea bota”. Ori da nere erruz gertatu dana.

Dana dala, Atañooren idazki au zaarra degu. Eskuz idatzita baitago. Alaxe eman zizkidan, izan ere, *Txantxangorri kantaria* eta *Txori* liburuak. Bere leenengo emaitzak, alegia. Urrena, berriz, idazteko makinatxoren bat eskuratu zuan, eta artaz baliatzen zan. Bi bolara izan zituan, beraz: eskuzkoa eta mekanografiakoa. Eta *Jesusen bizitza* au leen bolarakoa da. Bere bertso-saillak *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratzen zituan garaikoa, ziur aski.

Bitartean, aurrera jarraitu nuan Atañooren liburuak argitara ematen, leen esan bezela onako au amaseigarrena danez. Azken ikustaldietan kezka bat agertu zidan, ordea, bein baiño geiagotan gaiñera: urteetan aurrera zijoala eta burua moteltzen ari zitzaiola.

Ala, egun batez, telefonoz deitu zigun Joakin Berasategiri eta bioi: joateko mesedez, guretzat zerbait ere bazuala eta. Joan giñan, alkar agurtu eta onelatsu esan zigun:

–Zaartu naiz eta ez naiz idazlanerako gauza. Orregatik, nere idazki guziak zuen eskuetan utzi nai ditut. Eta aiekin nai dezutena egin zazute.

Bere gelara joan eta maleta zaar batekin etorri zan. Iriki eta paperez erdi beterik zegoan ura.

Une latza izango zan uraxe Atañoarentzat. Testamentua egiten ari baitzan. Bizitza oni azken agurra egiten, alegia. Aren ondasunak etziran ez dirua, ez lurrak, ez etxeak, buru argi baten emaitzak baizik; baiña bestelako ondarea baiño aberatsagoa eta geiago maitatzen dana.

Eta aldi ontan bai; aldi ontan eguna idatzi nuan, zorionez: 1997-ko otsaillaren 20-garrena.

Egun artan emandako paper-mordoan, beste lan askoren artean zer arkituko eta *Jesusen bizitza* onen beste idazketa bat, makinaz egiña.

Andik laster, obe bearrez, *Auspoa Liburutegi* onen neurriak aldatu genituan, luze-zabalean geiago emanaz. Ala, Sor Justina Aldalurren *Ama Birjiñaren bizitza* etorri zitzaigunean, liburu au nola argitaratu pentsatzen asi giñan, eta zera ikusi: bazegoala bertsoak bi zutabetan jarri eta orrialdeko zortzina bertso sartzea. Ala egin genduan, eta liburu ori geroztik or dabil nai duanaren eskuetan.

Baiña ura kaleratzearekin batera, Atañoen *Jesusen bizitza* idazlanaren kontua berriro zitzaidan. Bera argitara emateko bidea irikita zegoan. Are geiago: apalean ikusten nuan bakoitzean, dei bat egiten zidala iruditzen zitzaidan. Bein baiño geiagotan “laster, laster!” erantzun ere egin nion.

Ala, idazlan orren bi idazketa oiek eskuetan artu genituan, bertsoak zeñi kopiatu bear genizkion erabakitzeko. Nik zera pentsatzen nuan: eskuz idatzia zaarragoa izango zala, eta makinazkoa geroztik prestatua, eta oni nagusitasuna eman eta berari jarraitu bearko zitzaiola.

Pentsatu bezela gertatu zan. Makinazko idazketa ori eskuzkoa zuzenduz, txukunduz eta obetuz eginda dago. Aldaketez josisia, beraz.

Orrekin lan berria sortu zitzaidan. Makinazko idazketari bertsoak artu, bai; baiña gero, azken orrialdeetan, eskuzko idaz-

ketak dituan aldaketak eskeiñi. Esan bearrik ez dago ortarako ordu-pilla sartu bear izan ditudala.

Jesusen bizitza onen leen idazketan, eskuz idatzitako ortan, alegia, bertsorik geienak zortziko nagusiak dira. Baiña amarreko nagusi asko ditu asieran. Baita gero ere tarteka. Baita amarreko txiki batzuk ere, bi alditan. Baita amabiko nagusi bat edo beste ere.

Makinazko idazketa prestatzerakoan, berriz, amarreko txiki oiek danak kendu egin zituan Atañoek. Eta amarreko nagusi geienak zortziko nagusi biurtu.

Bertso batzuk badira makinazko idazketan bai eta eskuzkoan ez daudenak. Beste batzuk, berriz, alderantziz: eskuzko kopian bai, eta makinazkoan ez. Nik, obe bearrez, danak jarri ditut, komeni diran oarrak azken orrialdeetan egiñik; leenengo idazketaren aldaketak eskeintzen ditugun orrialde oietan, alegia.

Atañoen idazkera, bai *Jesusen bizitza* liburuaren bi idazketa auetan eta bai bere prosazko lanetan ere, fonestimoz beteta egoten da beti. Beterriko aozkatze-moduak, danak ez bada ere asko beintzat, paperera pasatzen zitzaizkion. Arek, adibidez, ez du aldi askotan *ura, etxea, mundua, goxoa, erria* idazten; baikiz-eta *ua, etxia, munduba, goxua, erriya*.

Orrek zera esan nai du: izkuntza amaren bularretik ikasia zuala, eta ez liburuetatik. Eta erdal esaera bat ederki bete zala arekin ere: *“lo que se aprende con las babas no se olvida con las barbas”*.

Berak, ala ere, etzuan nai izaten fonetismo oiek liburuetan agertzerik. Beraren leenengo liburua, *Txantxangorri kantaria* alegia, kopiatu nuanetik ikasi nuan ori. Ala, zuzenketa ori berari ezer galdetu gabe egiten nuan andik aurrera.

Bai oraingo ontan ere, baiña ez beti. Bertsoa danean, izan ere, bestela egin bearra izaten da aldizka. Puntuak, adibidez, *munduan, orduan, genduan* baldin badira, eta urrena *goguan*, au olaxe idatzi det, eta ez *gogoan*, gramatikaz era ontara bear badu

ere. Esan bearrik ez dago nik orrelakoetan fonetismoaren alde jokatu dedala.

Zalantza pixka bat beti izan du Atañoek zenbait itzetan. Bartzuetan, izan ere, *elkar, dena, zuan, nuan, zituan* eta abar idazten du; eta beste bartzuetan, *alkar, dana, zuen, nuen, zituen* eta abar. Era oietako bat aukeratu eta beti ere berdin idazten saiatu gera, liburu batean orrela bear duala pentsatuz. Ataño bizi zala argitara emandako bere liburuetan ere berdin egin nuan, berak alaxe nai zualako. Gauza bera egin dezagun, beraz, ura il ondoren ere.

Bein baiño geiagotan, *atera zitzaion* eta onen antzekoak idatzi bearrean, *atera zaion* eta orrelakoak idatzi oi ditu Atañoek. Baita ere *artu zuten* bearrean, *ar zuten*. Auen moduko beste adibide asko arkituko ditu irakurleak. Asieran gauza bitxia irudituko zaio, baiña bereala oituko da. Zergatik egiten du ori gure Anai Salbador onek? Orri erantzuten erreza da: bertso-lerroen neurria ondo gordetzearren, noski. Gisa ortako tranpatxoak maiz egin oi dituzte bertsogintzan asten diranak. Erderaz *licencias poéticas* deitzen zaie, eta esan bearrik ez dago guztiz barkagarriak dirala.

Bertso auek irakurtzen asitakoan, irakurlea bereala oartuko da Atañoek ebanjelioari xuxen eta txintxo jarraitzen diola. Onek kontatzen duana kontatzen du berak ere. Batean prosaz dagoala eta bestean bertsotan.

Alderdi ortatik alde aundia du leen aitaturako *Ama Birjiñaren bizitza*-rekin. Ontan, Sor Justina ez da ebanjelioan oiñarritzen, XVII mendeko liburu batean baizik: Agredako Sor Maria de Jesús-en *Mística ciudad de Dios* liburuan alegia.

Atañoek, berriz, bere zer esan guziak ebanjeliotik artuak ditu. Ezagun du ez duala bide ortatik metro batez ere zearkatu nai izan. Ortan arrazoi osoa zuala esan bearrik ez dago. Ezin ukatu diteke, izan ere, ebanjelioak kontatzen duana, batzuentzat sinisgarria izango ez bada ere, danentzat arrigarria dala.

Ebanjeliotik artutako gaiak kontatu, beraz, baiña bai bikain eta egoki ere. Beraren alderdi on ori prosazko lan guzietan ager-

tzen digu Atañoak: oso kontalari ona zala, alegia. Doai ori txalogarria da beti, eta nai duan guziak ez du izaten. Baiña bertsotan egindako kontaera neketsuagoa izango da, dudarik gabe, bi zailtasun berekin dauzka eta.

Noizik eta bein komentario edo irudi batzuk sartzen ditu. Baiña oso laburrak, bi edo geienaz lau lerro besterik betetzen ez dituztenak. Baiña aldi oietan bere zentzu on eta zuzena ederki azaltzen du. Adibide pare bat jarri dezagun.

Batean, gaixoak sendatzen zituan Jesusen atzetik jendepilla zijoala esan ondoren, onela dio:

utsean on egiten dunari
etzaio palta maizterrik.

Esaera zaarren antzekoa da esaldi ori. Erri-jakintzaz beteta baizegoan, izan ere, Atañoaren burua.

Beste batean, ezkonduko emakume lizun bat Jesusen aurrera ekartzen dute fariseoak, gajo ura arrikatzeko asmotan. Baiña Jesus beatzarekin lurrean idazten asten danean, aiek alde egiten dute andik, zaarrenetik asita. Eta Atañoak onela bukatzen du:

aien lekuan arri-pilla bat
besterik etzan gelditu.

Egoki esana, ebanjelioak olakorik ez badu ere. Beatzarekin lurrean idazteko, izan ere, toki artan autsa edo ondarra izango zan. Arriak, beraz, fariseo aiek nunbaitetik eskuan ekarriak. Eta ixil-ixilik eta buru-makur andik joan aurretik, dudarik ez da arriak eskutik lurrera erortzen utziko zituztela; eta leen etzegoan arri-pilla bat bertan geldituko zala.

Deskripzio ederrik ere badu tarteka. Adibidez, Jesusek samariar emakumearekin ango putzuaren ondoan egiten duan izketaldia eskeiñi aurretik, bertako inguruaren berri onela ematen du:

Eguzki-garrak kiskaltzen zuen
zabalune ura sutan,
artalde batzuk zebiltzan urrun
putzuaren inguruan.
Erdi txuria, eldu xamarra,
garia berriz burutan,
laxter erori bearko zuen
itailarien eskutan.

Ataño ebanjeliotik geiena aldentzen dan unea, Judasen bukaerakoan da. Onek bere burua urkatu zuanekoa, izan ere, San Mateok kontatzen du, baiña Jesusen eriotzaren aurretik. Eta alaxe dago Jesusen biografia guzietan ere, edo-ta guk eskuetan erabili ditugunetan beintzat. Ataño ere ortxe jartzen du bere leengo idazketan, eskuzkoan alegia. Baiña urrengoan, makinazkoan, ez dago or. Oso arrigarria iruditu zitzaigun guri utsune ori, orrera iritxi giñanean. Zer zan ura: Ataño aaztuta utzia?

Baiña makinazko idazketa ori irakurtzen segi eta, Jesusen piztu ondoko agerpenak kontatzen ari dala, antxe topo egin genduan Judasen bukaerarekin. Ederki kontatuta dago; baiña ez du egoki ematen, Pazkoaren alaitasunaren erdian, kanpai-soiñua ere entzuten degula iruditzen zaigun ortan, olako kontraera illunean sartu bearra.

Zergatik egin ote zuan ori Ataño? Gure iritzirako, ebanjelioak esaten ez duan zerbait kontatzen dualako. Auxe, alegia:

Joan dira iru egun ixilik,
baña igande-goizera
Maisua piztu dan otsak datoz
bere belarri-ertzera...

Ala, Pazko-igande goizean Judas bizirik baldin bazan, eta Jesusen piztueraren otsak entzun bazituan, beraren bukaera ezin, bada, aurretik jarri...

Leen esan degunez, amarreko bertsoak baditu tarteka Atañoek, eskuzko idazketan batez ere. Baiña gero, makinazkoa idazterakoan, amarreko oiek zortziko biurtzen aalegindu zan.

Ala, eskuzko idazketa ortan, Pasioa kontatzen ari dala, bost amarreko ditu, 1.995-1.999-garrenak, bostetan azkeneko bi lerroak gauza bera adierazten dutela: Jesusek gurutzetik bere etsaizentzat barkazioa nola eskatu zuan, alegia. Jaunaren erregu ori bost bider errepikatzearekin, garbiro aitortzen zuan Atañoek eskaera orri zer garrantzi ematen zion, ala dauka eta.

Baiña makinazko idazketan bost bertso oiek muskilduta arkitu ditugu. Bostak ere azken bi lerro oiek falta dutela, alegia. Auxe gertatuko zan: amarreko oiek zortziko biurtu bearrez, azken bi lerro oiek kendu egingo zituala. Orrela, ordea, utsune aundi bat sartu zuan bere kontaezan. Jesusek bere etsaien alde gurutzetik egindako eskaera kendu, alajaiña. Atañoek ori oartu gabe egingo zuala dudarik ez da noski. Ustegabeko oker ori zuzendu bearra zan, noski. Ala, bost bertso oiek osterara ere amarreko biurtu ditugu, eskuzko idazketako azken bi lerroak erantsiz.

Edozein moduz, ebanjeliotik oso gutxi zearkatzen dala aitortu bear zaio, esan bezela, Atañoeri; eta meritu aundi bat ere orxe du, gure ustetan.

Baiña bi milla eta berreun bertso segiran, etenik gabe alegia, soka luzeegia izango litzake. Geldiune bat edo beste kome ni da aldizka, irakurleak arnas eta atsedean ar ditzan. Ala, tarteka marrazki edo irudi batzuk sartu ditugu. Leendabizikoa ikusi utsarekin. irakurle askok igerriko diote norenak diran: Gustave Doré artista ospetsuarenak, frantzesar bera (1832-1882). Beste lan askoren artean, goi-maillako zenbait libururen edergarriak egin zituan: *La Divina Comedia*, *Don Quijote de la Mancha*, Teófilo Gauthier-ren *Viaje por España*, La Fontaine-ren *Ipui* edo *Fabulak*, eta abar. Baita Bibliarenak ere. Auetaz baliatu gera gu, Atañoeren idazlan au apaintzeko. Baita azala ornitzeko edo osatzeko ere. Milla esker, beraz, il eta ainbeste urteren buruan mesede eta on egiten jarraitzen duan jaun orri.

Jesusen bizitza sarritan jarri ote da bertsoan? Galdera orri xuxen erantzuteko gai ortan jakintsuren bat beariko litzake. Guk, berriz, nola esan munduko ainbat izkuntzetan zer egin dan?

Inglaterran ba omen da bat, *Crist* izenburuarekin. VIII-IX mendekoa, orduko ango izkuntzaz eta 1.694 bertso-lerrotan; zatirik nagusienaren egillea, *Cynewulf* izeneko bat.

Gaztelaraz, XV mendean eta Burgosen jaio zan Fray Iñigo de Mendoza-ren *Coplas de "Vita Christi"* izenekoa dago. Baiña ez du Jesusen bizitza osoaren berri ematen; aurtzaroarena eta Pasioarena bakarrik. Liburu ontakoak ditugu onela asten diran eta erri-kanta baten antza duten bertso ezagun aiek: "*Eres niño y has amor; ¿qué farás cuando mayor?*".

Beste bat, *La Cristiada* izenekoa, XVII mendekoa degu. Beraren egillea, Fray Diego de Hojeda dominikoa, 1571-an Sebillan jaioa eta 1615-ean Perú-ko Huánuco errian illa. Baiña onek ere ez du Jesusen bizitza osoa ematen: azken aparian asten da, eta Pasioarekin bukatu. Zortzikoa da onek ere erabiltzen duan bertso-mota; erderaz *octava real* esaten dana, alegia, lerro bakoitzak amaika silaba dituala.

Fray Diego de Hojeda-ren lanaren argitalpen dotore bat 1896-an egin zan; eta 1996-an beraren *edición facsímil*, berdindirdiña alegia, luze-zabaleko neurriak laburtuz. Argitalpen ontarako José A. Martínez Puche-k idatzi zuan itzaurrean, onela esaten da, J. García López-en itz batzuk aitatuz: "*no hay arre-bato místico, pero sí un tono de auténtica piedad*". Gauza bera esan genezake Atañoren *Jesusen bizitza*-rengatik ere.

Latiñez eta bertsoan, beste au aita genezake: *Christias* izenburukoa, 1535-ean Erroman argitaratua, eta beraren egillea Italiako Marcos Jeronimo Vida dana.

Der Messias izenekoa ere bada, alemanez eta bertsoan, XVIII mendekoa, ospe aundikoa ango literaturan. Federico Goetlieb Klopstock (1724-1803) beraren egillea. Liburu onek ogei kantu edo zati ditu. Leenengo irurak 1748-an argitaratu ziran; eta besteak, moldatu-alean. Obra osoa 1777-an agertu zan.

Euskeraz, berriz, bertso-paperak gai ontaz diotena alde bat utzita, bi idazlan gogoratzen zaizkit: bata, Juan Basurkoren *Jesus* (1954) liburuska, Kristoren bizitza eun da larogei ta bat bertsoan kontatzen duana; eta bestea, laburragoa, Manuel Lekuonaren *Iesu Aurraren bizitza, eresidun aur-poematxoa, bost kantetan*.

Sor Justina Aldalurren *Ama Birjiñaren bizitza*-ren itzaurrean beste liburu baten aitamena egin bearra zegoan, baiña pasa egin zitzaigun. Beraren berri orain eman dezagun, bada: Ama Birjiñaren bizitza badala, latinez eta bertsoan. Beraren egillea, Tenerifen jaio eta urrestildar baten semea zan Jose Antxieta dotsua degu (1533-1597).

Baiña, leen esan bezela, Jesusen bizitza sarrixeago jarriko zan bertsoan, munduaren an eta emengo izkuntzetan. Orren berri zeatza emateko, jakinduri aundiko gizona bearke litzake.

Eta Atañoak Jaunaren bizitza oien berri izango al zuan? Galdera au ere berari egin bearrekoa zan. Orain, berriz, gure us-tearekin konformatu bear. Eta gure iritzia ezezkoa da. Gai onetzaz ezer gutxi edo ezer ere etzuan jakingo gure fraile txiki arek. Bere osabaren Santa Jenobebaren bizitza txikitandik ezagutuko zuan, eta sail ortako bertsorik geienak, edo asko beintzat, buruz ikasiko zituan. Bertsolarien santu-bizitzaren batzuk ere irakurriak izango zituan. Eta gauza bera egitea bururatuko zitzaion, baiña gure Salbatzaillaren bizitza azalduz.

Asi eta segi, bere bakardadean. Komentuko zenbat lagunek jakingo zuten Anai Salbador ura bere gela-txokoan sartu eta zertan ari zan? Noizbait ere bukatu zuanean, aren lasaitasuna!

Baiña zenbat eunka egun eta zenbat millaka ordu pasa bearke zituan lantegi ontan? Jaungoikoak beste iñork etzuan ori jakingo; ez-ta Atañoak berak ere.

Ni gauza batek beti arritu nau: *Ataño* izenordez ezagutzen genduan fraile arek nundik ateratzen zuan denbora orrenbeste idazlan osatzeko? Dakigunez, baratza-lanak egiten zituan. Zer

egin orrek ordu asko eskatzen ditu, batez ere udara aldean. Atxurketan-eta ari zala, aren burua andik kanpora ibiliko zan: bolara artan esku artean zeukan liburuan, alegia, naiz bertsoa-koa eta naiz prosazkoa izan. Andik bere gelara bildutakoan, an-txe jardungo zan baratzan pentsatutakoak paperera ixurtzen. Jo-ko ori, berriz, egunero.

Bai omen dira urtean bi uzta eman oi dituzten lur emanko-rrak. Orrelakoxea genduan Ataño ere: bi uzta utzi zituana. Bata, baratzarena. Zenbat barazki eta fruta goxo jango ote zituzten be-re komentuko lagunak, arek landutakoak? Eta bestea, beraren li-buruak. Zenbat ordu zoriontsu pasa ote ditugu danok ere, aren euskera jator eta aberatsa irakurtzen? Bai; zeruak lurtarrei egin-dako opari bat izan oi dira Ataño bezelako gizon ixil eta langi-lleak.

Antonio Zavala

Jesusen bizitza

Itxaropena

1
Ixil-ixilik otoika negon
gurutze baten oñetan,
malko garratzak zetozkidala
joanaren oroipenetan.
Nere obenen erruki eske,
ikara biotz-muñetan,
izan ere gaur etorkizuna
illuna dakust benetan.

2
Joana oroitzuz geroko beldur,
biotza egiña zauri,
itxaropena ezin sorturik,
ain negon triste, urduri.
Uste gabeko goxotasun bat,
ezti-tanta bezin guri,
ixillunean pentsamentu au
Jainkoak zidan ixuri:

3
Zer ari zera kezka ta kezka,
sinismen gabeko aula?
Ez al dakizu zuregatik ni
gurutzean naukazula?
Oñazez egin banun orduan
au, zuk maite ez niñuzula,
zer ukatu gaur oñaze gabe
eta zuk maite nauzula?

Sarrera

4

Irutasuna: Aita, Semea,
Ats Deuna, iru pertsona;
Jainko bakarra, betikotasun
zorionsuan dagona.
Ez du iñoren bearrik baña
guretzako ain da ona,
geiagori zabaltzeagatik
gañez zeukan zoriona,
maitasun utsez ezerezetik
sortu zun Jaunak gizona.

5

Gizon gaixo au maitasun utsez
Jaunak beretzat egiña,
bere bidean galdu zan bein ta
berriz arkitu eziña.
Arrats beltz batek estali zion
len zeukan bide berdiña,
bizitz au illun, bestea illun,
non zebillen etzekiña,
zor genionak ordaindu zigun
egindako utsegiña.

6

Ordaindu nai ta zerekin gabe
betirako illunpetan,
zorionaren itxaropenik
gabe galdua, neketan.
Urte batzuak igaro ondoren
emen negarrez penetan,
oñazez bizi, oñazez il ta
gero beti oñazetan,
gizon aularen izaera bai
illuna zala benetan.

Illargi-izpi bat bezela iñoiz
argia txara barruan
zabaltzen zendun, itxaropena
piztuaz gizon galduan;
laxter etorko ziñala gugan
edukitzeko goguan,
urteen buru, egin giñunak
neurtutako orduan;
eguzki goxo, argi, eder bat,
zabaldu zigun munduan.

Egun berri bat sortu zitzaigun,
argitu zan gure txara,
maitasun berak lasaitu baizun
gizonen biotz-ikara.
Bide zuzen bat erakutsiaz
gure atsegin-kaiara,
ordain-saria eskura eman,
geroztik emendik ara
ate txiki bat zabalik dago
sartu nai duenik bada.

Eskari

Zure arnasez berotu zazu
nere barren otz au, Jauna,
argitu zazu maitasun-argiz
nere adimen illuna,
mingain aul ontan oparo jarri
itz goxo eta leguna.
Ez dakitenak jakin dezaten
kanta zagun maitasuna,
bere odolez gurutz batean
betiko eros giñuna.

Israel

Israel xarra, Jaunaren erri
berak aukeratu zuna,
errमतारren uztarripean
zapaldua ta illuna;
ainbeste milla urte aietan
zai noiz argitu eguna,
noiz azalduko ote zan Mesias,
Israelen osasuna,
ark ekarriko zion betiko
galdu zun askatasuna.

Eten gabeko otoi beroan
erri xarra eskalea,
besteren mende bizi nai ez ta
illun, atsegin gabea:
“Odeiak euri, goitik Zuzena,
gure pake emallea!
Lurra ereki ta sortu bedi
Mesias Salbatzallea!”.
Aspaldietan latza zan erri
txiki aren naigabea.

Jaungoikoaren agintzariak
bizirik zeuden goguan,
baña Israel goi-beak jota
zegen urrikal-moduan:
besteren mende, sinismen illa,
ia betiko galduan.
Askatasun ta itxaropena
urri zeduzkan orduan,
Jainkoak bete zizkigun bere
agintzariak munduan.

Zakarias

13

Judea aldean errege zegoen
Erodesen garaietan,
Zakarias zan ospe aundiko
apaiz bat ona benetan.
Elisabet zun bere emazte,
biak aurrera urtetan,
Jaunaren beldur ziranak biak,
zuzenak ar-emanetan,
baña semerik etzutelako
otoika ta naigabetan.

14

Intzientsoa ematea bein
tokatu zaion batean,
aingeru eder bat ikusi zun
txutik aldare gañean.
Itzegiteko etorria zan
Zakariasen galdean,
bere oñetan gure apaiza
estu, beldurrak aidean,
etzan lasaitu aingeru berak
itzegin zion artean.

15

“Ez ikaratu, ez, Zakarias,
lasaitu zure biotza,
gure Jainkoak aditu baidu
egin dezuten otoitza.
Berri pozgarri bat dakarkizut:
semetxo baten jaiotza,
bere sortzeak uxatuko du
zuen fameliko lotsa,
bera izango baida betiko
ama agor zanaren poza.

16

Jaio baño len gure Jainkoak
beteko du bere graziz,
Joan ipiñiko zaio izena
Jaungoikoaren eskariz.
Datorrenaren aintzindaria
bideak zabal eraziz,
Eliassen ats eta indarrez,
ontasun eta mirariz,
datorrenari bere bordara
ardi galduak ekarriz.

17

Ura besterik ez du edango,
basamortuko maiztarra,
bizitz latzean an biziko da
garai dan arte, bakarra.
Beti beregan edukiko du
Ats Santuaren indarra,
datorrenari antolatuaz
Judea aldeko baztarra,
bere abotsak alaituko du
Israelko erri xarra”.

18

“Nola jakingo det au egia
dala? Biok zarrak gera”.
“Gabriel nauzu, goi-aingerua;
zurri berri ematera
Jainkoak berak bialia naiz
bere ondotik lurrera;
baña sinist ez didazulako,
gaurtik asi ta aurrera
auek gertatzen diran bitarte
mutu geratuko zera”.

19

Luzetetsirik zegon jendea
Zakarias atera zai,
zer gertatzen zan ikasi gabe
etzuten bada aldegin nai.
Noizbait atera zan Zakarias
gor ta mutu, bañan alai;
gerta zitzaiona adirazteko
orduan etzan izan gai;
aingeruren bat ikusi zula,
ta jendea joan zan lasai.

20

Aurdun geratu zan Elisabet,
Zakarias berriz mutu,
zoriontsuak alare biak,
etziran asko estutu.
Bien biotzak benetan zitun
Jainko-maitasunak sutu,
esker emanez bost illabetez
ama egon zan ezkutu;
ixil-ixilik badaki gauzak
Jainkoak nola burutu.

Jesusen sortzea

21

Au pasa ta sei illabetera
Gabriel bera zan joana
Nazareteko erri txikira
neskatx gazte batengana,
bere lengusu gazte batekin
ezkontzeko itz emana,
neskatx garbi ta maitagarria
ta Maria zeritzana,
birjintasuna Jaungoikoari
eskeña zedukana.

22

Itzal aundi ta abots goxoan
gela ondoko atean:
“Agur, eskerrez betea –dio
aingeruak bat-batean–.
Jauna zurekin, bedeinkatua
emakumeen artean”.
Neskatx ederra ikaratu zan
agur ura entzutean,
bere esan naia ezin asmatuz
bere barrungo pakean.

23

“Jaunaren eder arki baidezu,
Maria, zaude lasairik,
seme on baten ama egingo
baizaitu, zedorrek nairik.
Datorren ura berbera, ez da
iristen ez dan garairik,
aren jaurgoak ez du izango
egundo bere amairik,
ez baida inoiz sortuko gaña
artuko dion etsairik”.

24

“Nola liteke ori? Ez baidet
nik gizonik ezagutzen”.
“Jaunak egingo du ori, Seme
duen ezkerro, ain txuxen.
Zure lengusu Isabel ere
ez du Jainkoak aztutzen:
legorra aurdun, gaur da seigarren
illabetera sartutzen;
eziñik ez du Alguztidunak,
badaki dana burutzen”.

25

“Ona Jaunaren mirabea ni
–dio, bildurik barrura,
dana ulertuz–. Gerta bekit zuk
dionunaren araura”.
Une berean goi-ingeruak
aldegin zuen zerura;
Jainkoa gizon egin zan, berriz,
maiteki jetxiz mundura,
bete du noizbait garai bateko
agintzari eder ura.

26

Une berean Jainkoak batu
ditu zerua ta lurra,
Jainkoa jetxi da sakonera,
gizonak jo du gallurra,
Maitetasunez gañezka zaigu
gizonen bizitz laburra.
Ezin kabitu bere lekuan
Amaren biotz xamurra,
lengusuari eman nai dio
bere zorion agurra.

Lengusuari bisita

27

Jaungoikoaren graziak ez du
iñoiz egiten atzera,
Ama gaztea ezin da egon
maitasunaren pozera,
izan ere gaur zeruko sua
sartu zaio biotzera.
Mendirik mendi badoa zauli
otz daudenak berotzera,
Jainkoak duan emandakotik
berak duan eskeintzera.

28

Jaungoikoaren barrun-bultzada
biotz-muñetan nabaitu,
bakar-bakarrrik mendirik mendi
Ama ezin da lasaitu.
arraisku txarrak, bide luzeak,
badaki nola garaitu.
Mariak bere lengusu maite
ura nai luke alaitu,
bitarte ortan berriz Jainkoak
Joan santutuko baitu.

29

Elisabetek entzun orduko
lengusuaren abotsa,
oraindik jaio gabea zegon
aurrak artu zuan poza.
Orduan gañez egin zitzaion
Elisabeti biotza,
bere Jaunaren Ama aurrean
zeukalako erdi lotsa,
Arnas Santuak argi eginta
igeriz ala diotsa:

30

“Bedeinkatua zera, Maria,
emakumeen artean,
bedeinkatua zure zitua
dakartzuna sabelean.
Nere Jaunaren Ama nigana?
Sartu orduko atean,
aurra jauzika asi zait pozez
agurrarekin batean,
zorioneko zuri esanak
apal-apal sinistean”.



22

Itzal aundi ta abots goxoan gela ondoko atean:
“Agur, eskerrez betea –dio aingeruak bat-batean–.
Jauna zurekin, bedeinkatua emakumeen artean”.
Neskatx ederra ikaratu zan agur ura entzutean,
bere esan naia ezin asmatuz bere barrungo pakean.

31

Mariak etzun asko usteko
ori gertatuko zanik;
bestea poztu nai zun, bererik
ezer esan gabetanik.
Aurrea artu zion berriz ark
agur eder bat emanik,
Maria berriz biotz gozoko
Ama maitea izanik,
etzula ezer erantzun zion
Jainkoarena etzanik.

32

Eta ondoren besoak jasoz
Mariak ala diotsa:
“Nere gogoak gorai patzen du
Jauna, ta nere biotza
jauzika dabil, Salbatzalleaz
gañezka baidauka poza,
jaso dulako bere mirabe
aul onen ezerez motza,
zorionekoa deituko dit
gizaldi danen abotsak.

33

Arrigarriak egin baiditu
nigan Jaungoiko laztanak,
aren izena santua baida,
eta aren beldur diranak
eten gabeko errukipean
edukiko ditu danak.
Erakuts ditu bere besoan
indar, kemen eta lanak,
agintedunak aulkitik jauziz,
zanpatuz arro ziranak.

34

Apalak jaso eta goseak
ase ditu bere ongiz,
aberats eta diruzaleak
utsikan biali berriz.
Morroi Israel beregan artu
beti gogoan edukiz,
asaba zarrei esan ziena
aspaldiko agintzariz,
Abraan eta bere ondokoak
zainduko zitula errukiz”.

35

Mariak ondo bazekin eder
egin zuela Aundiak,
arrokeririk batere gabe
kontatu zitun egiak.
Goikoagana jatorik zeuzkan
gogo, biotz ta begiak,
lengusu onak ziran ezker
besarkatu ziran biak,
noranai dala poza darama
Jaungoikoaren graziak.

36

Poza, pakea ta maitasuna
laguntzarekin batera
eraman zitun Mariak, bear
zitun fameli maitera.
Gauz auek danak gertatu ta andik
iru bat illabetera,
aurtxoa jaio zaneko joan zan
Maria Nazaretera,
ango zaratak utzita ixil
bere maiteen artera.

Joanen jaiotza

37

Eldu zitzaion Elisabeti
aur egiteko garaia,
semea jaio zuen, ori zan
emakume danen naia.
Zoriontzera inguratu zan
auzoko jende lasaia,
Jauna eskertuz, Jauna goratuz
igaro zuten alai,
zorioneko guraso on aiek
eskeñi zieten jaia.

38

Zakarias nai zioten jarri
izena billebaitzean.
“Ez; Joan du bere izena” zion
amak lenengo itzean.
“Joanen izenik daukanik ez da
ordea zuen etxean”.
Aita mutuak berdin idatzi
zuen ol bat ekartzean;
jende guzia alai zebillen
guraso on aien pozean.

39

Zakariasi bere mingaña
aska zitzaion orduan,
gure Jainkoa goraiapatuaz
arrigarritzko moduan.
Ari entzunik beldurak zegon
jendea bere onduan,
Judea aldeko auzo guzitan
zerabilkiten goguan,
“Nor ote dek au?” zioten danak,
Jauna arekin zeguan.

40

Zakariasi jetxi zitzaion
Jaungoikoaren Ats Deuna,
igarriz zion: “Bedeinkatua
Israelko Jainko Jauna,
maite dun erri xar au ikusi
ta birrerosi diguna.
Morroi Dabiden etxean sortu
digu indar-osasuna,
bere igerle santuen agoz
aspaldi agindu zuna.

41

Salbatzalle bat gure etsaien
menpetik ateratzeko,
eta gu iguintzen gaituztenen
eskutatik askatzeko,
gure aldera beti izan duan
errukia azaltzeko,
eta gurekin bein egin zuan
ongundeaz oroitzeko,
gure aita Abraani egin zion
zin artaz gogoratzeko.

42

Ala agindu baizion ari
Jaunak aspaldi batean,
askaturik lotuta geundenok
etsai gaiztoen katean,
beldurrik gabe mirabe egingo
geniola guk pakean,
zuzen ta santutasunez egun
guzitan bere aurrean.

43

Eta zu, aurtxo, Jaungoikoaren
igerle izango zera,
aren aurretik baizera joango
ari bide apaintzera,
erriari Salbatzallearen
berri ona ematera,
pekatu danak barkatuzeko
etorria dala bera.

44

Jaunaren biotz gozoak izan
dualako errukia,
eta erruki orri eskerrak
jaio zaigu eguzkia,
illunpetako eriotzpean
daudenentzako argia,
gizonen oñak pake-bidean
zuzendutzeko jarria”.

45

Jaio berriko otsak amaituz
geratu zan ixillean,
beste aurtxoan antzera aziz
bere etxeko epelean.
Urte gutxira ildurapera
Jordango ibai-ertzean,
ixil-ixil an ezkutatu zan
basamortuko pakean,
Espirituak bere lekura
deitzen zion bitartean.

Joseren kezka

46

Maria, Jose lengusu bati
ezkontzeko itz emanik,
aurdun arkitu zun onek, alkar
ezagutu gabetanik.
Gazte zuzena nola zan Jose
etzion eman nai penik,
salatuz beztu ain gutxi bere
andregaiaren izenik,
ixilka utzita aldegitza
pentsatu zuen azkenik.

47

Aingeru batek adierazita
sartu zitzaion buruan
Jaungoikoaren bitartez zala
miragarritzko moduan;
Jesus jartzeko izena, aundi
izango zala munduan.
Eta Maria kupirik gabe
artzeko bere onduan.
Kezka guziak joan zitzaizkion,
pozik artu zun orduan.

Belenera

48

Erromatarrak oitura zuten
mendekoak kontatzeko,
zenbat zituzten jakitearren
beren zergak botatzeko.
Agintzen zuten gizonezkoak
jaioterrira biltzeko,
nagusi zeuden agintariak
aien izenak artzeko,
amaika sendi txiro gaixori
ixtillu txarrak jartzeko.

49

Orduan ere bazebillen an
aorik ao murmurra,
agindu ori emana zala
jendeak bazun beldurra.
Zoritxarrean ala izaki,
etzan gertatu gezurra;
ta Josek ere bete bearra
aien agindu makurra,
Belen bidean jar ziran, ura
zuten aurrekoen lurra.

Jesusen jaiotza

50

Erri xar artan egiña zuten
beren ostatu-eskea;
bañan alperrik, etzuten lortu,
dana baizegon betea.
Aldameneko arkaitz batean
arki zuten aterpea,
biak ixil an kokatu ziran,
beartsuaren legea;
gau artan bertan antxe jaiο zan
Jaungoikoaren Semea.

51

Abere batzuk, Ama ta Jose,
etzateko lasto-pilla,
beste laguntzik gabe jaiο zan
mundura Jesus umilla
zulo batean; etzan etorri
guritasunaren billa.
Guraso on aien biotz minduan
bazegon negar ixilla,
gu salbatzera etorri zan ta
ixil iñork etzekilla.

52

Goibel xamarrak geratu ziran
Ama ta Jose arotza:
Jaungoikoaren Seme izan ta
bereak arrera otza.
Zulo batean eta negarrez
Jaungoiko baten jaiotza,
berak sor zuen mundura jetxi
gaixoa orren arrotza,
baña zeruak laxter zabaldu
zuen inguruan poza.

53

Jesus Aurtxoja jaiο zaneko,
zabalduz beren eguak,
alaitasuna zabaldu zuten
Jainkoaren aingeruak.
Zeru-abesti zoragarriak
bete zitun inguruak,
jaiο berria maite zuela
erakutsirik zeruak,
goibel zeudenak alaitu zitun
gau artako poz-giruak.

54

Negua, bañan artzai gaixoak
beti zegiten gaubela,
larre gorrian besten ardiak
txandan zaintzen zituztela.
Zeruko dizdiz-argitasunak
eguzki batek bezela
inguratuaz, izutu zitun
artzai maiteak orrela,
aingeru baten abots ederrak
lasaitu ere berela.

55

“Ez ikaratu, artzai maite oik,
entzun nere berri ona,
berri bikaña, erri xar oni
poza emango diona.
Jaio zaizute Salbatzallea,
bere ezaupideak ona:
ganbelan lasto gañean dago,
ura da Jainko-gizona,
Dabiden Seme, onen lekuan
erregetzako dagona”.

56

Aingeru oni beste samalda
aundi bat bildurik bertan,
inguru aiek beren abotsez
poztu zituzten benetan.
Ala zioten: “Ospea beti
Jaunari zeru goietan,
eta lurrean pakea bere
gogorako gizonetan”.
Polliki aituz kantu-ots onen
oiartzuna mendietan.

57

Aingeru-salla kanta-kantari
zeru goietara joanik,
artzai txintxoak laxterka joan
ziran alkarri esanik.
Jende garbi au Jainkoarentzat
maitagarria izanik,
esan bezela arkitu zuten
aurtxoa askan etzanik,
alai ta pozez biurtu ziran
laztantxo bana emanik.

58

Inguru aiek alaitu zitun
lenen aingeru-abotsak,
gero artzaiak agertu ziran,
aien irripar ta pozak!
Ainbestekorik etzuten uste
Ama ta Jose arotzak.
Eskutsik sartu baziran ere
zertako zitun bildotsak?
Bildots bezela askan zegonak
naiago zitun biotzak.

59

Josek pozturik; “Maria –dio–:
txiro jaio zaigu baña,
aingeru auek goratu dute
aur txiki au, alajaña!
Aztuta dagon mundu txar onek
gaur egin dion iraña,
artzai aleok eman diote
merezi zuen ordaña.
Bejondaiela! Ori da, ori,
ongi etorri bikaña!”

60

Mendi aietan kontatu zuten
artzaiak, beren pozean,
gau artan entzun ta ikusia,
lagunetara biltzean.
Danak arritu egiten ziran
artzaieiri aditzean,
zer kontatua izaten zuten,
kanpoan eta etxean.
Mariak berriz danak jasotzen
zitun bere biotzean.

61

Erdainketako eguna zuten
jaio ta zortzigarrena,
naiz bearturik etzeuden, bete
nai zuten lege zuzena.

Aurtxoari min eman bearra
Joserren biotzak pena,
ordu ortantxe jarri zioten
Aurrari Jesus izena,
aingeru batek alde z aurretik
adierazi ziena.

Aztiak

62

Jesus Aurtxoa seaskatikan
asi zan biotzak biltzen,
len artzai-salla bezela orain
aztiak zaizkan urbiltzen.
Jentil-erritik etorritako
gizonak pozez umiltzen,
belaunikatuz, intzentsu, urre ta
mirra dizkate eskeintzen
maitetasunez, Jainkoak ez du
indarkeririk ibiltzen.

63

Izarretako gora-beretan
omen ziran jakintsuak,
izar-kiñuren bat ikusi ta
arritu ziran maisuak.
Aztikeri ta sorginkeritan
nola baiziran itxuak,
ekaitz txarren bat zetorrelako
mendean zeuzkan izuak,
zer adirazi nai ote zuten
izar aien abisuak?

64

Gure Jainkoak ixuri zien
beren biotzen erdira,
Belen aldean sortu zanaren
maitasunezko dirdira.
Gure aztiak etziran jarri
komeni zaien begira,
pentsatzen egon gabe berela,
sinismenaren argira,
Persia aldetik Beleneraño
nekez egin zuten jira.

65

Jerusalenen sartu ziran ta
ango jendearen otza!
Aiek etzuten aintzakotz artzen
azti ero aien poza.
Erodegana jo zuten gero,
ain zuten leku arrotza;
adierazi zioten Aurtxo
Errege baten jaiotza;
ikaratu zan ondo-ondoraño
iltzalle aren biotza.

66

“Sortalde artan ikusi degu
izar baten dei alaia,
nonbaiten emen jaioa dala
juduen Erregegaia.
Gu danok bere ondoren gatoz,
badegu agurtu naia”.
Erodes berriz nola galduko
sortu berri zan etsaia,
irakasleak deitu ta jakin
arte etzegon lasaia.

67

Erri guzia dardaratu zan
 entzun zanean murmurra,
 errege lizun odol-zaleak
 ematen zien beldurra.
 Lege-maisuak etorri ziran,
 larri zebillen maltzurra:
 Judea aldeko Belen xaarra
 zala Mesiasen lurra
 erantzun zuten lege-gizonak,
 an jaioko zala Aurra.

68

“Belen, etzera zu txikiena,
 ortik dator buruziaia,
 zure semea izango baida
 Israeleko Artzaia”.
 Erodek deitu zitun aztiak:
 “Zoazte, arduraz saia;
 billatutzean esan, nik ere
 badaukat agurtu naia”.
 Bere ustetan aixa ilko zun
 seaskan bertan etsaia.

69

Erregeren itz auek entzunik
 aztiak beren bidean,
 jaio berria arkitzen ote
 zuten Belengo aldean.
 Lengo izarra bide-erakusle
 jarri zitzairen aurrean,
 ta estalpean bertan geratu
 bein iritxi ziranean,
 jaio berria an billatu zuten
 Amaren magal gañean.

70

Alaitu ziran gure aztiak,
 ase zitzairen biotza,
 belaunikatuz agurtu zuten
 Jaungoikoaren Bildotsa.
 Beren eskeñi ederrak egin,
 gañezka zeukaten poza.
 Orra Jainkoak ixilik nola
 deitu zuen arrotza,
 erakutsirik gizon danentzat
 zala Jesusen jaiotza.

71

Urrun artatik etorritako
 aztiak egun batzuek
 Belengo Aurtxoaren ondoan
 pasa zituzten goxuak.
 Jakiña, itzik ezin egin zun
 seaskan zegon Aurtxuak,
 baña sinismen-sua indartu
 zien Jaungoiko altsuak,
 etziran izan, ez, alperrikan
 eman zituzten pausuak.

72

Aingeru batek adierazita,
 nola Erodes maltzurra
 aien zai zegon berri jakin ta
 seaskan iltzeko Aurra,
 egin zioten maiteki Jesus
 Aurrari azken agurra;
 aoa bete ortzekin utziz
 gizon iltzalle lapurra,
 iges joan ziran; egin zioten
 merezi zun iruzurra.

Garbikundea

73

Moiseren lengo lege zarretan
zegon agindu emana
Jaungoikoari eskeñitzeko
lenengo semea zana.
Bi usakume ematen ziran
bere opari ordaña,
une berean garbitutzen zan
aurra izan zuen ama,
jetxi ziran ba uri santura
txintxo betetzera dana.

74

Garai aietan Jerusalemen
bazan gizon bat zuzena,
Jaungoikoaren beldurrekoa,
Simeon zeukan izena.
Otoilari ta sinismenduna,
bazeukan itxaropena;
bein Espiritu Santuak egin
omen zion aitormena:
Kristo ikusi arte etzuala
izango bere azkena.

75

Biozkada bat nabaitu zuen,
joan zan bada elizara,
elizan ordu batzuk igaro
nairik betiko gisara.
Senar-emazte batzuk aurrakin
sartu ziranean ara,
“Ona Kristoa!” dio bertatik,
ura zan biotz-ikara!
Jainkoak berak Salbatzallea
zekarkion eskutara.

76

Laxterka joan zan Simeon zarra,
naiz bera etzan apaiza,
arturik Jesus Aurra besoan
esan zun igerle-gisa:
“Eraman zazu, Jauna, morroi au,
bete zazu zure itza,
ikusi baidet Salbatzallea,
erri guzien bizitza,
erri guzien argi zuzena
eta Israelko aintza”.

77

Guraso on aiek arritzen ziran
entzunik aren abotsa,
Aurra besoan, Simeon zarrak
egiten zuan aitortza.
Jesus Aurtxoa noranai joanik
iñon ere etzan arrotza,
sartzen zan leku guzietara
zeraman pake ta poza;
orduan, goibel, Simeon zarrak
Amari ala diotsa:

78

“Israeleko gizon askontzat
oztopo da Aurtxo ori,
jasoko ditu eta bizia
emango die askori.
Besteak berriz galduko dira,
aurka egiñak erori;
berari aurka egingo zaion
ezaupide auxe tori:
ezpata batek alderik alde
pasako zaitu zerori”.

79

Emakume bat bazan xartua,
aspalditik alarguna,
izenez Ana, otoi, barau, lan
elizan egiten zuna.
Goraipatzen zun xar onek ere
an zegon Aurtxo kutuna,
zeturrenari adieraziz:
“Badator askatasuna.
Ona aurrean Salbatzallea,
goitik bialtzen zaiguna.

80

Eliz artako eginkizunak
bukatutakoan gora
pentsa ta pentsa iritxi ziran
etorri ziran txokora.
Entzundakoak zekarzkin beti
Mariak bere gogora,
oroimen beltzak ixuri ziran
Amaren biotz gozora,
etorriko zan xarrak esanak
beteko ziran denbora.

Ejitora

81

Alai ta pozik beren txokoan
bizi ziran gurasuak,
aien biotzak asetzen zitun
berekin zuten Aurtxuak.
Luzarorako pake ta onik
etzuten izan gaixuak,
uste gabean artu zituzten
abisu larri batzuak:
ain maite zuten Aurtxo il nai
zula Erodes paltsuak.

82

Aingeru batek dio Joseri:
“Artu Aurra Amarekin,
eta lenbailen zoaz igesi,
Ejito aldera aldegin,
Erodes dabil Aurra il nairik,
deitu arte an itxogin”.
Eztabaidaka etziran jardun:
agindu orduko egin,
“Semea deitu det Ejitotik”
igertze au bete zedin.

83

Erodesek bein jakin zunean
azti aien iruzurra,
asarretu zan, laxter artu zun
erabaki bat makurra:
bi urtez bera ziran mutillak
il erazteko, maltzurra;
aien artean erorko zala
erregegai zuten Aurra,
errugabeen odolez busti
zuen Beleneko lurra.

84

Jeremiasek urte luzeak
lenago zuen igarri:
“Raman aldean negar-zotinka
ai-otsa bada ugari.
Rakel gaixoa bere semetzaz
negar ta negar da ari,
erru gabeko seme asko il
dizkatelako berari,
illak diran ezkerero ez dio
leku eman nai pozari”.

Garbitu zitun erruki gabe
 Belen ta bere auzua;
 ustez Erodes erne zebillen,
 galdua zegon Aurtxua,
 bere gudari odol-zaleak
 ilko baizuten gaixua.
 Baña ernego zebillen Aurtxo
 onen Jaungoiko altsua,
 Aurrak aldegin ta gero joka
 leku onean, lausua.

Nazaretera

Erodes il ta aingeru batek
 “Zoaz –Joseri diotsa–,
 iritxi baida Aurtxoa galdu
 nai zutenen eriotza”.
 Aren semea zegon errege,
 kezka Joseren biotza;
 Galileako Nazaretera
 joan zan orduan arotza,
 ea irixten ote zun emen
 lasai bizitzeko poza.

Jesus galdu

Nazareteko uri xarrean
 Jesus zijoan azitzen,
 azi añean santutasun ta
 jakindurian argitzen,
 Joseren mende aroztegiko
 lan gogorretan ezitzen,
 txintxo egiñaz guraso maite
 aiek ziena agintzen.
 Askok bezela etzun ikasi
 alperkerian bizitzen.

Amabi urte zitueneko
 bikaña zetorren gaia,
 gazte paketsu ta biotzbera,
 lagunartean alaia,
 aren gañean zegoan Aita
 Jaungoikoaren naia.
 Betea zeukan uri santura
 jexteko adin-garaia,
 jetxi zan bada gurasoekin
 ospatzera Pazko-jaiia.

Etorri ziran irurak txuxen
 oitura zuten bezela
 eliz santura, Jesus gaztea
 aldamenean zutela.
 Jaiak bukatu ziran orduko
 guraso on aiek berela
 erritarrekin etxe aldera,
 elkar lagunduz orrela;
 Jesus gaztea an geratu zan
 aita-amak etzekitela.

Beren sallean etzetorrela
 jakin zuten beranduan,
 uri santura biurtu ziran
 naigabeturik orduan.
 Eliz barruan arkitu zuten
 iru egunen buruan,
 patxaran galde-erantzuneka
 jakintsu baten moduan,
 bere galderez lilluraturik
 zeuzkan apaizen onduan.

91

Arritu ziran aita-amak ere
 Jesus ala ikusita,
 Ama minduak samintasunez
 ixil ezin edukita:
 “Seme, zergatik egin dezau au
 gu naigabetan utzita?”.
 Jesusek ala erantzun zien
 aita-amak lasaitu naita:
 “Zergatik nere billa, Aitaren
 borondatea au baita?”.

92

Auek etzuten ezer ulertu;
 alare Jesus laztana
 aien ondoan Nazaretera
 joan zan umil ta otxana.
 Bere ordua zetorren arte
 aien mendeko etzana,
 taller batean egiten zuen
 Joserren ondoan lana,
 Mariak berriz biotz barruan
 ausnartzen zuen au dana.

Bataiatzallea

93

Jaunak itxiaz taller txikia
 utzi du bere txokua,
 gazte bikaña, Jaunaren Atsak
 bultzata plazara dua.
 Jende apalak maitatuko du,
 aundizkiak gorrotua;
 alare nunai zabalduko du
 dakarren zeru-jaurgua,
 Mesias dala erakusteko
 etorri zaio ordua.

94

Basamortutik badatoz oiuz
 eta deadar gogorrek:
 “Garbi Jaunari bere bideak,
 zuzendu bide txigorrek.
 Amiltegi ta muño ta mendi
 biurtu bitez alorrek,
 malkar diranak ordekatu ta
 berdindu berriz tontorrek,
 Jainko-osasuna ikusiko du
 orduan gizon ilkorrek”.

95

Jordan ondoan ari da oiuz
 sasoi oneko gizona,
 kamellu-larru barruz kanpora
 erdi jantzirik dagona.
 Ille ta bizar dana nasia,
 basamortuan egona,
 otoi ta barau, exur ta larru,
 baña sua zeriona,
 datorrenaren aintzindaria
 dala omen dabil sona.

96

Iztarrez bera larru gorririk,
 oñuts, gorputzez seralla,
 sasoi oneko gizon bikaña
 naiz ta iduriz zarpalla.
 Bizkar gañean bera ixuriz
 buruko ille parpalla,
 juduen apaiz baten semea,
 gorenko giza-malla.
 Jordan ondoan arek daraman
 bizi-modu latz ta zalla.

97

Urte luzetan eraman baidu
ildurazko bizitz latza:
ura edari, janari berriz
mendi-larrepot garratza,
arrote bizi da orain berez
izan arren aberatsa.
Aita Jainkoak aren baitara
ixuri du bere Atsa,
orrela molda dezaion ondo
datorrenari baratza.

98

Jerusalen ta Judea aldetik
entzun da bere abotsa,
aberats, txiro, danak zekarten
ura ikusteko poza.
Jordan aldean entzunik aren
itzaldi sutsu, zorrotza,
damutasunez samurtutzen zan
an zebiltzanen biotza,
an eta emen zabaldu zuten
Mesias ote zan otsa.

99

Bataio-eske zijoaztenak
asko ziran jakintsuak,
aien artean saduketarrak,
farisau eta maisuak,
Aita Abranen seme zirala
arroputz eta itxuak.
Basamortuko aintzindariak
danak zitun berdintsuak,
zorrotzak eta minkorrek ziran
beti aren abisuak.

100

“Abranen seme gera gu eta
iñoiz umezurtz ez gera
esanaz, gora buruak jasoz
arro zatozte onera.
Subekumeak, damu zaitezte
erri txearen antzera!
Noiznai sortuko dizkio, gure
Jainkoak nai izatera,
aurreko arri-pillatik ere
Abrani seme-aukera!”.

101

Jordan ertzean jendea gora-
-beran zebillen ugari,
barkazioa iritxi nairik
bataio baten eskari.
Bataio ondoren danei zien:
“Asko dunak ez dunari
eman bezaio kupirik gabe,
naiz soñeko, naiz janari,
damutasunez eta otoitzez
biotza jasoz Jaunari”.

102

Zergalariak ere urbiltzen
zaizkion bataio-eske,
etziran auek ere itzultzen
Bautistari galdetzeke:
“Aizu, maisua, zergalariok
nola santutu giñezke?”.
“Erritarreiri zuzen eskatuz
jarritakoa ainbeste,
orrekin beste lapurretariok
gabe konforma zaitezte”.

103

Guda-mutillak ere urbiltzen
zitzazkion an laxterka,
barkazioa irixteko zer
egingo zuten galdezka.
“Txarrik ez egin; emana baño
sari geiago ez eska”.
Urduri gora-beran jendea,
bazuten geienak kezka,
bataiatzalle arek ere bai
aolku onak gañezka.

104

Aspaldi galdu zuten juduak
aberi-askatasuna,
illun xamarra ikusten zuten
geienak etorkizuna.
Beti zai zeuden noiz argituko
zeturrenaren eguna,
itxaropena galtzen zijoan,
azkena etzun urruna,
baldin ez bazun aurki bialtzen
Jaungoikoak osasuna.

105

Juduak ongi zekiten, beren
Mesias zetorreanean,
bataio-lege baten bitartez
asiko zala lanean.
Mesias ote? Zalantzan zeuden
au ikusi zutenean,
erri-maisuak urbildu ziran
beregana zuzenean:
esateko nor zan bera garbi
Jainkoaren izenean.

106


Danen aurrean umil ta egiz:
“Ez naiz Mesias –diotsa–.
Besterik ez naiz: basamortuko
aitormenaren abotsa;
lotan daudenak esnarazteko
dabilen oiurorrotza;
kendu obenak, egin ildura,
jaso Jaunagan biotza;
nere ondoren laxter badator
Israel xarreko poza.

107

Urez bakarrik bataiatzen det,
baña oraindik ez etsi:
nere ondoren dator bestea
laxter bigar edo etzi.
Ark espirituz bataiatuko
du, danak argan sinetsi;
arek badaki antxumetatik
ardiak nola berexi;
oñetakoak ari kentzea
ere ez nuke merezi.

108

Aizkora zugaitz-erroan dauka
frutu gabea mozteko,
zitu ematen ez dun bakar bat
ere txutik ez uzteko.
Sardea bere eskutan dauka
gari-pilla garbitzeko,
aizatuko du gari-alea
alkotzetik berexteko,
garia bere mandiorako
eta alkozta erretzeko”.



58

Inguru aiek alaitu zitun lenen aingeru-abotsak,
gero artzaiak agertu ziran, aien irripar ta pozak!
Ainbestekorik etzuten uste Ama ta Jose arotzak.
Eskutsik sartu baziran ere zertako zitun bildotsak?
Bildots bezela askan zegonak naiago zitun biotzak.

Jesusen bataioa

109

Egun batean jende artetik,
ixilik, aldapak bera,
ille luzedun, txukun jantzia,
ortxe amaikak aldera,
gizaseme bat, eder, bikaña,
jetxi zan Jordan ertzera.
Ara-onera zebillen ango
jendearekin batera,
Jordan ibaira zetorren Joanen
eskutik bataiatzera.

110

Urrundik ikus zuen patxaran
Joanek ixil zetorrela,
beste edozein gazteren gisa,
pekatari bat bezela.
Ats Santuaren argiz Bautistak
ezagutu zun berela,
bi lengusuak an aurrez aurre
ibai-ertzean zeudela,
eta Jesusek Joanen eskutik
bataiatu nai zuela.

111

Alkarrengandik berex biziak
etziran ikusten sarri,
beren agurrak egin ondoren
bi lengusuak alkarri,
Joanek berela aipatu zion,
kezkati xamar ta larri:
“Zuk bataiatu bear ni ta Zu
nik bataiatzeko jarri?”.
Jesusek ala erantzun zion
apal-apal maitagarri:

112

“Utzi zaiozu gaurkoan orri,
etzaite jarri urduri,
nere Aitak ni bataiatzea
agintzen baidizu zuri,
zuzen dagona betetzea gaur
komeni zaiguna guri”.
Urean sartu zan apal-apal
pekatarien iduri,
besteen gisa burutik bera
ura zitzaion ixuri.

113

Joanek ikusi zuen orduan
zabaltzen zero urdiña,
une artantxe nola jetxi zan
zerutik uso ariña;
Jesusen buru gañean nola
egin zuen itxogiña;
berela entzun zuen abots bat
bere Aitak itzegiña:
“Zu zera nere Seme maitea,
Zugan daukat atsegiña”.

Jesusen baraua

114

Aitak egin zun bataio artan
Semearen aitorrera,
an bataiatzen zan ura nor zan
eman zuen aditzera.
Mesias bezela azaldu baño
len jendearen aurrera,
Espirituak ezkutatu zun
andik basa-bazterrera,
basamortuan berrogei egun
ta gau barau egitera.

115

Berrogei egun aietan etzun
zer txikienik ere jan,
basamortuan basa-piztikin
otoi ta barau bizi zan.
Barau luze au bukatzerako,
Jesus gosetu egin zan,
zirikatzeke ordu onen zai
deabruak an zebiltzan,
ekin zioten bada lanean
ikasiak zeuden gisan.

116

Urbil zitzaion zirikatzaile
deabrua, zai zegona:
“Jainko-Semea baaiz ogitu
itzik arri auek, ona!”,
ondo zekin ta gose zegola,
luze baraurik egona.
Jesusek ala erantzun: “Au dek
idatzietan dagona:
ogiz ez-ezik, Jaunaren itzez
ere bizi dek gizona”.

117

Basamortutik Jesus aidatuz,
une gutxiren buruan,
demoniñoak eraman zuen
arrigarritzko moduan
Jerusalengo eliz gañera,
arturik bere eguan.
Txutik utzi zun goitik begira
bere kroskaren onduan,
aldamenean maltzur jarrita
eskatu zion orduan:

118

“Jainko-Semea baaiz jauzi zak,
ala zegok idatzirik:
aingeru batzuk dauzkala Jaunak
bidean zai-zai jarririk.
Bera oala jasoko aute
beren besotan eutsirik,
erorikoan ez dezan ire
oñak ukuitu arririk”.
“Idatzirik zegok ere ez egin
Jainkoari tentaldirik”.

119

Orduan mendi aundi batera
eraman zuen aidean,
ludi ontako aunditasunak
aurrera azalduz batean:
“Ori nerea dek eta dana
zedukat nere mendean;
dana emango dit baldin emen,
umilki, nere aurrean,
oraintxe bertan agurtzen banauk
auspez etzanik lurtean”.

120

Jesusek ala erantzun zion
asarre xamar ta sutsu:
“Laga pakean! Satanas, nere
ondotik utikan usu!
Idazkietan zegok: “Jainkoa
bakarrik gurtuko duzu”.
Satanek iges egin zuen ta
aingeruak zitun auzu,
bertan serbituz aiek mirabe
zegioten zoriontsu.

Joanen aitorrera

121

Asieran bazan Itza, Jainko,
ta Jainkoagan zan Itza,
onen bidez zan zan dana, onen
bidez gauz danen egintza.
Sortu zun dana, bizitz beregan
gizonen argi-bizitza,
argiak berriz illunpe ontan
egiten zuen dizditza,
bañan illuna, ezagutzeke,
geratu zan lengo gisa.

122

Izan zan gizon bat Jaungoikoak
bialia, Joan izena:
Jordan ertzean bataiatutzen
zuen bat, santu, zuzena;
illunpe artan argi-dizditz au
ezagutuko zuena,
besterik gabe onen aitormen
ematera zetorrena,
bañan etzan au argia, baizik
argiaren aitormena.

123

Iritxi zaigun aspaldidanik
eskeñitako argia,
mundu ontako gizon guziak
argitzera etorria.
Gure artean zegon dizdizka
guk ikusteko jarria,
aren bidez zan egin mundu au
eta sortu zan guzia,
munduak etzun artu nai izan
arek zekarren berria.

124

Bereetara etorri zan ta
etzuten artu nai danak,
illunpe artan geratu ziran
ezagutzeke geienak.
Bere semetzat berexi zitun
gure Jaungoiko zuzenak,
ez aragi ta odol, gizonen
gogotatik datozenak,
bai ordea ura onartu ta
argan sinisten dutenak.

125

Gure artean bizi izan zan
aragi egiña Itza,
gerok ikusi degu gurekin
eraman zuen bizitza.
Aitaren Seme bakar danari
tokatutzen zaion gisa,
ikusi degu grazi ta egiz
betetako bere aintza,
Jordan ertzean aren aitormen
dagi Joanek, argan mintza:

126

“Nere ondoren datorren ori
nere gañetik jarri da,
ni sortu baño askoz lenago
etorri baizan bizira.
Aren betetasunetik gabiltz
danok grazitik grazira,
Moiseren bidez etorri zaigun
legea judu-errira,
bañan grazia eta egia
Jesukristorenak dira”.

127

Erri-maisuak etorri ziran
Joanengan ibai-ertzero:
Jerusalengo zenbait apaiz ta
lebitak galdegitera.
Danen aurrean galde zioten
apaiz auek: “Zu nor zera?”.
Joanek egia garbi esan zun,
etzuen egin atzera,
ona non dagon orduan arek
egindako aitorrera.

128

“Ni ez naiz Kristo” erantzun zien.
“Elias al zaitugu zu?”.
“Ez naiz Elias”. “Igerleren bat?”.
“Ez”. “Mesedez esaiguzu.
Apaizengana joan bear degu
zure erantzunakin usu,
ortarakoxe andik onera
bialiak baigaituzu”.
Erri-maisuak jakin nai zuten.
“Zuk nor zerala diozu?”.

129

Esan zien ni naiz Isaias
profetak iger zuana:
basamortutik datorren abots,
oiu biziz ari dana.
Apain bideak datorrenari,
eskeñi biotz otxana”.
Mandatariak parisaitarrak
ziran ixil Joanengana
bialiak, zer zan jakin nairik
Jordanen gertatzen zana.

130

Parisaitarrak maltzurak ziran,
itxuraz gizon zuzenak,
baña itzuraz bakarrik onak,
biotzez aizun geienak;
maisu ordeko erriko buru,
lege zaitzalle zeudenak,
gaizkigilleak zigortzeko're
eskubidea zutenak,
eta berriro asarre xamar
galdegin zioten denak:

131

“Zergatik ari zera orduan
bataiatzeko lanetan,
ez Kristo ta ez igerle ez ba-
zera, diozun itzetan?”.
“Urez zaituztet bataiatzen nik,
beste bat bizi da bertan,
nere ondoren etorria, ni
baño aundigo danetan;
oñetakoak kentzeko ere
aren din ez naiz ezertan”.

132

Biamonez ikusi zuen,
Joanek artu zuen poza!
Bere ondora urbil baño len
pozez gañezka biotza.
Guziak ondo entzun zezaten
jasorik bere abotsa,
ondokoeiri argi ta garbi
zalantzik gabe diotsa:
“Ora or gure obenak kentzen
ditun Jaungoiko-bildotsa!

133

Esan nizuten lenago ere
 ta berriz nai nuke aitor:
 ni baño askoz aundigoko ta
 lenagokoa bada or.
 Illunpe oek argitu ditzan
 nere ondoren badator,
 orregatik ni bataiatzera
 Ats Deunak bultzata nator,
 Israel erri xar oni ori
 ezagurazteko jator”.

134

Beste batean ere egin zun
 Joanek beste aitorrera:
 “Ezagutzen ez nun bat etorri
 zitzaidan ibai-ertzeraz.
 Ura ixuri nioneko nik
 polliki burutik bera,
 ikusi nuen uso txuri bat
 jetxitzen buru gañera,
 bataiatzera bial niñunak
 esan zidan nor zan bera.

135

Auxe zan neri Espirituak
 nere baitara esana:
 ‘Jexten ikusten dezunean zuk
 uso txuri bat argana,
 ura bera da Jaunaren Atsez
 bataiatuko duana’.
 Nere begikin ikusia det
 gertatutzen ori dana,
 ta egiz aitor dagit: Ura da
 Jaunaren Seme laztana”.

Ikasleak

136

Jesus aстера zijoan Aitak
 agindutako lanean,
 orretarako ikasle batzuk
 nai zitun aldamenean;
 eskolatuaz aiek berekin
 zebiltzan leku danean,
 bere lekuko utziko zitun
 emendik joaten zanean;
 ikasle billa zebillen bada
 Jesus biaramonean.

137

Bi ikaslekin zegon Bautista
 bere betiko moduan,
 Jesus ibilkai ikusi zuen
 Jordango ibai onduan:
 “Orra or Jainkoaren bildotsa
 pake-pakean non duan”
 esan zunean, bi ikasle aiek
 ondo ar zuten goguan,
 Joanen aolkuz bere ondoren
 jarraitu zuten orduan.

138

Jesusek bere ondoren aiek
 ikusirik zetozela:
 “Zer nai dezute?” galdetu zien.
 Aiek erantzun berela:
 “Maisu, non bizi zera?”. “Atozte,
 ikusi nere etxe, gela”.
 Egun guzia an igaro zuten
 Maisuarekin orrela,
 andik aurrera bera artu zuten
 beren Maisua bezela.

139

Andres Pedroren anaia zan bat
joana Jesusen etxera,
orrek urrengo goizean dakar
Pedro berekin batera.
Ikusi zezan eraman zuen
maisu onaren aurrera,
ager zuneko zion Maisuak,
maitasunez, biotz bera:
“Zu Simon zera. Jonaren seme;
Arkaitza deituko zera”.

140

Abiatu zan Galileara
Jesus urrengo goizean,
iru ikasle aiek berekin
zitula, pake-pakean.
Baña betsaidar Pillipe ere
arkitu zuen bidean,
“Jarrai zadazu” esan zion ta
beste iruen sallean,
au ere sartu zan laugarrena
apostoluen artean.

141

Pillipek berriz egunetara
Natanael ikusita:
“Igerle xarrak aspaldi ontan
zeukatena igerrita
arki diagu: nazaretarra;
Jesus dek, Jose dik aita”.
“Nazaretarra? Onik letorrek
andik? Erri txar bat baita”.
Pelipek esan zion: “Edorrek
ikusitako etorrita”.

142

Au zer ikusi urbil zan ara.
Nor zan olako gizona,
jende askoren esamesetan
Mesiasetzat zegona?
Egia izan ote ziteken
lagun Pelipek ziona:
Nazaretetik erten zeikela
balio zun zerbait ona?
Laxter emango zion antz arek
egia zan edo sona.

143

Jesusek ikus zuneko sartzen
Natanael, txit tentea,
esan zun: “Ona israeldar bat
maltzurkeririk gabea”.
“Nola dakizu?”. “Pikope artan
ikus ziñudan gordea”.
Entzun orduko Natanaelek,
dio biziro betea:
“Zu zera Jainko-Seme, zu zera
Israelko erregea”.

144

“Sinisten dezu pikope artan
nik ikusi ziñudala
esanta? Jakin aundiangoak
ikustekotan zerala;
Arrigarriak pasako dira
egunak igaro ala,
ikusiko baidezu egitan
zeru-atea zabala,
ta aingeruak Kristorengana
jetxi ta igo dabilzala”.

Kanako eztaiak

145

Jesusen sona gora zijoan,
etzan besterik entzuten:
bere ikasle-salla ondoren
Judea xarra ikusten.
Ikasle aiek berriz bazterrak
ondo astintzen zituzten,
onek sartzen zan lekuan poza
besterik etzuen uzten,
Kanako eztaietara ere
bein batean deitu zuten.

146

Bere aideak omen zirala,
an zan beintzat bere Ama,
Jesus artara deitzea ere
omen zala onen lana.
An sartu ziran bada Jesus ta
ikasle-sall ura dana;
ezkonberriak txiro xamarrek,
ezer gutxi eramana;
uste gabeko jendetza berriz,
bazan nork jan ta erana.

147

Erdi etzanik an ari ziran
—ala zan orduko oitura—,
jan ta erana eskurik esku
ausarki gaurko modura.
Jesusen Amak begirutzen zun
urduritsu ingurura,
igerri zuen ezkonberrien
larritasun ta tristura,
bere baitako pentsatzen zegon
zergatik ote zan ura.

148

Ikusten zitun ara-onera
batzuen joan-etorriak,
ezkonberrien aide xamarrek,
kezka txarretan jarriak.
Ezer oartu gabe jan da jan
ango bazkaldar guziak;
iñori ezer galdetu gabe
erne Amaren begiak,
laxter jakin zun zergatik zeuden
ain goibel ezkonberriak.

149

Eztai erdian zeuden oraindik,
ardoa zan palta zana,
iñor ez bazan oartu ere
bai aguro asko Ama,
aren lekuan maxiaketan
norbait ibilliko zana.
Ixil-ixilik an urbildu zan
bere Semearengana,
Mariak ondo bai-baizekin Ark
konponduko zula dana.

150

Aopekotan belarrondora
Jesusi ala diotsa:
“Seme, ardorik ez dute auek.
Artu bear duten lotsa!
Erru geienak nereak dira
deituz ainbeste arrotza”.
“Guri zer? Ez da nere ordua”.
Ustez erantzun zorrotza,
iritzi berekoa ordea
etzan Amaren biotza.

151

Laxter asi zan Ama baietza
eman balio bezela,
ixilik, iñor oartu gabe,
bere lanean berela.
Morroiak deitu zitun ondora:
Jesusgan joan zitezela,
Arek agintzen zien guzia
txintxo egin zezatela,
egun tristea izango zuten
ezkonberriak bestela.

152

“Bete –agindu zien Jesusek–
urez pitxar-pil au dana”.
Sei pitxar ziran, arriz egiñak;
neurritz ortxe: karga bana.
Morroiak egin zuten berela
txintxo Jesusen esana,
onetsi zitun pitxar guziak
ardotuaz ura zana,
eta: “Eraman orain ortik mai-
buru dagonarengana”.

152

Onek murtxatu zuen, ezpañak
milixkatuz zoriontsu,
ezkonberriak ixilik deituz
nola zegon beren auzu,
au esan zion: “Bejondeizula!
Zuk egin duzu burutsu:
besteak ona dakarte lenen,
zuk txarrena atera duzu.
Jakin gentzake: ardo bikain au
nondik atera diguzu?”.

154

Ardo bikaña zala ura ta
arriturik mai-burua,
serbitzariak ondo zekiten
nondik ekarri zan ua:
nola Maisuak bedeinkatuaz
urez egin zun ardua.
Jesusek esan zunez oraindik
ez bazan bere ordua,
ezkonberriak pozteko Amak
asmatu zuen modua.

155

Au izan zan Jaunak egin zuen
mirarietan lenena,
garai baño len bere Amaren
eskariz egin zuena.
Benetan poztu zuen biotza
bi ezkonberri aiena,
bere ospea zabaldu zuten
Judea aldeak barrena,
eta osoro indartu ere
ikasleen sinismena.

156

Gero Ama ta aidereen batzuk
ikasleekin batera
eztaiak amai ondoren jetxi
ziran Kafarnaunera,
alkarrekin an danak pakean
egun batzuk pasatzera.
Etzan alperrik egon zalea:
egun gutxira atzera,
Pazko-eguna zala-ta, laxter
joan zan Jerusalemenera.

Pazkotan

157

Jerusalengo jauretxe xarra
Maisuak maite zuana,
tratalari ta diru-trukallez
betea zeukaten dana.
Azoka zala zirudin, ango
jendearen ar-emana;
aren aurrean asarretu zan
Maisua, berez otxana;
zigor batekin eraso zien,
laxter bukatu're lana.

158

Etzan giro an: zigor bat artuz
Jesus asarre ta zauli,
diruz gañezka zeuden mai danak
goikoz azpira irauli.
Ango deadar, ango karraxi,
ango uso, diru, euli!
Danak igesi, etzuen iñork
bururik ere itzuli;
bai astindu're bizkarra zenbait
diru-maitale ganduli.

159

“Kendu au dana! Nere Aitaren
etxean ez egin peri,
Aitaren etxeganako garrak
su ematen baidit neri!
Lapur-zulo bat egin dezute,
ainbat diruzalekeri!”
An bazebiltzan inguru artan
begiraka ainbat begi,
eliz artako Jesusen lanak
mindu zitunak geiegi.

160

Ixil-ixilik, maltzur, zearka
urbil zitzaion Jesusi:
“Eliz au egin zanetik ez da
orrelakorik ikusi.
Iñoren berri gabe orrela
emen egiteko auzi,
nork izendatu zaitu maisua?
Nork jarri gure nagusi?
Eskubiderik bai ote dezun
ez diguzu erakutsi?”.

161

Jesusek ala erantzun zion
zegon lekutik berela:
“Bota etxe au, iru egunez
jarriko det len bezela”.
“Alajainkia! Berrogei ta sei
urte pasa zituztela
jasotzen, ta zuk iru egunez
goratuko zendukela?
Zu maisu ona zerala baña
bota diguzu epela!”.

162

Diruzalea izan da beti
juduen biotz murrizta,
azaldu berri aren kontuak
sinisteko piakaitza.
Orduan Jesus bere gorputzez
bakarrik zitzaien mintza,
baizekin laxter aien eskutan
utziko zula bizitza;
ikasleak, bai, piztutakoan
uler zuten aren itza.

163

Etzuen galdu alperkerian
Jerusalengo egona,
mirari asko egin zituen,
zabaldu zan bere sona.
Jende asko omen zebillela
sinist-itxuran zegona,
soma aundiko igerlea zan,
etzan piatzen Jaun ona,
guk ez bezela ezagutzen zun
nolakoa zan gizona.

Kristo ta Nikodemo

164

Simeon xarrak esan zuena
orain asi da betetzen:
ari dira asko etorritako
argiari begiratzen,
askok oztopo eta aurka, ez
dute biderik billatzen;
Jesusengatik Israeleko
artalde xarra banatzen.

165

Parisaitarrak ziran Israel
erria zeramatenak,
aietan ere baziran noski
oraindik gizon zuzenak;
bañan aberats zur egoskorrak,
lizun xamarrak geienak,
Jesusen lana etzun ikusten
ondo aien sinismenak.

166

Itxuraz onak ziran, biotzez
berriz maltzur ta aizunak,
erri guzia lerdekatua,
berak nagusi ta jaunak;
aien bidetik jo bearko zun
aiekin konpon nai zunak,
argi geiegiz itxutu ziran
beren barrunbe illunak.

167

Etzuten Jesus iñoiz maitatu,
beti gañetik eztula;
grña gaizto ta diruz gañezka
beren sinismena aula.
Danok dakigu Jesusek itzez
asko zigortu zitula;
etsai maltzurak zitun, etzuten
gogozko izan sekula.

168

Oietako bat zan Nikodemo,
izen aundiko gizona,
maltzur xamarra izanagatik
besteen ondoan ona;
Jesusen lan ta mirariakin
arritu xamar zegona,
esanak esan, gabaz bederen
ixil urbil zitzaiona.

169

“Maisua –esan zion benetan–,
Jainkoak gabon dizula,
badakit ondo Israeleko
irakasle zaitugula.
Igertzen diot Jainkoa ere
adiskide daukazula,
bestela etziñuzke mirari
oiek egingo sekula”.

170

Jesusek ala erantzun zion,
maitetasunez beterik:
“Egi-egitan esaten dizut,
ez dago beste biderik,
lenago jaio zanak berriro
jaio bearra besterik;
ez dauka bestela Jainkoaren
erreinua ikusterik”.

171

Arritu zan oso Nikodemo
Jesusen itzak entzunik:
“Zartu ta gero nolatan jaio
liteke berriz gizonik?
Ikustezkeroz datorren zure
erreinuko osasunik,
amaren sabelera berriro
sartu bear ote dut nik?”.

172

Jesusak ala erantzun zion
jasorik bere mintzura:
“Benetan egiz ari natzaizu,
ez det egiten itxura.
Berriro ur ta espiritutik
jaiotzen etzaigun ura,
ezin liteke egundo sartu
Jainkoaren erreinura.

173

Aragitikan sortutzen danak
aragi-joerak ditu,
Espiritutik datorren ura
berriz beti Espiritu.
Berriro jaio bear dezula
esan badet, ez arritu;
dakigunetik esanda ere
ezin dezute sinistu.

174

Aizeak ere nonaitik jotzen
du, nonaitik bultza egin;
otsa entzun bai, nondikan nora
dijoan ikusi ezin.
Egiz diotzut: sinist nazazu
emen ere berdin-berdin
gertatzen dala, Espiritutik
sortzen dan edozeñekin”.

175

Txunditurik zegon Nikodemo,
berak etzekin ainbeste,
ezin ulertu zuen entzuna
eta argitasun eske.
Ezin ixildu zeiken berriro
Maisuari galdetzeke:
“Baña, Maisua, gauz oek danak
nola gertatu litezke?”

176

“Nola gertatu litezke gauzok
–Nikodemok dio–, Maisu?”.
“Israelen zu irakasle ta
gauz auek ez dakizkizu?
Bene-benetan esaten dizut
ez gabiltzala gu itxu;
dakigunetik itzegitera,
Nikodemo, natorkizu.

177

Lurreko gauzak kontatuz ezin
sinistu badituzute,
zeru goikoak esanta nola
sinistuko didazute?
Giza-Semea ezik zerura
iñor joan danik ez uste;
aren begiak, bai, Jainkoa dan
bezela ikusi dute.

178

Moisek subea goratu zuen
gisa basa-bazterrean,
Giza-Semea ere goratu
bear dute indarrean,
sinisten duten danak salbatu
ditezen aren aurrean;
Jainkoak ez du bakar bat ere
ondatzerik nai lurrean.

179

Ainbesteraño Zeruko Aitak
ludi au maite izan du,
salbatu dezan maiteki bere
Seme bakarra eman du.
Argan sinisten duen alerik
ere ez dedilla galdu,
eta betiko bizia izan
dezaten danak opa du.

180

Bere Semea ez du biali
gizadi au gaitzestera,
baña bai bere bitartez emen
galdu dana salbatzera.
Sinisten dunik ez da galduko,
sinisgabea, ostera,
Jainko-Semean sinisten ez dun
ezkero galtzen da bera.

181

Eta, jakiña, Giza-Semeaz
sinisten ez dun guzia,
iñork gaitzetsi bearrik ez du,
berez dago gaitzetsia.
Ortantxe dago sinisgabeen
epaiketaren auzia:
ez dutela ar nai izan Jainkoak
bialitako argia.

182

Argia baño naiago dute
gizon batzuek illuna,
egundo ez da argizale izan
txarrak egiten dituna.
Egizaleak berriz benetan
maite du argi-eguna,
bere lanetan ageri baida
Jainkoaren maitasuna”.

183

Ez dakit ondo ulertuko zun
parisai onek entzuna,
baña etzala nolanaikoa
Jainkoaren maitasuna.
Gurutzetuta au il zanean
zabaldu zaion eguna,
Arimateak Nikodemo zun
Jesus jetxitzen laguna.

Kristo Judean

184

Judea aldera joan zan Jesus,
ikasle-salla berekin,
ibai-ertz artan bataiatzeko
lanari zioten ekin.
Inguru xamar an ari zan Joan
bataiatzen ere berdin,
bañan etziran konpontzen bien
ikasleak alkarrekin.

185

Etzuten begi onez ikusten
Joanen ikasle ziranak,
aldamenean bertan Jesusek
egiten zituan lanak.
Jende ugari joaten zitzaion,
eta etzeuden otخانak;
errenkuraka Joani eraso
zioten orduan danak.

186

“Ez ote dezu ikusten, maisu,
gure lekutik ain alde,
zuk aitortu egin zenion ura
bataiatzen jaun ta jabe?
Parisaitarrak berak ere gaur
nola zaizkion mirabe?
Orri patxaran uzten ezkeroz
laxter gera iñor gabe”.

187

Jesus ondoan ari zalako
alaituz bere biotza,
errenkuraka zetozeneiri
Joanek olaxe diotsa:
“Jainko-bildotsa zala ori ez
nizuten egin aitortza?
Jendea doakiola? Obe,
ori baita nere poza.

188

Gizonak ezin dezake artu
goitik ez badatorkio,
bere burua goratu naiak
gaurkoan ez du balio.
Badakizute “ni ez naiz Kristo”
esan nuala serio;
komeni dana da ni jextea
eta ori berriz io.

189

Andrea duna degu senarra,
eduki zagus goguan;
ori da senar, ni berriz lagun
kutuna bere onduan.
Pozez gañezka jartzen naiz orren
mintzaira entzun orduan,
benetan neri poz au eman zait
bete-betea munduan.

190

Zerutar dana danen gain dago,
itzegin zerutar-gisa;
lurtarra ere berriz, jakiña,
lurtarren antzera mintza.
Orrek dakina esaten digu,
egia da orren itza,
alare asko aitormen ori
sinits nai ezik dabilta.

191

Goikoak goiko itzak, neurririk
gabe artzen du grazia;
Aitak maite du Semea, aren
esku laga du guzia.
Semearengan sinisten dunak
badu betiko bizia,
sinisgabea il egingo da,
arek galdu du auzia.

192

Zuek eta ni poztu gaitezen,
sinismenean gabiltzan;
jendea orri joaten bazaio
bekaizkeririk ez izan.
Ori baño poz aundiagorik
ez dago nere bizitzan,
bazetorrela adierazteko
mundura sortu bainintzan.

193

Parisaitarrak ondo zekiten,
ikusten zuten bezela,
Jesusek Joanek baño geiago
bataiatzen zituela.
Egun gutxira entzun zuten Joan
espetxeratu zutela,
Galileara gorde zan Jesus
ikasleekin berela.

Samaritarra

194

Bere ikasle-salla ondoan
sartu zan Samariara,
beste biderik ez baizeukaten
joateko Galileara.
Putzu ondoan exeri zan ta
ura Jesusen patxara;
baña ez nekez, bazuen norbait
etorko zan biozkada.



82

Aingeru batek dio Joseri: “Artu Aurra Amarekin, eta lenbailen zoaz igesi, Ejito aldera aldegin, Eroses dabil Aurra il nairik, deitu arte an itxogin”. Eztabaidaka etziran jardun: agindu orduko egin, “Semea deitu det Ejitotik” igertze au bete zedin.

195

Ikasleak errira joan ziran
Jauna atsedean zedilla,
bide luzea zeukatelako
bixigarri batzun billa.
Putzu ondoan pentsakizunez
bakarrik Jesus umilla,
bere biotzak adierazten
zionaren zai, ixilla.

196

Jakobek bere seme Joseri
eskeñitako putzua,
putzu ederra, arriz egiña,
eta oso barrutsua,
artzaiak asko maite zutena
zalako leku urtsua;
oraindik ere inguru artan
bazegon artzai-kutsua.

197

Eguerdi alde inguru xamar
ta oso bero zapala,
baña Jesusek billatu zuen
zugaitz xar baten itzala.
aren azpian erdi etzanik
bakarrik Maisu apala,
itzal gozoan lasai, baizekin
norbait etorriko zala.

198

Eguzki-garrak kiskaltzen zuen
zabalune ura sutan,
artalde batzuk zebiltzan urrun
putzuaren ingurutan.
Erdi txuria, eldu xamarra,
garia berriz burutan,
laxter erori bearko zuen
itailarien eskutan.

199

Etzan luzaro bakarrik egon,
an azaldu zan berela,
lenago ere ara etortzen
oitua zegon bezela,
emakume bat, txantxil txikia
eskutik txintxil zuela.
Jesus ta emakumeak elkar
ikusi zuten berela.

200

Emakumea iritxi da ta
izerdi-patsa dario,
judua dala ezagutu du,
andrea maltzur, serio.
Bi aberriak asarre zeuden,
etzan geiegirik pio;
txantxil txikia sokan lotuta
urketari ekin dio.

201

Jesusek laxter eskatu zion:
“Emaidazu edatera”.
Samaritarrak erantzun ere
zorrotz itzetik ortzera:
“Baña, judua zeralarik, zu
nola aurreratzen zera,
emakume samaritar naizen
oni ura eskatzera?”.

202

Juduak eta samaritarrak
beti asarre zebiltzan,
etzuten inoiz artu-emanik
elkarren artean izan.
Jesusek nola eskatzen zion
adiskide baten gisan,
aren ausardiz emakumea
noski arritu egin zan.

203

“Ai, emakume, bazeneki gaur
norekin zauden izketan,
eta bazenu sinismen apur
bat Jaunaren emaitzetan,
zedorrek edaten eskatuko
zenioke orain bertan,
ark eman ere agortzen ez dan
itur bizia benetan”.

204

“Jauna, ontzirik ere zurekin
urketarako ez duzu;
urruti dago gañetik ura,
putzua oso barrutsu.
Agintzen dezun ur bizi ori
nola emango diguzu?
Au eman zigun Jakob baño're
geiago al zaitugu zu?”.

205

“Ur au edaten dunak berriro
etorri bear putzura;
baña ez, artzen badu emango
diodan ur bizi ura.
Bere barruan sortuko zaio
iturri baten modura
eta betiko bizitz-pozera
eramango duen ura”.

206

Emakumea etzan oraindik
ere kontuan erori;
eskeintzen zion ura zer ote?
Etzion entzun iñori.
Eta biziro eskatu zion:
“Ekatzu, Jauna, ur ori,
egarriturik berriz putzura
eske ez nadin etorri”.

207

Jesusek ondo ikusten zuen
andretxo aren biotza:
pekatu txar bat zeukan berekin
bere bizitzako lotsa.
Ura ken bear artutzezkeroz
bizi berri baten poza.
“Zoaz, bai, ta atoz senarrarekin”
Jesusek otxan diotsa.

208

Emakumeak berriro zorrotz,
jarririk kopet illuna:
“Nola, senarrik ez daukat eta?”
eman zizon erantzuna.
“Bost gizon izan dituzu noski
eta orain daukazuna
ere ez dezu senarra, baizik
zure pekatu-laguna”.

209

Jesusek erdiz erdi asmatu
zion egin zun guzia.
“Nola asmatu ote dit nere
lotsagarritzko bizia?”.
Etzun ordea berritzerik nai,
oñazez zeukan zauria;
beste bidetik iges egiñaz
emakumeak, zaulia.

210

“Gure asabak mendi ontara
joaten ziran agurtzera,
juduak berriz Jerusalengo
beren jauretxe xarrera.
Nere bizitza asmatu dezu,
zu igerleren bat zera;
juduak ala samaritarrak
arrazoiean nor gera?”.

211
“Ezezaguna agurtzen dezute,
judutarrak ezaguna;
Jerusalen da bera agurtzeko
Jaunak aukeratu zuna.
Judu-erritik etorriko da
Israelko osasuna,
mundu galdu au pekatutatik
laxter askatuko duna.

212
Leku jakiñik ez dago aurki
ortarako berexita,
bazter guzitan agurtuko da
Jauna, berak ala naita.
Espiritu ta egiz gañera,
Jauna espiritu baita;
era berriko agurtzalleak
atsegintzen dute Aita”.

213
Emakumea etzegon konten
Jesusek esan zunakin,
itxura zunez oraindik ere
geiago nai zuen jakin.
“Datorrenean esango digu
garbi erabaki dedin”.
“Ni naiz datorren ori, izketan
ari naizena zurekin”.

214
Apostoluak iritxi ziran,
zalaparta. iskanbilla,
emakumeak berriz aldegin
andikan ixil-ixilla,
putzu ondoan bertan utzirik
ekarri zuen txantxilla,
Mesias noski ura zala ta
bere erritarren billa.

215
Ikasleak, bai, arritu ziran
emakumezko batekin
Jesus ikusi zutelako an
itzegin eta itzegin.
Ixil geratu ziran, etzion
iñork galderarik egin:
zer nai zenduke edo zer ari
ziñan izketan orrekin?

216
Jaten eskeintzen zioten: “Jauna,
artu zerbait bixigarri”.
“Beste janari bat badet emen
neretzako maitagarri”.
Berak baño len beste norbaitek
ote zion ba ekarri?
Arritu xamar galdezka ari
ziran guziak alkarri.

217
Jesus orduan ia aterea
zegoen bere onetik,
bere biotza egan zebillen
munduko gauzen gañetik.
Ikusten zuen zer etorkizun
zetorren bere lanetik,
itz auek jaulki zaizkion gero
biotz barren-barrenetik.

218
“Badet nik, badet –dio Jesusek–
janari bat Ark emana,
oso goxoa, gauza guzien
gañetik maite detana:
nere Aitaren gogoia egin,
bete jarri didan lana;
nere atsegin dana ori da
eta ori nere jana.

219

Ez al dezute zuek esaten,
eta zuekin bat nator,
lau illabete erein zala ta
uzta-garaia badator?
Jaso begiak eta ikusi
gari-sallen soroak or
erdi zuritu, eldu xamarrak,
itaiketarako jator.

220

Itailariak saria jaso,
argatik doaz lanera,
eta betiko bizitzarako
bilduz arnari-aukera.
Azia erein duena eta
bai itailaria bera,
biltzen dan sariz betiko biak
poztu ditezen batera.

221

Emen ederki egiztatzten da
alako esan xar ura:
batek erein ta besteak bildu,
itari-lana eskura.
Joango zerate nere ondoren
uzta-biltzalle modura
bestek landu dun sorora, aren
neke-izerdi-lekura”.

222

Emakumeak bitarte ortan
egin zun mixiolari,
putzu ondo artan gertatua
kontatuaz erriari.
Bere ondoren etorri ziran
Jesusengana ugari,
egun batzutan aien artean
geratutzeko eskari.

223

Bi egun antxe pasa zituen
aien artean izketan,
Jesusen itza oso gogotsu
entzuten zuten benetan.
Salbatzallea zan sinismena
indartuz biotz aietan,
Jesus ari zan bestek bilduko
zuen gari-ereinketan.

224

Andretxoari ala zioten:
“Zure esanaz gañera,
gerok ikusi degu ederki
Mesias degula bera”.
Ereindakoa an biziko zan
ixil, exkutu antzera,
apostoluak iritxi arte
sinismena zabaltzera.

Galileara

225

Bi egun lasai pasa ondoren
Galilearuntz azkenik,
bere ikasle-salla ondoan,
joan zan Jesus zuzenik.
Baña aitortu zien aurretik,
ara sartu baño lenik,
profetak beren sorterrietan
etzeukatela omenik.

226

Galileara sartu orduko
an zuen erri geiena,
jai-egunean Jerusalemene
ikusi baizuten dena,
goratu nairik ainbat mirari
eder egin zituena,
erri aietan zabaldu baizan
igerlearen izena.

Errege-morroia

227

Kana, len ura ardotu zuen
errira sartu zaneko,
errege-morroi bat an zeukan zai
mesede bat eskatzeko.
Apalki ala eskatu zion:
aren etxera joateko,
eta il-zori zedukan bere
semetxoa sendatzeko.

228

Sinismen otza arkitu zuen
nonbait aien biotzean,
Jesusek gogor xamar au esan
zien lenengo itzean:
“Bai; al zatozte nigana baña
naiko sinismen otzean,
ezin sinistu ezaupideren
batzuk ikusi ezean”.

229

“Atoz lenbailen, nere etxera
il baño lenago, Jauna,
gaixoa larri baita oraintxe,
azkena ez du urruna”.
Jesusek ezin ukatu ori,
ain zuen biotz biguna.
“Zoaz –agindu zion– sendatu
zaio-ta seme kutuna”.

230

Ezpairik gabe sinistu zuen
Maisuak esan ziona,
aldez aurretik biotz barruan
ausnartuaz zoriona.
Sendatu eta duan gañera
errege-morroi zegona,
urrundik ere sendatzen zitun,
ura zan, ura, gizona!

231

Etixerakoan beste morroia
erten zitzaion bidera,
gaixo zegona sendatu zala
berri ona ematera.
Galdetu zion: “Zer garaitsu zan
ori gutxi gora-bera?”.
Ala erantzun zion morroiak:
“Ortxe zazpirak aldera”.

232

Aitak berela antz eman zion
baietz, ordu ori zala,
bere semea sukar gaiztoak
betiko utzi zuala.
Sinistun egin ziran sendia
eta errege mazala
Jesus onaren jarraitzalleak
genituen bereala.

233

Au gertatuta bere bidean
jetxi zan Kafaurnaunera.
ikasleekin itxas-ertzean
egun batzuk pasatzera,
aspaldidanik adirazita
zegon profeten itzera,
uts txikienik ere egin gabe
dana txuxen betetzera.

234

“Zabulon eta Neftaliren lur,
Galileako erria,
Jordan atzeko itxas-bidea,
arrotzen mende jarria.
Bazter artara ere sartu zan
poztuko zuen berria,
erio mospel ura alaituz
itxaro zuten argia”.

235

Asi zan gero sinagogetan
zabaldutzen Berri Ona,
mutur batetik bestera laxter
igaro zan bere sona.
Jendeak oso ondo artzen zuen
erakusten zitzaiona,
danak zioten benetan zala
arrigarritzko gizona.

Nazaretera

236

Joan zan Jesus Nazaretera,
bera sortu zan errira,
beretzat oroitz goxoz betea
zegon maitasun-kabira.
Kale aietan ibillia zan
aurtzaroan jira-bira,
orduko jolas-lagun geienak
oraindak an bizi dira.

237

Arkaitz ondoan an dago bere
etxe txikia txintxillik,
taller txikia itxita dago,
uts-utsa, ixil-ixillik.
Bere barruan ez da entzuten
mallu-ots ta iskanbillik.
dana oroitz antxe dabilki
biotz mindua umillik.

238

Aroztegia itxita dago,
itxi ta joan ziran danak;
beretzat beintzat bukatu ziran
betirako ango lanak.
Zenbat izerdi etzun ixuri
Jose aitaorde zanak?
Ai zenbat laztan goxo etzizkan
eman antxe bere Amak!

239

Txikitan ainbat jolas egin zun
kale aietan aurrera,
aspaldi xamar utzi zun erri
artan egin zun sarrera.
Apal ta ixil joana zan andik,
ixil ta apal etorrera,
bere erritarrak triste xamarra
egin diote arrera.

240

Oitura zunez sinagogara
sartu zan larunbatean,
an exeri zan beti bezela
lengo laguneren artean,
bere Aitaren etxe txikian
otoi egiñaz pakean,
buru zegonak liburutxo bat
zekarkion bitartean.

241

Kanpo aldetik etorri baita
arotz-semblearen sona,
beren laguna orain Judean
danen aotan dagona.
Liburuakin urbil zitzaion
sinagogako gizona,
abots betean au da Jesusek
letu zuen berri ona:

242

“Jaunaren Atsa nerekin dago
ta ni naiz igurtzi nauna;
txiroentzat berri ona dakart,
baituei askatasuna.
Argia dakart itxuentzako,
gaixoentzat osasuna;
adiraztera nator lurtarrei
Jainko-erruki-eguna”.

243

Exeri zan ta kontu zunari
luzatuaz liburua,
begi-belarri zegon jendea,
arretatsu ingurua.
Danen begiak zorrotz zitula
jasorik bere burua,
Jesus asi zan izketan garbi,
irakasle segurua.

244

“Entzun dezuten au gaur bete da”
esan zuen ausarditsu;
itzaldi eder bat egin zuen
garbi, benetan jakintsu.
Baña jendeak entzun bai pozik,
oraindik ordea itxu:
“Nork eman dio eskubidea?
Zeñek egin du au maisu?”.

245

Ain aginpidez itzegitea
etzaien ondo erori,
bere ondoan begi-belarri
arretaz zegon iñori.
Isek egiñaz ala entzuten
zitzaion gizon askori:
“Jose, arotz zanaren semea
ez al degu bada ori?”.

246

Jesusek ondo entzuten zuen
jendeak ixil ziona:
“Ez al degu au Joserren seme,
gure artean egona?
Zergatik eman ote diote
oni orrelako sona?”.
Igarleentzat jaioterria
beñere ez da izan ona.

247

Jesusek ondo ikusten zitun
bere entzuleen barrenak:
indar eskaxa zeukala oso
erritarren sinismenak.
Sarrera txarra eduki dute
beti gizonik onenak,
olakoentzat bere erritarrak
izaten dira txarrenak.

248

“Esan xar ura noski botako
didazute itxu-itxu:
‘Sendagillea, sendatu zaite
lendabizi zedorri zu.
Kafarnaunen gauza aundiak
egin dituzuna, maisu,
zure sorterri onetan ere
beste ainbeste egizu’.

249

Alargun asko zan Israelen
Eliassen egunetan,
iru urtean euririk egin
etzuen garai aietan.
Baña Jaunak etzuen Elias
utzi aien eskuetan,
andre alargun batek ar zuen,
baña Sidongo Sareptan.

250

Israelen ere bazan amaika
legendar gaiztoz beterik,
Eliseok etzuen sendatu
siriar Naman besterik.
Errian etzun iñork merezi
orrelako mesederik,
miraririk ez baita egiten
ez badago sinisterik”.

251

Sumindu ziran sinagogako
danak auek entzutean;
Nazaret nola dagon jaso
arkaitz-penditza batean,
ara eraman zuten andikan
amildutzeko ustean;
Jesus ordea danen tartetik
pasa zan pake-pakean.

Ikasleak

252

Galileako itxas ondoan
aruntz-onuntz zebillela,
bi anai, Simon ta Andres, ikusi
zitun ontzian zeudela.
“Atozte” esan zien ta dana
utzirik zegon bezela,
ixil-ixilik Jesusi jarrai
zioten biak berela.

253

Aurreraxego Zebedeoren
bi seme zitun ikusi:
Santio ta Joan, kai-bazterrean
lanean sare ta guzi.
Dei egin zien ta beren aita
bakarrik ontzian utzi,
biak batera bere ondoren
jarrai zioten Jesusi.

Kafarnaunen

254

Kafarnaunera joan zan aiekin
urrengo larunbatera,
sinagogara sar zan oitura
bezela erakustera.
Arritzen ziran ari entzunik,
danak zioten batera
ongi irakasten zula Jesusek
agintedunen antzera.

255

Ala bearrez, bazan gizon bat
an deabruak artua,
“Zer nai zenduke? Zertara zatoz?
–oiuz zion zakartua–.
Agian gu galtzeko asmoan
zaitugu onuntz sartua;
badakit ondo, bai, nor zeran zu:
Jaungoikoaren Santua”.

256

Jesusek laxter agindu zion:
“Ixilik ortik joan adi!”.
Bere purrustan astindu batzuk
eman zizkan gizonari.
Baña etzion kalterik egin,
joan zan karraxika larri,
bere ondoan arkitzen ziran
ikasleen arrigarri.

257

“Nor da ordea gizon au? –danak
ao batez ziotena–.
Deabruak berak ere egiten bai-
dute agintzen diena.
Bere mendean baidauka dana,
danak diote omena”.
Gero ta gero aipatuago
Judean bere izena.

Simonen etxean

258

Sinagogatik Simon Pedroren
etxera zan zuzenean,
ikasle batzuk ere berekin
zitula aldamenean.
Simonen amaiarreba gaixo
zegola jakin zunean,
sendatu zuen eta mirabe
asi zitzaion lanean.

259

Illunabarrez jetxi zanean,
nonaitik Jesusengana
deabrudun ta beste edozer
gaixo-mota banan-bana
zekarzkieten, gañez egiñik
etxeko atari dana;
sendagille ona bazan ere
ematen zioten lana.

260

Jesusen itzez iges zoazen
andik deabru murrizak,
eskuak jarri utsez garbitu
gaitzik gaiztoenen sitsak.
Orrela ondo betetzen ziran
igerle xar baten itzak:
bere gain artu zitula gure
eritasun, min ta gaitzak.

261

Gizon askorengandik zoazen
aingeru loiak igasi,
“Zu zera Jainkoaren Semea”
danak zegiten karraxi.
Jesussek berriz zorrotz nai zien
itzegiten galerazi,
aien aotik ez baizuen nai
omenikan irabazi.

Jesusen ibillerak

262

Goizean goizik jeiki zan Jesus
ta bakar-leku batera
danak utzita ezkutatu zan
ixil otoi egitera.
Gauz aundiren bat egin aurretik
au zuen bere joera,
eta orrela jarraituko du
gerora andik aurrera.

263

Oartu ziran palta zutela,
lagunak billa zebiltzan.
“Ez al dituzu ikusten zure
atzetik nola dabilzan?”.
Baña Jesussek ikasleeiri
etzienez entzun nai izan:
“Goazen aurrera erririk erri,
ortara etorri nintzan”.

264

Gizataldea urbil zitzaion,
eske bera zuten egin:
“Etzaitezela iges iñora,
geratu zaite gurekin”.
“Beste erri asko daude, oietan
ere nai nuke itzegin”.
Danak utzita aldegin zuen,
eginkizuna baizekin.

265

Ikasleekin erririk erri
zearkatuz itxasoa,
sinagogetan itz ta sendatuz
berriz zetorren gaixoa.
Bere bidean etzun paltako
nor alaitu, nor jasoa,
ondo egiñaz igaro zuen
Galilea alde osoa.

Arrantza

266

Jenezaretko itxas-bazterra
pake-pakean zeguan,
itxas gañean egunsentia
nabarmendu zan orduan.
Itxas-ontziak dantzan zebiltzan
seaska baten moduan,
arrantzaleak sare konpontzen
ari ziran kai ondun.

267

Asarre xamar arrantzaleak,
bazan itza ta solasa;
ler egin zuten loa galduta,
urean bota arratsa.
Arrai banaka batzuk besterik
ez, ura sari eskaxa!
Gizonak ondo bizitzeko lan
kaxkarra baida arrantza.

268

Itxas-ertzetik bazetorren bat
arrantzaleen lekura,
gazte xamarra, jantzia berriz
israeldarren modura.
Urrun ikusi zuten orduko
etorri zaien burura
zalantzik gabe Nazaretoko
igerlea zala ura.

269

Ala zan: Jesus an zetorrena;
poztu ere ikasleak,
ala baiziran sare konpontzen
patxaran arrantzaleak.
Aien biotzak alaitu nairik
arinduaz naigabeak,
bere gain artutako gizonak
maite zitun Igerleak.

270

Laxter zabaldu zuten berria
Jesus kaian zebillela,
entzun orduko jendea dator
udan eltxoa bezela.
Anka jartzeko lekurik etzan,
bete zan kaia berela,
danak ukuitu nairik tartean
Jesus estutzen zutela

271

Ango bultza ta ango karraxi,
danak Jesusi eskari,
ango muleta, ango angaril,
ango erren ta elbarri.
Bat txutik dator, bestea ezin,
besterek bear ekarri,
“Erruki, Jauna! Erruki, Jauna!”
besterik ez da nabari.

272

Aien aurrean samurtu zaio
Jesus onari biotza,
danen gañetik al zun bezela
jasorik bere abotsa,
bere besoak zabalduz, “Nai det:
senda zaitezte” diotsa;
danak batera sendatu ziran,
ura jendearen poza!

273

Gorputz eriak senda ondoren
kontentu zegon erria,
itxas-ertzean Jesus onaren
aldamenean jarria.
bañan Maisua etzan ortara
bakarrera etorria,
aien animei ere zabal nai
zien zekarren berria.

274

Zerbait itzegin nai zien baña
eziña zegon tokitik:
estutzen zuten ta ezin erten
zan berriz aien erditik.
Simoni esan zion txalupa
urrun zezala ertzetik,
eta orrela itz egin zion
jendeari itxas-ontzitik.

275

Ao xabalka zegon jendea
itxas-ertzetik ontzira,
gauz arrigarriak erakusten
ari zanari begira.
Itzaldi eder ura bukatu
zuneko, itxas erdira
ontzi aulean Jesus ta bere
ikasleak sartu dira.

276

Maisuak esan zion Simoni
dana bukatu zanean:
“Bota sareak eta sar zaite
aruntz itxas barrenean”.
“Uts geratu gera gau guzian
jardunagatik lanean,
bañan alare botako ditut
laxter zure izenean”.

277

Jesusek ondo ordaindu zien
beren nekeen saria,
berak goiz artan itzegin zezan
lagundutako guzia.
Arraiz betea atera zuten
sarea autsirik ia,
eta geiago ezin kabituz
gañezka zegon ontzia.

278

Beste bi ikasle ziran gau artan
arrantzan jardun ziranak,
urbildu ziran auen ontzira
biak abisu emanak.
Gañezkaraño bete zituzten
an zeuzkaten ontzi danak,
legorreraño aiek ekartzen
bazituzten naiko lanak.

279

Etzuten berak ezer atxitu
gau guzian ibillita,
ikaratu zan benetan Pedro
arrantz ura ikusita.
Gizon apala nola baizan au,
auspez aurrean jarrita,
“Alde nigandik –esan zion–, Jauna,
pekatari bat naiz ni ta!”.

280

“Ez ikaratu; gaurdanik giza-
-arrantzale izango zera”.
Beren ontzian itxas-ertzeruntz
eramanta legorrera,
zeuden bezela danak utzita,
lau ikasleak batera
Jesus onaren ondoren alai
jarraitu zuten aurrera.

Jesus sendaketan

281

Etzan aspertu-errexeta Jauna,
bazebillen ibilkari,
gaur emen, biar an, gelditzeke
biraka erri xarrari.
Egokiera zuen lekuan
Berri Onen predikari,
ona egiñaz goseak ase,
osasuna gaixoari.

282

Egun batzuen buruan berriz
Kafarnaungo errira,
beren bidean Jesus ta bere
ikasleak sartu dira.
Etorri zala zabaldu zuten
berriz inguru guzira;
bete zan jendez, sartzerik ere
etzegola atarira.

283

Ingurutako errietatik
ango aundizki geienak
ekar erazi zituan onuntz
Igerlearen izenak.
Lege-gizon ta parisaitarrak,
Jesusen etsaiak danak,
badaezbada zer ikasiko
ixpi jarrita zeudenak.

284

Lendabiziko gaixoak senda,
ondoren berriz itzegin,
Jesusen itza entzuten txutik
egoten ziran atsegin.
Orduak bertan igarogatik
andikan nai ez aldegin,
erriko jende txo beartsua
konten zegon Jesusekin.

285

Erri txearen aurrean pozik
ari zan Jesus etxetik,
ao xabalka jende guzia
txintxilik bere itzetik.
Gaixo batekin zetozen batzuk,
ezin sarturik atetik,
nolabait bere aurrera jetxi
zuten tellatu gañetik.

286

Urrikaldu zan Jesus otxana
aurrean ikusten zunez:
lau gizon sendo gaixo batekin,
au geldi kopet illunez.
“Seme, uste on eduki zazu
sinismena dakartzunez,
barkatzen zaizkitzu pekatuak”
esan zion maitasunez”.

287

Maisuak ondo bazekin bere
atzetik nola zebiltzan:
paisaitarrak zer arrapatu
bazter danetan ixpitzan.
Zirikalari, beraizik noski,
aien aurrean zun esan:
“Barkatzen zaizkitzu pekatuak,
seme, ta uste on izan”.

288

Parisaitarrak gaizki pentsatzen
beren barrunbe beltzean:
“Birao zikiña besterik noski
ez dabil onen etxean”.
Asi ziran: “Barkatzen zaizkitzu
pekatuak” aditzean:
“Pekatuak nork barka lezazke
Jainkoak berak ezean?”.

289

“Gaizki epaitzen ari zerate
gaur ere, betiko gisa,
‘Barkatzen zaizkitzu pekatuak’
esan detalako aixa.
‘Jeiki zaitea, ar zazu zure
oatzea ta zabiltza’,
esango banio ta biali,
sendaturik bere gaitza?”

290

Jakin zazute gaurtik aurrera,
ta ez epaitu orrela,
Giza-Semeak mundu onetan
eskubide baduela
pekatu danak barkatutzeko”.
Oiu egin zuen berela:
“Jeiki ta zoaz!”. An joan zan, gaixo
egon ez balitz bezela.

291

Elbarri zana ikusi zuten
jauzika beren aurrean,
ala zioten: “Orrelakorik
ez da gertatu lurrian”.
Parisaitarrak berriz setatsu,
murriz beren asarrean,
beren eziña ezin burutuz,
tripa jaten bazterrean.

Mateoren deia

292

Parisaitarrak zaputz utzirik
aoa bete ortzekin,
itxas aldera jo zun berriro
Jesusek ikasleekin.
Bañan atzetik jarraiz zetorren
gizataldea berekin,
betiko itzak zitun Maisuak,
jendeak ezin aldegin.

293

Bere ondoren zetorren salla
sakabanatu zanean,
Lebi zeritzan bat an ari zan
bere zergari-lanean.
“Atoz nerekin” zion Maisuak;
deia entzun zuenean,
dana utzita bere ondoren
etorri zan azkenean.

294

Bazkari on bat eskeñi zien,
oso aberatsa zanak;
Jesus an zala jakin zuten ta
ara bildu ziran danak:
pekatari ta zergari asko
Lebirekin zebiltzanak;
parisaitarrak ere, Jesusen
aipamenak eramanak.

295

Parisaitarrak beti bezela
asi ziran marmarrean,
ikasleeri galde ta errit
jende guzien aurrean:
“Zergatik jaten dezute zuek
jende oien bazterrean?
Ez dakizute galerazita
dagola lege zarrean?”.

296

Maisuak lendik ikusi zitun
an zebiltzala ixpiak,
bada-ebada zer gertatuko
erne zeduzkan begiak.
Aien marmarra entzun orduko,
jakin zezaten guziak,
Maisuak beti bezela garbi
azaldu zitun egiak.


297

“Ez sendoak, ez, gaixoak dute
sendagilleen bearra,
etzaigu gaizki etorko emen
gurasoen esan xarra:
Oparirik ez det nai, neretzat
errukiak du indarra;
pekatariak damu ditezen
egiten det deadarra”.

Baraua noizko

298

Barau-kontuan ekin zioten
berriz lengo nastalleak:
“Joanen ikasle danak dituzu
oso barau-maitaleak.
Zureak, berriz, jan-edanean
asez, tripazai jaleak;
zergatik barau ez dute egin
bear zure ikasleak?”.



90

Beren sallean etzetorrela jakin zuten beranduan,
urri santura biurtu ziran naigabeturik orduan.
Eliz barruan arkitu zuten iru egunen buruan,
patxaran galde-erantzuneka jakintsu baten moduan,
bere galderez lilluraturik zeuzkan apaizen onduan.

299

“Nork egiten du baraurik senar
berriaren eztaietan,
senar berria berekin duten
egun goxo alaietan?
Kenduko zaie senar berria;
ordu estu latz aietan
egingo dute auek ere, bai,
barau gogorra benetan.

300

Zeñek eransten dio soñeko
zarrari puska berria?
Alde batera ez datorkio
ondo; ez da egokia.
Berriak tarrat egingo luke
zarrak daukan ebakia;
berriak berri, zarrak zarrakin,
artu bearra neurria.

301

Ardo berririk ere ez da inoiz
sartzen zaragi zarretan;
zaragia ler, ardoa berriz
ixuri bien kaltetan.
Ardo zarretik edan ezker
berri eskari neketan,
berria baño zarra naiago
baidute leku danetan”.

Jairo

302

Itxas ondoan zegoen Jesus,
maite zun itxas-bazterra;
beti eskari bere ondoren
jendeak zeukan laxterra.
Gaurkoan ezik orduan ere
bazan munduan okerra,
esku betean zabaltzen zuen
Maisuak on ta eskerra.

303

Atsedentzen ere etzioten
uzten atzera-aurrera,
betiko norbait bazetorkion
bere ondora eskera.
Andik-emendik aberats, txiro,
askotan lau-bost batera,
izan ere nork galduko zuen
bada alako aukera?

304

On egitea Jesusek ori
zuen bere atsedena,
besteren negar ta penak ere
beretzat negar ta pena.
Ezker-eskubi on egiteko
borondaterik onena,
emanak eman etzan beññere
gutxigotzen almazena.

305

Orduan ere urbil zitzaion
gizon aberats bat, Jairo;
illun zetorren, biotz erori,
naigabetua biziho.
Diruz aberats, baño etxean
osasuna palta, txiro:
alaba bakar bat ta il-zori,
etxe artan etzan giro.

306

Itxas ondora etorri zan ta,
Jesus bertan ikustean,
bere aurrean auspez jarririk
asi zitzaion eskean:
“Amabi urte ditun alaba
il-zori daukat etxean;
senda zaidazu, Jauna, jarririk
zure eskuak gañean”.

307

Jesusek ezin eraman zuen
urkoaren naigabea,
esan orduko txintxo artu zun
etxe artako bidea.
Bere ondoren zetorren ere
berebiziko jendea,
beren erdian Jesus estutzen
zutela, dana betea.

Amonatxoa

308

Baña an zebillen doi-doi txutikan,
ixilik, amonatxoa:
exur ta larru, bizkar makurra,
motela eta lausoa.
Jende artean ara-onera
ezin emanik pausoa,
amabi urte aietan zegon
odol-jario gaixoa.

309

Gaitzak ikusi zitun lenago
sendagille askorekin,
bere ondasun guziak ere
txautuak zitun aiekin.
Diruak jan, bai, egin zizkaten,
gaitzak etzion aldegin,
etzun ezeren aurrerapenik
ordura arte beñepin.

310

Jesusen berri jakin orduko
sartu zan jende tartean,
“Ukuitzen badet sendatuko naiz”
pentzatuz bere artean.
Uste bezela, ukui zuneko
sendatu zan bat-batean;
aguro asko ezagutu zun
ori bere gorputzean.

311

Etzuen iñork jakiterik nai
an gertatu zitzaiona,
lotsatzen baizan an agertzea
orregatik zoriona.
Biotz barruan pozez gorderik
eta gañez esker ona,
etorri bezela bazijoan
ixilik gure amona.

312

Baña Jesusek antz eman zion
an norbait bazebillela:
aren jantziak ukui zituna
beste aiek ez bezela.
Buelta emanik “nork ukuitu nau?”
galdetu zuen berela,
jendeak ala erantzun zion:
ezer ere etzekitela.

313

Jende-pil artan Maisuak egin
zuen galdera, Pedrori,
beste ikasle danei bezela,
etzaion ondo erori:
“Jende artean ia lerturik
zarabilkite zerori,
arritzekoa ez al da ‘Zeñek
ukuitu nau?’ galdera ori?”.

314

Maisuak etzun ala pentsatzen,
zer gertatu zan baizekin:
sinismenezko jokoa zala
egin zutena arekin,
bere soñetik indar berexi
batek ziola aldegin.
Bera ukuituz sendatu zana
nor ote zan nai zun jakin.

315

Amonatxoak antz eman zion
etzeukala gordetzerik,
bere aurrean auspezka, ustez
etzuen egin kalterik.
Etzula egin sinismen osoz
bera ukuitu besterik,
eta berela nola geratu
zan osasunez beterik.

316

Maitetasunez jarri zitzaion
Jesus begira-begira,
auspez ikusita benetan zan
amonatxoaz kupira.
“Zure fedeak salbatu zaitu,
zoaz pakean sendira”.
An joan zan alai. Sinismenaren
lanak olakoak dira.

Jairoren alaba

317

Oraindik leku berean zegoen
izketan Maisu mazala,
minuturik ere etzan izango
amonatxoa joan zala,
eman zioten Jairo jaunari
beldur zuen berri itzala,
bere morroiak esan zioten:
“Jairo, il zaizu alaba”.

318

Aula zan nonbait mirabe aiek
zekarkiten sinismena,
il zan ezkerre bein galdu zuten
zearo itxaropena.
“Zertan ekarri aziko dezu?
Egiña dago arena”.
Etzuten asko goxatu beintzat
orrekin aitaren pena.

319

Maisuak entzun zuen berria,
aztu zitzaion amona,
lasaitzearren bere ondoan
negarrez zegoen gizona:
“Ez negar egin; sinistu zazu,
zuk eduki uste ona;
laxter bizira etorriko da
orain illotzik dagona”.

320

Pedro, Santio ta Joan bakarrik
eraman zitun berekin,
eta, jakiña, alabatxoaren
gurasoak ere berdin.
Jende artetik tira ta bultza,
pasatzen etzan atsegin;
noizbait iritxi zan Jesus artu
zitun bost lagun aiekin.

321

Ango zaratak, ango ai-otsak,
ango samin-deadarra!
Ango istillu eta oiua,
txiki-aundien negarra!
Joan-etorri ta ezin egona,
txoko guzitan marmarra,
betea zegoen barrun ta landa
il zanaren etxe xarra.

322

Diruaren truk ekartzen ziran
txistua ta zalaparta,
aien artean negar-itxurak
egiteko sail aparta.
Puska batean egiten zuten
karraxi, negar-zarata,
orduaren ere gaurko antzera
itxurarik etzan palta.

323

Etxe barrura zanean Jesus
bere lagunakin pasa.
“Zergatik ainbat negar iskanbil?”
—esan zien Jaunak lasa—.
Zergatik ai-ots, oi u ta txistu,
alperrikako jolasa?
Ez negar egin, zoazte emendik,
lotan baidago neskatxa”.

324

Aiek ordea maltzur iseka
egin zioten Jesusi,
beren begiak neskatxa illa
etzuten bada ikusi?
Jaunak etzitun aintzakotz artu,
bere artan danak utzi,
ta gelara sartu zan ikasle,
aren guraso ta guzi.

325

An zegon bakar, ori-oria,
neskatx gaztea otz-illa,
guraso xarrak negar-zotinka,
Jesus begira ixilla.
Oiu egin zun: “Zuri diozut:
neskatx, zutitu zadilla!”.
Ta bat-batera danen aurrean
zutitu zan neskatilla.

326

Arritu ziran guraso on aiek
mirari aren aurrean,
ainbestekorik etzan gertatu
iñoiz Judea xarrean.
Ez kontatzeko agindu zien;
baña, gorde bearrean,
laxter zabaldu zuten berri au
Galileako lurrean.

327

Benetan pozten zitun erriko
jende arlote txikiak,
Jesus noruntza, aiek aruntza
ibiltzen ziran guztiak.
Baña gordetik zer ikusiko
parisaitar azeriak,
asarre xamar aldegin zuten
andik Jesusen ixpiak.

Itxu bi sendatzen

328

Mirari bikain au egitean
erten zaneko etxetik,
beste itxu bi asi zaizkion
oiuka bere atzetik:
“Dabiden seme, gutzaz erruki!”
eskari jende artetik;
atsedentxo bat artzeko ere
etzioten uzten betik.

329

Jesus berriro sartu zaneko
itxuak ere zuzenik,
ondoan zitun erruki eske
artu gabe atsedenic.
Jesussek ala galdetu zien:
“Badezute sinismenik?
Uste dezute zuen begiak
argi dezazkedala nik?”.

330

Biak: “Bai, Jauna! —erantzun zuten—
Sinisten degu benetan”.
Maisuak bere beatzak jarriz
begi itxu aien gañetan:
“Uste bezela gerta dedilla”,
eta une artan bertan,
argia piztu zan itzalita
zeuzkaten begi aietan.

331

Aiek aldegin ondoren laxter
dakarkioite Jesusi
gizon mutu bat, deabruduna,
zakar xamar ta itxusi.
Maisuak laxter zun deabrua
gizonagandik erauzi,
mutu ta zakar etorri zana
iztuna ta apala utzi.

332

Erri apala lilluraturik
zeukan Jesusen indarrak:
gorrak entzun ta itxuak ikus,
sendatu beso igarrak,
illak piztu ta malkoak txuka,
uxatu deabru tzarrak;
orrelakorik etzun ikusi
Israelgo erri xarrak.

333

Parisaitarrak beren buruak
iruzurtu nai zituzten,
eta asi ziran beren mendeko
jendeari erakusten:
Satanasen laguntzaz zitula
deabruak erauzten.
Pekatu gaizto onekin benetan
Jesus naigabetu zuten.

334

Etzan alare aspertzen Jesus,
an zebillen erriz erri
sinagogatik sinagoga,
sendatuz amaika eri.
Parisaitarren maltzurkeri ta
gaizki esakak igerri,
ondo egiñaz zabaltzen zuen
zeru-erreinuko berri.

335

Erri maitean mixeri ura
Igerleak ikusirik,
ardi galduen gisa zeudela,
etzeukatela artzairik,
egi-egarri zeudela danak
nork emanik ez egirik
parisaitarren erruz zeudela
okerbidean jarririk.

336

Jendea ala ikusirik min
ematen zion Jesusi,
zoratzen dabiltz egi atzetik,
ez dute nork erakutsi.
“Uzta ugari da –zion–, baña
igitailariak gutxi;
otoi ez dezan uzta-Jabeak
langillerik gabe utzi”.

Jesus Jerusalemen

337

Maisuak etzun on egiteko
egokierarik galtzen,
iñork gutxina pentsatzen zuen
lekuan an zan azaltzen:
asarre iñoiz eliz barrutik
tratalariak bialtzen,
edo gaixoak sendatuz Berri
Ona danean zabaltzen.

338

Txoko danetan ikusten degu
Jesusen ezin egona,
etzan atsedean artzeko onuntz
etorritako gizona.
Zijoan lekuetara berriz
bazeraman zoriona;
ardi ugari zeukan galduta,
aien billa Artzai Ona.

339

Itxas-ertzetik egin zun txango
juduen jaia zalako,
Jerusalengo eliz aundian
Maisurik ez da paltako.
Bere lekua an edukiko
zuen aste guzirako,
ixpiak ere etzioten bada
noski pakean lagako.

340

Jerusalengo eliz ondoko
aterpe batean zana,
putzu aundi bat eta ebreoz
Betsaida zeritzana.
Gaixo ugari egoten zan an
sendatzeko asmoz joana,
putzu ondoan egiten zuten
garaia zan arte etzana.

341

Legorpe ontan egoten ziran
eri, itxu, erren, elbarri,
pazientzian, luzetetsirik,
angaril zarretan jarri,
putzuko ura noiz astinduko
begira, sartzeko larri.
Zenbat asarre-purrusta ezin
aurrea artuz alkarri!

342

Aldiz-aldizka astintzen zuen
aingeruren batek ura,
edozer gaitza eduki arren,
lendabiziko putzura,
sendaturik gelditzen zan nastu
ondoren sartzen zan ura.
Arritzekoa etzan bada aien
lenen sartzeko ardura.

343

Ogei ta emezortzi urtean
bazegon ixil, exeri,
pazientzian, nola sendatzen
ziran begira besteri.
Ezin zuena berak, laguntzik
iñondik etzan ageri;
urte luzetan alper-alperrik,
zai ta beti ezin eri.

344

Jesusek laxter antz eman zion
gaixoa bakar zegola,
urrikaldurik ondora joanta
galdetu zion beiñola:
“Sendatu nai al zenduke?” “Jauna,
ezin nezake iñola.
Ez al dakuzu bakar-bakarrik
laguntzik gabe nagola?”.

345

Oraintxe urbil zitzaion laxter
sendatuko zun laguna:
“Ar zazu zure oia ta zoaz,
artu angaril astuna”.
Txoria bezin alai gaixoa
doa karrikak barruna,
baña ixpiak urbil zaizkion,
etzeuden andik urruna.

346

Ala bearrez larunbata zan,
juduak jaia zutela;
ito zorian, asarre, bizi,
ekin zioten berela:
“Larunbata dek; traste zar ori
nola daramak orrela?
Ez ote dakik lan egitea
gaur zillegi etzaikela?”.

347

Gaixoa etzan asko beldurtu,
etzaion gaizki erori:
esana egin zuen, etzion
kalterik egin inñori.
“Sendatu naunak esan dit: Zoaz”.
Lepoko zañak ler zori,
orduan galde zioten aiek:
“Baña nor dek gizon ori?”.

348

Ixpiak ondo zekiten, ondo,
nor zan sendatu zuena;
baña zergatik egin bear zun
beti larunbatez lana?
Jesusi berriz ajola gutxi
larunbat jaia izana,
orretxengatik beraizik ere
egiten baizuen dana.

349

Parisaitarrak nola artzen zuten
larunbata estuegi,
larunbatean on egitea
ere etzala zillegi.
Maisuak esaten zitun zorrotz
askoak amaika egi:
errukiorra zan batentzako
ori ez al zan geiegi?

350

Baña sendatu zanak etzekin
nor zan ordura artean,
eramateko oia agindu
ziona larunbatean.
“Jaunak, ez dakit batere nor dan”
erantzun zien pakean;
parisaitarrak, piperminduak,
an zebiltzan bitartean.

351

Geroxeago ikusi zuen
Maisuak bera elizan:
“Orra: sendatu zaitugu, orain
zeñen gozoro zabiltzan!
Ez pekaturik egin geiago
gerora zure bizitzan,
pasea baño okerragoko
zerbait ez dezazun izan”.

352

Ogei ta emezortzi urtean
angarilletan egona,
Jaunari esker orain ederki
sendaturikan zegona.
Bazter guzitan zabaltzearren
egin zion esker ona,
laxter esan zuen Jesus zala
sendatu zuen gizona.

353

Parisaitarrak elkar artuta
joan ziran kargu artzera:
“Larunbata jai ez egiteko
Jainkoarena etzera”.
“Aita lanean ari da beti,
ni ere Aren antzera”
Maisuak zorrotz erantzun zien,
bertan itzetik ortzera.

354

Jesusek Jainko zala aitortuz
Aitaren berdin egiñez,
orduan ta amorratuago
zeuden ixpiak samiñez:
“Biraio dario, deabrua du
–ilko lutekena ziñez–;
erri guzia berekin dauka
eta zer egin jakiñ ez.

Jesus, Jainko-Seme

355

Parisaitarrak alper-alperrik
dabiltz beren asarrean,
Maisua gero ta ausartago
ikaratu bearrean.
Argi ta garbi esaten du nor
dan patxara ederrean,
zemai guziak alperrik dira,
beti an dute aurrean.

356

Jesusek esan zien berriro:
“Jakín zazute egia:
Semeak ezer ez dezakela
berez egin, alegia.
Semeak dagi Aitak egin ta
ari egiten ikusia,
Semeak ere baidagi Aitak
egiten duen guzia.

357

Aitak maite du bere Semea,
berak zer egiten duan,
ura bera erakusten dio
Semeari're orduan.
Aundiagoak egingo ditu
bizi dan arte munduan,
aien aurrean arri egiñak
zuek uzteko moduan.

358

Aitak berriro illak bizira
biurtzen ditun bezela,
nai dituanak piztuko ditu
Semeak ere orrela.
Arrigarriak egingo ditu
ta egin ere berela,
ea sinisten dezuten Aitak
bialia ni naizela.

359

Aitak ez du iñor epaitzen;
epaiketa-lan guzia
betidanikan Semearengan
dauka erabat utzia,
Aita bezela Semea ere
izan dedin goretsia,
Aitik maite ez duanak ain gutxi
Semea, Ark bialia.

360

Arrera ona egin dionak
zabaltzen detan itzari,
eta benetan sinistu onuntz
ni biali nauenari,
epaiketarik gabe emango
zaio bizia berari,
eriotzetik bizitz-argira
joango da txuxen egari.

361

Zabal begiak, erne zaudete
esango detan egira,
aurki badator eta bertan da:
gorputz illen illobira
Semearen abotsa sartuko
dan ordua etorri da,
eta bere abots ori entzuten
dutenak biziko dira.

362

Aita beregan dauka bizia,
Semeak ere berdín,
Aitak berak eman dio bere
baitan bizi izan dedin.
Epaitutzeko eskubidea
ere badauka berekin,
Gizonaren Semea dalako
baidu ori dana egin.

363

Illobietan daudeneiri
laxter beren illobira
Semearen abotsa sartuko
dan garaia etorri da.
Zuzena egiñak bizitzarako
piztuak izango dira,
okerra egin dutenak berriz
betiko ondamendira.

364

Ezin dezaket ezer neronez,
entzun da gero epaia
ematen det nik, ta zuzena da
Aita baidet nere zaia.
Ez naiz beñere nere gogoa
ezertan billatzen saia,
nere eginkizun danetan beti
dabilkit Aitaren naia.

365

Nere buruaz aitor egiten
badet, nere aitormena
ez da izango sinisgarria,
ez da aitormen zuzena.
Bada beste bat nitzaz aitormen
egitera datorrena,
aren aitorra egia baida
merezi du sinismena.

366

Ez al zenuten entzun Jordanen
Joan zanaren deadarrik?
Ark ere nitzaz aitor egin zun,
neretzat ez du indarrik.
Ez baidet nik iñongo gizonen
aitormenaren bearrik,
ta au esaten dizutet zuek
salba zaitezten bakarrik.

367

Dakizutenez, Joan etzan berriz
bada-ezbadako gizona,
Jordan ondoan ildurapean
argi egiten egona.
Atsegingarri zan askorentzat
ark zekarren berri ona,
oraindik ere bazterrik bazter
entzuten da bere sona.

368

Baña badaukat Joanena baño
goragoko aitormena:
nere Aitak egiteko eman
dizkidan nere lanena,
ni Aitak onuntz biali naula
aitortutzen dutenena.
Aitaren aitor bat da ori, ura
dala biali nauena.

369

Baña beñere ez dezute zuek
aditu bere mintzura,
ez dezute oraindik beñere
ikusi bere itxura.
Eta gutxiago aren itzik
oraindik sartu burura,
ezagutzen ez dezutelako
arek biali dun ura.

370

Or zabilzate buruak austen
lengo liburu zarretan,
betiko bizitza an arkituko
dezutelako ustetan.
Nitzaz aitormen egiña dago
liburu oiek danetan,
bizi zaitezten; ezin sinistu
alare nere itzetan.

371

Gizonen aintza billa ez nabil,
baña badakit ondo nik
zuen biotzetan ez dagola
Jainkoaren maitasunik.
Aitak bialita nator, ez nai
sinistu biali naunik;
beste edozein artzen dezute,
nik ez daukat sinistunik.

372

Ez daukazute zuen biotza
Jainko-naiera umilla,
zuen sinismen aul ori nola
ez da geratuko illa?
Zuen aintzaren atzetik beti,
ortan zerate mutillak,
Jainkoaz aztu, etzabiltzate
Aren ospearen billa.

373

Aitaren aurrean salatuko
zaituztedanik ez uste;
Moiseren seme omen zerate,
ark salatuko zaituzte.
Arek nigatik idatzi zuna
sinisten ez badezute,
nere egintz eta lanak nola
sinistuko dituzute?”.

374

Asi ta buka au zan Jesusek
eskeñitako agurra,
Jainko-Semea zala, bai, egiz,
etzala ori gezurra.
Ez dakit gure parisaitarrak
jarriko zuten muturra;
leku onetan zebiltzan, sartu
nai bazioten beldurra.

Galburu mozten

375

Etziran beti ikasleak ere
aseta bizi ziranak,
Juda aldean gose ta egarriz
amaika pauso emanak.
Ango bero zakar ta autsetan
beren edari ta janak,
bakardadeko leku aietan
ematen zizkaten lanak.

376

Beren bidean zijoaztela
Jesusekin ikasleak,
ordu luzetan ara-onera,
ezer ere jan gabeak,
galburu batzuk moztu ta aletuz
jaten zituzten aleak,
baña etzeuden andik urruti
beren zirikatzaileak.

377

Juda aldean, ikasle aiek
egiten zuten modura,
jan-edateko esan ziteken
ia zutela oitura:
goseak zegon edozein sartzen
baizan besteren sorura;
ala bearrez jaia izaki,
larunbata egun ura.

378

Etzion miñik eman iñori
galburu aiek jateak,
ezta ikasle aiek soroan
egingo zuten kalteak.
Aiek sumindu zitun larunbat
jaietan lan egiteak,
jaietan lanik ez egiteko
agindu ori austeak.

379

Asarre xamar, maltzur, urbildu
ziran ikasleengana:

“Zergatik ari zerate egiten
jaietan libre ez dana?”.

Gero Jesusi ekin zioten:

“Ori ez ote da lana?

Edo legerik ez da zuentzat?

Libre al dezute dana?”.

380

Samintasunez eta errukiz
erantzun zien Maisuak:

“Lapur-zuloak zuen biotzak,
itxuraz berriz zintzuak.

Danak leizera joango zerate,
itxu-aurreko itxuak;
leku onean dabiltz zuen gain
geratu diran gaixuak.

381

Etzerate oroitzen zer egin
zun Dabidek bein batean,
Saulen iges erri batetik
beste batera joatean?

Apaizen eskeintz-ogiak artu
ta artatik berak jatean?

Nola zabaldu zituen gero
bere lagunen artean?

382

Ez dakizute apaizak ere
larunbateko jaietan
nola gogotsu aritzen diran
beren eliza-lanetan?

Larunbat jaia izanagatik
ez dago txarrik orretan,
itxuratiak, zer zabiltzate
gaizki esaka kezketan?

383

Okerbidetik zoazte, baña
alare zenbat zarata!

Adarretatik artuz bederen
ezdabaidik ez da falta.

Giza-Semea larunbataren
jabe ere bera da-ta,
gizon beraren serbitzurako
etzan jarri larunbata?”.

Beso igarra

384

Jaunak etzuen urrats bakarrik
ere gordean egiten,
parisaitarrak beti an zitun
zer ote zun itzegiten,
nor sendatzen ta nola sendatzen
txeetasunak jakiten;
bistatik galdu-beldurrak ondo
begiz joa zebilkiten.

385

Erri guzitan elkar artuta
parisaitarrak zeleta,
ez dakit zer lan egiten zuten,
bazekiten artzen beta.
Sinagogara sartu orduko
aurrean oien kopeta,
gutxitan gozo ekingo zuten,
beti amorrus beteta.

386

Erri batean eztabaidaka
jardun ta joan zan bestera,
Sinagogara sartu zan zeru-
-bidea erakustera.

Ikusi zitun parisaitarrak
erne ara ta onera,
zer esaten zun, zer egiten zun
beren begiz ikustera.

387

Beso igarra zeukan gizon bat
bazegon jende artean,
Jesusen itzak aditu nairik
exeriz aulki batean.
Parisaitarrak erne zebiltzan
zer ikusi, bitartean,
ea sendatzen ote zun bada
gaixoa larunbatean.

388

Parisaitarrak jarri zioten
sarea erori zedin,
ixil-ixilik zegon gaixoa,
an ageri zan beñepin.
Baña Maisuak biotz barrenak
aztertzen nola baizekin,
maltzurkeriak desegiteko
asmatu zuen zer egin.

389

Etzegon judu-erriko maisu
aien biotza umilla,
Sinagogako txoko danetan
beti bazegon koadrilla.
Jesusen egin eta esanen
ikusi-mukusi ixilla,
Sanedriñera salatutzeko
aitzaki on baten billa.

390

Maltzur urbildu zitzaizkion ta
egin zioten galdera:
“Larunbatez iñor sendatzea.
Maisu, zillegi ote da?”.
Maisuak laxter begiratu zun
aien barrunbe beltzera,
antz eman zion nola zetozen
bat eginta tentatzera.

391

“Uneoro zabiltzate nere
inguruan zelatari,
aske dan edo ez begiratzuz
egiten detan lanari”.
Laxter agindu zion ondoan
zeukan beso-igarrari:
“Mesedez, jeiki zaitea, atoz
ta danen erdian jarri”.

392

Maisuak ere galde egiñaz
eman zien erantzuna:
“On edo gaizki egiteakin
austen al da jai-eguna?
Zillegi ote da gaixo bati
biurtzea osasuna?
Larunbatez jai dalako utzi
liteke iltzen laguna?”

393

Zuetako nork utziko luke
ardi bat gaizki dagona,
atera gabe larunbatean
zulora eror zaiona?
Ez al da zuen ardia baño
askoz geiago gizona?
Orduan aske da larunbatez
ere egitea ona”.

394

Naigabeturik zegoen oso
Jesusen biotz goxoa:
nola eduki zezaketen ain
barren maltzur ta paltsoa?
“Luzatu zazu –agindu zion–
zure eskubi gaixoa”.
Sendo-sendo geratu zitzaion
igar zedukan besoa.

395

Sumindu ziran parisaitarrak
onetatik erten zori,
olako isek beltzik etzaion
egin oraindik iñori.
Lotsagarria! Etziran bada
beren sarean erori?
Jesusekin len ere askotan
gertatu zitzaien ori.

396

Beti aurrean sinagogara
oituak zeuden ikusten,
ura zapaldu nai baña beren
indarrak eskas zituzten.
Eztabaidaka asten ziranean
lotsagarri zitun uzten,
erodetarrakin bat eginta
galtzea pentsatu zuten.

397

Juduak ezin ikusi zuten
aurrean Jesus umilla,
aiek ateak zabaldu ala
onek jarri maratilla.
Beren eziñak umiltzen zitun,
ortik gorroto ixilla;
au galtzearren joan ziran andik
lagun geiagoren billa.

398

Ezin etsia, beti zirika,
galtzeko zoramen zoro,
nonai sareak jartzen zizkaten
an arrapatzeko gogoz.
Bañan geienak beren sarean
egiten zuten oztopoz,
erodetarrak lagun artuta
galdu nai zuten gorrotoz.

399

Itxas-ertzera joan zan orduan
Jesus, ez aien beldurrak;
zaunka egingo zioten baña
ez arrapatu txakurrak.
Igaro arte Aitak neurtu
zizkion urte laburrak,
beti aurrean izango zuten
Maisua ixpi lapurrak.

400


Jendea itxu-itxuan dator
arturik beren gaixuak,
zetozen danak sendatzen zitun
jarririk bere besuak.
Iñora ezin, loturik dauka
jendearen erasuak,
itzegiteko aukerik berriz
ez du galduko Maisuak.

401

Ingurutako errietatik
itxas-ertzera jetxita,
elkar bultzaka dabiltz Jesusen
jantzia ukuitu naita.
Ukuitzen duna sendatzen dala
danak daude sinetsita,
senda-indar berexi bat bere
soñetik ertetzen baita.

402

Deabrudunak bere aurrean
auspezka jartzen zaizkio,
bera agurtu ondoren andik
danak, umil ta serio,
“Jainkoaren Semea zera zu”
esanaz dijoazkio;
eske datozen danak onartuz,
maitetasuna dario.



113

Joanek ikusi zuen orduan zabaltzen zeru urdiña,
une artantxe nola jetxi zan zerutik uso ariña;
Jesusen buru gañean nola egin zuen itxogiña;
berela entzun zuen abots bat bere Aitak itzegiña:
“Zu zera nerc Seme maitea, Zugan daukat atsegiña”.

403

Ontzi txiki bat jarri zioten
beretzako itxasuan,
jendea zegon tokitik bertan,
oso leku erosuan.

Ontzi artatik itzegiten zun
aske, patxara osuan;
itxas-ertzetik ao xabalka
jendeak entzuten zuan.

404

Orduan bete zan Isaias
profetak esan zuana:
“Orra or nere morroi kutuna,
nik aukeratu detana.
Nere biotzeko maite, nere
Atsa berekin darama,
atzerritarrei erakusteko
zuzenbidezkoa dana.

405

Eztabaidarik ez du egingo,
ez du aterako otsik;
karrika oietan ere ez dute
entzungo bere abotsik.
Purrustadik ain gutxi, itzali
ere ez sutan dagon txotxik;
gauza guzitan zuzena, argan
sinistuko dute pozik.

Apostoluak

406

Egun gutxira Jesus bakarrik
igo zan andik mendira,
bere Aitakin itzegitera,
ixilik bakartegira.
Arrats guzia otoika pasa,
urrengo egunsentira
jetxi zan Jesus mendi gañetik
apostoluen erdira.

407

Bere ondora ots egin zion
bere ikasle-sallari,
aietatikan berexi zitun
aukeratuak amabi,
apostoluen izenarekin
joateko mixiolari;
deabru berak uxatuz egin
zuten amaika mirari.

408

Beren izenak: Pedro eta Andres,
Santiago Zebedeo,
bere anai Joan, Pelipe, Tomas,
Bartolome ta Mateo,
Alfeoren seme Santiago,
Simon ta Judas Tadeo,
azkena Judas Iskariote,
saldu zuna Jesus gero.

409

Mendi gañetik jetxi zaneke
Jesus inguratu zuten,
berebiziko salla, gaixoak
ere berekin zituzten.
Gaixo guziak senda ondoren,
Maisu onari entzuten;
atseden pixar bat artu naita
ere etzioten uzten.

410

Deabrudunak askatzen zitun,
gaixoak berriz sendatu;
ura ango jendearen emana,
lanik ezin zan bukatu.
Ukuitu naia batek, besteak
oiuka zerbait eskatu;
erri-jendeak maite zuela
ezin gentzake ukatu.

411

Alako bat azalduko balitz
gaizki gabiltzan munduan,
sendagille bat gaixo guziak
sendatzen dituna duan,
bateonbaten paltik ez luke
izango bere onduan;
berdin gertatzen zan Jesusekin
ere Judean orduan.

412

An ere beti azalduko zan
norbait gaixorik zegona,
Maisuak beti sendatzen zuen
inguratzen zitzaiona.
Ikusirik aren indarra ta
aren borondate ona,
zeñek ez luke maitatuko gaur
ere alako gizona?

Mendiko itzaldia (I)

413

Danak sendatu ondoren bada
igo zan muño gañera,
andik obeto itzegiteko
artuz jendea gainbera.
Apostoluak ere urbildu
zaizkion aldamenera,
aren aotik goxo zetorren
Berri Ona entzutera.

414

Azpian belar guri-guria
zefon mendixka-egala,
ta eguzkia erdi bidean,
ederki ikusten zala.
Jende guzia lilluraturik
erne begira zeukala,
beti bezela izketan goxo
asi zan Jesus apala.

415

“Zoriontsua borondatezko
beartsua dan gizona,
irrikik gabe daukanarekin
pake osoan dagona,
munduko urre-zillarreatik
ajolarik ez diona;
orrena baida Aitaren zeru-
-erreinuko zoriona.

416

Zoriontsuak biotz goxoak,
gizon umil ta otzanak,
ezpairik gabe edozeñeri
lagundutzeko etzanak,
etxe ta landa biotz paketsu,
apal eta eramanak;
oiek baidira lurbira onen
jabe izango diranak.

417

Zoriontsuak oñazepan
negar egiten dutenak,
beren naigabe ta gaixotasun,
eraso, samin ta penak
pazientzian Jainkoagatik
ixill daramazkitenak;
luzatu gabe atsegin poza,
iritxiko dute denak.

418

Zoriontsuak justiziaren
gose-egarri diranak,
garbi egiten dituzten aiek
elkarren artu-emanak,
kargatu gabe iñori ezin
eraman alako zamak;
gaur edo biar zuzentasunak
aseko baiditu danak.

419

Zoriontsuak errukitsuak,
naigabearen ondoan,
biotz mindurik, poza eraman
nai duten aiek munduan,
erruki poza daramatenak
nonai al duten moduan;
oiek danak iritxiko dute
errukia azken orduan.

420

Zoriontsuak dira benetan
munduan biotz garbiak,
Jainkoagatik utz dituztenak
aundinai ta kutiziak,
lurreko gauza danetik aske
gora begira jarriak;
Jaungoikoa bera ikusiko
baidute aien begiak.

421

Zoriontsuak pakezaleak
beren sinismen argira,
berak danakin pakean eta
paketu nairik lurbira,
elkartasun ta maitasun-poza
daramatenak ludira;
mundu onetan Jainko-semeak
deituak izango dira.

422

Zoriontsuak zuzenagatik
bizitz erreza laga ta
jazarrituak, espetxe, multa,
irain gaizto, zigorkada,
gezurretako izen bestek,
gorroto, gaizki esaka
Jainkoagatik daramaztenak,
zerua oiena da ta.

423

Zoriontsuak ni naizelako
erru gabe zamatzean,
nere izenagatik gezurrez
izen garbia galtzean.
Aundia baida zuen saria,
sinistu, nere itzean;
berdin ibili ziran profetak
Israeleko etxean.

424

Ai, zuri, berriz, aberats orri,
diruari itsatsia,
arintzea nai ez dezulako
urkoaren miseria.
Aiek zapalduz aien bizkar zuk
daramakizun bizia,
errukarri zu, artu baidezu
munduan zure saria.

425

Ai zuri, aseta zauden orri
aberearen antzera,
jan-edanak besterik pozik ez
dakarkizu biotzera,
ustelduko dan aragiari
dezun dana eskeintzera;
errukarri zu, egunen baten
gose izango baizera.

426

Ai, parrez ari zeraden ori,
mundu ontako azkarra,
zedorri ondo zeran bitarte
zama besteren bizkarra.
Aien eziñez pozten zerana,
egin zazu orain parra;
egunen batez egingo dezu
marraxka eta negarra.

427

Ai zuei, mundu ontan gizonak
goratzen zaituztenean,
arrokerizko bizimodua
lasai damazutenean.
Berdin egin zuten gezurrezko
profetakin antziñean;
lur jotzeraño umil bearra
daukazute azkenean.

Mendiko itzaldia (II) Lege berria

428

Lurraren gatza zerate zuek
-jarraitu zuen esaten-.
Gatzak, gezatuz, ez badu bere
gazitasunik ematen,
zertako dezu? Ezertarako
ez du balio izaten;
bide gañera botatzen dute
gizonak zapal dezaten.

429

Mundu ontako argi zerate
dizdizka uri xarrean,
erririk ezin gorde liteke
goiko mendi-gallurrean.
Izan zaitzte mendi-gallurrak
zuek gizonen aurrean,
zuek ikusiz betiko Aita
gores dezaten lurrean.

430

Argirik ez du iñork piztutzen
jartzeko lakaripean,
etxe guzia argitu dezan
argi-mutillen gañean.
Zuen argiak ere dizdira
beza gizonen aurrean,
zuek ikusiz betiko Aita
gores dezaten lurrean.

431

Ez uste lege ta igerleak
kentzera jetxi naizenik,
ez naiz ortara etorria, ez,
ondo betetzera lenik.
Izpirik ez da galduko, garbi
esaten dizutet gaur nik,
bizitza bizitz, asi ta buka
dana bete gabetanik.

432

Agindu txiki bat austen duna
eta berdin erakutsiz,
zeruetan ere txikiena
bera izango da egiz.
Guzia bete ta betetzeko
erakusten duna, berriz,
zeruetako jaurgoan ere
aundi izango da guztiz”.

433

Badakizute “ez iñor il” zala
lenago agintzen zana,
auzitegian zigortu bedi
iñor erailtzen duana.
Au zan Moiseren lege zarrean
antziñakoei esana,
zorrotzago da lege berrian
Maisuak guri emana.

434

“Benetan diot, iñork asarre
erazten badu laguna,
izango dala auzitegian
zigortzeko erruduna.
Eta bere anaiarengatik
gaizki esaka jarduna
izango dala inpernuko su-
-leizea merezi duna.

435

Opari eskeintzera bazoaz
eta oroitzen bazera,
zure anairen bat daukazula
zurekin zaputuz-antzera,
uztazu bertan opari ori,
ta joan adiskidetzera;
orduaz lasai etorri zaite
oparia eskeintzera.

436

Adiskidetu etsaiarekin
zoazen arte bidean,
zigor-lekura sartu etzaitzan
arek errira joatean,
epailariak lotu etzaitzan
zigor-etxeko katean;
andik etzera irtengo azken
txanpona ordain artean”.

Mendiko itzaldia (III) Ezkontza

437

Lege zarrean agintzen zana:
“Etzazu urratu ezkontza”,
baña irrika usteletatik
etzuten zaintzen biotza.
Orduko legea etzan bada
gaurkoa bezin zorrotza,
baña Maisuak argi ta garbi
danen aurrean diotsa.

438

Txutik jarrita begiratuaz
danei serio-antzean:
“Nik diozuet, berriz, norbaitek
ixilka begiratzean
emakumeren bati, barrutik
bera irrika pozean,
orrek arekin ezkontza autsi
dula bere biotzean”.

439

Lengo lege zarrean senarrak
utz zezaken emaztea,
gizonak aski zun ortarako
agiri bat ematea.
Eta ondoren artu zezaken
bere andretzat bestea,
baña Jesusek dio ez dala
libre ezkontza austeia.

440

Lizunkeriatatik ez bada,
Maisuak ala esan zun,
ezkontzik ezin liteke autsi;
bat dira ta ez bi lagun.
Berexten zanak berriz ezkondu
gabe bear zula jardun,
bitakoren bat iltzen zan arte
iraunez bizi-alargun.

Mendiko itzaldia (IV) Eskandaloa, ziña

441

“Kendu ta jauzi zure begia,
gaizbide ematen badizu,
gorputz guzia kixkali baño
ori galdu obe dezu.
Zure eskuak galbideratzen
bazaitu, berdin egizu;
osorik erre baño zati bat
galtzea obeko zaizu.

442

Lege zarrean ajolik gabe
egin zezaketen ziña,
pekatupean galerazita
zegan gezurrez egiña.
Gañerakoan, zin egitea
ain jotzen zuten ariña,
baña orrela ez da Maisuak
ematen digun dotriña.

443

Ezerengatik ez egin ziñik,
beti izan izketan zurrak,
pakean utzi zeru, Jainkoa,
emengo gizon ta lurrak.
Zuen biotzik ez beza iñoiz
ere zikindu gezurrak,
bati bai ta ez, gañerakoak
baidira joko makurrak”.

Mendiko itzaldia (V) Etsaiak maite

444

‘Begi orde begi, ortz orde ortz’
lengo legeak ziona;
gaizki egiñak barkatutzea
lege artan etzan ona.
Bere ordaña eman artean
etzegon lasai gizona,
ona non degun lege berrian
gure Maisuak diona.

445

“Gaiztoari ez gogorrik egin;
eskubiko masallean
jotzen bazaitu, jarri ezkerra;
soñekoa auzipean
kentzen dizunari emazioz
azpikoa’re pakean;
milla pausoz beartzen bazaitu
zoaz beste ainbestean.

446

Eskatzen dizunari luzatu
ordañik gabe, utsean,
interesik gabe; ez ibilli
irabazteko pozean.
Etzaiozula biur arazi
zuretik zerbait kentzean;
egin besteri zuri egitea
naiko zenduken antzean.

447

‘Biotz-biotzez onetsi zazu
maitatzen zaitun laguna,
baña gorrota eta gaitzetsi
zure etzaitzat daukazuna’.
Ori zan gurasoen legeak
gaur arte agintzen zuna,
baña aunitzez zorrotzago da
orain agintzen zaiguna.

448

Bene-benetan nik diozuet:
Etsaia maite zazute;
barka biotzez, on egin beti
isekatzen bazaituzte.
Onetsi zuen gaitzesle danak,
on biur txarraren truke,
zuen izena bezten dutenen
alde otoi egizute.

449

Nere Aitaren antzeko izan
bedi zuen irudia:
arek on eta gaiztoentzako
agertzen du eguzkia.
Gaiztoen edo onen soroan
ixuritzen du euria,
norentzako zan berexi gabe
berdin egin zun ludia.

450

Maite zaituzten aiek bakarrik
maitatzen badituzute,
merezi al dezute saririk
maitetasun orren truke?
Atzerritar ta zergalariak
orrenbeste egiten dute,
beren maitatzalleak gaiztoak
ere maitatzen dituzte.

451

On egin beti biotz-biotzez
zure urko lagunari
nor dan ere begiratu gabe;
bestela ez dakit zer sari
merezi dezun, ona eginta
on egiten dizunari;
gaiztoak ere badakite on
egiten ongillari.

452

Eman dirua interes gabe,
maitasunez egin dana;
lagun beti urko lagunari,
eta ez kobratu lana.
Ez baida inoiz eskertzekoa
biurtzekotan emana,
gaiztoak ere ematen dute
jasotzekotan ordaña.

453

Egin agurra, baña daneiri
maitasunez, biotz bero;
zure lagunei bakarrik baldin
agurra egitezkeru,
ez dakit orrengatik zer sari
bear dezuten espero;
atzerritarrak berak ainbeste
egiten dakite gero.

454

Maite benetan zuen etsaiak,
egin ona baña duan,
sari ordañik eskatu gabe,
beti al dezun moduan.
Nere Aitaren irudikoak
baiziñazteke orduan,
Aita biotzbera baita esker
txarrekoakin munduan.

455

Izan zaitea, errukitsua,
izan biotz gozokoa,
zeruetako zuen betiko
Aita dan bezelakoa.
Izan zaitea gorputz ta anima
ona, on bete, osoa,
guztiz on-ona dan bezelaxe
zuen Aita Jaungoikoa.

Mendiko itzaldia (VI) Ez izan aizunak

456

Begira gero ez egin danen
aurrean zuen lan onak,
ez agerian ta enparantzetan
zabaldu zuen txanponak,
beraizik ere zuen emaitzak
ikustearren gizonak;
ez baidu ori inoiz sarituko
Aita zeruan dagonak

457

Limosna eman bear badezu
gizon artetik ezkuta,
itxuratiak bezela ez jo
enparantzetan turuta,
egin dezuna ikus dezaten
jendeak, ara bilduta,
egia esan, bere saria
arek emen artu du ta.

458

Zure lanetan etzaitezela
izan oiek bezin itxu,
limosna eman bear badezu
ixil gordean egizu.
Gizon-ospearen atzetikan
ez beñere ibilli zu,
ezkutua ikusten dun Aitak
saria emango dizu.

459

Ez otoitz egin zuk karrketan
itxurati oien gisa,
oiek kale ta sinagogetan
egiten dute otoitza.
Argatik beti gizonen ospe
aintzaren billa dabilta,
bene-benetan artu dutela
bere lanaren emaitza.

460

Baña zu beti zure Aitari
otoitz egiterakuan,
sartu gelara ta an ixillean
egin otoitz ezkutuan.
Betiko Aitak gordean ere
nola ikusten baiduan,
zure lanaren ordain-saria
emango dizu orduan.

461

Otoitzean ez itz asko egin
atzeritarrak bezela,
uste baidute itz askoren truk
dana emango zaiela.
Eska baño len badaki Aitak
bearrean zeratela,
zuek otoitz egiterakoan
egin zazute orrela:

462

Zeru goietan zaitugun Aita
dedilla bedeinkatua,
bizi geranon artean bedi
zure izena santua.
Zabaldu bedi gure artean,
Aita, zure erreinua,
zeruan bezela egin bedi ere
lurrean zure gogua.

463

Eguneroko gure ogia,
Jauna, eman egiguzu,
guk zordunei bezela zuk guri
zorrak barka zaizkigutzu.
Ez gaitzazula zirikaldira
eraman erazi gaur gu,
baña gure gaitz guzietatik
onik atera gaitzatzu.

464

Nik diozuet: barka biotzez
zor dizuteneiri lenik,
Zeruko Aitak ere ez dizute
ukatuko barkamenik.
Baña barkatzen ez badezute
zueiri zor dizutenik,
Zeruko Aitak barkatzeko ez
eduki itxaropenik.

465

Barau egitean triste ez jarri
itxuratiak bezela,
ikasi dute oiek ederki
jartzen arpegi goibela,
orrela danak jakin dezaten
barau egiten dutela;
nik diozuet sari ordaña
oiek kobratu zutela.

466

Zuk barautzean usai gozoaz
igurtzi zure burua,
jendeak iger ez dezan nola
egiten dezun baraua.
Zeruko Aitak ikusten baidu
ixilleko ezkutua,
benetan Arek emango dizu
ordain-sari segurua.

467

Zertan zabilta mundu ontako
ontasun asko pillatzen,
atsedenik ere ez dezula,
betiko ustez, zoratzen?
Ez al dakuzu pipiak danak
nola dizkitzun ondatzen?
Zallak dirala lapur gaiztoen
begitatiek ezkututzen?

468

Ondasunak, bai, pilla itzatzu,
baña betiko, zeruan;
pipi ta lapur-beldurrik gabe
beude Aitaren eskuan.
Gaur edo biar, urruti gabe,
zuretzat dira geruan,
zure biotza antxe baidago
ondasun oien lekuan.

469

Gorputz guziko argi-egille
benetan zure begia;
argi-egille daukazun begi
ori badago garbia,
zalantzik gabe argi ta garbi
egongo dala guzia,
gorputz guzia dizdiratsua,
begia bezin argia.

470

Zure begiak gaizki badaude,
ezeren argi gabeak,
zure barruak ere egongo
dira illunez beteak.
Illunte bada argi bearra,
zenbateko illunteak
ote dauzkate orduan bada
zure gorputz-barrunbeak?

471

Ezin liteke bi nagusiren
morroi bat ondo atera,
nai eta nai ez jo bearko du
bataren borondatera,
orretxegatik jarriko zaigu
bigarrenaren kaltera;
ezin litezke serbi Jainkoa
ta Satan, biak batera.

472

Zer jan-edango biziagatik
ez ibili kezkatia,
gorputzagatik ere ez zerekin
estali larru gorria.
Jatena baño askoz geiago
ez al da bada bizia?
Eta gorputza baño geiago
izango ote da jantzia?

473

Ikus zazute txoriak nola
ez duten egiten lanik,
negu luzeko mandiotara
ezer jaso gabetanik.
Aita Zerukoak ala ere
ez die ukatzen janik,
nola utziko zaituzte zuek
askoz geiago izanik?

474

Esaidazute zuetako nork,
beldur, kezka ta zaputza,
arra beterik ere luzatu
lezake bere gorputza?
Zuetako nork ordu beterik
bat beren bizia luza?
Zergatik kezka txarretan jardun?
Ori ez da zuen gauza.

475

Eta zergatik jantziz kejatu?
Orra soroko loreak
nolatan Aitak jantzitzen ditun.
Nork ote dauzka obeak?
Etzeuzkan bere ospe guzian,
ez, Salomon erregeak
lore txikitxo oietako batek
bezin jantzi dotoreak.

476

Ikusten dezu zeñen dotore
jantzitzen duen belarra;
goizean sortu ta gaberako
dagona ximel, igarra?
Askoz geiago ornituko du
gizonen jantzi bearra;
orduaz zertan ibilli kezka,
zergatik ainbat negarra?

477

Ez egon bada kezka txarretan
etsirik, diozutela:
'Zer jan ta zertaz jantziko gera?'
atzerritarrak bezela.
Ondo sinisten ez duten aiek
ibiltzen dira orrela,
Zeruko Aitak badauki ori
dana bear dezutela.

478

Eduki gabe mundu-gauzetan
onenbeste zoramena,
billa itzatzu goi-ondasunak,
zeru-jaurgoa lenena.
Ta gizonentzat munduan beren
zuzentasuna urrea,
eta emango zaizute gañez
emen bear dezutena.

479

Etzaite bizi gau eta egun
kezka, urduriz betea;
ez bedi izan jan ta edana
zuen betiko eskea.
Biaramonak ekarriko du
egun artako berea;
utzi kezka oiek, egun bakoitzak
aski du bere nekea.

Mendiko itzaldia (VII) Ez iñor epaitu

480

Ez iñor epaitu, epaitua
zu ere etzaitezen izan;
Jainkoak epaituko baizaitu
zuk egiten dezun gisan.
Etzatzu iñor ere gaitzetsi
iñork gaitzetsi etzaitzan;
asketsi zazu Zeruko Aitak
zu ere asketsi zaitzan.

481

Eman zazu, ez murrizta izan,
neurri oparoa, ona,
berdin emango zaizu zuri're
neurri gañez dariona.
Zure neurria berbera baida
zuretza ere dagona,
neurtutzen duen neurri berean
neurtuko dute gizona.

482

Ikasle duen batek ain edo
geiago daki maisuak,
geienekora jotzen badegu
ere biak berdintsuak.
Bidea itxu bati erakutsi
al dezaioke itxuak?
Ez ote zaizkigu eroriko
biak zulora gaixuak?

483

Nola ikusten dezu besteren
begian lasto igarra,
zurean berriz ez al dakuszu
trabeska zugaitz-abarra?
Nola zoazke atera nairik
aren begiko zakarra,
zedorrenean daukazularik
ainbesteko puska tzarra?

484

Etzaite izan egundo iñoiz
itxurati ta gaiztua,
zedorrenzako lasaiegia,
besterezako estua.
Atera lenen zure begitik
adar zar ori, astua,
ta gero ken zazu anaiaren
begietatik lastua.

485

Gauz santurik ez alperrik galdu
txakurreiri egotzirik,
txerri artera ere ez bota
egundo txirla pitxirik.
Ankapean zapaldu ta gero
zuengana itzulirik,
bertan txirtxillatu etzaitzaten
beren ortzetan, bizirik.

486

Eskatu zazu, eskatzen dunak
artzen dula badakizu;
billatu zazu itxaropenez
eta arkituko dezu.
Bear dezunez beldurrik gabe
ateetan dei egizu;
zalantzik gabe itxaron lasai
eta zabalduko zaizu.

487

Zuetako nork emango dio
semetxo bati arria,
goseak dagon bere semeak
eskatzen badu ogia?
Zuetako nork emango dio
jateko sube gorria,
goseak dagon bere semeak
eskatzean arraikia?

488

Zuek gaiztoak zeratelarik.
grña gaiztoko gizonak,
badakizute zuen aurreiri
ematen beti gauz onak.
Beste ainbeste ez du egingo
Aita zeruan dagonak?
Bear duana ez du artuko
Ari eskatzen dionak?

489

Egin besteri arek zuri nai
zendukena egitea,
eduki zazu biotz barruan
beti maitasun betea.
Eduki beti urkoarentzat
zabal etxeko atea,
ortantxe daude, ortako dira
profetak eta legea.

490

Ate estutik sartu zaitetze,
orixe baida zuzena;
ez zabalera sartu egundo,
ortik dator ondamina.
Ta zoritxarrez ortik dijoa
berriz jenderik geiena,
bizi-bidea mearra baida,
guxik arkitzen dutena.

491

Sasi-profetak uxa itzatzu,
ez sartu aien erdira,
ituratiak, beti baidabiltz
ardi otxanen jantzira.
Otso maltzurak dirala oiek
zer arrapatu begira,
erne ibili beren lanetan
ezagutuko baidira.

492

Ez dezute mats-mordo goxorik
bilduko elorrietan,
piku biribil eldurik ere
ez astali karduetan.
Arnari onak etortzen dira
beti arbola onetan;
eta, jakiña, arnari txarrak
datoz arbola txarretan.

493

Zugaitz onak frutu onak, txarrak
txarrak ditu edukitzen;
zugaitz bat ona edo txarra dan
ez da frututik jakiten?
Ez baidu iñork karduetatik
piku boribillik biltzen,
elorriak ere ez du egundo
mats-mordorik ekarritzen.

494

Arnari onik ematen ez dun
zugaitza zertako utzi?
Erro-errotik botatzen dute
bere landare ta guzi,
ezertarako ez dan puska bat
bezela surtara jauzi;
nolakoa dan ezagutzeko
lenen frutua ikusi.

495

Gizon bakoitzak erakusten du
bere barruan dagona,
artan pentsatzen baidu geiena,
artan dauka zoriona.
Gaiptoak txarra dakar txarretik
ta onak onetik ona,
biotz barruan daukan artatik
mintzatzen baida gizona.

496

Zertan deitzen didazute Jauna
ta egin ez agindurik?
Biotzez maltzur, mingañez Jauna,
ez daukazute bururik.
Nere Aitaren naia egiten
dunak, egon sinisturik,
besterek ez dula ikusiko
nere Aitaren zerurik.

497

Azken orduan askok esango
didazute: 'Jauna, Jauna,
ainbat aldiz zure izenean
mirarik egin nituna'.
Argi ta garbi emango diet
danei nere erantzuna:
'Alde nigandik, gaizkigillea,
ez baizaitut ezaguna!'.

498

Zuen sinismena itz utsetan
ez bedi geratu dana,
nere itzetan ondo sinistu
ta bete nere esana.
Okerbideak utziz betiko
urbiltzen dana nigana,
etxegille baten antzekoa
da ark egiten dun lana.

499

Arkaitz bizian oñarritua
egin zuen etxe ori;
asi ziran gogor euri-jasak,
ujolak ziran etorri,
aizeak ere ekin zioten
bultzaka zapaldu-zori;
arkaitz bizian jaso zagon,
etxea etzan erori.

500

Zeñen idurikoa da berriz
entzun, bai, nere esana
baña bere lasaikerietan
bete gabe bizi dana?
Buru gabeko etxegille txar
erdi ero baten lana
bezelakoa da gizon alper
arek egiten duana.

501

Gizonak jaso zun bere etxea,
oñarriztat ondar bera;
euriteak jo zuten, ujolak
etorri ziran gañera.
Ekin zioten aizeak ere
jo ta bultzaka batera,
etxe aula erori ta urak
eraman zuen gainbera”.

502

Jetxi zan Jesus muño gañetik
itzaldia bukatuta,
eta aurrera jarraitu zuen
ikaskale danak artuta.
Jendea ere bere ondoren
ain baizegon arrituta,
izan ere nola ez, gaur oraindik
ala egiten gaitu ta?

503

Ontzat zeukatena gaitzesten du,
txarra berriz onetsitzen,
etzion onek beste inongo
irakasleri segitzen.
Eskubide dun batek bezela
beretik zuen jalkitzen,
jendea nola etzan egongo
lilluraturik aditzen?

Sendaketan

504

Erri batera sartu zanean
an zebillen legenduna;
Jesus ikusi zuen orduko
lurreraturik belauna,
agurtu zuen eta berela,
apal ta sinismenduna,
otoitz egiñik: “Zuk nai badezu,
garbi nazakezu, Jauna”.

505

Itxaropenez eske gaixoa,
begiraka Jesus ona,
urrikaldurik eskuarekin
ukuitu zuen gizona,
esanaz: “Nai det, sendatu zaite”,
eta bat-batera, ona!,
txukun ta garbi non geratu zan
gaitzak ain jota zegona.

506

Agindu zorrotz bat eman zion:
“Ez gero jardun kontari!
Zoaz ta esan nola sendatu
zeran apaiz buruari.
Eta eskeñi Moisek legean
agintzen duna opari”.
Baña ixilik gorde erazi?
Etzan alperrikan ari!



119

Orduan mendi aundi batera eraman zuen aidean,
ludi ontako aunditasunak aurrera azalduz batean:
“Ori nerea dek eta dana zedukat nere mendean;
dana emango dit baldin emen, umilki, nere aurrean,
oraintxe bertan agurtzen banauk auspez etzanik lurrean”.

507

Bere aurretik gorde orduko,
gaitzak ain jota zegona,
eta errukiz Jesus maiteak
sendatutako gizona,
zabaltzen ari zan erriz erri
egin zion esker ona;
urrutineko bazterretara
iritxi zan bere sona.

508

Ezin ziteken ezkutuan sar
Jesus iñongo errira,
jende guzia, gaixo ta guzi,
baizebillen jira-bira,
ainbeste on egiten ziena
non arkituko begira;
orretxegatik aldegiten zun
ixilka bakartegira.

Eun-burua

509

Galileako arratsaldea,
arratsa ez da urruna,
joan da eguzki kiskalgarria
pixkat biguinduz eguna.
Gizataldea ondoren dula
Maisu, profeta entzuna,
Kafarnaungo errira dator
auts tarte aiek barruna.

510

Ikasle-salla bere ondoren,
Jesus artzai artaldean,
aldapak bera itz ta solasa
zetozen danak pakean.
Mendi aldetik erri xarrera
sartzearekin batean,
eun-buruaren agure batzuk
bere zai zeuzkan atean.

511

Gaurko gisara egiten zuten
orduan ere gudua,
gaurko kapitana añakoa zan
orduko eun-burua.
Erromatarra izan bear zun,
zaitzen ango ingurua,
erromatarren mende baizegon
aspaldi artan judua.

512

Guda-mutillen kapitan zegon
Erromatik etorria,
ango aginduak betetzeko
arrotz-errian jarria.
Atzerritarra izanagatik
etzan gorrotogarria;
ikusten danez, bene-benetan
maite zun judu-erria.

513

Bere morroi bat zedukan onek
gaixo, supritzen zegona,
ta bera ere alaxe zegon,
ain baizuen biotz ona.
Sinistu zuen egingo zula
Jaunak eskatzen ziona,
albiste bat ari bialtzea
ausartu zan ba gizona.

514

Jende artean sartu zaneke
Maisua atez barruna,
mandatariak esan zioten
eun-buruari entzuna:
“Nere morroia gaixorik dago,
sendatu zaidazu, Jauna”.
Egingo ote zun atzerritar
batek eskatutzen zuna?

515

Mandatariak ere eskari
asi zaizkion berela:
sendatzeko, bai, mesede ori
ondo merezi zuela.
Kafarnaungo sinagoga ere
arek jasoa zutela,
erri xar ura maitatzen zula
judua balitz bezela.

516

“Mesede ori merezia du”
otoika zioten ekin,
Jesusen biotz ona berotuz
esan zizkaten itzekin.
Eskari oiek entzun ondoren,
nola guzia baizekin:
“Joango natzaio, sendatuko det”
ta bazijoan aiekin.

517

Eun-burua ikaratu zan
Jesus bazetorkiola,
ari etxera etortzen nola
utzi bear zion, nola?
Ezin ziteken Jesus umildu
ainbesteraño iñola,
bidera joango zitzaion bera
oraindik urrun zegola.

518

Eta ona erten zitzaion
eun-burua bidera,
burua makur, apal ta otxan,
Jesus onaren aurrera:
“Ez det merezi, etzoazela,
Maisua, nere etxera,
ementxetik nai izanarekin
sendatuko dezu bera.

519

Besteren mende nabillen onek
ere badituz onduan
guda-mutillak; txintxo egiten
dute agindutakuan.
Bati ‘oa’ ta badoa, ‘ator’
eta badator orduan;
morroi guziak egiten dute
agindutako moduan”.

520

Jesus xamurtu zan au entzunik:
ura atzerritarra zana;
gudalburua, bai sinismena
bero sutsua zeukana!
Erakusbide bikaña zan ark
judutarreiri emana,
bestestik gabe irabazi zun
Jesusen biotz otxana.

521

Maisuak etzun galtzen egundo
ain egokiera onik
itzegiteko, orduko gisa,
jende aurrean egonik.
Gizataldegan itzuli zan da:
“Benetan diotzet nik:
ez det arkitu Israelen bertan
ere olako gizonik.

522

Atzerritarrak etorko dira
sartalde ta sortaldetik,
jango dutenak Abraan, Jakob
ta Isaaken maietik.
Israelekoko maiorazkoak
botako dituzte etxetik
illunetara, negar-marraska
egin dezaten leizetik”.

523

Gero Maisuak eun-buruari
esan zion maitasunez:
“Zoaz pakean, gerta bekizu
dana sinistu dezunez”.
Atzerritarra joan zan etxera
biotz gañezka zorunez,
esan bezela bere morroia
arkitu zun osasunez.

Alargunaren semea piztutzen du

524

Kafarnaundik aurrera doa
Maisua bere bidean,
ikasle-salla zalapartaka
ere berekin batean,
Nain izeneko erri txikira,
Kafarnaundik aldean;
jende berria bildu ta bildu
ari da gizataldean.

525

Erri txikira urbil zaneko,
aurrez aurre, bat-batean,
kanpo aldera zoazenakin
topo egin zun atean.
Andre ta gizon, zar eta gazte
baziran gizataldean,
mutil koxkor bat kanposantura
zeramatela aidean.

526

Jende ugari atzetik zuen,
kale xar aiek barruna,
bazeramaten eortzitzera
ama baten maitasuna.
Etzeukan beste bizi-pozikan:
seme bakar ta kutuna;
ama gaixoa berriz bakarti,
aspalditik alarguna.

527

Bere ondoan ixil-ixilik,
etzun egiten oiñ-otsik,
etsipenaren mendean negar,
zerk emango zion pozik?
Oñaze artan zerk lasaituko
zion amari biotzik,
ikusirik nola zeramaten
seme bakarra illotzik?

528

Ama gaixoa negar ta negar
zerraldoiaren onduan,
Jesusen biotz xamurra ere
urrikaldu zan orduan.
Eta berela Maisu onari
jarri zitzaion buruan
ama bakarti ura poztea
berak al zuen moduan.

529

Urbilduz bada zerraldoraño
Maisua ikasleekin,
ta urrikalduz au esan zion
amari: “Ez negar egin”.
Illaren kutxa ukuituz gero
esku eskubiarekin,
Jaunak eskatu zien mesedez
il-kaxa geratu zedin.

530

Zer gertatuko danak begira,
oiuz dio gazteari:
“Gazte, irekin ari nauk eta
agintzen dit: jeiki ari!”.
Bertan exeri zan illa zana
itzegiñaz jendeari;
Jesusek berriz eskutik artuz
eskeñi zion amari.

531

Beldur-ikarak artu zituen
begira zeuden guziak,
San Joanen ikasleak berdin
an baiziran etorriak.
Profeta aundi bat bazeukala
Israeleko erriak,
bazterrik bazter zabaldu ziran
Maisu onaren berriak.

Joanen goramenak

532

Illabeteak izango ziran
Joan ixilik zegola,
Erodesen kalabozoetan
jarri zioten kaiola.
Bazekin noski bizia ere
laxter kenduko ziola,
bera bete zuen ederki
eta etzion ajola.

533

Espetxe artan ikasten zitun
Joanek Jesusen berriak:
nola zebiltzan urgunak, nola
sendatzen ziran erriak;
gorrak entzuten zutela ondo,
argi itxuen begiak,
lilluraturik atzetik nola
jarraitzen zion erriak.

534

Joanek bazekin bazijoala,
lotuta zeukan etsaiak,
baña entzuten zitun iñoizka
Jesusen berri alaiak.
Berak jetxi egin bear zuen,
igo berriz senargaiak;
bera egin du eta orain
dira Jesusen garaiak.

535

Baña bazitun ikasle batzuk
eta oraindik ez gutxi;
maitatzen zitun, baña zergatik
aieiri ondoan eutsi?
Mundu ontatik joan baño len nai
zizkion guziak utzi,
orregatik biali zizkion
egun batean Jesusi.

536

Orduan Joanek bi mandatari
biali zitun batera,
kartzelan zegon tokitik Maisu
igerlearen aurrera,
Joanek agindu zien bezela
Maisuari galdetzera:
“Besteren baten zai egon edo
etortzeko ori zu zera?”.

537

Ikusi zuten beti bezela
jende artean otxana,
Mandatariak berela urbil
zitzaizkion beregana.
Danen aurrean galde zioten
Joanek kartzelan esana:
“Joanen partetik, Maisu, ea zu
zeran etortzeko dana”.

538

Maisuak etzuen jakiteko
galde bearrik iñori,
aien galdera ontzat artu zun,
etzan utsean erori.
Orduan erruz sendatu zitun
bista biurtuz askori,
mandatariak ikustearren
egiña zan noski ori.

539

Maisuak: “Zoazte, esan entzun ta ikusi dezutena: itxu ziranak ikusten dute eta badabil errena; legendunak garbitu, gorreiri eman zaie entzumena; zorionekoa gaizbiderik nitzaz artzen ez duena”.

540

Joan, Jesusen aintzindaria, asko maitatzen zuena: ildura-zale, predikalari, gauza guzitan zuzena; gores nai zuen bada Maisuak lengusuaren izena, mandatariak urrun orduko egin zun bere omena.

541

“Zer ikustera erten ziñazten Jordan aldeko ibaira? Aizeak bere mende zebilkin kañaberaren mugira? Edo soñeko guriz jantziak ikusi nairik? Begira: jantzi gurikoak erregeen jauregitan bizi dira.

542

Zertara orduan? Profeten bat ikustera? Bai, egia. Profeta baño aundigoko onen-gatik dago idatzia: ‘Orra bialtzen dizut nik zure aurretik mandataria, zu joan aurretik apain dezazun bide zuzen egokia’.

543

Bataiatzallea ager zanetik –Jesusen zuen jarraitu–, gure artean Jainko-jaurgoa ez al dezute nabaitu? Zeru-sarrera zabalik dago indarrez bear garaitu, indar egiten dunak bakarrik ura atzemango baitu.

544

Joanenganaño lege, profetak jardun zuten igerletzan, garbiro jakin nai badezute bataiatzallea nor zan, etorritzeko zegon Elias igerlea bera izan; entzun nai dunak aditu beza, orra dana garbi esan”.

545

Erriko jende galduak pozik goratu zuten Jainkua, benetan sinisturik artu baituzuten Joanen bataiua. Parisaitarra ordea beti bezin egoskor, arrua, etzuten Joanen bataiora nai izan makurtu burua.

546

“Zeren antzeko dira gizonok? –Maisuak dio samíñez–. Plazako ume jostalarien antzekoak dira ziñez: ‘Txilibitua jo dizuegu, zuek dantzatu eziñez; negar-doñua jo dizuegu, zuek negarrik egiñ ez’.

547

Joan bataiatzallea azaldu
zan, dakizuten bezela,
ogirik eta ardorik ere
jan-edaten etzuela.
'Demoniñoak artua dago'
esan zenuten berela,
zuen maleziz egi berari
bideak itxiz orrela.

548

Gizasemea orra etorri
jaten ta edaten duna,
ta zuek berriz: 'Orra or gizon
tripazaia ta jatuna,
pekatari ta zergari danen
adiskide ta laguna'.
Bitarten egi-seme ziranak
ar dute zuzentasuna.

Jesusen zemaia

549

Maisuak mirari asko egin
zizkien erri batzuek,
etzuten ezer sinist nai izan,
oraindik zeuden lausuak.
Len bezelaxe irauten zuen
pekatuaren kutsuak,
asarre xamar zemaitu zitun
Maisu Igerle sutsuak.

550

Ai, Korozain! Ai, iri Betsaida,
egoki txabal-unean,
or ainbat mirari egin balitz
Tiro ta Sidon barnean,
damutuz ilduratuko ziran
zurdaz ta errauts gañean;
aiek ariñago epaituko
dira azken egunean.

551

Eta, Kafarnaun, zuk igo nai
ote dezu zeruraño?
Orixe ez, sartuko bazaituzte
inpernuko zuloraño.
Or ainbat mirarikin Sodoma
bizi ziteken gaurdaño,
zigor ariñagoa emango
zaio ari zuri baño.

552

"Eskerrak, Aita -zion Maisuak-,
zuri, zeru-lurren Jauna,
beartsuen, ezjakiñen eta
biotz apalen laguna;
oek txikiei ta ez jakiñei
erakuts dizkiezuna,
arroi berriz estali; ori
baida nai izan dezuna.

553

Semea, zeñek ezagutzen du?
Aitak beste iñork ere ez;
Semeak, berriz, ezagutzen du
Aita, bere Seme danez.
Beste batzuek erakutsita
bere Semeak mesedez,
beste iñortxok ez du lurbiran
Aita ezagutzen berez.

554

Neke ta zama pean zaudeten
oiek atozte nigana;
ar nere uztarria, ariña
baida oso bere zama.
Ikas zazute nigandik, ain det
biotz gozo ta otxana,
or arkituko dezute zuen
animen atseden dana.

Neskatx pekataria

555

Parisaitarrak jende aberats
xamarrak ziran geienak,
sinagogetan irakasle ta
erriko buru zeudenak.
Argatik iñoiz egin zizkaten
Jesusi beren omenak,
geientsunetan beren asmoak
etziran izan zuzenak.

556

Olako batek, Simon izena,
dei egin zion Jesusi,
ta au oitura zuen ezker
joan zan ikasle ta guzi.
Bazter guzitan izaten baizun
beti zerbait erakutsi,
parisaitarrak berriz an zeuden
zer entzun da zer ikusi.

557

Igerle berri onen egintzak
sinistutzeko zaputzak,
itzuraz onak, baña biotzez
diruzale arro utsak.
Au aberatsa zan, ainbestentzat
bear ziran nonbait gauzak,
amabi ikasle gose paseak
etziran joango kamutsak.

558

Maiean jaten ari zirala,
oituraz erdi etzanik,
auspez antzera, erdi zearka,
oñak atzera zuzenik,
neskatx gazte bat sartu zan ara
txut-txutik eta lardenik,
aintzakotz ar gabe bazkaldarren
begiratu txar zekenik.

559

Neskatx ederra, neskatz goxoa,
baña galdua, lizuna,
bere biziera txarragatik
erritarren ezaguna.
Nondikan nora ote zan ura
Maisu onaren laguna?
Zer gertatuko zeletan zegon
parisaitar aizuna.

560

Jesusengana jo zuen txuxen
onen atzean jarririk,
burua makur Maisu onaren
oñetara itzulirik.
Negar ta negar egon zan malkoz
Jesusen oñak bustirik,
ixil eskari bai ote zegon
arentzako errukirik.

561

Ondoren berriz ille bikañez
bustitako oñak legortzen,
musu ta negar aren begiko
malkorik etzan agortzen.
Danen aurrean bulartsu bere
maitetasuna aitortzen,
maite zuela esateko're
itzik etzaion etortzen.

562

Usai gozoko olio batez
oñak igurtziz geldiro,
neskatx gaztea negar ta negar
asi zitzaion berriro.
Parisaitarrak maxiaketan
larri ziran, etzan giro;
baña Jesusen biotz otxana
samurtu zuen biziro.

563

Maiburu zegon parisaitarrak
pentsatzen zuen maleziz:
“Nola liteke ordea ori
baldin au profeta balitz?
Ezagutu bear luke izen
txarrekoa dala guztiz,
neskatx lizun orri utzi gabe
ukuitzen bein eta berriz”.

564

Ikusten zuen ondo Maisuak
parisaitarren zeleta,
igerri ere bai garbi asko
aien biotz-pentsaketa.
Jesus nondikan arrapatuko
ori zuten beren seta,
ala galdetu zion Simoni
Jaunak, maleziz beteta:

565

“Aberats bati bik zor zioten
ezin ordaindu zutena:
bi milla duro baten zorra zan
eta eun bestearena.
Baña aberatsak barkatu zien
bieri zor ziotena,
bietan, Simon, nork maiteko du
barkatzallea geiena?”.

566

Etzan galdera zalletakoa,
baña Simonen barruna
etzegon lasai; alare laxter
eman zion erantzuna:
“Geiena barkatu zion arek,
nere ustez, noski, Jauna”.
“Ederki dago, alaxe baida,
zuk erabaki dezuna.

567

Ikusten dezu neskatz gazte au?
Zergatik gaizki juzkatu?
Oñak garbitzeko ez didazu
zuk neri urik prestatu.
Au berriz emen ari zait malkoz
busti ta illez txukatu,
pekatu asko egin badu're
zeñek geiago maitatu?

568

Onera sartu naizenean ez
didazu eman laztanik;
ikusten dezu neskatz au nola
ari dan, erdi etzanik,
sartu ezkerro musu ta musu
asper ere gabetanik.
Pekatu egin duela? Nor da
geiago maite duanik?

569

Zure etxera sar naizenean,
Simon, eta ez zapuztu,
olio gozoz nere bururik
zuk ez didazu gantzutu.
Ainbat balio dun olio
onek oñetara ustu.
Pekatu asko dauzkala? Baña
maitasuna ere erruz du.

570

Orregatik esaten dizut nik:
pekatupean zegola?
Maitasunak berriz gaiztakeri
danak kixkal dizkiola.
Askio maitatu izan dualako
asko barkatzen zaiola;
gutxi barkatzen zaionak ez du
ainbeste maite iñola”.

571

Parisaitarrak aixa egin zun
bestea pekataria,
baña Maisuak zorrotz ta goxo
sar zion bere ziria:
neskatx gazteak merezi zula
barkamenaren grazia,
maitasunean dagola beti
ontasunaren neurria.

572

Neskatx gazteak etzun entzuten
ere esaten zutena,
Jesusengana jarria zeukan
bere oarkera dena.
Ari on egin, ura maitatu,
orrek pozten zun geiena,
itz egin gabe maitasunakin
eskatuaz barkamena.

573

Orduan esan zion neskari
Maisu onak bat-batean:
“Barkatzen zaizkitzu pekatuak”.
Ura marmarra maiean!
Zure fedea salbatu zaitu
eta joan zaite pakean”.
Ixil-ixilik, baña zoriontsu
pasa zan danen tartean.

574

Erririk erri asi zan gero
bere ikasle ta guzi,
gaixoak sendatuaz danean
on egin ta erakutsi.
Andrezko batzuk sallean zitun,
etzuten bakarrik utzi,
al zuten aña lagun egiñez
bere dirutik Jesusi.

Itxu ta mutu

575

Erririk erri etxeratu zan,
baña jendea berela
asi zitzaion andik-emendik
biltzen eltxoa bezela.
Urgun ta erren, itxu ta mutu
berekin zekarzkitela,
jateko aña astirik ere
ematen etziotela.

576

Baña baziran beste batzuek,
bere aideak, kezketan,
Jesus andikan eramateko
asmoan orduan bertan.
Ez omen zegon burutik ondo
aide askoren ustetan,
ala zioten: “Zertako utzi,
erotu baida benetan?”.

577

Ekar zioten deabrudun bat,
itxu ta mutu gañera;
deabru mutu ura erauziz,
andik zanean atera,
itzegin, entzun, ikusi, iru
mirari aundi batera.
Jendeak ala zion: “Au gero
Dabiden Seme ez ote da?”.

578

Baña an zebiltzan ara-onera
parisaitarrak tartean,
beti bezela aundi-usteak,
beren mordoska batean.
Esaten zuten guzia beti
Maisu onaren kaltean,
aren izena zikindu nairik
erriko jende artean.

579

Jendeak esan zuna entzunik
ezin ukatu egia;
Jesusen aurka asmatu zuten
birao ikaragarria:
deabruak artua zegola,
eta Satan nagusia
bitartekotzat egiten zula
egiten zuen guzia.

580

Maisuak ondo ikusten zuen
aien barrunbe ustela,
nola esaten zuten gañera
demoniñoa zuela.
Bere ondora deitu zituen,
oitua zegon bezela,
ta sinistu nai etzuteneiri
itz egin zien onela:

581

“Satanek nola bota lezake
Satan gaixoen barrutik?
Erri bat bere aurka badago
pagatuko du larrutik.
Ezin lezake iraun, galduko
baida bizien lerrutik;
etxe bat bere aurka dagona
ezin liteke egon txutik.

582

Satanek Satan botatzen badu
alkarren aurka dabilta,
ta martxa ortan laxter galduko
luke bere nagusitza,
ez bailegoke luzararako
munduan bere bizitza;
‘Satanen bitartez jauzten ditu’
ala baizerate mintza.

583

Aren bitartez jauzten baditut
–zuek ala diozute–,
zuen semeak noren bitartez
erauzten ote dituzte?
Nik epaituko zaituztedanik
ez dezazutela uste,
zuen epaille zuen semeak
edukiko dituzute.

584

Baña ni Jaungoikoaren atsez
ta indarrez ari banaiz,
kontuz ibilli; esan dizutet
lendik ere au bera maiz:
Jainko-jaurgoa etorri dala
ez izan orren siniskaitz,
emen nabillen arte izango
baida umillentzat garaiz.

585

Ate ondoan indartsuren bat
zaintzen badago soldadu,
ezin liteke an iñor sartu
ura zapaltzen ez badu.
Orretarako, jakiña dago,
ezer ebatsi nai badu,
nai ta nai ezko lana lenengo:
ura andik jauzi bear du.

586

Armetan dagon indartsu baten
etxe barrura nor io?
Baña indartsuago dan batek
armak kentzen badizkio,
oietan zeukan itxaropena
indarrak galdu zaizkio,
irabaztunak bere etxean
nai duna egingo dio.

587

Nerekin ez dabillena aurka
dabilkit bete-beterik,
ez det ontzat artuko erdizka
dabillen adiskiderik.
Nerekin biltzen ez dunak ez du
egiten nasi besterik;
nerekin edo nere aurkari,
ez dago beste biderik”.

Birao gaiztoa

588

Parisaitarren birao gaiztoak
mindu zun Jesus otxana:
“Gizonari barkatuko zaio
edozer pekatu, dana.
Baña beñere ez Ats Santuaren
kontrako egiten dana,
birao gaizto ori beñere
barkamenik ez daukana.

589

Ari zerate aspertu gabe
nik aitortu, zuek uka;
norbaitek esan baleza zerbaít
Giza-Semearen aurka,
barkazioa iritxiko du,
damutasunik baleuka;
Ats Santuaren aurka egiñak
barkaziorik ez dauka.

590

Epai zazu dan bezela gauza,
ez izan orren murrítza,
txarra ona dala, ona txarra
esanaz zertan zabilítza?
Gizon bat ona eta gaiztoa
ezagutzen ez da gaitza,
berak ematen duen frututik
ezagutzen da zugaitza.

591

Subekumeak alenak zuek!
Nola kontatu gauz onik,
zerok pekatu ta gaiztakeriz
bete-beteak egonik?
Mingañak ezin itzegin baidu
biotzean ez dagonik,
demoniotzat nola epaitu
on egiten dun gizonik?

592

Gizonaren kutxa biotza da,
an gordeta daukanetik
datoz asmoak eta egintzak,
beti biotz barrenetik.
Onak onak aterako ditu
bere gordairu onetik;
gaiztoak, berriz, jakiña, txarrak
bere gordairu txarretik.

593

Baña benetan diozuet nik,
ikasi gaurtik aurrera:
azalduko da danen bistara
zuen barruko aukera.
Eskatuko zaizu gero zure
itz guzien gora-bera,
zure itzetatik zu galduko
edo salbatuko zera”.

Jonaren ezaupidea

594

Lege-maisu ta parisaitarrak
arro-aizea buruan,
txurikeri ta losintxa, maltzur,
berak zekiten moduan,
mirari aundi baten eskari
urbil zaizkion onduan,
ta sinistuko zutela bera
Mesias zala orduan.

595

Jesusek ala erantzun zien:
“Olako subekumerik,
ezkontz-ausle ta lizun gaiztoa,
pekatu txarrez beterik!
Ezaupide bat nai dute, ez da
egingo oien eskerik,
ez baizaie emango Jonasen
ezaupidea besterik.

596

Jonas iru egun ta iru gau
balearen sabelean
egon zan, onek erauzi arte
itxas-bazter epelean.
Iru gau ta iru egun Giza-
-Semea era berean
egongo da, berpizten dan arte,
ezaupidetzat lurpean.

597

Gizaldi onek atzerritarra,
Ninibe erriko gizona,
epai-egunean izango du
aurka jarriko zaiona.
Jonaren itzaldira ildura
egin zuten, eta Jona
profeta baño aundiagoa
emen daukazute, ona!

598

Ego aldeko erregiña're
urrundik etorri zana,
bere jakinduria entzute-
arren Salomonengana,
izango da egun artan zuen
aurka egingo duana,
emen baidago Salomon baño
askoz aundiago dana”.

Deabruaren ibillerak

599

Deabrua, bein gizon batetik
erauzita ertetzean,
atseden billa urrun joaten da;
ibañan an ez arkitzean,
bakardadean bere burua
lekaroan nabaitzean,
dio: Joan ta sar nadin berriro
len utzi nuan etxean”.

600

Garbi-garbia arkitzen baidu
berriz etortzen danean,
bere beste zazpi lagunekin
sartuz etxe barreanean,
bere egoera txarragoa da
askoz biaramonean;
berdin gertatuko zaio jende
oni ere azkenean”.

Andretxo baten gorralpena

601

Jende artean izketan ari
zalarik Jesus otxana,
andretxo batek begiratuaz
tartetik Jesusengana,
danen gañetik abotsa jasoz
oiu au egin zuana:
“Zorionekoa zu mundura
ekarri ziñuen ama!”.

602

Jesusek ondo aditu zuen
andretxoak esan zuna;
eta, oraindik entzuten zala
abotsaren oiartzuna,
andretxoari egoki asko
eman zion erantzuna:
“Zori obekoa nere itza
entzun ta betetzen duna”.

Bere ama ta aideak

603

Jende artean galdua zegon
Jesus betiko moduan,
zai zeuden ama eta aideak
sartu eziñik onduan.
Jesusengana urbilduz esan
zuen norbaitek orduan:
“Zure ama ta aideak zure
zai or dauzkatzu kanpuan”.

604

Jesusek berriz begiraturik
bere ikasleengana:
“Nere Aitaren borondatera
munduan makurtzen dana,
Jaungoikoaren itza entzun da
ondo betetzen duana,
ori da nere senide, ori
da nere anai eta ama”.

Jesus itxas-ertzean

605

Itxas-ertzean arkitzen degu
askotan Jesus umilla,
arrantzale ta ontzi artean
aruntz-onuntza dabilla;
utzirik erri aundietako
zalaparta, ixkanbilla,
atseden pixar bat artu nairik
ango pakearen billa.

606

Ordu onenak an igaroak
zituen Maisu maiteak,
nonbait biotza lasaitzen zion
itxas-ertzeko pakeak.
Arrantzaletan berexi zitun
bear zitun ikasleak,
eta, jakiña, biotz-muñetan
zeduzkan arrantzaleak.

607

Goiz eder batez jetxi zan pake
billa, baña ez alperrik:
ikus orduko urbil zitzaion
eskari-salla ederrik:
elbarri, gaixo, itxu ta mutu.
utsik etzegon bazterrik,
utsean on egiten dunari
etzaio palta maizterrik.

608


Sufritzen duen arek biotza
samurtzen dio Jesusi,
bere ondoren eske zetozen
aiek bada ezin utzi.
Laxter asi zan sendatu-ala
demoniñoak erauzi,
itxas-ertzean exeriz gero
jendeari erakutsi.

609

Jesusen berri jakin daneko
jendea dator ugari,
lekurik ere ez diotela
utzitzen Maisu onari.
Bazter danetan abots triste bat
besterik ez da nabari,
danak oiuka zaizkio ari
osasanaren eskari.

610

Bazter guzitan oiua ta oiua
luzatuz beren lepua:
“Dabiden seme, senda gaitzatu”,
gizon ainbat eskekua.
Danak sendatu zitun ondoren
gañean jarriz eskua,
ontzi txiki bat jarri zioten
itzegiteko lekua.



325

An zegon bakar, ori-oria, neskatz gaztea otz-illa,
guraso xarrak negar-zotinka, Jesus begira ixilla.
Oiu egin zun: "Zuri diozut: neskatz, zutitu zadilla!".
Ta bat-batera danen aurrean zutitu zan neskatiilla.

611

Gizataldeak estutzen zuen
igo zan itxas-ontzira,
jendea berriz itxas-ertzean
begi-belarri begira.
Zeruko gauzak andik kontatuz
aizearen intzirira,
aren itzetan entzuten duten
guziak arritzen dira.

612

Itxas-ontzia balantzaka ta
inguruetan arkaitzak
laztantz dituz ezin egonik
dabilen ugiñen pitsak.
Argi ta garbi, geldi-geldiro,
badatoz Jesusen itzak,
egundaño aztuko ez diran
zoragarritzko berdintzak.

613

Giro bikaña izan bear zun,
Jesus ain zegoan alai;
itxura dunez, azaro noski,
azi-ereite garaia.
Orduko berdintz geientsuenak
ori dute beren gaia,
oiek geienak badute azken
onaren aurka etsaia.

Azi-ereillea

614

“Azi-ereille batek erein zun
azia bere soroan,
azi batzuak erori ziran
bide txar baten ondoan.
Besteak sasi ta arri artera,
edo lur mardul gozoan;
ta ereillea joan zan bein bere
lana bukatutakoan.

615

Ereindakotik bide gañera
eroritako aleak,
sortzeko betik utzi baño len
zapaldu zitun jendeak.
Gero zerutik etorri ziran
egazti ale-jaleak,
azi batzuak an galdu ziran
ziturik eman gabeak.

616

Ereindakotik beste batzuak
oso leku arritsuan,
lur-azal artan ernetu zan, bai,
zañak atera zituan.
Baña berela igartu, nola
ezetasunik etzuan;
uztarik eman gabe geratu
lenengoaren moduan.

617

Ereindakotik beste pilla bat
arantz-pean zuen jarri;
jaio zan baña arantzak ere,
bai, indartu ziran larri.
Beren artean, eguzki gabe,
igartu zituzten sarri,
aurrekoen gisa auek ere
etzuten uztik ekarri.

618

Ereindakotik beste pilla bat
lur gozoan eroria,
ezeren paltik etzeukalako
laxter azi zan guria.
Buru ederra egin zun gero,
ale mardul ugaria,
euneko ogeitamar, irurogei
ta eun bere arnaria”.

619

Berdintz eder au amai ondoren
zutituz Jesus bildotsa,
danen aurrean oiur egin zun
jasorik bere abotsa.

Begi-belarri entzuten zegon
gizaldeari diotsa:

“Entzun nai dunak, entzun dezala
–betiko lelo zorrotza–.

620

Lakaripean ezkutatzeko
ez dute pizten argirik,
etxean argi egiteko bai
argi-mutillan jarririk.
Ez da munduan agertuko ez
duten ezertxo gorderik,
aditu beza baldin badauka
entzuteko belarririk.

621

Begira gero –Maisuak egin
zuen berriz deadarra–,
ematerakoan etzazute
ibili neurri kaxkarra.
Neurri orrekin zaituzte gero
zu ere neurtu bearra;
dunari eman, ez dunari ken
ustez bazeukan pixarra.

Belar txarraren berdintza

622

Entzuten zuten Jesusen itza
goxo-goxo, guri-guri,
berdintz bikañak banan-banaka
ixuri eta ixuri.

“Zeru-jurgoak zeren antza du
edo zeren da iduri?

Soroan azi ona erein zun
nekazari bat diruri.

623

Gizon batek azi ona erein
zun bere soro batean,
baña etsaiak txarra nastu zun
lotan zeuden bitartean.

Azi zanean, guzia gari
garbia zala ustean,
belar gaiztoa ugari samar
azaldu zaion tartean.

624

Orduan bere morroiak esan
zioten nagusiari:
'Azi ona ez al gendun erein?
Nondik txarra ain ugari?
Txarrez josia baidago dana,
erdia ere ez da gari'.
Nagusiak esan zien: 'Nere
etsaiak egin du ori'.

625

Morroiak esan zioten berriz:
'Ezin liteke atera?
Lanak utzita garbi dezagun,
nai badezu, joango gera'.
'Utz zaiozute pakean orain
azi ditezen batera
ebakitzean berezitzeko
izango degu aukera.

626

Itailariei esango diet,
garaiaren zai nago-ta:
'Bildu zazute lenengo txarra,
egin danarekin sorta.
Ondo legortzen danean berriz
erretzeko sura bota,
eta garia pillazute
nere ganbaran jasota”.

Aziaren berdintza

627

Bertsolari bat bezela ari da
gauz ezkutuak esaten,
aurki jarriko dun Elizaren
geroko berri ematen,
iduripetan ta berdintzetan
erriari irakasten,
borondate onekoak entzun
eta ikasi zezaten.

628

“Zeru-jaurgoa zeren antzeko,
zerekin ondo berdindu?
Nekazariak ereindako
azitxo bat iduri du.
Ixil-ixilik, erein duanak
igerri ere ezin du,
bitarte ortan, geldi-geldirik,
lurrak berea egin du.

629

Lendabiziko lastoa dator,
aren gañean burua,
ale bikañez betetzen dana
ondorengo galburua.
Eta berela ebakitzeko
etorri zaio arua,
uste gabeen nola dakarren
bere uzta segurua”.

Basarbia

630

“Basarbi baten antzekoa da
zeru-jaurgoa benetan,
ereindakoan azi koxkorra,
txikiena azietan.
Baña zugaitz egiten da gero,
eta bere adarretan
txori ugari kabiak egin
ta bizitzen dira bertan”.

Legamia

631

Berriro ere kontatu zien
Maisuak berdintz berria:
“Beste zerk ote dauka zeruko
jaurgoaren irudia?
Andretxo batek iriñetara
sartu zuen legamia,
gutxi dan arren arrotzen baidu
irin-pil ura guzia.”

632

Bukatu zuen irakasketa,
jendeak ere aldegin,
orduana Jesus itzal batera
bildu zan ikasleekin.
Berela auek urbildu eta
galdezka zioten ekin,
jakin nai zuten zer esan nai zun
bere alegi aiekin.

633

Muño batean exeri ziran
zugaitz baten itzalean,
jendea lan da lan ikusten zan
beko zelai zabalean.
Maisuak zekin bezela, beti
bere abots apalean,
erantzuten du bere ikasle
aiek galdetu alean.

634

“Irudipean itzegitea
ondo iruditzen al zaizu?
Gizataldeak ezer askorik
gaur ulertu ote dizu?
Egia garbi diogu: gure
berri ondo badakizu;
barau geratu gera, ez degu
deusik ulertu, Maisu”.

635

Maisuak ala erantzun zien
gozoro ta pazientziz:
“Zueiri dana erakutsiko
zaizute ta ez alegiz.
Or kanpoan dauden oieiri ez,
oiek nerekin ez dabiltz;
dunari eman egingo zaio,
ez dunari kendu, berriz.

636

Argatik ola mintzo natzaie,
nola merezi ez duten;
oien begiak garbi ikusi,
ez dute ondo ikusten.
Oien belarriak garbi entzun
baña ez dute entzuten,
jakiña naita beren biotzak
egoskortu baizituzten.

637

Ederki dator Isaiasek
aldez aurrez zuna:
‘Ez dezu adituko ederki
zure belarriz entzuna.
Ez dezu ulertuko ederki
begiz ikusi dezuna,
erri onek ain baidauka biotz
gogortua ta lizuna’.

638

Ikusi ta ez du ikusi nai
begiak ixten baiditu,
itxi ditu bere belarriak
ez baidute nai aditu.
Naita itxutu dira ta ezin
bide txuxenik arkitu;
berean ilko dira, ni ezin
nazaieke errukitu.

639

Zoriontsuak zuen begiak
badakite-ta ikusten,
zoriontsuak belarri oiek
badakite-ta entzuten.
Igerle ta xarrak au ikusi
ta entzun nai izan zuten,
baña ikusi ta entzuteko
aukerik izan etzuten”.

640

Auek esanta galdetu zien
an bertan Maisu otxanak:
“Ez dezute berdintz au ulertu?”.
“Ez” erantzun zuten danak.
“Orduan nola ulertu zuek
orain artean esanak,
ta ereillearena baño
askoz zallago diranak?”

641

Entzun zazute bada danak zer
dan orren erakutsia;
Jaungoikoaren itza dezute
ereiten duten azia.
Itz ori zabaltzen duna berriz,
ereille, nekazaria;
bide, arri, sasi ta lur ona
entzuten duen guzia.

642

Batzuk entzuten dute itz ori
bañan alperrik guzia,
sartu añean badoakie,
ez dute ulertzen ia.
Geratu dan pixarra jateko
Satanas dute txoria,
ori da bada bide ondoan
eroritako azia.

643

Beste batzuek gozoro entzun,
ain maite dute bizia;
mundu ontako atsegin txarrak
irabazten du auzia.
Sartu orduko biotz barruan
ito eraziz guzia,
ori da bada arri artean
eroritako azia.

644

Besteak batzuek entzuten dute;
pozik itzaren berria,
biotz oietan ez du ordea
zañik ere sartzten ia.
Lenengo larri-aldian galtzen
dute zeukaten guzia;
ori da bada arantz artean
eroritako azia.

645

Besteak itza gordetzen dute
beren biotz barrenean,
zitu ederra ekarriz gero
betiko iraupenean.
Bateko ogei ta amar, irurogei,
euneraño azkenean;
ori da azia, erori zana
lur mardul ta gizenean”.

646

Belar txarraren berdintza gero
azaldu zien argira:
”Azi onak onak dira, txarrak
txarrak, ondoren, begira:
deabrua erein duna txarra
azi onaren erdira,
azken orduko itailariak
berriz aingeruak dira.

647

Ori bera gertatuko zaio
munduaren azkenean,
aingeru-sallak zerutik jexiz
asiko dira lanean.
Gaiztoak botako dituzte su-
-leizearen barrenean,
onak dizdira egingo dute
Aitarenean aldamentean.

Mina

648

Gordeta dagon mina batena
zeru-jaurgoaren antza:
iñork ez dakin bazter batean
ondo ezkutuan datza.
Billatu duen gizonak ez du
alperrik denbora pasa:
bere ondasun guziak saldu
ta erosten du baratza.

Pitxia

649

Zeru-jaurgoak pitxi-erosle
baten antza du garbia:
asko balio dun bat arkituz
palta zekin erosia.
Baña laxterka etxera joan ta
saltzen du zeukan guzia,
atsegiñez erosteko ainbat
balio duen pitxia.

Arrai-sarea

650

Arrai-moltzoa daukan sarea
zeru-jaurgoak diruri:
sare betea ur-bazterrera
dakarte kontuz, urduri.
Onak bereziz banan-banaka
saskitxora guri-guri,
jateko txarrak diran guziak
berriz putzura ixuri.

651

Orixe bera gertatuko da
munduaren azkenean,
aingeruak txarrak onetatik
berexten dituztenean.
Txar guziak botako dituzte
su-labera zuzenean,
an izango da gero negar, ortz-
-karraska betiraunean”.

652

Zugaitz aul aren itzal gozoan
an zeuden erdi etzanak,
gozoro entzun ta ulertuaz
Maisu onaren esanak.
“Dana ulertu al didazute?”
galdetuz Jesus otxanak,
zoriontsu zeuden ikasleak,
“Bai” erantzun zuten danak.

653

Zutitu ziran, aspertu zitun
luzaro geldi egonak.
Maisuak dio: “Etxekojaunak,
gauzez aberats dagonak,
etxe barruko ondasunetik
dakartzki bere gauz onak;
berdin zerutar ondasunetan
jakitun dagon gizonak”.

Jesusi jarraitu nairik

654

Beti dabilki Maisuak, bere
inguruan jira-bira,
jende ugari, Maisua nora
aiek ara joaten dira.
Aien artetik askatu nairik
itxas aldera begira,
ikasleeiri agindu zien:
“Goazen itxas-araindira.

655

Irakasle bat urbil zitzaion
ustez jakintsu, arrua,
azalduz Jaunari noranaira
jarraitutzeko gogua.
Maisuak: “Txori ta azeriak
badute kabi berua,
Giza-Semeak ez dauka berriz
non jarri bere burua”.

656

Jesusek beste bati dei egin
zion: “Zu atoz nerekin”.
“Emaidazu aita eortzeko
ainbeste beta beñepin”.
“Jarraitu neri –erantzun zion–
ta utzi illak illekin;
zu atoz, bai, ta bazter guzitan
zeru-jaurgoaz itzezin”.

657

Besteak zion: “Maisua, zuri
jarraitzeko prest ni ona!
Baña lenengo utzi agurtzen
aita, bakarrik dagona”.
“Bein goldean asi ta atzera
begiratzen dun gizona,
alperrik dabil, nere Aitaren
jaurgorako ez da ona”.

Enbata baretzen du

658

Gizaldeari agur egiñik
sartu zan Jesus ontzira,
giro ederra, bare-barea
itxasoaren mugira.
Arraunak karrank, ugiñak zapla
aizearen intzirira,
bera ta bereak igaro nai
zuten beste alderdira.

659

Giro gozoa, itxaso geldi,
Jesus berriz nekatua,
ontzi xarrean etzanik laxter
geratu zan lokartua.
Arraun da arraun ontzi txikia
itxas barrura sartua,
enbatak itxas-sabela jarri
zuen naiko zakartua.

660

Urak irakin, aizeak txistu,
sortu zan iskanbil gaitza,
intxaurren azal bat zan ontzitxo,
ango aparra ta pitsa!
Itxas zabala lañoak artuz
arrotzen doa ekaitza;
ikasle-sail ta bere lagunak
naiko lanakin dabilta.

661

Maisua lasai, zegon lo edo
lo zegonaren itxura;
ikasle danak urbil zaizkion
ta izuaren izura.
Esnatu zuten: “Gaizka gaitzatzu
sartu baño len putzura!
Guztiok emen itoagatik
ez ote dizu ardura?”.

662

Jesus esnatu zan bat-batean,
ura ango zalaparta!
Alde batetik orru ta txistu,
entzuten zuen enbata.
Bestetik, berriz, jendea bere
onetatik aterata;
illeak arro, besoak jasoz
zerabilkiten zarata!

663

Jesusek ekaitzari etzion
egin agindu besterik,
itxas arroa baretu zan ta
etzan nabaitzen aizerik.
Ikasleeri orduan esan
zuen errukiz beterik:
“Zer dala-ta zarat auek? Ez al
daukazute sinisterik?”.

664

Gertatu zana ezin sinistuz
ontziko jendea larri:
“Nor degu ordea guk gizon au?
–izuz zioten alkarri–.
Itxasoa ta aizea ere
mendean zaizkio jarri”.
Arraisku artan biziak salba
zituzten eskerrak ari.

Deabruduna

665

Bazan orduan inguru artan
gizon bat izugarria:
deabruaren mende zegona,
an zebiltzanen larria.
Arkaitz-zulo ta illobietan
bizi-lekua jarria,
bere indar ta zakarkeriaz
beldurrak zeukan erria.

666

Gizon gaztea deabruduna,
ezin egona, zakarra,
larru gorrian ibiltzen zana,
dana ille ta bizarra.
Erraldoi baten gisakoa zan,
sasoikoa ta azkarra,
berak bakarrik bazeukan ogei
gizonek ainbat indarra.

667

Askotan lotu izan zutena,
beldur baizion jendeak,
lokarri aulak bezela austen
zitun burni ta kateak.
Arek alperrik zitun guziak,
zabalik zeuzkan ateak,
nai zun guzia egiten zuen
gizon deabruz beteak.

668

Ingurutako illobietan
bakarrik bizitzen zana,
ango igali ta belar-zañak
zituen betiko jana.
Etzan gizonik urbiltzen ere
aspaldian arengana,
bere mendean zeukan mendia
ta bere inguru dana.

669

Egal aietan bazan gabero
iskanbil ta karrasia,
ar-zulotatik ar-zulotara
oiu tristeak, antsia.
Arri zorroztu batekin joka
ebakiz gorputz guzia,
errukarria zala benetan
arek zeraman bizia.

670

Baña Jesusek jo zun orduko
Jerasa aldeko legorra,
illobitatu, oi, karrasi,
badator gizon gogorra.
Belaunikatu zan apal asko
edozein bezin jatorra.
larru gorrian, apar jario,
Jesusen aurrantza orra.

671

Era onetan otoi egiñaz
aurrean zeukan Jesusi:
“Jainko-Semea, bai ote daukat
nik zurekin zer ikusi?
Badakit ondo zu zaitugula
zeru ta lurren nagusi,
ez gaitzazula onen barrutik
biurrikatuz erauzi.

672

Ez gaitzatzula, Jainko-Semea,
onen barrutik atera,
ez gaitzatzula berriro bota
oñazeen su-leizera”.
Otoi ta otoi ari zitzaion
beartsu baten antzera;
zer izen zuen galdetu zion.
“Moltsoa, asko baigera”.

673

Urde-pilla bat ikusten zuten
zeuden lekutikan bertan,
txerrizai batzun mende jarriak
non zebiltzan ezkurretan.
Deabruak Jesusi otoika
ari zaizkion benetan,
baldin bialtzen bazitun andik
uzteko sartzen aietan.

674

Aien otoitza entzunaz ala
erantzun zien: “Zoazte!”.
Esan orduko txerri-sail ura,
aundi, txiki, zar ta gazte,
jauzika asi ziran guziak
muturka, itxu ta naste,
aldapak bera tarrapatata
itxasora dijoazte.

675

Aldapak bera itxumustuan
ainbateko txerri-salla,
deabru bana barruan sartu
ta zeramatan aballa!
Jauzi batean igaro zuten
itxas-bazterreko malla,
Jesusen oñetan otxan-otxan
demoniozko zarpalla.

676

Txerrizai aiek pixka batean
egondu ziran begira,
ikusi nairik txerri-sail arek
egiten zuen mugira.
Etzan bakarrik geratu, danak
itxasora amildu dira,
orduan dana bertan utzita
iges joan ziran errira.

677

Urdezai aiek etzuten iñoiz
alako gauzik ikusi,
bi milla zerri inguru ziran,
ango kurriska ta jauzi!
Etzegon ezer egiterik an,
ezin zezaieken eutsi,
an ito ziran geienak eta
besteak lepoak autsi.

678

Errira joan ta kontatu zuten
txerrien gertakizuna:
nola sendatu zuen Jesusek
mendiko deabruzuna.
Jende guzia arretaz zegon,
bazuten zeñek entzuna,
ezagutu nai zuten zein ote
zan ura sendatu zuna.

679

Entzun zutena ainbeste ote
zan bada gertatu zana?
Itxas-ertzera abiatu zan
jendea Jesusengana.
Ikusi zuten txerri-sail ura
urean itoa dana,
deabruzuna berriz an zegon
jantzia, lasai, otxana.

680

Jerasatarrak izutu ziran:
zein ote zan gizon ura?
Otoi, zioten, joan zedilla andik
etorritako lekura.
Ixil-ixilik Jesus orduan,
gizon aien erregura,
beste aldera joateko sar zan
ontzi txikian putzura.

681

Sendatu zanak ikus orduko
joaten ikasle ta guzi,
beldurtu zan, len gorriak nola
zitun gaixoak ikusi.
Bere ondora urbilduz ala
eskatu zion Jesusi:
“Eraman nauzu zurekin, Jauna,
ez emen bakarrik utzi”.

682

Jesusek ala erantzun zion:
“Ez; joan zaitea etxera.
Lendabiziko azaldu zaite
zure maiteen artera,
Jaunak zurekin eduki duen
errukia zabaltzera;
lengo deabru gaiztorik ez da
sartuko zugan atzera”.

683

Joan zan Maisuak sendatu zuna
alai ta misiolari,
Jaunak arekin eduki zuen
errukiaren kontari.
Gizon guziak arritzen ziran
pozez entzunik berari,
laxter zetorren orduaren zai
geratuz jende ugari.

684

Jerasatarrak agurtu zitun,
Jesus sartu zan ontzira,
urbil zaneko itxas-ertzera,
Israeleko errira,
gizon-moltso bat ikusi zuen
itxas-ertzean begira,
beren Maisua ote zetorren,
an azaldu zan ontzira.

Jesus sorterrira

685

Etzan aiekin geratu Jesus,
jarraitu zuen aurrera,
berekin artuz ikasle danak
Maisuarekin batera.
Nazaretera artu zun txuxen,
bizi zan erri xarrera,
sinagoga artan larunbatean
Berri Ona zabaltzera.

686

Larunbatean asi zan bada
legun ta izketa guriz,
zeru-jaurgoko berri gozoa
entzule danei ixuriz.
Nazaretarrak an ari ziran
alkarriketan marmariz,
ikasi gabe erritar arek
zerabilkin jakinduriz.

687

Ezin sinistu zuten ta bazan
gaizki esaka ugari:
“Ainbat jakinduri nola, nondik
etorri zaio berari?
Nolaz ordea egin lezazke
onek onenbest mirari?
Ezjakin onek zer erakutsi
bear dio erriari?”

688

Jose arotza eta Maria
ez al ditu gurasuak?
Erri xar ontan etzitun eman
bere lenengo pausuak?
Gure artean ez dira bizi
bere aide, lengusuak?”.
Siniskaitz, ezin ulertu zuten
ezertxo ere auzuak.

689

Maisuak laxter igerri zion
auzoen alkarrizketa:
sorterrian ez beste danetan
maitatzen dute profeta.
Mirari gutxi egin zitun an
ezin autsi aien seta,
ingurutako errietara
joan zan naigabez beteta.

Ikasleak predikatzerara

690

Apostoluak ezitzen ari
zan Jesus onez onean,
beti zerbaiten erakuskizun
emanaz al zuenean.
Bakarrik geratuko baiziran
Maisua joaten zanean,
oraindanik nai lituzke ezi
emango zaien lanean.

691

Bere ondora urbil eraziz
zer egin erakusteko,
erririk erri bial baño len
aolkuak emateko.
Indarra ere emango zien
deabruak uxatzeko,
eskubiderik asko bazuten
beren lanean asteko.

692

Maisuak ala itz egin zien:
“Izan zaitezte zuzenak:
malko garratzak txukatzen saia,
arindu iñoren penak.
Deabrudunak askatu eta
sendatu gaixo daudenak,
biotz-biotzez maite izanaz
lagun ta etsaiak, denak.

693

Zoazte, bada, baña ez sartu
oraingoan atzerrira,
ez egin joan-etorrikerik ere
samaritarren errira.
Barruti ontan ibil zaitezte,
erri oni eman jira,
Israel ontan galdu zaizkidan
ardiak lenen baidira.

694

“Zeru-jaurgoa urbil da, urbil!”
oiu kanpo ta etxean,
illak piztu ta senda gaixoak
zuen eskuak jartzean.
Garbi legendunak, deabruak
erauzi nere itzean,
utsean artu dezute, bai, ta
eman zazute utsean.

695

Biderako ez artu ezertxo,
ibilli oñuts gorrikerik;
ez eduki bi barruko jantzi
ezta ere sandalirik.
Ez gerrikoan dirurik artu,
zakuan ere ez ogirik;
lana egiten dunak ez al du
merezi bere saririk?

696

Errira sartzen zeratenean
ostaturen bat billatu;
zuek artzea merezi badu
lasai an bertan geratu.
Beste erriren batera itzul
arte ez etxez aldatu,
lana egiten dun gizonari
eman bear zaio ostatu.

697

Sartzean eman agur bero bat:
“Pakea etxe onetan”.
Pake-semerik an bizi bada
izango dute benetan.
Pake-semerik ez bada berriz
zertan geratu kezketan?
Zuen pakea itzuliko da
berriz zuengana bueltan.

698

Gaizki artuko baziñuzteke
zoazte andik pakean,
zuen oñetako autsak ere
astinduz beren atean,
zuen pakerik ez da sartuko
nai ez dutenen artean;
merezi duten zigorra artuko
dute egunen batean.

699

Zoazte ardi aul batzun gisa
otso maltzurren artera,
nere Aitaren jaurgoko berri
erriari ematera.

Baña erneak izan zaitezte
beti subeen antzera,
eta usoen antzera izan
xume, bakun, biozbera.

700

Gizon batzuekin erne ibilli,
nere aolkua orra;
batzar sinagogetan zuentzat
ez da paltako zigorra.

Askok izango dute zuentzat
biotz maltzur ta gogorra,
eman zazute danen aurrean
nere aitormen jatorra.

701

Bein eramaten zaituztenean
erriko buruengana,
ez larritu, utzi nere Aitaren
eskuetan zuen lana.

Ordu artan emango zaizute
zer itzegin, zer esana,
Zeruko Aita baida orduan
ordez mintzatuko dana.

702

Anaiak elkar, aitak semea
ta semeak bere aita
il eraziko dituzte, bata
besteen aurka jeikita.

Nigatik supri bear aundiak
dauzkatzute, egon etsita;
azkeneraño iraun zazute,
ura salbatuko baita.

703

Erri batean ez bazaituzte
artzen, itzuli bestera;
egon bearrik ez daukazute,
bada lanetik aukera.

Erri guziak sartu baño len
zuek nere artaldera,
egingo baidu Giza-Semeak
bigarrengo etorrera.

704

Maisua aña dan ikasleak
naiko merituak ditu,
morroia ere nekez zaioke
jabeari nagusitu.

Etxeko jauna kupirik gabe
Beltzebu badute deitu,
zueri ere beste ainbeste
deitzea ez arritu.

705

Beñere ez bada beldurrik izan
oien iseka txarretan,
ustez gordea zegon guzia
jakingo baida benetan,
Esan argitan zuek nik esan
nizuenta illunpetan,
aopean esana oiukatu
bota tellatu gañetan.

706

Ez beldur izan gorpütza il ta
anima ezin dunari,
baña gorputz ta anima sutara
amildu dezakenari,
arnas dezuten artean beti
beldurra eduki ari;
ez da besterik iñor, Jainkoa
bakarra da beldurgarri.

707

Lauko batean ez dira bada
saldutzen bi larretxori?
Aietako bat Aitak nai gabe
ez da oraindik erori.
Arek nai gabe ille bakar bat
etzaio galtzen iñori,
txoriak baño geigo zerate,
astoak badaki ori.

708

Aitortuko det: ez beldur izan
nere Aitaren onduan,
lotsarik gabe danen aurrean
aitortzen nauna munduan.
Ukatzen nauna ukatuko det
merezi duen moduan,
nere Aitaren aurrean bere
azken larriko orduan.

709

Ez uste pakea nai detanik,
ez nator pake jartzera;
ezpata dakart, guda bizi bat
maite diranen artera,
elkarrengandik aita-sembleak
ta ama-alabak bereztera;
etsairik txarren-txarrena berriz
zuen artekoa bera.

710

Aita-amak ni baño maitego
dituna ez da nere din,
seme edo alaba maitego
dituna ez betor nerekin.
Bere gurutza soñean artuz
nere ondoren jarraiz pin
ez baldin badator, ez daukat zer
ikusirik nik arekin.

711

Bere bizia salbatzen badu
ni ukatuta munduan,
ez da egungo sartuko ura
nere atsedena-jaurguan.
Ni naizelako bere bizia
galtzen duenak, orduan
galdu zuna ark billatuko du
nere Aitaren onduan.

712

Zuetako bat artzen duenak
jakin ni artzen nauela,
ni artzen naunak berriz bialtzen
naun Aita artzen duela.
Profetagatik profeta-sari
emango zaio orrela,
zintzo-saria artzen duenak
zintzoa zintzo bezela.

713

Gure aurrean dabiltzan ume
koskor garbi auetako
bati ura ematen dionak
nere ikasle dalako,
emango zaio berea, sari
gabe ez dute lagako;
on egiten duen guziari
ordaña emango zaio.

714

Bere amabi ikasleei gauz
auk agindu onduan,
erririk erri aiek bializ
aldegin zuen orduan.
Predikatzeraz joan zan bera're
bere betiko moduan,
ardi galduak bildu besterik
ez baizebilkin goguan.



403

Ontzi txiki bat jarri zioten beretzako itxasuan,
jendea zegon tokitik bertan, oso leku erosuan.
Ontzi artatik itzegiten zun aske, patxara osuan;
itxas-ertzetik ao xabalka jendeak entzuten zuan.

Bataiatzallearen eriotza

715

Jesusen sona aorik ao
zebillen garai aietan,
bere berriak zabaldu ziran
Judea-txoko danetan.
Erodesek ere entzun zitun,
bere biotza kezketan,
il erazi zuen Joan Bautista
piztu zalako ustetan.

716

Erri guziak ala baizion
mirari aien aurrean:
Bataiatzallea azaldu zala
berriz Judea xarrean;
besteak berriz Elias bera
azaldu zala lurrean.
kezk auk zebilzkin Erodesek
bere biotz maltzurrean.

717

Erodesek kezkatu morroiei:
“Nor da ori Joan besterik?”
Lepoa moztu nion uraxe
piztua illen artetik.
Ainbat mirari egiten ditu
Jaungoikoaren partetik”.
Ura ikusi nairik zebillen
Erodes kezkatu betarik.

718

Erodes zana Galileako
errege billau maltzurra,
aragi utsa, lizun galdua,
menderatuen beldurra;
besteren gauzen jabe-egille,
bi sudurreko zakurra,
biotz gaiztoko gizon-iltzalle,
besteren andre-lapurra.

719

Txiro bizi zan erri gaixoa
ain zedukan zamapean,
aiek goseak bizi ziran ta
bera berriz banketean.
Amaika il ta espetxeratu
zitun ogei bat urtean,
errege zakar au iñork etzun
maite noski Galilean.

720

Beste batean Erodes onek
etzuen egin lan ona:
ostu andrea, anaiarekin
len ezkondata zegona.
Arekin berriz ezkondu zan len
ezkondutako gizona,
pekatu beltz au zan arpegira
Joanek botatzen ziona.

721

“Anaiaren emaztea artzea
ori etzaizu zillegi”.
Bein eta berriz esan zizkion
amaika olako egi.
Baña emazte galdua beti
zeletan etzegon nagi;
sube gorria baño ernego,
etzan piatzen geiegi.

722

Erodes etzan asko arritzen
aren itzak adituta,
ikus-aldiri esaten zion
eta ain zeukan oituta.
Baña ostua zan emazteak
askotan zirikatuta,
egun batean naiaren aurka
atxitu zuen baituta.

723

Erodias zan andre galdu au,
anaiari ken ziona,
San Joanen itzak entzun nai ezik
asarre bizi zegona.
Aspaldi artan zai noiz arkitu
egokiera bat ona,
ea betiko ote zuen galtzen
gorroto zion gizona.

724

Baña Erodek maite ez bazuen
ere bazion itzala,
bazekin ondo gizon zuzen ta
erri-maitalea zala.
Pozik entzuten zuen San Joanen
itz sutsua ta mazala;
beldur zion, bai-bazekin erri
txeak maitatzen zuala.

725

Egokiera orren zai zegon
Erodias maltzur ura,
baña alperrik, ezin baizuen
bere gizonik lillura.
Baña aukera eder ori bein
etor zitzaion eskura,
bai ondo jaso're gorrotoak
egiten dakin modura.

726

Bazkari eder bat jarri zuen
bere jaiotegunean,
Erodek bere lagun geienak
an zitun aldamenean.
Bazkariaren azken aldera,
erdi mozkor zeudenean,
neskatx gazte bat dantzara sar zan
Erodesen omenean.

727

Lotsagarritzko dantzari, erdi
larru gorri neskatz ura;
Erodes mozkor xamar, ardoa
igo zitzaion burura.
Dantzari arek ainbesteraño
zuen errege lillura,
an geratu zan aragi-amets
apote baten modura.

728

Salome bere ezkontza-ausle
lizunaren alaba zan,
neskatxa gazte ta ajol gabea,
ibilitakoa dantzan.
Erdi gixaixo zegon errege,
ibili gabe zalantzan,
eskeñi zion: "Emango diñat
nai denan aña; eska zan".

729

Utzirik bere maiean ordi
Erodes lizun narratsa,
ixil-ixilik amarengana
joan zan orduan neskatz.
Kontatu zion dantza-lekuan
gertatutakoa, lasa,
konpondu ziran ama-alabak,
bien arteko jolasa.

730

Sartu zan berriz, erdi billotsik,
neskatx lizuna atean,
ao txabalka begira zeuzkan
txoratu aien artean.
Erodesen aurrera joan ta ala
eskatu zion pakean:
"Joan Bautistaren burua nai det
oraintxe azpil batean".

731

Naigabetu zan errege, baña
 ezin ukatu berari;
 gudari batek lepoa moztu
 zion Joan Bautistari.
 Azpil batean ekarri gero
 onek burua neskari,
 erregalo on bat bezela onek
 eraman zion amari.

732

Orratz batekin mingaña txula
 ziola andre lizunak,
 elizetako itzaldietan
 askotan gaude entzunak.
 Lizun ta mozkor baten aginduz
 Bataiatzalle Joan deunak
 kartzel batean bukatu zitun
 mundu ontako egunak.

733

Orduan bere ikasle batzuk
 sartu ziran espexera
 lur emateko lepa moztua
 zegon gorputza artzera.
 Ikasle berak erten zaizkion
 gero Jesusi bidera,
 Erodek nola Joan deuna il
 zuen berri ematera.

Ikasleen poza

734

Apostoluak itzuli ziran
 alai Maisuarengana,
 esan zioten garbi ta zeatz
 berak egin zuten lana.
 Nai zezaketen baño obeto
 gerta zitzaiera dana,
 ikasleekin batera poztu
 zan ere Maisu otxana.

Bakar-lekura

735

Joanen eriotz ondoren Jesus
 gorde zan jende artetik
 bakar-lekura, apostoluak
 artuaz bere atzetik.
 Ez ikaratu ta iges egin
 zezaioteken gaitzetik;
 atsedentzera joan zan, jateko
 ere ez baizeukan betik.

736

Apostoluak artu berekin
 eta txalupa batean
 igaro ziran, ezkutu xamar,
 itxasoz beste aldean.
 Billa zebillen gizataldeak
 uzten zion bitartean,
 otoi egin ta atsedenduaz
 egongo ziran pakean.

737

Bazterrik bazter itxaso dana
 ontzi aulean igaro,
 iñork etzekin txoko batean
 egin nai zuten abaro.
 Bañan alperrik, an ere etziran
 gordean egon luzaro;
 Jesusentzako Judea aldean
 gordelekurik ez dago.

738

Erririk erri, bazterrik bazter
 ainbesteko jende-pilla,
 gaixo zeudenak berekin artuz,
 zebiltzan beraren billa.
 Urrikaldu zan aien aurrean
 Jesusen biotz umilla,
 an baizebiltzan artzai gabeko
 artaldea zirudilla.

739

Urrikaldu zan, biotz gozoa
xamur zitzaion Jesusi,
itz goxoakin iruzurtuaz
etzitun berean utzi.

Lenen gaixoak sendatu zitun
ta deabruak erauzi;
ondoren, berriz, oitu bezela,
goxo-goxo erakutsi.

740

Gero igo zan Jesus ondoan
zeukan mendixka txikira,
apostoluen erdian lasai,
goitik gainbera begira.
Illunabarra, itzalak jexten
sakoneko illunbira,
mendi-muturrak dizdiz zegiten
eguzkiaren argira.

741

Lasai zeudela, ikasle batzuk
urbil zaizkion Jesusi:
“Illuna dator. Jende au, berriz,
ezin gentzake emen utzi,
au oso leku arlotea da,
ez ditezen danak jausi,
etxerakoan goseak jota;
ori zedorrek ikusi”.

742

Maisuak etzun buru-austerik,
begira zegon otxana,
aldez aurretik ondo bazekin
egin bear zuen lana.
Nola jan eman? Au zan orduan
apostoluen esana:
“Bial itzatzu basetxetara
arki dezaten zer jana”.

743

Maisuak laxter erantzun zien:
“Joan bearrik ez dute;
eseri azi, bai, or ta zeok
jaten eman zaiezute”.
“Orrenbestentzat aña janari
billatzerik ez det uste;
berreun denarioren ogiak
gutxiegi baidituzte”.

744

Oartzuz Jesus ainbeste jende
nola zitzaion etorri,
ondoan zeukan ezkerro ala
esan zion Filipori:
“Nondik atera genezake guk
auentzako aña ogi?”.
Apostolua zirika nairik
esan zion noski ori.

745

Filipok ala erantzun zion
bizi, ezer pentsatzeke:
“Ez dakit, baña zuk nai badezu
joango al gera eske?
Ingurutako baserrietan
agian arki liteke,
berreun denarioren ogia
probatzeko ez luteke.

746

Maisuak galde zien orduan:
“Zenbat ogi dituzute?”.
Eta bertatik agindu zien:
“Joan ta ikasi zazute”.
Bost garagar-ogi ta bi arrai
nonbait bean badituzte;
onenbest millak ori bakarrik
asteko ere ez dute”.

747

“Bost garagar-ogi ta arrai oiek mesedez onuntz ekarri, jendetza ori gure aurean ogei ta amarnaka jarri”. Apostoluak esana egin ta begira zeuden larri, mirari aundiren bat ikusi bearko zutela sarri.

748

Belar bikaña zegon lekuan lasai an zegon jendea, ixil Jesusengana begira itxaropenez betea. Maisuak laxter ulertu zuen egin gabeko eskea, goseak zeuden aiek izango zuten apari merkea.

749

Bost ogi ta bi arraiak artuz, begiratuaz zerura, onetsi zitun, apostoluei luzaturik gero ura: “Danen artean zabal zazute au, dakizuten modura, bakoitzak berak nai duen aña jan arte, eskutik eskura”.

750

Danak jan zuten bada nai aña, ase ziran arrai ta ogiz, ainbeste maite zitun Maisuak, eman ziena mirariz. Gero Jesusek agindu zien bere ikasleei berriz: “Bildu kondarrak”. Amabi zare bete ziran ogi ta arraiz.

751

Andre ta aurrak kontatu gabe bost millaren bat inguru, esan zutenez, bai omen ziran jan zutenetan, seguru. Gizon guziak ala zioten: “Datorrena au ez dugu?”. Danak alkartu ziran ta jarri nai zuten erriko buru.

Itxasoko ekaitza

752

Maisuak laxter antz eman zien jendea berotu zala, erregetzako aukera nairik aurki asiko zirala. Besteren leku t'erri-gauzetan nastu zanaren itzala bera ere Maisuak uxatu nai zuen nola edo ala.

753

Bere ikasleei agindu zien sartzeko ontzi batean, itxogiteko berari gero beste aldeko partean. Gizataldea bero zebillen aruntz-onuntz bitartean, ondo aseak nola baizeuden joan zitezken pakean.

754

Apostoluak ontzira ziran illunarekin batera, Kafarnaunera pasa nai zuten, itxasoz beste aldera. Nolabait andik biali zuen gizataldea etxera, bakar-bakarrik mendira joan zan Jesus otoitz egitera.

755

Igo zan, bada, Jesus gordean,
esan bezela, mendira,
bere Aitakin itzegiteko
asmoan bakar-tokira.
Luzaro egon zan ezkutuan,
baña gero, gaberdira,
abiatu zan itxas gañean
apostoluen ontzira.

756

Apostoluak bazijoazten
itxas zabalean barna,
ugñak aurrez nola zituzten
zalla arraunketa-lana.
Oso neketan zijoaztela
oartuz Maisu otxana,
itxas gañean ibilliz joan zan
gaberdira berengana.

757

Bost edo seiren bat kilometro
arraun egin zutenean,
ikusi zuten norbait etortzen
bakar, arrats illunean,
intxixu baten antzera, oñez,
txutik uraren gañean,
beren aurretik igaro nairik
zauli urrats ariñean.

758

Bazijoazten neketan ugin
artean erdi ezkutu,
ura ikusi zutenean an
etziran gutxi izutu.
Batzuk karrasi, besteak berriz
izuaren izuz mutu,
intxixuren bat zalako ustez,
ez baizuten ezagutu.

759

“Ez ikaratu, lasai zaitetzte”.
Pedro orduan bero-bero:
“Utzi zadazu zugana joaten,
Jauna, zu zeran ezker”.
Bazijoan ur gañean txutik,
baietz agindu ta gero,
ugin gañean Jesusengana
arro xamar noski Pedro.

760

Aize-purrusta batek orduan
bultz egin zion Pedrori;
eta, jakiña, ikaratu zan:
eldu nai, jakin ez nori.
“Gaizka nazazu, uginpe ontan,
Jauna, ez nadin erori!”.
“Zergatik jarri zera zalantzan,
sinismen gutxiko ori?”.

761

Esku emanta orduan biak
sar ziran ontzi aulera,
aizea geldi, ugiñak ixil,
bare itxasoa bera.
Izuti aiek urbildu ziran
Maisu onaren aurrera,
auspez agurtu zuten: “Benetan
zu Jainko-Semea zera”.

Jenesar errian

762

Beste aldera igaroz jetxi
ziran Jenesar errira,
lur jo zuneko ango jendeak
berela oartu dira.
Angarilletan gaixoak artuz
Maisuak ditzan kupira,
andik-emendik sailka dakarzte
Jesus dabillen tokira.

763

Bear batean elkar artutzen
zuten berela bulartsu
gaixo zeudenei lagundutzeko,
gaur egunean alatsu.
Lerroan otoika ari zaizkio
angarilletan, kejatsu:
“Erruki zaitez gutzaz, erruki,
Jauna, sendatu gaitzazu”.

764

Edozein kale, baserri edo
errira sartzen zanean,
ango jendeak Maisua zala
ezagutzen zutenean,
erri artako gaixo geienak
an zitun aldamenean;
erriro Maisua noiz joango zai
zegon jendea denean.

765

Danak oiuka asten zaizkio,
eri ta sendoak biran:
“Soñeko ori ukui dezagun
utzi zaiguzu sikiran”.
Bere jantzia ukuitzen zuten
guziak sendatzen ziran,
alako igerle ongillerik
etzan azaldu lurbiran.

766

Noranaira joan, danen ezagun,
danean beti eskea,
izan ere nork ez du maiteko
orren ongille merkea?
Gordean ezin ibil ziteken,
beti ondora jendea,
“on egin, baña daneiri duan”
bere maitasun-legea.

Zeruko ogia

767

Maisuak ogiz ase zitunak
jan ta urrengo goizean,
ikusiz atzo ontzi bat besterik
etzala itxas-ertzean,
ura joan ta Jauna bakar bertan
geratu zala arratsean,
arritu ziran inguru artan
iñon ere ez arkitzean.

768

Ontzi batzua etorri ziran
itxasoz beste aldetik
jan zuten lekura; an etzegon,
ez Jesus, ez ikaslerik.
Orduan andik palta zirala
gizaldeak ikusirik,
beste aldera ar zuten Jaunaren
billa, ontziak beterik.

769

Ontzi aietan pasa orduko
itxasoz beste aldera,
Kafarnaunen arkitu zuten
ikasleekin batera.
Arritu ziran benetan, ala
egin zioten galdera:
“Ontzirik gabe Kafarnauro,
Jauna, nola etor zera?”.

770

Jaunak orrela erantzun zien
kezkati xamar, minbera:
“Bazabiltzate nere ondoren
bazter batetik bestera,
ez noski nik egiten ditudan
mirari oien pozera,
bai ogiz ase zeratelako,
berriro ogi-eskera.

771

Egizute lan irabazteko
ez usteltzen dan jatena:
beste janari, Giza-Semeak
zuentzako dakarrena.
Onek emango dizute beti
bizitzeko iraupena,
Giza-Semea baida Jaungoiko
Aitak sillatu duena”.

772

Asarre xamar ala zioten
urbilduz Jesusengana:
“Egin dezagun erakuts guri
zer dan Jainkoaren lana”.
Jesusek berriz: “Jainkoaren lan
ori ontan dago dana:
sinistu dezazutela arek
igor dunaren esana”.

773

“Zer ezaupide ematen diguzu
edo egin beste zer lan,
oiek ikusiz zalantzik gabe
sinistu dezagun zугan.
Gure asabak basamortuan
mana goxoa zuten jan,
idatzia baidago zeruko
ogia ziela eman”.

774

“Zeruko ogia eman ziela
Moisesek ez da egia,
nere Aitak ematen dizute
egizko zeruko ogia.
Jaungoikoaren ogia da ta
zerutik onuntz jetxia,
gizonari ark emango dio
bere betiko bizia”.

775

Oraindik iñork etzion entzun
beste ainbeste iñori,
zer ogi ote eskeintzen zuna
ezin kontuan erori.
Sabela beste gauzik etzaio
gogoratutzen askori,
laxter eskatu zioten: “Jauna,
emaiguzu ogi ori”.

776

“Ni naiz benetan bizitz-ogia;
neregana datorrena,
ez da izango gose-egarri,
nigan sinisten duena.
Onek emango baidio beti
bizitzeko iraupena,
oraindik otza dago ordea
nerekiko sinismena.

777

Zeruko Aitak bialtzen didan
guzia dator nigana,
eta betiko gordeko det nik
Arek ematen didana.
Ni naiz Betiko Aitak mundura
zerutik bial nauana,
beti aren naia egitea
orixe da nere lana.

778

Igorri nauen nere Aitaren
naia berriz orra zer dan:
Arek bialtzen didan guzia
etorri dedilla nigan,
bat ere galdu gabe nik azken
orduan piztu dezadan;
Zeruko Aitak neri au beste
agindurik ez dit eman.

779

Zeruko Aitak beste gauzik ez
du nai, eduki goguan:
bere Semea ikusi ta argan
sinistatzea munduan,
betiko izan dezan bizia
Arengan sinisten duan
guziak, eta berpiztuko det
nik ura azken orduan”.

780

Marmarka ari ziran juduak
entzunik esan zuala
bera zerutik mundura jetxi
zan ogi bizia zala.
“Joseren seme Jesus ez da au?
Zergatik dio onek, bada,
nongoa dan dakigun ezkerro,
zerutik jetxia dala?”.

781

“Ez gaizki pentsa; gezurti danik
ez esan emen iñori.
Ezin liteke mundu onetan
iñor nigana etorri,
biali nauen Zeruko Aitak
baldin ez badit igorri;
azken orduan berpiztuko det
nik berriro gizon ori.

782

‘Jainko-eskolatuak izango
dira’ dago idatzita,
Aitari entzun ta ikasia
esaten detan au baita.
Zeruko Aita mundu ontako
iñork ez du ikusi, ta
bakar-bakarrik Joainkoarena
danak ikusi du Aita.

783

Nigan sinisten dunak betiko
bizia dauka berekin,
basamortuan guraso zarrak
mana jan ta il ziran egin.
Ni naiz bizitz-ogia, zerutik
jetxia, onen atsegin,
ontatik jaten duen gizonik
beñere galdu ez dedin.

784

Ni bainaiz benetan ogi bizi
ori, zerutik jetxia,
ogi ontatik jaten duenak
badu betiko bizia.
Eta gizonen bizitzarako
emango detan ogia,
ez da besterik: izketan ari
naizen onen aragia”.

785

Juduak marmar egiten zuten,
ortan bai danak batera,
eztabaidaka, ezin baizuten
gauza garbirik atera:
“Orrek esaten digun bezela
ori egi izatera,
nola arraie eman dezaiguke
aragi ori jatera?”.

786

Maisuak berriz erantzun zien:
“Sinistu nere itzetan:
nere gorputza jan ta odola
edaten dunak benetan
betiko bizia irabazi
duela mundu onetan,
eta berriro ura piztuko
det nik azken egunetan.

787

Nik diozuet: nere gorputza
ziñez dala janaria,
emango detan odola berriz
ziñez dala edaria.
Nere gorputza jan ta odola
edaten duen guzia,
neregan nago, argan ni, arek
neregan dauka bizia.

788

Bizi da Aita, argan nago ni;
berdin jaten nauna ere:
nigan dago, zeruko ogi au
jaten duna beti nere.
Guraso zarrak jan zuten mana,
il egin ziran alere;
ogi ontatik jaten duenik
ez da ilko berriz beñere”.

789

Kafarnaunen esan zuen au
nazka emanik askori,
apostoluei berairi ere
etzaien ongi erori.
Itz auek entzun zituzteneko:
“Gogorra dek izkuntz ori”.
Eta marmarka ala zioten:
“Nork entzun dezaioke orri?”.

790

Bere ikasle artean ere
bada naiko buruauste,
itz gogor aiek entzunik Jesus
betiko utzi nai dute.
Maisuak esan zien: “Orrekin
gaizbide artzen dezute?
Giza-Semea gora igotzen
ikusiko bazenute...”

791

Espirituak dakar bizia,
aragia ez da ezer,
nere itzak berriz bizi dira
Espirituari esker.
Baña badira zuen artean,
ortan ez bainabil oker,
neri sinistu nai ez didaten
ainbat deabrudun anker.

792

Maisuak ori ongi baizekin
asiera-asieratik
nor zan salduko zuna, etzuen
esan bearraren paltik.
Eta ondoren au esan zien,
biotz illun orrengatik:
“Nigana iñor ezin etorri
Aitak bialtzen ez badit.

793

Ordu ezkerro ikasleetako
asko joan ziran atzera,
aiek etziran gero ibiltzen
Maisuarekin batera.
Orduan egin zien Jesusek
amabieiri galdera:
“Zuek ere utzi bear nauzute?”
begiratuaz minbera.

794

“Jauna –erantzun zuen Simonek
sutsu, itzetik ortzera–,
betiko itzak zuk dauzkatzu ta
norengana joango gera?
Zure ondoan ongi gabiltz, ez
degu egingo atzera;
sinisten degu ta badakigu:
Jaunaren Santua zera”.

795

“Amabi ez al nitun autatu?—
samiñez Jesus mazala—
Ongi badakit zuetako bat
alare deabru dala”.
Simonen seme Judasengatik
Maisua ari zan ala,
baizekin urte gutxiren buru
berak salduko zuala.

796

Galileara jo zuen, maite
zitun ango inguruak;
ango erriak Jesusentzako
ziran leku seguruak.
Gorrota zuten Jerusalemgo
parisaitarren buruak;
iges zebillen orregatik, il
nai zutelako juduak.

Eztabaida

797

Jesus sartzen dan txoko danetan
sortzen zioten ekaitza,
atseden gabe bere zeletan
parisaitar murrizta.
An eta emen zer ikusiko
bere itzalaren gisa,
erririk erri, Jesus nora, aiek
ara: atzetik dabilta.

798

Orduan ere urbil zaizkion
ondoko errietatik,
Jerusalenen aukera baizan
etzan alper oien paltik.
Erasotzen zioten aldiro
ederrak entzunagatik,
eztabaidaka asten zitzaizkion,
etzuten galtzen bistatik.

799

Aien arrazoi-itxura danak
txaututzen zitun Maisuak,
beren iritziz izanagatik
Judeako jakintsuak.
Ekin-aldiro lotsagarririk
geratzen ziran gaixuak,
alare beti erasotzera
urbiltzen ziran, itxuak.

800

Oartu ziran mai inguruan
ikasletako batzuak
ajolik gabe jaten zutela
garbitu gabe eskuak.
Ikus bazuten ikusi zuten,
goxuak zeuden, goxuak,
pekatu beltzat zeukaten ori
orduko parisauak.

801

Pariseo ta judu geienak
ori baizuten oitura,
maiz garbitzen ziran, danetako
asko bear zuten ura.
Esku-buruak garbitu gabe
etzan joango otordura,
beste olako txorakeriak
oitura auen agindura.

802

Guziok ongi dakigu txarra
ez dala garbitasuna,
ta gizartean bizitzezkeroz
bearrezkoa zaiguna.
Oen artean ordea ain zan
pekatu larri astuna,
madarikatzen zuten gauz ori
ongi betetzen etzuna.

803

Laxter eraso zioten bada
parisaitarrak Jesusi:
“Ez degu gure erri xar ontan
beste ainbeste ikusi.
Jatera baño len ez dituzte
beren eskuak ikuzi,
zertan ordea gure asaben
oiturak ain errez autsi?”.

804

Maisuak txuxen erantzun zien
garbi ta zorrotz onela:
“Uskeri oen atzetik orra
beti umeak bezela.
Oartu gabe Jainko-legea
errez austen dezutela,
aginduen gañetik oiturak
jarriz, bejondeizuela!

805

Ongi esan zuen Isaiasek,
itxuratiak alenak:
‘Mingañez erri onek ematen
dizkit neri gorespenak.
Baña biotzez urruti daude,
urruti nigandik denak,
Jainko-legeak baño lenago
erakutsiz gizonenak’.

806

Jaungoikoaren lege batzuak
ajolarik gabe utzi,
bitarte ortan asaba zarren
oitura txatxuei eutsi.
Esku ta txantxil, edal-ontziak,
ori bai, txintxo ikuzi;
uskeri auek betetzearren
Jainko-aginduak autsi.

807

Au da Moiseren bidez Jainkoak
legean agindu zuna:
zure aita-amak gorets itzatzu,
eman zure maitasuna.
Egitez edo birao txarrez
madarikatzen dituna
il bedi, eman dezaiotela
ari eriotz astuna.

808

Zuen oiturak berriz autsi du
Jaunarenean dagona:
semeren batek, nai baldin badu,
utzi lezake limosna
Elizarentzat, gorroto ditun
gurasoei zor ziona;
itxuratiak, ez da lenengo
zuen gurasoen ona?

809

Oben gaiztotzat ez betetzea
zuen oitura txatxuak,
bitarte ortan goseak iltzen
utzi berriz gurasuak.
Zuen onerako errez autsi
Jaunaren lege batzuak,
bete lenengo Jainko-legeak,
itxurati ta lausuak”.

810

Gero jendea bereganatuz
asi zitzaien izketan:
“Kanpotik sartzen danak zikiñik
ez du uzten biotzetan.
Baña barrutik ertetzen danak
zikintzen gaitu benetan,
belarridunak entzun dezala
ongi zer esaten detan”.

811

Ettxera sartu zan, jendeari
egiñik bere agurra;
ikasleen erdian artzeko
bere atsedean apurra.
Auek urbilduz ala zioten:
“Ori zan orko murmurra:
zure itz oek entzundakoan
parisaitarren muturra!”.

812

“Nere Zeruko Aitak landa ez
ditun zugaitza guziak,
kupirik gabe izango dira
zañetatik ebakiak.
Utzi itzatzute, itxuak dira
itxu aurreko jarriak;
itxuak zaintzen badu itxua,
zulora dijoaz biak”.

Berdintzaren azalpena

813

Apostoluak entzuten zuten,
bai, beste askoren gisa,
baña Jesusen berdintzak ezin
ulertu zituzten aixa.
Orduan Pedrok danen gañetik
jaso zuen bere itza,
eta Jesusi eskatu zion:
“Ager zaiguzu berdintza”.

814

“Aotik ezin sartu liteke
bat zikindu lezakenik,
biotzeraño iritxi gabe
sabelera doa lenik,
ta leku ezkuturen batean
botatzen baida azkenik,
jaki danak garbi dira, orrek
ez du zikintzen barrenik.

815

Baña barrendik ertetzen dana
ez da beti izaten ona,
ortik botatzen baidu gizonak
gorrotopean dagona.
Barrun beltzezko birao gaiztoen
bultzaz jaiotzen zaiona,
benetan ori da txarra; orrek
bai, zikintzen du gizona.

816

Biotz barruan jaiotzen dira
asmo biurri guziak:
ezkontz-auste ta gizon-iltzeak,
berdin aragikeriak;
lapurtze, gezurrezko aitortzak,
birao ta zikoizkeriak;
txarkeri danak sortutzen ditu
biotzeko iturriak.

817

Badakizute bada guziak:
biotzetik dijoanak,
orrek bakarrik zikintzen ditu
gizonaren gogo-barnak.
Egundo ere ez berriz kanpotik
barrura sartzen diranak,
esku zikiñez jan diran arren
garbi dira oiek danak”.

Andre kananearra

818

Andik berela bazter batera
gorde zan Jesus umilla,
txoko batean atsedentzeko
asmoan ixil-ixilla.
Baña alperrik zebillen Jesus
gordeleku baten billa,
bat etortzerik nai etzunean
etortzen zaizkion milla.



413

Danak sendatu ondoren bada igo zan muño gañera,
andik obeto itzegiteko artuz jendea gainbera.
Apostoluak ere urbildu zaizkion aldamenera,
aren aotik goxo zetorren Berri Ona entzutera.

819

Gaur ere bada, orduan berdin,
gaixo, eri, legenduna;
arki ezkeru sendagille bat
danak sendatzen dituna,
ain maitagarri, ona ta apala,
ezer kobratzen ez duna,
zeñek ez luke billatuko gaur
ere alako laguna?

820

Berela entzun zuen Maisuak
andretxo baten abotsa,
irrintzi baten antzekoa zan
luze, mea ta zorrotza:
“Dabiden Seme, urrikal zait!”
eten gabean diotsa;
zalantzik gabe ukuitu zuen
Maisu onaren biotza.

821

Jaunak etzun aintzakotz artu,
andreak berriz geiago
oiu, ta laxter Jesusengana
dator gero ta azkarrago.
Andre gaixoa, itxaropenez
betea, eskari dago;
ain sinismenez eskatzen du ta
ez ote dio emango?

822

Apostoluen biotzak ere
asiak ziran mugitzen,
Jaunari ala esan zioten:
“Ez dezu ori aditzen?”
Andre gaixoa, otoi, eskari,
ari zaigula segitzen?
Eskatzen duna emanaz, Jauna,
nola etzera kupitzen?”.

823

Maisuak berriz etzuen galdu
barruko pazientzirik,
ala erantzun zien betiko
patxaran eta geldirik:
“Israelera bialia naiz;
etxeko ez dan ardirik
ez det bildu nai; andre orrekin
ez daukat zer ikusirik”.

824

Baña andre au, atzerritarra
bazan ere, fedetsua.
Ixil-ixilik muzin-itxuran
bazegon ere Maisua,
etzan alare asko izutu
orrekin andre gaixua,
aurrean auspez jarririk egin
zion eskari sutsua.

825

“Dabiden Seme, urrikal zait!
Nere alaba maitea
deabru zarrak artua dauka
oñaze miñez betea.
Gaixoa! Ez da nolanaikoa
egiten dion kaltea,
biotz oneko Dabiden Seme,
gutzaz urrikal zait!”.

826

Maisuak ala erantzun zion,
ustez erantzun gogorra:
“Zertan zabiltza nere atzetik?
Esan bear dizut, orra:
Nola emango diegu, andre,
semeen ogi-kozkorra
auei kenduta txakurreiri,
ez litzake-ta jatorra?”.

827

Maisuak esan zitun itz auek
etziran oso xamurrak,
baña andrea etzan geratu
atzeratuta beldurrak.
“Ala da ori, ezin ukatu;
baña askotan txakurrak
jaten dituzte maietik bera
datozen ogi-apurrak”.

828

Maisuak ala erantzun zion
maitagarri ta eztsitu:
“Atzerritarra zera, otoitza
nola egin badakizu.
Sinismen berokoa zu, sinist
dezuna gerta bekizu.
Andretxo, zoaz etxera, bai, ta
alaba sendatu zaizu”.

829

Etxera joan ta alaba lo zegon
lasai oiean etzanik,
esnatu zuen bere amatxok
laztan goxo bat emanik.
“Parisaitarrak aurka ditula?
Zeñek dauka zer esanik?
Neri alaba sendatu baidit
atzerritarra izanik”.

830

Maisua Tiro aldera joan zan
Sidongo errian barna,
itxas-ertzera berriro ere,
ura zan maite zuana.
Arrantzalekin zuen Maisuak
betiko artu-emanan,
ango jendea baizan benetan
langille, umil t’otxana.

Gor-mutua sendatzen

831

An ere laxter azaldu ziran
Jesusen aldamenean
gaixo, elbarri, gor eta mutu,
oek baidira danean.
Gor-mutu zan bat ekar zioten
aruntz agertu zanean,
otoi egiñaz jarri zitzala
eskuak bere gañean.

832

Bazterreratu zuen, jendea
erruz baizegon benetan;
mingaña igurtzi, sartu berriz
beatzak belarrietan.
“Aska zaitezte!” oiue egiñaz
eta bat-batera bertan
belarriak entzun da mingaña
asi zitzaion izketan.

833

“Ez esan gero!” agindu zion,
baña nork ura gelditu?
Bazter guzitan zabaldu zuen
ta bazuen nork aditu.
Egintz auekin ainbesteraño
zitun jendeak arritu,
ala zioten: “Au da gizona!
Lanak ongi egin ditu!”.

Ogi ugaritzen

834

Igo zan Jesus mendi batera,
jarri zan muño batean;
baña alperrik: an ere iñork
etzion utzi pakean.
Itxu, elbarri, mutu zizkaten,
bide guziak betean;
ainbat erruki bai ote zegon
Jesusen biotz maitean?

835

Geiago ere. Sendatu gabe
iñor ere etzuen uzten;
berela jartzen zitun itxuak
bear bezela ikusten,
urgunak ibil, eriak bizkor
ta gorrak berriz entzuten;
jende guziak Israeleko
Jainkoa goratzen zuten.

836

Urbil zitzaion berriro ere
Jesusi jende-pil gaitza,
aien aurrean urrikaldurik
Jauna orrela zan mintza:
“Erruki ditut, iru egun jan
gabe nerekin dabilta;
ni nora oiek ara, entzuten
asper gabe nere itza.

837

Ezin ukatu gentzaioke ezer
gaur auetako iñori;
eman zaiezute jan, bidean
ez ditezela erori”.
“Nondik atera gentzake emen
auentzako aña ogi?
Basamortuan gaude gero; ez
da erreza izango ori”.

838

Maisua etzan asko larritu
aldez aurretik baizekin,
bere ondoren zebiltzan aiek
asetzeko zer lan egin
Orretxegatik apostoluei
zirikaz zien itzegin:
“Zenbatsu arrai ta ogi-opil
dituzute or zuekin?”.

839

“Zazpi ogi ta arrairen batzuk
besterik ez degu, Jauna”.
“Aski ditugu”, ori izan zan
Maisuaren erantzuna.
Onetsi zitun, zabal zituzten
jende artean barruna;
danak jan zuten asetzeko ain,
bakoitzak berak nai zuna.

840

Jan zuten, pozik ziran guziak,
ogi artatik aukera;
kondarretatik zazpi zareka
bildu zituzten gañera.
Lau-bat milla gizon bezelatsu
ziran gutxi gora-bera,
aiekin zeuden emakume ta
aurrak sar gabe tartera.

841

Gero biali zuen jendea
bakoitza bere etxera,
ondoren Jesus ikasleekin
sartu zan ontzi batera;
ta artu zuten pake-pakean
Majadango bazterrera,
oitu bezela alde artako
jendeari itzegitera.

Parisaitarrak berriz

842

Orduan ere parisaitarrak
beti Jesusen itzala,
Judea aldeko bazter guzitan
zelatari zebiltzala;
aiek sinistra zezaten bera
benetan Mesias zala,
zeruan ezaupide bat aien
aurrean egin zezala.

843

Arro-puztuak beti aurrean
eta beti ikamika,
Jesus izketan arrapatzeko
beti zebiltzan zirika.
Maisua umil erazi beste
gauzik ez dute irrika,
baña Maisuak aintzakotz artu
gabe esan zien: “Utika!

844

Zer zabilzate mirari eske,
neri zirika, urduri?
‘Arrats gorri, biar eguraldi,
ta goiz gorri arrats euri?’
ez diozute? Orri antz eman
eta gezurra diruri,
garai auen ezaugarriei ez,
mirari eskean guri”.

845

Biotz barrendik antsi egiñaz
eta naigabez beterik:
“Gizaldi gaizto biurri onek
ez al dauka sinisterik?
Baña alperrik dabil; etzaio
emango ezaupiderik
Ninibetarren Jonas profetak
egin zuena besterik”.

846

Nazkatu xamar aiek utzita
sartu zan berriz ontzira,
ikasleekin batera joan zan
andik itxas-araindira.
Baña igaro ziran orduko
andik beste alderdira,
bear aña ogi ez dutela
berandu oartu dira.

847

Ajola zion Maisu onari
ogi-paltiarengatik,
alare antz eman ziolako
edo ez dakit zergatik:
“Parisaitar biurri oiek
maltzurak dira orratik,
al badezute aldegitute
beti oien orrantzatik”.

848

Itz auek entzun zituzteneko
ikasleen berriketa:
“Ogirik ez degulako dio”
au zan beren gogoeta.
Maisuak laxter antz eman zien
zerabilkiten izketa,
“Zergatik diozute ‘ogirik
ez degu ekarri eta’?”.

849

Ez al dezute sinisten edo?
Beti gauz bat erakusten;
begiak izaki zuekin ta
ez dakizute ikusten.
Biña belarri badituzute,
ez dakizute entzuten,
ez dakit zerek oraindik ere
ainbat itxutzen zaituzten.

850

Bost milla gizon bi ogirekin
ase nituen lenguan,
zenbat zareka sobratu ziran
danak jan zuten orduan?”.
“Amabi”. “Zazpirekin lau milla
bazkatu nitun onduan?”.
“Zazpi”. “Zergatik ez dituzute
auek ibiltzen goguan?”

851

Ez degu inoiz gaur arte beintzat
emen ogi-paltik izan,
parisaitarren maltzurkerizko
lanagatik ari nintzan.
Ez dituzute ikusten nola
okerbidetik dabiltzan?
Ez baizaituztet zuek beñiere
ikusi nai oien gisan”.

Betsaidako itxua

852

Betsaidara joan zan Jauna gero;
errian sartu zaneko,
itxu batekin urbil zaizkion
eske, ura sendatzeko.
Andik kanpora atera zuen
jendeak ez ikusteko,
beti era bat etzun izaten
mirariak egiteko.

853

Begiak txistuz busti zizkion,
eskuak gañean jarri;
ezer ikusten zuen galdetu
zion orduan berari.
Baietz; gizonak zugaitz-itxuran
ikusten zitula larri,
ezin ziela urruti edo
alde zebiltzan igarri.

854

Eskuak jarri zizkion berriz,
Jaunak ain zuen kupira,
jarri zan berriz zorrotz itxua
andik urruti begira.
Argi ta garbi ikusten zuen
bertara ta urrutira,
Maisuak zion: “Zoaz etxera,
baña ez sartu errira”.

Simon: Pedro, Arkaitza

855

Filipoko Zesarean zegon
Jesus bere otoitzean,
ikasleak ere an zebiltzan
danak erdi jolasean.
Eta Maisuak bein asitako
otoi-lanak bukatzean,
galdera txiki bat egin zien
ikasleei bat-batean.

856

“Ni nor naizela dio jendeak?”.
Ikasleak bereala
erantzun zuten, berak zekiten
dana nola edo ala:
“Elias, Jeremias edo Joan
berriro piztua dala,
baña guziak aitortzen dute
igerleren bat zerala”.

857

Apostoluak uste zutena
garbi nai zuen atera,
beste galdera txiki bat egin
zient lengoaz gañiera:
“Ta zuek berriz zer diozute?”.
Pedrok itzetik ortzera
erantzun zion: “Zu Kristo, Jainko
biziaren Seme zera”.

858

“Ez dizu ori aragia ta
odolak esan. Jakizu:
zeruko nere Aitak berberak
ori erakutsi dizu.
Zorioneko Jonaren seme,
Arkaitza deituko zaizu,
arkaitza bezin trinko ta sendo
izango zera beti zu.

859

Bene-benetan esaten dizut,
Pedro, zerala arkaitza,
arkaitz orretxen gañean bertan
eraikiko det Eliza.

Jo bezaiote aize ta urak,
jauzi bezaio ekaitza;
ez da erorko, deabru danak
aurka alperrik dabilta.

860

Zeruko giltzak ere zure gain
utziko dizkitzut, Pedro,
mundu ontan zuk lotzen dezuna
zeruan lotua bego.

Zeruan ere askatuko da
emen askatu ezkeru”.
Ala agindu zion: “Ni Kristo
naizenik ez esan gero”.

Nekaldiaz itz egiten

861

Jesus asi zan ikasleentzat
berri gaizto bat ematen,
laxter gertatu bear zaiona
aldez aurretik esaten,
Jerusalenen ilko zutela
guziak jakin zezaten;
baña etzuten au ikasleak
gogoz entzun nai izaten.

862

“Jerusalenuntz joan bear degu
emen galdu gabe betik,
an ikusiko ditut gorriak
apaiz-buruen partetik.
Azkenean il egingo naute
zintzilika gurutzetik,
Giza-Semea berpiztuko da
ordea illen artetik”.

863

Pedrok etzeukan olako itzik
entzuteko're gogorik,
bakarrik artuz: “Ez da zurekin
gertatuko olakorik”.
Maisuak berriz: “Utikan, Satan!
-bizi abotsa jasorik-,
gizonen naiak maite dituzu,
ez Jainkoaren asmorik”.

864

Ondoren ala esan zieten
naigabetua gogotik:
“Inork etorri nai baldin badu
munduan nere ondotik,
artu dezala gurutz astuna
arrastan bere lepotik;
eta ukatuz bere burua
jarrai bezakit orpotik.

865

Bere bizia salbatzen dunak
nere naiari igesiz,
galduko du; neregatik galtzen
dunak irabazi berriz.
Zer aurrerapen leukake bere
anima galtzera utziz?
Ezer oberik arki liteke
truka egiteko egiz?

866

Ukatuko det nik ere gero
ukatzen nauna munduan,
nere Aitaren aurrean ez bai-
det edukiko goguan.
Giza-Semea ospe guzian
etorriko dan orduan,
bakoitzari emango zaio
tokatzen zaion moduan.

867

Jakin zazute Giza-Semea
emendik badijoala,
ospe artean ordea berriz
laxter etorriko dala.
Munduan orain daudenetik
asko biziko dirala.
Jainko-jaurgoa indar guzian
ere ikusiko duala.

Jesusen antzalda

868

Itzalditxo au egin ta andik
zortziren bat egunera,
igo zan Jesus ondoan zego
mendixka baten gañera,
Pedro, Santio t'onen anai Joan
artuz berekin batera,
oitu bezela goi-bakardade
artan otoi egitera.

869

Asmo bereziren bat zeraman
Maisu maiteak mendira,
Nekaldiaren ordu garratzak
urbiltzen ari baidira.
Iru lagunak berekin artuz
igo zan bada tokira,
berak otoitza dagin bitarte
besteak lasai begira.

870

Mendi guzia laxter jarri zan
eguzkia bezin txuri,
pake santu bat zego lekua,
dana atsegin ta guri.
Usai gozo bat zabaldu zan an,
ez dakit zerek ixuri,
begiratuan zoragarritzko
amets gozo bat diruri.

871

An dago Jauna bakarrik, ixil-
-ixilik, otoi garbian,
elurra baño dizditzagoko
txuritasuna jantzian,
beste munduko izakiren bat
zirudila arpegian;
zeru beraren antz-irudia
jarria zego mendian.

872

Bi gizon eder urbildu ziran
Jesusengana orduan,
Moises ta Elias ziran biak,
arrigarritzko moduan.
Bi aldetatik txutik jarriak
Maisu beraren onduan,
Jerusalengo ordu garratzak
zerabilzkiten goguan.

873

Irurak antxe alkarrizketan
zeru-poz artan luzaro,
Jesus erdian, ordu luzeak
noski zituzten igaro.
Gora orduko apostoluak
loak ar zitun zearo,
Jesus aiekin zego bitarte
besteak lotan abaro.

874

Esnatu ziran ta zer zan ura?
Amets batean bezela
Jesus beste bi gizon aiekin
bertan ikusten zutela,
elurra baño zuriagoko
soñekoak zituztela,
poz-atsegiñez uste baizuten
zeruan bertan zeudela.

875

Apostoluak luzaro egon
ziran zoratzen begira,
dizdiz zegiten zoragarrizko
gizon aien arpegira.
Noizbait lagunak urrun zaizkion
Jesusi andik ortzira,
ikasleak non dauden orduan
kontuan erori dira.

876

Pedro, ikusi zunaren pozez,
ezin lasaitu iñola:
“Jaso ditzagun ementxe mendi
gañean iru txabola
Moises, Elias eta zuretzat”
oartu gabe ziola,
izketako eran bazirudin
burutik joana zegola.

877

Oraindik mintzo zalarik Pedro,
txabol-egintzako maisu,
mendi gañera jetxi zan geldi
odei aundi bat argitsu.
Apostoluak geratu ziran
ezin ikusirik itxu,
beldurgarrizko dizdira artan
galduak, biotza izu.

878

Odei argitsu aren gañetik
laxter entzun zan abotsa,
iru ikasle beldurri aien
belarritako ortotsa:
“Entzun zaiozute beti oni
–abots gogorrek diotsa–;
ori da nere Seme, orrengan
daukat atsegin ta poza”.

879

Len beldurrak bazeuden, orain ez
ziran nolana izutu;
auspez etzanik geratu ziran
gorrak, itxu eta mutu.
Orduan urbil zitzaien Jesus
ta bizkarrean ikutu,
begiak jasoz Jesus besterik
etzuten an ezagutu.

880

Laurak batera jexterakoan
mendixka aren gañetik,
Maisuak ala agindu zien
bertan lenengo itzetik:
ez kontatzeko an ikusia,
mesedez, bere partetik,
Giza-Semea alik eta pizten
zan arte illen artetik.

881

Benetan ixil iraun zuten,
ikasi zuten gordetzen;
baña Jesusen itzak etzitun
oso gutxi naigabetzen.
Illen artetik piztuta ori
etzuten ongi ulertzen,
eta egia jakin-beldurrak
etzuten berriz galdetzen.

Elias ta Joan

882

Mendiak bera artu baño len
oraindik beko zabala,
apostoluak urbildu eta
galdetu zioten ala:
“Parisaitar ta lege-gizonak
zergatik diote, bada,
Elias igerlea aurretik
etorritzekoa dala?”.

883

Maisuak ala erantzun zien:
“Baiki, egia gañera,
Elias lenen etorko dala
bide txarrak apaintzera.
Nola diote Giza-Semea
beren etsaien mendera
eroriz, lotsagarri eraman
bear dutela iltzera?”

884

Jakin zazute Elias berriz
etorri zala mundura,
parisaitar ta bere erritarrak
ez dute ezagutu ura.
Nai duten guzia egin dute
etsaiak aren kontura,
berdin ibilliko dute Giza-
-Semea aren modura.

885

Apostoluak igerri zuten
ori Joanetzaz ziola,
ondo zekiten danak eriotz
txar bat eman zitzaiola.
Baña ura il zan, arengatik
etzitzaien bost ajola;
Maisua il zitekenik ezin
sinistu zuten iñola.

Mutiko bat sendatu

886

Alkarrizketan jetxi ondoren
mendi txikiko saietsa,
zeuden lekutik urrunxeago
somatu zuten jendetza
Eztabaidaren bat zan, zergatik
etzan asmatzen erreza;
laxter zan Jesus, apostoluak
nai zuten bere babesa.

887

Jetxi zaneke bada Maisua
menditik ixil-ixilla,
laxter batean urbil zitzaion
egundoko jende-pilla.
Jesus badoa bere bidean
bere ikasleen billa,
jakin nai zuen apostoluak
zebilkiten iskanbilla.

888

Beren ondoan an zebilkiten
mutil bat deabruduna,
naigabez zegon aita on baten
seme bakar ta kutuna.
Apostoluak saiatu ziran,
alperrik aien jarduna,
etzegon aien eskutan mutil
koxkorraren osasuna.

889

Bitarte artan parisaitarrak
alai askoak zebiltzan,
Maisurik gabe arkitzen ziran
apostoluen ixpitzan;
deabruduna ezin sendatu,
algorik ez dute izan,
erdi parrezka, erdi zirika,
adar-jotzalleen gisan.

890

Lasaitu ziran apostoluak
Jauna agertu zanean,
eziñik ari ziran lekura
artu zuen zuzenean.
Ikusi zitun auen larriak,
aul zeuden sinismenean;
kontentu ziran oek benetan
Jesusen aldamenean.

891

“Zer zabiltzate iskanbillaka?
Zer da emen gertatzen dana?”.
Orduan gizon bat gizaldetik
urbil zan Jaunarengana.
Auspez jarririk: “Seme gaixo bat
onuntz ekarri detana;
ez dute auek sendatzen eta
besterik ez det, au lana!

892

Jauna, urrikal zaite, bai, nere
seme ontaz errukitu;
deabruak artua dago ta
gorriak ikusten ditu.
Lagun zadazu, Jauna, semerik
gabe ez nadin gelditu;
arren da arren eskatzen dizut:
nere semetzaz kupitu.

893

Deabru batek lotua dauka
ta ondatzen du zearo,
oiu-karraxi asten da gero,
ortz-karraskaka luzaro;
apar dariola, biurrika
egun osoak igaro;
gaixoa oraintxe exur ta larru
ia besterik ez dago.

894

Ikasleeiri ekarri diet,
baña alper-alperrik, Jauna;
ezin sendatu al izan dute
seme deabrua duna.
Zu, Maisu on ori, saia zaite,
egin al dezakezuna;
mesedez, Jauna, ea sendatzen
didazun seme kutuna”.

895

“Jende sinist-gogor biurria
–Jaunak asarretu-zori–,
zuekin noiz arte negoke? Ez naiz
leku txarrera etorri!
Ni nor naizenik ez baizerate
iñor kontuan erori!”.
Gero aitari: “Ekar zaidazu
onuntz zure seme ori”.

896

Laxter ekarri zioten gaixo
zegon mutilla Jesusi;
deabru zarrak Jauna aurrean
txutik zunean ikusi,
biurrikatuz, astindu zuen
gora, bera, igo, jausi;
illa zuela zirudin, ezin
baizion pakean utzi

897

Maisuak esan zion aitari:
“Noiztik gertatzen zaio ori?”.
“Umetatik; zenbat aldiz ez da
su-garretara erori?
Zenbat aldiz uretik ez degu
atera au ito-zori?
Zuk sendatu al badezakezu,
or dezu semea, tori”.

898

Maisuak berriz: “Nola diozu:
‘ezer al badezakezu’?
Dana iritxi leike benetan
baldin sinisten badezu.
Aurraren aitak zion negarrez
oiuka eta esketsu:
“Jauna, nere sinismen eskax au
zuk geiagotu zaidazu”.

899

Jendea biltzen asi zitzaion
zer ikusi ingurura,
zertan bukatuko ote zan bada
aien eztabaida ura?
Maisuak: “Ats gor ta mutu, utika
etorri aizen lekura!
Ta ez adilla geiago sartu
mutiltxo onen barrura”.

900

Biurrikatu ta astindurik
oiu karrasi bizian,
iges joan zan, mutil koxkorra
utziz luze il-zorian.
Baña Maisuak eskutik artuz,
arritu aien erdian,
bere aitari eskeñi zion
aurra maitasun guzian.

901

Jendeak ao batez: “Ez degu
orrelakorik ikusi!”.
Aitak zorion, zer esanik ez,
bere semetxo ta guzi.
Andik etxera sartu orduko
apostoluak Jesusi:
“Zergatik ezin gendun guk, Jauna,
deabru ori erauzi?”.

902

“Zuen sinismen ezarengatik,
alperrik da sinisteke;
uzta pikor bat sinismen gabe
ez asi mirari eske.
Sinistuz mendi au itxasora
amilduko zenuteke,
deabru-mota au otoi barauz
bakarrik uxa liteke”.

Jesus nekaldiaz mintzo

903

Galileara artu zuen andik
omenez inguratua,
ixilka nai ta ezin, ikasle-
-salla ondoan artua.
Jendeak omen egiten zion,
baña arantz bat sartua
zeukan, aren sastadik naita're
iñolaz ezin aztua.

904

Omen guzien artean ala
egin zien berriro itz:
“Ez aztu gero; esan dizutet
len, ez dakit zenbat aldiz,
Giza-Semea badijoala,
oñazetan il eraziz;
baña irugarren egunean
berpiztuko dala berriz”.

905

Apostoluak illuntzen ziran
itz auek noiznai entzunik,
aien biotzak ezin ulertu
orren izketa illunik.
Galdetzeko berriz iñor etzan
ainbat ausardia zunik,
iñork ez baizuen ikasi nai
alako etorkizunik.

Bi dramakoa

906

Kafarnaunera sartu orduko
Pedrori zaizka urbiltzen
Elizarako erririk erri
zebiltzanak diru biltzen.
Eta zemaika ala zioten:
“Legeak dunez agintzen,
zuen Maisuak zergatik ez du
bi dramakorik ordaintzen?”.

907

Apostolu au beroa baizan
etzuen egin atzera,
“Danak bezela” erantzun zion
Pedrok itzetik ortzera.
Baña Maisuak ere egin zion,
sar ziranean etxera,
bakarrik bere ondora deituz
Pedrori bere galdera.

908

“Aizu, Pedro: erregeak noren-
gandik jasotzen dituzte
zergak: seme edo arrotzetatik?”.
“Arrotzetatik, nik uste”.
“Orduan aske daude semeak,
ordain bearrik ez dute,
Zergatik zuek orain berriro
baietza eman dezute?”

909

Alare zoaz, bai, itxasora,
artu ezazu goguan:
arrai koxkor bat eroriko da
botatzen dezun amuan.
Bear dan aña diru badakar
arraiak bere auan,
gaizbide artu etzaten bion
ordaintzat eman orduan”.

Apostoluen aundinaia

910

Beren bidean apostoluak
eztabaida sortu zuten:
aien artean lenengoa nor
ote beti buru austen.
Lenago ere eztabaida auek
noiznai izaten zituzten,
ta bazekiten umeen gisa
beti bereari eusten.

911

Antz eman zien laxter Maisuak
zekarten izketa zer zan,
gero etxera sar ziranean
erdi parrez zien esan:
“Zer zenuten gai ta zertaz jardun
dezute ain bero deman?”.
Ixil geratu ziran; etzuten
orren erantzunik eman.

912

Jarri zan Jesus, deitu zituen
apostoluak ondora;
lendik ere askotan esana
ekarri zien gogora:
“Iñork nai badu lendabiziko
nere jaurgoan gerora,
emen danen azken ta mendeko
bat bezela biziko da”.

913

Gero aur txiki bat deitu zuen,
txutika bere onduan,
besarkatu ta apostoluei
au esan zien orduan:
“Onen antzeko ez bazerate
zuek egiten munduan,
etzerate egundaño ere
sartuko nere jaurguan.

914

Ez egundaño arroak izan,
apala baida onena;
oetako bat artzen duenak,
orotuz nere izena,
ni artzen nau ta ni artzen naunak
berriz biali nauena;
zuen artean txikien dana
uraxe da aundiena”.

915

Orduan danen tartetik Joanek
au esan zion Jesusi:
“Ez dakit nor dan, baña bidean
gizon bat degu ikusi
zure izenean deabruak
erauzi eta erauzi.
Gurekin nola ez dabillen, guk,
Jauna, ez diogu utzi”.

916

“Ez galerazi egundo nere
izenez ari danari,
nere izenagatik egiten
baditu zenbait mirari.
Egin ta laxter ezin liteke
nitzaz gaizki esaka ari,
ori egiten duen gizona
ez baida gure aurkari”.

Gaizbideak

917

“Norbaitek ematen badizute
ur-txurrua bat bada're,
oroituz zuek nola zeraten
munduan nere mirabe,
ur-tanta ori bakar-bakarra
izanagatik alare,
ez da geratuko gero bere
saritxoia jaso gabe.

918

Nigan sinisten duen aurtxo bat
daramanak okerrera,
obeko luke alper-arrri bat
lotu lepa-zamarrera,
eta betiko botzen balute
itxasoan buruzpera,
deabru ori sakon artatik
ez dedin berriz atera.

919

Okerbideak dirala ta ai
gure mundu galduari!
Nai eta nai ez okerbideak
sortuko dira ugari.
Baña sinista zaidazute, ai!,
galbide oien gidari
nere umetxo auen aurrean
egiten dun gizonari.

920

Zure eskuak okerbidera
baldin bazaitu amiltzen,
moztu ondotik ta bota zazu.
Ez al zaizu iruditzen
maingu zerura joan, ez birekin
bizi betiko supritzen?
Ez baida ango surik itzaliko,
aien arrik ere ez iltzen.

921

Berdin zure oñak galbidera
baldin bazaitu bultzatzen,
moztu ondotik ta bota zazu.
Ez dezu bada pentsatzen
on zaizula urgun pozera joan, ez
birekin bizi kixkaltzen?
Arren sastadik ez baida iltzen,
ez surik ere itzaltzen.

922

Zure begiak okerbidera
baldin bazaitu bultzatzen,
atera zazu ta bota urrun.
Begi bat uztea galtzen
obeko zaizu, ta ez birekin
bizi betiko kixkaltzen.
Aien arrik an ez baida iltzen,
ez surik ere itzaltzen.



1070

Orduan ere zai zegon aita noiz azalduko semea,
urrun ikusi zuen etortzen, xarra baña bai ernea.
Urrikaldu zan bere semeaz, maitetasunez betea,
laxterka joan zan bere bidera besarkatzera maitea.

923

Edozein lagun suz gazitzen da
oparia gatzarekin,
ona da gatza baña moteltzen
bada arekin zer egin?
Zerbait arkitu liteke ura
berriro gazitu dedin?
Izan zazute gatza zuengan
ta pakea alkarrekin.

Txikiak ez gaitzetsi

924

Ez gero txiki auetako bat
ere gaitzetsi. Begira:
aingeru bana biali die
Zeruko Aitak guardira,
eta aren arpegi gozoa
beti ikusiz bizi dira.
Giza-Semea galdu danaren
billa jetxi da ludira.

925

Norbaitek eun ardi baditu, bat
galtzen bazaio basoan,
larogei ta emeretziak ez
al ditu utziko soroan?
Galduaren billa ez da joango
itzal aundiko pausoan
mendirik mendi, arkitu arte
ibilli egun osoan?

926

Eta, arkitzean, galdu gabeko
soroan dauzkan aiekin
baño geiago poztutzen dala
billatutako arekin?
Bene-benetan nik diozuet,
nere Aitak ere berdin:
ez du nai txiki auetako bat
ere iñoiz galdu dedin.

Anaia zentzarazi

927

Zure anaiak utsegin badu
onez onean itzezin,
zuzendu dedin; ez badu nai, joan
beste bi lekukorekin.
Ta aiei ez badie entzun nai
eliz-gizonei otsegin;
auei ez badie entzuten
dijoala jentillekin.

928

Bene-benetan nik diozuet
–jarrai zuen Jaunak gero–,
esan nizuten au len ere, ba-
dakizute onuzkero:
zuek lurrean lotutakoa
zeruan lotua bego,
askatuko da zeruan zuek
emen askatu ezkero.

929

Bi-iru lagunek otoitzerako
alkar artzen dutenean,
Zeruko Aitak emango die
berak eskatu añean.
Izan ere ni, bi edo iru
lagun nere izenean
bildutzen diran lekuan, beti
naukate aldamenean.

930

Orduan Pedrok galdetu zion
Jaunaren aurrean jarriz;
“Zenbat aldiz barkatuko diot
anaiari, baldin balitz
bark’eske etorriko: zazpitaño?”.
Maisuak erantzun berriz:
“Bai, baletorke ere irurogei
ta amar bider zazpi aldiz”.

Zeruko jaurgoa

931

Orregatik da zeru-jaurgoa
errege baten antzeko:
morroi zeuzkanak deitu zituen
beren kontuak artzeko.
Amar milla talenturen zorra
zuna joan zan aurreneko,
baña gaixoak etzun dirurik
ori dana ordaintzeko.

932

Erregek ala agindu zuen:
'Joan da saldu itzatzute
etxeko danak, eta ekarri
artzen dana ordain-truke'.
Morroiak auspez zion: 'Epea
emango balidazuke,
denbora gutxi barru zor detan
dana ordainduko nuke''.

933

Ikusi zuen bere oñetan
auspez eskari gizona,
zerekin ordain eduki ez ta
ainbat zorretan zegona.
Erregek berriz ain zuen biotz
errukitsua ta ona,
urrikaldurik dana barkatu
egin zion zor ziona.

934

Barkatutako morroi oni're
norbaitek bazion zorra,
ezer askorik etzion baña
eun denario txar, orra!
'Ordaindu idak!' 'Emaidak beta!'.
Ain zuen biotz gogorra,
barkatu orde or eman zion
ordain arteko zigorra.

935

Sumindu ziran bere lagunak
ta gertatuaren berri
berela eman zioten zorra
kendu zion erregeri.
Dei egin zion: "Morroi gaiztoa,
eska idalako neri
barkatu nin zorra ez diok ik
barkatu bear besteri?'.

936

Asarretu zan errege jauna:
'Morroi gaizto ta galgarri,
joan adi, bai, joan zigor-etxera
ez baiaut urrikalgarri'.
Beste ainbeste egingo du Aitak,
beti gogora ekarri,
zuek ere ez badiozute
beti barkatzen alkarri.

Jesus Judean

937

Itzaldi auk egin ondoren
Galileatik berela
Judeara jo zuen, an ere
jende asko zetorrela.
Gaixo zeudenak sendatu zitun;
danak entzuten zeudela,
erakutsitzen asi zitzaien
oitura zuen bezela.

938

Jesus mundutik zeruratzeko
urbildu dira egunak,
orretarako Jerusalemuntz
iritxi nai luke Jaunak.
Ondo dakizki an gertatuko
zaizkion etorkizunak,
utsunik gabe bete nai ditu
Maisuaren maitasunak.

939

Orretarako mandatariak
biali zitun aurretik:
nola Maisuak pasa bear zun
samaritarren lurretik.
Mandatariak artu zituzten
ain borondate txarretik,
ostaturik arkitu gabe joan
zan Samaria xarretik.

940

Gaitzeste onek etzien onik
egin Joan da Santiori,
Jesusengana biak asarre
laxterka ziran etorri.
“Ez al dezu nai, Maisu, zerutik
sua dezagun igorri,
kiskal dezagun betiko biotz
gabeko erri txar ori?”.

941

Serio esan zien Maisuak:
“Ez esan olako gauzik!
Noren semeak zerate zuek?
Ez daukazute biotzik.
Etzaio opa bear iñori
gutzat nai ez degun gaitzik,
Giza-Semea ez da etorri
danak salbatzera baizik”.

Berriro predikatzer

942

Ondo bazekin Jesus maiteak
bazetorkiola ordua,
gurutz batetik zintzilik illa
uzteko gure mundua.
Aurki bakarrik utziko zitun
eta bazeukan gogua
apostoluei erakusteko
bere predika-modua.

943

Irurogei ta amabi ikasle
berezi zitun salletik,
biñaka jarri zituen danak
bializ bere aurretik.
Jesus bakarrik joango zan gero
ikasle auen atzetik,
ikasbideak jaso ditzaten
beren lanbide zalletik.

944

“Uzta ugari degu benetan,
baña gutxi langilleak,
Aitaren baratz aundi onetan
gogoz lan egin zaleak.
Eten gabean otoi biotzez,
otoi izan eskaleak,
langille asko bializ ditzan
baratz-uztaren Jabeak.

945

Zoazte, bai, joan bildotsen gisa
otso maltzurren artean,
ez eraman ez zorro, ez zizku,
ez sandalirik oñean.
Zalantz txarretan ez ibilli zer
bear dezuten eskean,
agurrik ere ez egin iñori
daramazuten bidean.

946

Nonai sartutzen zeratelarik
esan: “Pakea zuekin!”.
Pake-umerik baldin badago
pakea bedi aiekin.
Pake-umerik ez bada berriz
ez zemaiz gaiztorik egin,
berriro ere pake eder ori
zuengan biurtu dedin.

947

Artzen zaituzten etxera sartu,
geratu zaitezte bertan;
aiek ematen dizutenetik
kupirik gabe jan, edan.
Ez ibilli ara ta onera
gero etxe-aldaketan,
irabazi baidu langilleak
bere saria benetan.

948

Sartzen zeraten erri oietan
ondo artzen bazaituzte,
aurrean jartzen dizutenetik
beldur gabe jan zazute.
Ango elbarri eta gaixoak
danak senda itzatzute,
'Urbil da, urbil, zeru-jaurgoa!'
sutsu oiuzte.

949

Gaizki artzen bazaituzte berriz
iges andik bereala,
erantsitako autsak astinduz
beren atean, al dala.
Baña alare joaterakoan,
erriak entzun dezala,
egin zazute oiuzte zeruko
erreinua urbil dala.

950

Nik bialiak errian sartzen
nai ez dutelako utzi,
zigortuko dira erri oiek
ez gañera oso gutxi.
Egun oietan Sodoma ez da
geratuko ain itxusi,
sodomatarrak etzuten bada
nere garaia ikusi.

951

Ai Korozain ta iri, Besaida,
fedegabeko erriak,
aintzakotz artzen ez dituzute
nik zuei erakutsiak.
Sidon ta Tiron egin balira
orrelako mirariak,
aspaldian damutuko ziran,
auts ta zakuz estaliak.

952

Aiek alare epai-egunean,
ondo entzun zadazute,
auek baño askoz ariñoago
epaituko baidituzte.
Kafarnaun, ik zeru gañera
igoko aizela uste?
Demoniñoen su-leizeraño,
bai, aurki jetxiko aute”.

953

Apostoluak joan ziran bada
erririk erri lanean,
“Zeru-jaurgoa urbil dezute!”
oiuzte egiñaz danean.
Sendatuz eri ta deabrudun
norbait urbiltzen zanean,
txoria baño alaiagoak
zeuden biur ziranean.

954

Danak batera alai ta pozez
ala zioten Jesusi:
“Danak sendatu ditugu, Jauna,
iñor ere ez degu utzi.
Zure izenean deabruak
ere ditugu erauzi,
gure oñetan umildu dira,
gu giñan danen nagusi”.

955

Maisuak ala erantzun zien:
“Ikusi det, bai, zakarra,
tximistaren gisa buruzpera
erortzen Satan baldarra.
Sube ta arrobien aurkako
eman zaizute indarra;
edozer zikinkeri jangatik
zuentzako ez da txarra.

956

“Etzaitezte ala poztu,
–diotsa Maisu zuzenak–,
zuen mende jarri diralako
deabrurik maltzurrenak.
Poztu zaitezte bene-benetan,
alaitu zuen barrenak,
idatzi diralako betiko
bizitzan zuen izenak”.

957

Poztu zan Jesus bene-benetan,
au zion: “Eskerrak zuri,
Aita; atzera utzi dituzu
amaika aundizki txuri.
Zapalduta dauden elbarri ta
beste beartsu batzuri,
zuk ala naita gauz auek danak
bai dizkietzu ixuri.

958

Zeru-lurreko gauza guziak
Aitak eman dizkit neri;
Aitak bakarrik, beste inork ez,
daki Semearen berri.
Semez kanpora Aita nor dan ez
lezake inork igerri;
eta, jakiña, zuek nik esan
baidizuetet zueri.

959

Zoriontsuak zerate zuek
ikusia ikusita.
Zenbat errege, igerle, lengo
asaba zar eta aita,
etziran bizi, zuek bezela,
ordu au ikusi naita!
Zorion ori etzuten izan,
poz au zuentzako baita”.

Jainko ta urko-maitasuna

960

Parisaitarren asmo bizi bat
zan Jauna nola umildu,
erasotzeko alkar artuta
zenbat aldiz ziran bildu?
Zer sare jarri itzegin ta gero
Jaunarengana urbildu;
baña alperrik: etzuten Jauna
egundo ere ixildu.

961

Orduan ere urbil zitzaion,
buru makur ta losintxa,
zirikatzaile baña maltzurra,
santu bero baten gisa:
“Maisu zuzena –esaten dio,
apal-apal zaio mintza–,
zer egingo det irabazteko
nere betiko bizitza?”.

962

“Legean zer dago idatzirik?”
galdera. Ta erantzuna:
“Jauna, guzien gañetik beti
maitatuko dezu Jauna,
zure anima ta biotz osoz
eskeñirik daukazuna;
ondoren berriz zere burua
bezela urko laguna”.

963

“Ondo erantzun dezu, egizu;
ori ta biziko zera”.

Gizona etzan konten geratu:
orixe, jaunak, ertera!

Irakasle bat ortara urbil
al da Jesusen aurrera?

“Baña nor det nik urko laguna?”
galdetu zion atzera.

Samaritar ona

964

Maisuak goxo erantzun zion
galdu gabe bere txandik:

“Gizon bat bazetorren Jeriko
aldera Jerusalemendik.

Izugarriak artu zituen
bidean lapurrengandik,

ostu, erdi ilik bertan utzita
igesi joan ziran andik.

965

Ondoren apaiz bat igaro zan
leku beretik gainbera,

ikusi zuen eri gaixoa,
bañan aren biotzera

etzan erruki-izpirik sartu;
begiak beste aldera,

ez ikusia egin ta joan zan
bere bidean aurrera.

966

Onen atzetik lebitar bat zan
arro-arro pasa zana,

ikusi zuen eri gaixoa
non zegoen erdi il, etzana.

Baña au ere etzan aurreratu
laguntzera arengana,

ez ikusia eginta an joan
zan bere bideak barna.

967

Irugarrengo, samaritar bat
bere abere ta guzi,

onek ere, bai, bide ondoan
il-zori zuen ikusi.

Bertara joan ta olio-ardez
lenen zauriak ikuzi,

etzun besteak bezela iltzen
zauritua bertan utzi.

968

Bere astora jaso zun gero
elbarritutako ura,

zauriz josia, bakar-bakarrik,
berak, al zuen modura.

Berak lagunduz eraman zuen
aldeneko ostatura,

sendatu arte an utzi zuen
ostalarien kontura.

969

Bi denario eman zizkion
andik abiarakuan

ostalariari, ta gaixoa
utzi zuen ostatuan.

Baldin geiago kostatzen bazan
jartzeko bere kontuan,

ta ordainduko ziola dana
poz-pozik bueltarakuan.

970

“Iru auetan nor izan zuen
gaixoak urko laguna?”.

“Ongi errex da ori asmatzen:
erruki eduki zuna”.

“Bejondeizula! Ala da; ongi
eman dezu erantzuna.

Orain zoaz ta egizu beti
emen ikasi dezuna”.

Maria ta Marta

971

Jerusalenutz joaten zanetan
sendi maite bat bazuan,
Betaniko uri koxkorrean,
Jerusalengo auzuan.
An beti ondo artutzen zuten
Jesus maitasun osuan,
berari ere atsegin zaion
bizitzen aien altzuan.

972

Etxe artako anai-arrebak:
Marta, Maria, Lazaro.
Jesus ez bazan inon bizitzen
ere egotez luzaro,
aldi askotan egun batzuek
zituen emen igaro;
maitatzen zuten eta Maisuak
txoko ontan beti abaro.

973

Ara sartu zan batean Marta
ari zan bere lanetan,
Jesusi leku on bat jartzeko
ara-onera neketan.
Lan asko zeukan, bakar-bakarrik
ari bearra danetan;
Maria, bere aizpa gaztea,
lasai Jesusen oñetan.

974

Asarre xamar ari zan noski;
aurrean jarriz beñola,
Jesusi txorrotx agindu zion:
“Ez ote dizu ajola?
Agin zaiozu laguntzeko; ez
dakuszu bakar nagola?
Ta ori berriz zure oñetan
alperkerian dagola?”.

975

“Urduri zabiltz gauz askorekin
dana egin nairik, Marta;
ara-onera badabilkizu
naiko ots ta zalaparta.
Oiek guzien gañetik beste
gauz bat berexi bear ta
alde onenonek dauka, ken
lezaiokenik ez da ta”.

Otoitza

976

Maisua otoitz egin ondoren
asi zitzaien izketan:
sinismenezko otoitzak indar
aundia dula benetan;
eskatutzeko kupirik gabe,
ez ibiltzeko kezketan,
otoitz on batek dana irixten
duala mundu onetan.

977

“Bide zallanak pasatzen ditu
otoitz on baten eguak;
otoitzak danak azaltzen ditu:
lengoak eta geruak.
Mundu ontatik gora eskatzen
duena otoitz beruak,
egon zaitezte zalantzik gabe:
ez du ukatuko zeruak”.

978

Otoitza dala armik onena
Jaungoikoaren nagusi,
ongi eskatzen danik ez dala
goitik eman gabe utzi.
“Erakus zaiguzu otoitzean”
eska zioten Jesusi,
berriro ere Aita gurea
onek zien erakutsi.

Jesus ta parisaitarra

979

Aolku auek ematen ari
zala, maldan gora io
aberatsa zan parisaitar bat
txuri-txuri datorkio.
Bere aurrean txutik jarrita
agur egiñik serio,
aren etxera bazkaldutzero
joateko eskatzen dio.

980

Parisaitarrak beti zebiltzan
maltzurkeriz zer ikusi,
nondik txarren bat arrapatuko
zirikatzaile Jesusi.
Jesus bera're zirikatzaile
eskeñia ezin utzi,
beti izaten zuen jendeari
zer edo zer erakutsi.

981

Bazkal-lekura sartu zanean
ango artu eta tori;
Jesus eskuak garbitu gabe
begiratzeke iñori
maieratu zan. Jendea ere
laxter kontuan erori;
parisaitar aizun aientzat
pekatu beltza zan ori.

982

Gaizki esaka marmar ari zan,
ainbat agur ta losintxa,
bazkaldutzero Jesus dei zuen
parisaitar murrizta.
Igerri zion laxter Maisuak
eta artu zuen itza,
maitetasunez sendatu nairik
itxurati aien gaitza.

983

“Ai zuei, parisaitar oieiri!
–Jesusek latz zien ekin–.
Ontzi ta azpillen kanpo aldea
garbitzen ainbat alegin.
Biotza berriz lapurkeri ta
gaiztakeriz beti zikin,
kanpo aldea egin zuenak
etzuen barrua egin?”

984

Egin itzazute ala ere
mundu ontan egintz onak:
eman dirua, zabal txiroei
oparo zuen limosnak.
Zuen biotza garbituko du
Aita zeruan dagonak,
Jainkoak dana ikusten baidu,
naiz ez ikusi gizonak.

985

Baña ai zuei, parisaitarro, i,
erri-buru zeratenak,
txintxo ordaintzen dizkiotzute
Elizari amarrenak;
Jainko, urkoen ar-emanetan
etzerate ain zuzenak,
gauz auek bete bearrak dira,
utzi gabe aiek denak.

986

Baña ai zuei, parisaitarro, i,
sinagogetan aurrean
jartzen zerate, zeron buruak
ontzat agertu naiean.
Nabari ez dan illobi-gisa,
askotan aien gañean
ajolik gabe ibiltzen dira
gizonak uste gabeen.

987

Lege-gizonak ere bazuten
parisaitarrakin kutsu,
entzunik Jesus parisaitarren
aurka ari zala sutsu,
lege-maisuak bertatik zorrotz
eraso zioten usu:
“Orrela guri ere, Maisua,
isek egiten diguzu”.

988

Ai zuei ere, lege-maisuoi!
Txorakeriak asmatzen
jardun zerate, zama astunakin
erri gaixoa zamaten.
Ta zuek berriz beatzez ere
ez diozute bultzatzen;
ez asarretu, ez baizerate
aske ta garbi geratzen.

989

Ai zuei lege-irakasleoi!
Nola jarduntzen dezuten
profeta zarren illobi danak
zeok jasota ta txukuntzen?
Badakizute: profeta oiek
zuen aitek il zituzten,
orra asaben lan txarrak nola
ontzat artzen dituzuten.

990

Orregatik ain egoki dago
Jaunaren esan zorrotza:
Bialiko dizkiet profetak;
batzueiri eriotza
emango die, beste askori
ezin bizizko morrontza;
maltzurra izan ere da oso
aginte dunen biotza.

991

Gizaldi onek ordainduko du
bere bizkar ori dana,
Abeldik Zakariaseraño
ildako igerle-andana.
Egia da: zuen gurasoak
il zituztela aiek, baña
zuen gañera eroriko da
eriotz aien ordaña.

992

Ai zuek, lege-irakasleak,
jakintsuak zeratela,
erri txearen irakaspena
zuen esku dezutela!
Ez dezute ordea jokutzen
maisu zuzenak bezela,
zeok sartu ez, nai duteneiri
sartzen utzi ez orrela!”.

993

Sumindu zitun parisaitar ta
maisuak Jesusen itzak,
danen aurrean garbi azaldu
baizizkien beren gaitzak.
Beti Jesusen inguru dabiltz
beti bere zapelaitzak,
asi ezkeru beti galduan
geratu bear murrizak.

994

Jende artean loturik zegon
Jesus beti erakusten,
eta jendea ezin aspertu
ixil berari entzuten.
Errenak ibil, entzuten gorrak,
itxuak berriz ikusten,
alare gure parisaitarrak
sinisterik nai etzuten.

995

Orduan ere beti bezela
Jauna izketan zan ari,
zeru-jaurgoa nolakoa zan
erakusten jendeari.
Norbaitek jende artetik: “Jauna
–oiuka zion eskari–,
ondarea erdi-banatzeko
esan nere anaiari”.

996

“Nork jarri nau ni zuen epaile
ta banatzalle, gizona?”.
Gero jendeari: “Diru-gose
izatea ez da ona.
Munduan ondo bizi izateko
ez baida aski txanpona,
aberastasunetan ez dago
gizonaren zoriona”.

Aberats zoroa

997

Gero berdintz au kontatu zien:
“Gizon aberats bat bazan,
berdin gabeko uzta bikaña
eduki zuen baratzan.
Bere biotza, ondasun-gose,
ala zebillen zalantzan:
‘Zer egingo det uzta guzi au
neretzat izandezadan?’

998

Ez det lekurik, uzta ain baida
eder, ugari ta lori;
dana neretzat nai nuke, ez diot
eman nai beste iñori.
Nola konpondu igarotzeko
urteak guri ta gori?
Orain badakit nola konpondu,
nola gorde uzta ori’.

999

Begiak ñirñir, biotza pozez,
ezpañak irri-algara,
berekiko au zion: ‘Ain errez
egin nezaken lana da.
Txikigi baida, jakiña, bota
dezadan lengo ganbara,
berri aundi bat ordeko jaso,
uzta bilduko det ara.

1000

Dana bildu ta gero esango
diot nere buruari:
Ganbara gañez egiña daukak,
badek naiko jan-edari,
urte luzeak alperkerian
igarotzeko ugari.
Aukera ortan beldurrik gabe
luzaroan jolas adi’.

1001

Baña Jainkoak au esan zion:
‘Ai gizon zeken zoroa!
Gizagaixoa, uste dek ire
mende dagola geroa?
Gau ontan bertan ire Jainkoak
eskatuko dik gogoia.
Norentzat utzi bear dek bildu
dekan uzta oparoa?’.

1002

Aberastasun danen erdian
etorri zan eriotza,
uste gabean ebaki zuen
gizon zoroaren poza.
Ondo entzun da gogoan artu
betiko egi zorrotza:
mundu ontako ondasunetan
ez jarri zuen biotza.

1003

Ez ikaratu ezerengatik,
alaitu, artaldetxoa;
gorde egin die Aitak munduko
askori zeru-jaurgoa.
Beartsueiri erakustea
izan da bere gogoia,
eduki bada zuen biotza
itxaropenez jasoia.

1004

Zuen gerriak beude loturik,
egin zazute gaubela,
ta egon erne, argi piztuak
eskuan dituzutela,
eztaietatik datorren nausi
bati atea berela
irikitzeke zai gaberdian
dagon morroi bat bezela.

1005

Zorioneko izango baida,
edozer dala garaia,
nagusi jauna datorrenean
zai dagon morroi ernaia.
Nagusi jaunak berak egingo
dio mirabe, alaia;
exeri erazita bere eskuz
serbituko dio maia.

1006

Nagusi batek lapur gaiztoa
noiz datorkion baleki,
zainduko luke bere etxea,
utsik utzi gabe, ederki.
Egon zaitzte orrela zuek
ere bada erne beti,
Giza-Semea datorreneko
zai atea noiz ereki”.

1007

Pedrok berela galdetu zion:
“Ori danentzat diozu?
Edo oraingo berdintz ontan gu
bakarrik sartzen gaituzu?”.
“Bere garaian jan emateko
etxean zintzo, burutsu,
aukeratuta jarri duena
zuk nor dala uste duzu?

1008

Zorioneko etxeratzean
erne dagon morroi ura,
ez dudik egin dana jarriko
duela bere kontura.
Baña sarreran arkitzen badu
jan-edan nai dun modura,
ebain ondoren amilduko du
sinisgabeen lekura.

1009

Nagusiaren naia jakinta
lanak gaizki ta erdizka
egiten dituenari zigor
ugari emango zaizka.
Ezjakiñean norbaitek lanak
gaizki egiten badizka,
zigor batzuak artuko ditu,
besteen aldean pixka.

1010

Lurra sutzera etorria naiz,
kiskaltzea nere poza,
baña lenago igaro bear
une larri ta mingotsa:
aspaldidanik neretzat dagon
bataioa, eriotza;
ordu latz ori igaro arte
ez daukat lasai biotza.

Galilearrak

1011

Israeldarrak erori ziran
erromatarren mendean,
naigabez baño sartu bearra
zeukaten aien legean.
Ezertara baziran mugitzen
indarra zuten gañean;
galilearrak, abertzaleak,
etziran bizi pakean.

1012

Beren opari eskeintzera bein
sartu ziran elizara,
jende beroak baiziran aiek
sortu zuten matxinada.
Pilatosetik bere gudariak
biali zituen ara,
bakarren batzuk bertan il ere
sar erazteko ikara.

1013

Jesusengana etorri ziran
batzuk albiste orrekin,
adierazi zioten dana
ez dakit zer asmorekin:
zer egin zuen Pilatos jaunak
galilear batzuekin,
agian bere iritziaren
berri naiko zuten jakin.

1014

“Il diralako uste dezute
oiek zirala txarrenak?
Etziran ala inñondik ere
odola eman dutenak.
Nik diozuet: damu zaitzete
gorrotatuaz obenak;
penitentzia egin, bestela
galduko zerate denak.

1015

Siloeke dorre aundi arek
il zitun emezortziak,
etziran izan gaiztoen jota
an iltzeko bereziak.
Zuen biotza damuz ez badu
garbitzen penitentziak,
aiek bezela berdin galduko
zerate zuek guziak”.

Pikondoa

1016

Ondoren esan zien Maisuak:
“Piko bat aldatu zuan
nagusi batek bere mastian,
oso leku erosuan.
Ongarri eman ta eman jardun
zuen iru urte osuan,
pikoa aundi eder egin zan
alako babes gozuan.

1017

Baratzik baratz zebillenean,
piko artara joatean,
beññere etzun alerik arkitzen
bere ostoen artean.
Nagusi jauna asarretu zan
pikoz alako batean:
‘Zertako dago alperrik ori
emen onenbest urtean?’

1018

Ebaki zazu, kendu mastitik;
iru urteren buruan
ale bakar bat jan diodanik
ere ez daukat goguan’.
‘Utzi oraindik beste urte bat,
ondo goroztu onduan;
ale gozorik ez badu sortzen
moztuko degu orduan’.

Andre makurtua

1019

Sinagogan zan ari gauz auek
esaten larunbatean;
emezortzi bat urte aietan
gaitzak zeukana mendean,
emakume bat ikusi zuen
makurra, jende artean;
ain makurra zegon gora ezin
begiratu zezakean.

1020

Jesusek andre gaixoa deituz
beregana zuen ekarri:
“Emakumea, sendatu zaite”
eta eskuak ezarri.
Une berean emakumea
lerden ta txutik zan jarri,
jendea berriz, goraiatuaz
Jainkoa, zebillen larri.

1021

Sinagogako buru zegona
etzan geratu pakean,
ta jendeari eraso zion
oiuz asarre betean:
“Lanerako sei egun osoak
or dauzkatzute astean,
sendatzera etorri oietan
eta ez larunbatean”.

1022

Baña Maisuak beti bezela
esan zizkion egiak:
on egiteko berdin dirala
asteko egun guziak.
“Larunbataren ajolik gabe
zuen asto ta idiak
ez dituzute larrera botzen,
gixaixo itxuratiak?”

1023

Abranen alabatxo au berriz
emezortzi bat urtean
Satan gaiztoak ondo loturik
zeukana bere katean,
lokarri gaizto ortatik gaixoa
betirako bein batean
askatzea ez ote zan bada
zillegi larunbatean?

1024

Maisuak egiz esaten zitun
itz aiek danak entzunik,
bere etsaiak asarre zeuden,
amorruez kopet illunik.
Erri osoa berriz ondoren
Jauna goraka zorunik:
Israelen etzala beste bat
ark ainbeste on egiñik”.

Zenbat salbatzen diran

1025

An eta emen erakutsiaz
erririk erri zijoa,
Jerusalengo uri xarrera
iritxitzeko asmoan.
Norbaitek, bere ondora joanta,
galdetu zion orduan:
“Asko al dira sartzen diranak,
Maisu, zeruko jaurguan?”.

1026

Maisuak berriz: “Ibil zaitezte
beti ernai eta txutik,
sartu zaitezte zeru-bidean
gogoz leku segurutik.
Bide zabalak barna ez joan,
sartu zaitezte estutik,
ez baida iñor ara igoko
berak nai duen lekutik.



1424

Zugaitz-abarrak gora jasoz an zebillen erri geiena:
“Bedeinkatua Jaungoikoaren izenean datorrena!
Gora Dabiden semea! Gora! Gora igerle zuzena!
Pake ta aintza goietan!”. Baña goibel Jesusen barrena.

1027

Jaunak atea itxi ondoren
asiko zerate joaten,
itxita dagon atez kanpotik
deka oiuaq ematen,
“Jauna, bagatoz; zabal zaiguzu!”
barrukoari esaten.
Ark ala erantzungo dizute: “Ez
dakit nongoak zeraten”.

1028

“Ikus ziñugun, Maisua, nola
igarotzen ziñan andik,
erakusbide onak artuaz
kale aietan zugandik”.
Ez dakit nik nor zeraten ere
—erantzungo du barrendik—.
Utikan gizon gaizkille oiek!
Alde guziak emendik!”.

1029

Abraan, Jakob eta Isaak,
profetak ere jakiña,
zeruko jaurgoan ikusita
aien poz ta atsegiña!
Zuek kanpotik begira illun,
barrura sartu eziña
an izango da ortz-karraskada,
larri ta negar-zotiña.

1030

Jentil-erritik jenderik asko
Jaunaren zeru-jaurguan
bere maiera artuko ditu
maiteki Jaunak onduan.
Galdutakoa oroitzuz zuek
illun begira kanpuan,
lenenak azken, azkenak lenen
izango dira orduan”.

Erodes Jesus il nairik

1031

Egun berean parisaitarrak
aizun, maltzur eta ixil,
ez dakigu asmo onez edo
txarrez zitzaizkion urbil:
“Maisu, joatea dezu emendik
baldin ez badezu nai il;
jakin degunez, erregea zu
iltzeko asmotan dabil”.

1032

“Esaiozute azeri orri
nola ari naizen lanean:
deabruak erauziz, eriak
sendatuz erri danean,
danen aurrean, gaur eta biar,
bi egun auen barnean
ta nere lana bukatuko det
irugarren egunean.

1033

Baña gaur, biar eta etzi emen
ari bearra baidet nik,
nere ordua iritxi arte
ez naiz gordeko aurretik.
Zemai txarrez ez naute igesi
botako Jerusalendik,
emendik landa ez baida iltzen
Jaungoikoaren profetik.

1034

Jerusalen, Jerusalem, nere
profeten iltzalle ori,
zuregana bialiak arri
pean baidira erori.
Oloak bere txitoen gisa
egalpean epel, gori,
zure semeak artu nai nitun,
baña ez dira etorri.

1035

Utsik geratuko da uri au
orain gañez dagoena,
atzerritarrak artuko dute
ainbat maite dezutena.
Ez nazute berriz ikusiko
esan artean urrena:
'Bedeinkatua Jaungoikoaren
izenean datorrena!''.

Parisaitarrekin

1036

Parisaitar aundizki batek
Maisua egun batean
bere etxera ta bazkaltzera
deitu zun larunbatean.
Aren antzeko geiago ere
ikusten ziran tartean,
zirikatzaile ta zelatari,
utzi nai ezik pakean.

1037

Maisuak etzun esan bearrik,
baña ikusten zuanez,
igertzen zien aien biotzak
malezi txarretan gañez.
An zegon gaixo bat ondoratuz
galdetu zien naigabez:
"Larunbatean zillegi al da
iñor sendatzea ala ez?''.

1038

Ixil geratu ziran. Jesusek,
nola baizuen oitura,
gaixoa bial zuen sendatuz
beste askoren modura.
"Zuetako nork, bei edo asto
eror bazaio putzura
larunbatean, atera gabe
itotzen utziko du ura?

1039

Parisaitarrak asarre zeuden,
aien muturje illuna!
Mingarria zan aientzat noski
Maisu onak esan zuna.
Beti bezela irentsi bear
ixil beren beazuna,
ez maltzurak nai etzutelako,
baña palta erantzuna.

1040

Bazkal-lekua betea zegon,
ura ango jende-pilla!
Lege-gizon ta parisaitarrak
zebilkiten iskanbilla!
Somatu zitun nola zebiltzan
lenengo aulkien billa,
aolku txiki bat eman gabe
ezin zan egon ixilla.

1041

"Eztaietara iñork deitzean
ez goi-aulkietan jarri,
zu baño aundiago danen bat
etorri liteke sarri.
Dei zaitunak ar dezun aulkia
eskeñirik gero ari,
danen aurrean geratuko bai-
ziñake zu lotsagarri.

1042

Norbaitek deitzen zaituztenean
beeko lekuak artu,
deitu zaituna bazkal-lekuan
nausi dediñean sartu,
'Gorago zoaz -esango dizu-,
ez orren bean geratu'.
Gorutzen dana jetxiko baida,
jetxitzen dana goratu''.

1043

Bazkal-lekura deitu zunari
esan zion legun-legun:
“Deitu bear ta zertako deitu
adiskide, aide, lagun?
Bera're deitu dezaten andik
iru edo lau bat egun?
On egiñaren sari-ordaña
berak ere nola artzen dun.

1044

Zuk bazkari bat jartzen badezu
ez orrelakoa izan;
deitu itzatzu eskale, gaixo,
beartsuak diran gisan,
lan orrengatik mundu onetan
iñork saritu etzaitzan.
Danen ordaña emango zaizu
gero betiko bizitzan”.

Bazkarira deituak

1045

Ori entzunik, an zegon batek
zorrozturik sinismena,
danen artetik abots garbian
auxe zan esan zuena:
“Zoriontsua zeru-jaurgoan
ogia jango duena!”.
Maisuak ipui onekin eman
zion erantzun zuzena.

1046

“Nagusi batek apari on bat
preparatu zueneko,
bere morroi bat bialu zuen
lagunei dei egiteko;
aren partetik bat aztu gabe,
adiskidei esateko:
'Nagusi jaunak au dio: danak
apaltzera etortzeko'.

1047

Morroii arek txuxen bete zuen
nagusiaren esana:
adiskideak deitu zituen
apaltzera danak, baña
etzuen iñork baietzi eman,
alperrikakoa lana;
ez etortzeko asmatu zuten
bakoitzak aitzaki bana.

1048

Batek: 'Etxea erosi det an,
emendik naiko urruna;
ondo pozik beteko nuke nik
zuk eskatzen didazuna.
Ura ikusi nai det, biar ez
det aukerako eguna;
ontzat ar zazu aitzaki au ta
barkatu zaidazu, jauna'.

1049

Urrena deitu zuenak ere
lenengoaren antzera:
'Bost uztar idi erosi ditut
eta aiek probatzera
joan nai nuke; argatik ez naiz
etorriko apaltzera.
Nere aitzaki onekin, jauna,
laket izango al zera'.

1050

Irugarrenak ere asmatu
zuen aitzakia merke,
erdi isekaz erantzun zion
joan zitzaionari eske:
'Ezkonberri naiz eta, jakiña,
ezin etorri nindeke;
nere aitzaki onekin, jauna,
laket geratu ziñezke'.

1051

Morroiak txuxen kontatu zion
au dana nagusiarri;
sumindu zan eta agindu zion:
'Zoaz, kale-ertzetan jarri,
eta an arkitzen dituzun itxu,
eskale, urgun, elbarri,
bat utzi gabe, datozen danak,
nere maiera ekarri'.

1052

'Egin det, jauna, baña oraindik
ez da oso bete mairik'.
'Zoaz, ez utzi aztertu gabe
kale, baserri t' esirik.
Ez dedilla gaur nere maiean
utsik geratu aulkirik,
len deitutako iñork ez baidu
jango nere aparirik''.

Kristori jarraitzeko

1053

Gero au zion: "Iñork etorri
nai baldin badu nigana,
gorrota bitza anai-arrebak,
andre, seme, aita t'ama.
Uka dezala bere burua,
ar gurutzearen zama,
ixil-ixilik betor atzetik
nere bideetan barna.

1054

Zuetako nork etxe bat jaso
nai badu, lendabiziko
zenbat daukan ta zenbat bear dun
ez du ondo ikusiko?
Baldin asi ta bukatu gabe
balu etxea utziko,
arrazoiakin danak erotzat
ez luteke edukiko?

1055

Gudara doan errege batek
ez du lenengo, ixilla,
kontuan aterako baduen
bear ainbeste mutilla?
Ogei millaren aurka joateko
aski ditun amar milla?
Bestela berriz mandatariak
joango dira pake billa.

1056

Orrela iñork ezin lezake
artu nere ikasletza,
ez badu lenen uko egiten
mundu onen interesa.
Gatza ona da; zertako dezu
biurtzen bazaigu geza?
Au ulertzeko adimen dunak
ondo entzun t'uler beza''.

1057

Zergari eta pekatariak
dabiltz batetik bestera,
Maisu onaren itzalditxoak
zoramenez entzutera.
Lege-maisu ta parisaitarrak
ala zioten minbera:
"Pekategoriak ekartzen ditu
onek berekin jatera''.

Ardi galdua

1058

"Artzai on batek baldin eun ardi
bere mendean izanik,
mendi-basoan galtzen bazaio
bat, beste guziak lenik
txabol barruan utzita, ez du
artzen iñon atsedenik,
basoan galdu zaion bakarti
ura arkitu gabetanik?

1059

Eta billatzen duanean bein
artuz sorbalda gañean,
bere arekin alai badator
txabolara zuzenean,
bere auzoei pozez esanik:
'Arkitu det azkenean'.
Gero auzoak nola laguntzen
dioten zorionean!

1060

Zeruan ere berdin-berdin da.
ondo jakiñean bego;
jai izaten da olakoren bat
gertatzen dan aldiero.
Poz geiago ematen du galdu
batek, damutu ta gero,
beste guziak baño, auek len
seguru dauzkan ezkeru.

Drama galdua

1061

Amar dramaren, diru eskaxa,
jabe zan sendiko ama;
bat galdu zuen. Garbi ondoren
etxea goi-bera dana,
noizbait billaturik, berri ori
auzoetara darama:
'Poztu zaitezte danak nerekin.
arkitu det-eta drama'.

Seme galdua

1062

Aita batek bi seme zituen.
Gazteena aitagana
joan ta esan zion: 'Emaidazu
neri tokatzen zaidana'.
Aitak ikasi zuneko bada
gazteenak nai zuana,
ondasun danak berex zizkien
bakoitzari erdibana.

1063

Ondasun aiek bildu gazteak;
egun gutxiren buruan,
lasaiago bizitzeagatik
beste lurrera jo zuan.
Jan-edanean ondasun aiek
zurrupatu ta onduan,
gosete batek bear gorrian
zapaldu zuen orduan.

1064

Nagusi zeken baten morrontzan
jarri zan gazte ergela,
txerri zaitzera biali zuen
orduan onek berela.
Txerriak jaten zuten ezkurrez
ase naiean sabela,
bañan artatik ere ezin zan
berak nai zuen bezela.

1065

Bere burua ikusten zuen
morrontz artara saldua,
erruki gabe nagusi jaunak
nola zeukan zapaldua.
Bere baitara bildu zan gure
gaztea, gosez auldua;
dana utzita etxera nairik
zebillen seme galdua.

1066

Bere biotza urduri xamar
kezkatu zuen nabari:
'Aitaren morroi askok badute
ogi beroa ugari.
Ezkurra bera jango nukena
ori're palta zait neri,
nijoan bada ta apal-apal
esango diot aitari.

1067

Oben egin det zeru ta zure
aurka. Badakit orrela,
aita maitea, zure semetzat
artzeko din ez naizela.
Ar nazazu bada zure morroi
auetako bat bezela'.
Etxe aldera bere aitarengana
artu zuen berela.

1068

Semea urrun zanetik aitag
etzun egun on bat pasa,
bere semea gogoratuaz
etzebillen oso lasa.
Eguna triste pasatzen zuen
ta tristeago arratsa,
beti begien aurrean zeukan
urrun zan ordu garratza.

1069

Semea joan zan leku berean
egunero bere aita,
etsi nai ezik, an egoten zan
triste begira jarrita,
noiz azalduko bere semea
urrun aietan, etsita.
Ainbesteraño zun, izan ere,
galdu zan semea maita.

1070

Orduan ere zai zegon aita
noiz azalduko semea,
urrun ikusi zuen etortzen,
xarra baña bai ernea.
Urrikaldu zan bere semeaz,
maitetasunez betea,
laxterka joan zan bere bidera
besarkatzera maitea.

1071

Lotu zitzaion bere lepoan
ta, pozarez pozez lausu,
zetorren damutuari asi
zitzaion musu ta musu.
Semeak ala esaten zion:
'Ni pekatari bat nauzu'.
Aitak etzion entzun nai ere,
ain baizegon zoriontsu.

1072

Aita aspertu eziñik ari
zaio musu ta musuka,
semeak damuz esaten dio
bein eta berriz oiuka:
'Aita, pekatu egin det zure
eta zeruaren aurka;
ar nazazu, ez seme bezela,
morroi gisa ogi truka'.

1073

Aitak ordea ez du semea
besterik ezer ikusten,
semeak bein ta berriz ziona
aitak etzuen entzuten.
Bere lepotik besarkatuta
izketan etzion uzten.
Aita-semeak beren pakeak
berela egin zituzten.

1074

'Jarri eraztun ta sandaliak,
jantzia dagon onena;
txukun zazute nere semea
burutik beraño dena.
Il ezazute bazkaritako
zekor aundi ta gizena,
otordu on bat gaur egitea
ez al da bada zuzena?

1075

Galdua neukan seme maitea
arkitu baidet atzera,
ustez il zaidan seme kutuna
etorri baizait etxera'.
Exeri ziran bada guziak
alai ta pozik maiera,
bere semea arkitutako
berri ona ospatzera.

1076

Txistulariak etorri ziran,
ura ango kantu-otsa!
Danen erdian zoriotsua
aita xarraren biotza.
Semea sendo arkitu baidu
ustez zeukana illotza,
gaur aundikiro ospatu nai du
gañezka darion poza.

1077

Seme zarrena alorrean zan,
beti etxean zegona,
uts txikienik gabe aitari
txintxo serbitzen ziona.
Baña artoa eta zekena,
bera bakarra zan ona,
errukiaren berri etzekin,
biotz gabeko gizona.

1078

Etxerakoan somatu zitun
etxe barruan kantari,
doñu goxoan ari zirala
alai ainbat txistulari,
ara-onera jana-karraio
serbitzariak ugari.
Zer gertatzen zan ikasi nairik
deitu zion morroiari.

1079

Onek ederki erantzun zion:
'Aspaldi joan zan anaia
etorri zaiguk; aita berriz ain
zegok oparo, alaia.
Zekor gizena il erazita
moldataua zegok maia,
argatik dituk orko jolasak,
argatik etxeko jaia'.

1080

Asarretu zan seme zarrena,
etzuen sar nai aurrera,
ondasun danak janta zetorren
anaiakin bazkaltzera.
Orduan aita bera otoika
arren zitzaion atera,
kupirik gabe sartu zedilla
jai ederra ospatzera.

1081

'Nere semea, ire anaia,
etxetik urrun zegona,
etorri baidek berriz etxera
osasuntsu eta ona.
Egoki zegok jai egitea,
sar adi onuntz, gizona,
zenbatekoa dan bai akike
gaurko nere zoriona!'.

1082

Bere semeak aita xarrari
erantzun zion itxusi:
'Beti zurekin emen ari naiz,
ez det agindurik autsi.
Lagunarterako ez didazu
antxume bat ere utzi;
galgarri ori ar dezu, berriz,
zekor gizen eta guzi'.

1083

‘Ondasun danak ireak dituk
–semea lasaitu naita,
apal ta goxo asi zitzaion
erreguka bere aita–.
Ustez betiko galdua neukan
semetxo au etorrira,
bazkari on bat gaur egitea
ori bidezkoa baita’.

Artadun maltzurra

1084

Alegi eder onen ondoren
ala jarrai zuen Jaunak:
“Besteren kontu aberats batek
utzi zitun ondasunak.
Baña ondasun auk zaitzeko
zeukan bere artadunak
bazekin ostutzen zizkiola
bere aberastasunak.

1085

Nagusi jaunak beregan deituz
esan zion bein batean:
‘Zer egin dezu? Zer esamesa
dabil or jende artean?
Ondasun danak zurrupaturzen
al zabiltz nere kaltean?
Danen kontua emaidazu gaur
ta bazoazke pakean’.

1086

Bere baitako ala pentsatzen
zuen artadun maltzurrak,
laxter ondoren beldurgarria
bazetorkion beldurrak:
‘Eske ezin nauk joan; lanerako
motelak zeuzkat ezurrak’.
Orra azkenean zer erabaki
zuen artadun lapurrak.

1087

‘Nagusi jaunak bere aurrera
kontu artzera deitzean,
orain arteko kargua neri
zalantzik gabe kentzean,
aruntz-onuntz ez naiz ibiliko
lantoki baten eizean.
Badakit zer egin ar nazaten
orduan beren etxean’.

1088

Nagusiaren zordunak deitu
zitun beregan serio,
lotsarik gabe lenengoari
berela galdetzen dio:
‘Zer zor diozu nagusiar?’.
‘Nik eun kupel olio’.
‘Exeri lenbailen ta idatzi
berrogeitamar ta kito’.

1089

Bigarrenari galdetu zion:
‘Zenbat dezu zure zorra?’.
‘Nik eun gaitzeru’. ‘Exeri zaite,
larogei jarri ta orra!’.
Nagusi jaunak goratu zuen,
ez zalakoan jatorra,
baña bai bere mundu-gauzetan
izan zalako pizkorra.

1090

Nere entzuleok, adi zazute
zer esaten dizutedan:
illunkumeak azkarragoak
dirala mundu onetan,
gorputzakiko kutizi txar ta
beren artu-emanetan,
argikumeak diraden baño
beste munduko lanetan.

1091

Gauza txikitan zuzen jokatur
billatu adiskideak,
emengo nekez geroko errez
itzazute arpideak.
Zeronez ezin dezutenean
eduki an senideak,
orduaz zabal dezaizkitzuten
zeruetako bideak.

1092

Gauza txikitan zintzoa dana
aundietan ere berdin,
txikia gaizki egiten dunak
nola aundia ondo egin?
Ez bazera zu zintzoa izan
zure gauza txikiekin,
aundiak zure esku uzteko nor
piatuko da zurekin?

1093

Iñor ere ezin liteke izan
bi nagusiren mirabe,
serbitze arren bat besteari
emango dio naigabe.
Bat maitatu ta bestea utzi
batere ajolik gabe,
ezin liteke bat izan Jainko
ta ondasunen maitale.

Parisaitar zikoitza

1094

Parisaitarrak ara-onera
ikusten ziran zeletan,
baña Jesusen lagun beñiere ez,
beti sesio-nasketan.
Parra zegiten, etzetozen bat
Maisuaren esanetan,
parisaitarrak diruzaleak
baiziran bene-benetan.

1095

Maisuak zorrotz itzegin zien:
“Santu-itxurak serio
egñaz, jendearen aurrean
gora nai dezute io.
Baña ikasi: mundu onetan
zuentzat asko balio
duten gauz asko Jaungoikoari
nazkagarriak zaizkio.

1096

Lege-profetak Joanenganaño
dira; arrezkero, berriz,
Jaungoikoaren jaurgoko berri
zabaltzen da erriz-erriz.
Jainkoarenak diran guziak,
garai-aldi au igerriz,
sartuko dira, baña indarra
egiten dutenak egiz.

Lazaro eta Epulon

1097

Ondoren berriz berdintz bikain au
jalki zitzaion Jesusi,
isek zegiten parisaitarrak
etzitun samindu gutxi:
Aberastasun ta ondasun txarrak
ez nai bazituzten utzi,
beste munduan zer ondorena
zetorkien erakutsi.

1098

“Bazan aberats purrakatu bat
Epulon zeritzaiona,
bere antzeko lagun ugariz
inguratua zegona.
Aragiari ematen zion
beti eskatzen ziona,
beartsuekin erruki-izpirik
ere etzeukan gizona.

1099

Errege baten antzera jantzi
purpura eder ta guriz,
erraztun bikain, pitxi-aukera
eta oñetako txuriz,
urrezko ille dizdilaria
neskazar baten iduriz,
zebillen leku danetan beti
usai goxoa ixuriz.

1100

Bazan beste bat beartsu zana,
bere izenez Lazaro.
gaixoak etzun egun goxo bat
bere denboran igaro.
Ezertarako gauza etzana,
oñaze miña oparo,
aberats onen ate ondoan
eske egona luzaro.

1101

Makil baten babesari esker
badabil aruntz-onuntza,
zauri zikiñez betea dauka
goitik beraño gorputza.
Larru gorririk ia, goseak,
lanerako ez da gauza;
aberats aiek geiegian da
gaixoak onek trip'utsa.

1102

Epulon, berriz, zorientzua,
atsegiñetan igari,
banketerik bankete jendea
biltzen zitzaion ugari.
An etzan ezer palta, aukeran
zebillen jan ta edari;
Lazaro, berriz, goseak iltzen
ate ondoan eskari.

1103

Aberatsaren mai ugaritik
zetozen ogi-apurrak,
zorazten jango zitun Lazaro
zarraren urdail ximurrak.
Baña etzion artzera sartzen
uzten aberats maltzurak,
maipean alperrik ondatzen zan
ura jateko bildurrak.

1104

Ate ondoan bakar ta ixil,
Lazaroren eskariak
beñere etzitun ontzat ar izan
aberats tripazariak.
Ate ondoan zegon lekuan
txakurren mingain guriak
miliskatutzen zituzten iñoiz
beartsuaren zauriak.

1105

Betiko txarrik ez da munduan,
gure txiro biotzbera
bakar ta ixil il zan gaixoa
beste guzien antzera.
Aingeru batzuk eraman zuten
Abraanen magalera,
naigabe danak bean utzita
betiko atsedenera.

1106

Aberatsa're il zan azkenik,
bazun negarra onduan,
bere aideak eortzi zuten
tokatzen zaion moduan.
Bere jolas ta zurrut-lagunak
ondo zeukatzen goguan,
alako gizon ongillerikan
etzan azaldu munduan.

1107

Etzuten Abraanen altzora
jaso bere aingeruak,
etzitun izan mundu ontako
arrera goxo beruak.
Su ta garretan zegon lekutik,
aberats zurruteruak
andik urruti zabal-zabalik
ikusi zitun zeruak.

1108

Goratu zitun bere begiak,
an zegon lasai Lazaro,
zurrut-lekuko ate ondoan
eske egona luzaro.
Oni munduko neke goseak
orra betiko igaro:
'Ni oñazetan illaki-sua,
orrek zeruan abaro!'.

1109

Zegon lekutik oiuka zion:
"Abraan, aita bikaña,
urrikal zaite gixaixo ontaz,
ez det nik merezi baña.
Bial zadazu Lazaro, urez
busti bere beatz-gaña;
gero igurtziz ozkirri dezan
sutan daukadan mingaña'.

1110

Abraanek ala erantzun zion:
'Seme, eduki goguan
zu ta Lazaro nolatan bizi
izan ziñazten munduan;
zuk ongiak ta onek gaizkiak
zenituztela orduan,
zuk inpernuan dezu ordaña,
Lazarok berriz zeruan.

1111

Atsegiñetan bizi ziñan zu,
danetik zendun oparo,
jan-edan beti jolas betean
munduan zendun igaro.
Ikusten zendun gaixo au eske
ate ondoan luzaro,
orain betiko zu oñazetan,
atsedenetan Lazaro.

1112

Gañaera zu ta gure artean
leize aundi bat badago,
ortik onera naita're ezin
liteke iñor igaro;
ondoan zendun beartsu ontaz
etziñan kupi lenago,
etsi gurekin zer ikusirik
ez daukazula geiago'.

1113

Arek erantzun: 'Geroztik ori
ala bada, Abraan aita,
beste bost anai ditut etxean
nere antzera bizita.
Onuntz sar ez ditezen Lazaro
berpiztua bialita,
orren itzakin aien sinismen
aula indartuko baita'.

1114

'Orra or Moises eta profetak,
nai badute kaso egin'.
'Ez, Abraan aita, onduko dira
Lazaroren esanekin'.
'Ez badituzte aintzakotz artzen
profeten itzak, len bezin
otz geratuko dira piztuta
joan zaien baten itzekin'.

Gaizbidea

1115

“Bai; gaizbiderik ez da faltako,
izan baidira gaurdaño.
Ai! Gaizbidea dakarrenari
aur txiki auetaraño,
obeko luke alper-arri bat
lotuz itxas ondoraño
botako balute, aur txiki bat
gaizbidean sartu baño.

1116

Zure anaiak txarkeriren bat
baldin egiten badizu,
errita egin; damutzen bada,
biotzez barka zaitozu.
Ta egunero zazpi utsegin
ark egiten badizkitzu,
beti barkatu, baldin benetan
damuz etortzen bazaizu”.

1117

Apostoluak esan zioten:
“Azi gure sinismena”.
“Sinismendunak badu Jainkoak
berak ainbeste almena.
Matsondo oni esan: ‘Itxasora
joan adi ortik zuzena’,
zalantzik gabe egingo luke
agintzen diozutena.

Morroï alperrak

1118

Norbaitek badu miraberen bat
saritutako lanean,
esango ote dio lanetik
etxera datorrenean:
‘Ongi etorri, morroï zintzoa,
exeri zaitte maiean,
atseden ar zak, nik bazkaria
serbitzen ditzen artean?’

1119

Edo ez dio esango jaunak:
‘Lotu ezazu gerria;
zuk gero jango dezu ta orain
serbi neri aparria.
Morroï txintxoak, esan bezela,
agindutako guzia
egiñagatik, merezi al du
eskerrik? Ez, alegia.

1120

Orrela egin zazute ta ez
eduki aundi-usterik,
gauz auek egin ondoren esan
triste, naigabez beterik:
‘Morroï alperrak gera, ez degu
egin bearra besterik;
zor geneukana egin degu, ez
degu merezi eskerrik’.

Etxola-jaiia

1121

Inguru xamar zeukaten jai bat,
izenez *etxola-jaiia*,
basamortuko oroipengarri,
judutarrentzat alaiia.
Bere aideak bazuten Jesus
berekín eraman naiia;
au askea zan, bere naiera
berex nai zuen garaia.

1122

Ainbeste kontu aorik ao
esan ta ziran entzuten,
bere aideak ere ordea
ondo sinisten etzuten.
aren mirari aundiren batzuk
ikusten ote zituzten,
jai ortarako beren artean
eraman-azi nai zuten.

1123

Beren bidean zijoaztela
esan zioten Jesusi:
“Zoaz emendik uri santura
zure ikasle ta guzi.
Zure mirariz zere burua
munduari erakutsi;
zuk egiten dituzun lan oiek
jendeak ditzan ikusi”.

1124

Jesusek ala erantzun zien:
“Ez dira nere orduak;
beti da zuen garaia, egin
ara joateko moduak.
Zuek mundutar zerate, bete
gogoz bere aginduak;
bere lan txarrak salatzearren
ni gorrota nau munduak.

1125

Zuek zoazte, bai, jai ortara,
egizute zuen naia,
judutarrentzat oitura danez
egin bearrezko jaiia.
Agurtu Jauna, jolastu lasai,
igaro egun alaia;
baña neretzat ez da oraindik
ara jexteko garaia”.

1126

Bere aideak biali zitun
danak ondo esanean,
bera Galilean geratu zan
bere betiko lanean.
Bere aideak maldan beera
ezkutatu ziranean,
aien ondoren bera're laxter
azaldu zan azkenean.

1127

Jendea bere billa zebillen
galdezka txokorik txoko:
“Juduen beldur gordea ote?
Ez ote zaigu igoko?
Oitu bezela, eliz xarrera
ez ote zaigu etorko?”.
Erriak asko maitatzen zuen,
aundi-jendeak oztopo.

1128


“Ura non degu? Ez ote dator?”
ori zan ango murmurra;
an zegon aren utsuna, palta
bere izketa xamurra.
Batzuk: “Ona da”. Besteak: “Ez da
ona; dana da gezurra”.
Baña ixilpe danak zeukatzen
apaizburuen beldurra.

1129

Jaiaren erdi aldera orra
Jesus eliza xarrean,
bera iltzeko asmoz zebiltzan
apaizburuen aurrean.
Itzalditxoak egin ta egin
bere izkuntz xamurrean,
Jesus etzegon ezkutuan il
nai zutenen beldurrean.

1130

Arritzen ziran ari entzunda
aren izketa sakona,
ondo zekiten danak etzala,
ikastetxean egona.
Eliz xar artan ao batera
au zan jendeak ziona:
“Non arraietik atera zaigu
guri olako gizona?”



1434

Eliz barrura sartu orduko ango iskanbil! Azoka-
-maiak irauli, diruak nastu, eskuan arturik soka.
“Nere etxea otoitz-etxe da” –ta eraso zien joka–.
Lapur-zulo bat egin dezute!”, ta aurrean zitun bota.

1131

Nondik oni ainbat jakinduri?
Nola daki ori dena,
ez baida iñon eskolatu au?”.
Urri aien sinismena.
Entzun zuneko, Maisuak eman
zien erantzun zuzena:
“Jakinduri au ez da nerea,
baizik nere Aitarena.

1132

Aitaren naia egiten dunak
ark sinistuko du errez
Aitaren erakuspenak diran
edo ari naizen nerez.
Iñork mundura biali gabe
itzegiten dunak berez,
danen gañetik bere ospea,
bere aintza nai du berex.

1133

Aitarenetik ari banaiz ni,
nere Aitak bialdurik;
ez det nai nere osperik, ez det
jaso nai nere bururik.
Aita goratzen det gaur ta beti
ta ez eduki beldurrik
irakaspen au egia dala;
nigan ez dago gezurrik”.

1134

Eztabaidan ari ziran gizon
bat sendatu zuala-ta;
erria pozez, apaizburuak
atera zuten zarata:
ea zergatik aukeratzen zun
lanerako larunbata.
Bertan arrika erasotzeko
ere etzuten asko palta.

1135

Jaunak erantzun: “Ez didazute
sinistu nai nere egirik,
ez daukazute Moisen legea
liburuan idatzirik?
Eta nola zuetako iñork
ez du betetzen legerik?
Aspaldi ontan zergatik ote
zabiltzate ni il nairik?”.

1136

Parisaitarrak, Jesusek zorrotz
esan zuena entzunik,
laxter erantzun zuten asarre
eta kopeta illunik:
“Erotu zera edo nork uka
deabrua ez dezunik?
Gure artean ez da bakarrik
ere zu il nai zaitunik”.

1137

“Gizon elbarri bat sendatu det
zegona zuen artean,
larunbat-jaia dalako orra
danak asarre betean.
Moisen aginduz ez dituzute
zuek ere bitartean
ajolik gabe erdaintze-lanak
egiten larunbatean?”.

1138

Gizon bat erdain liteke bada
larunbatez ere berdin,
ta Moisek jarri zuen legea
ez da autsitzen orrekin.
Gizon oso bat sendatu badet
ez asarretu nerekin;
ez erabaki itxura gabe,
zuzenago epai egin”.

1139

“Il nai dutela? –zioten askok—.
Orra or bere lanean.
Mesias dala au ezagutu
ote dute azkenean?
Nondikakoa degun au ez al
dago danon jakiñean?
Iñork jakingo du nongoa dan
Mesias datorrenean?”.

1140

Jendearen esamesa aiek
entzun da ala dio Jaunak:
“Jakín detanez, nere sorterri,
guraso eta belaunak,
non jaio naizen, izen da guzi,
dituzute ezagunak;
ni berriz ez naiz nerez etorri,
badaki biali naunak.

1141

Beste bat baida biali nauna,
egiatia gañera,
aretxek berak danen aurrean
dagi nere aitorrera.
Ez dezute zuek ezagutzen,
nik ezagutzen det bera,
arentxengatik etorria naiz,
ark biali nau onera”.

Jesus arrapatu nairik

1142

Bertan arrapatu ta lotzeko
asmoak artu zituzten,
etzuten ortarako ordea
egokierarik ikusten.
Erria berriz bere aldeko,
begi-belarri entzuten;
beren ordua etzan oraindik,
ezin zala etsi zuten.

1143

Ango jendeak geienak noski
sinistu zuten benetan:
“Mesias berak, datorrenean,
gure karríka auetan
aundiagoak egingo ote?”
zebillen mingain danetan;
alkarrizket au entzuten zuten
parísaitarrak kezketan.

1144

Jesusengatik esaten zana
sartu zaien biotzera,
erri-maitale ura eraman
nai zuten eriotzera.
Lotzeko asmoz joan ta berak
egin bazuten atzera,
beren morroiak igor zituzten
Maisua bertan baitzera.

1145

“Oraindik emen ibiliko naiz
aldi bat gaurko modura,
igor naunarengana joango naiz
aldi motx orren burura.
Ez nazute berriz ikusiko
galde arren: ‘Non da ura?’.
Ta zuek berriz ezin etorri
ni joango naizen lekura”.

1146

Juduak ala zioten alkar:
“Ori nora joango ote da?
Atzerrian banaturik dauden
anaiei dei egitera?
‘Gogotik billatuko nauzute,
baña arkitu ez atzera’.
Ez dakigu zer dion, ez degu
ulertzen orren izkera”.

1147

Etxola-jaien azken orduan,
egunik aundienean,
dio: “Betor nigan: edan beza,
iñor egarri danean.
Nigan sinisten duten aieiri
Idaztien izenean,
ur bizi bat darion ibaia
sortuko zaio barnean”.

1148

Sinistu egin zioten askok
entzunik aren izketa:
“Iñondik ere auxe bera da
etortzeko dan profeta”.
Beste batzuek ala zioten
malezi txarrez beteta:
“Belendik etorko da Mesias;
au Nazaretarra ezta?”.

1149

Zalantza ontan zegon jendea,
galderak sakonak sarri;
beste batzuek aruntz-onuntza
buelbaka zebiltzan larri,
Jesus an bertan baitu naiean
keñu egiñaz alkarri;
baña alperrik: etzion iñork
eskurik gañean jarri.

1150

Morroiak biur ziran apaizen-
gana, baña esku utsekin.
“Gizon ura ez al dakartzute?”
zietenean galdegin,
morroiak laxter erantzun zien
arrazoi eder batekin:
“Oraindik ez du gizona danak
orrek bezela itzegin”.

1151

“Zuek ere erori al zerate?
–apaizburuak berela–.
Gutarrik ez da sinisten dunik,
esan zazute bestela.
Erri arruntak, noski, legeen
berri ez dakin bezela,
sinist dioten danak betiko
madarika ditezela!”.

1152

Parisaitarra zan Nikodemo,
Jesusen jarraille bera,
itz gaizto aiek entzun orduko
salta zan danen aurrera:
“Lege degu: entzun gabe iñor
ez goazke gaitzestera”.
Zorrontz erantzun aiek: “Zer: zu’re
galilearra al zera?”

1153

Galileatik igerleren bat
ikusit dezute sortzen?
Idazki Deunak garbi diote,
alare ez dezu aitortzen”.
Berexi ziran, etziran ontan
danak batera etortzen,
sanedrintarrak nai zuten arren
etzan batasunik lortzen.

Andre lizunkoia

1154

Bezpera larri samarra zuten;
goiz-goiz biaramonean
an zegon Jesus berriro ere
lasai eliz barrenean.
Erri guzia bildu zitzaion
beraren aldamenean,
exeriz laxter eraso zion
irakasteko lanean.

1155

Ezin pakean utzi ordea,
urbil zaizkion etsaiak,
maltzurkeritan, samindu nairik
Jesusen etxola-jaiak.
Oraingoan bai arrapatuko
zuten, ain zeuden alaiak;
neurrik ez baizuen aien
Maisua ondatu naiak.

1156

Ezkondutako emakume bat
juduak zuten ekarri,
beste batekin lizunkeritan
eroria lotsagarri.
Bere arekin argi-ollarrak
Jesusen aurrean jarri,
igerlearen jakinduria
probatuko zuten sarri.

1157

Parisaitarrak arro zetozen
erruki-izpirik gabeak,
etzitun asko samintzen andre
gaixoaren naigabeak.
Alakoak arrika iltzeko
agintzen zuen legeak,
noranaitik jo, igesbiderik
etzeukan Maisu trebeak.

1158

Gizona eta emakumea
bientzat lege astuna,
ezkontz-auslea bat edo beste
iltzea merezi zuna.
Emakumea etzan bakarrik,
non zan pekatu-laguna?
Ez ekartzeko biak non zegoen
juduen zuzentasuna?

1159

Salbatzen bazun, galdua zegoen:
Moiseren lege-austalle;
illerezita, biotz gogorra,
etzan beartsuen alde.
Alako Maisu baten ondotik
etzuten egingo alde?
Ustez seguru ekin zioten
Jesusi galde ta galde.

1160

“Emakume au ezkondua da
–zioten danak batera–;
beste batekin lizunkeritan
arrapatu degu bera.
Arrika bertan il bear luke
onek Moiseren legera;
Maisu zuzena, esaiguzu: zu
zer iritzikoa zera?”.

1161

Maisu zuzenak ondo bazekin
zertara zetozen danak,
lendik ere ezagunak zituen
aien maltzurkeri-lanak.
Baña etzuen bururik galdu
gure igerle otخانak,
laxter askatu zituen aien
korapillo, azpijanak.

1162

Jesus makurtu zan ta geldiro
lurrean beatz batekin
danen aurrean asi zitzaie
arraiak egin ta egin.
Parisaitarrak, beren arriak
eskuan artuz, aletin,
oiu zegiten: “Zer egin bear
da emakume onekin?”.

1163

Jende guzia begira zegon
zer gertatuko aurrean,
andre gaixoa erdi-erdian
izu ta lotsa txarrean.
Parisaitarrak oi u ta oi u
ari ziran indarrean,
beatz batekin ixil-ixilik
Jesus idazten lurrean.

1164

Parisaitarrak oi u ta oi u
lertzerario eztarria,
orduan Jesus lerdendu zan, bat-
batera txutik jarria.
Danen aurrean azaldu zuen
bere erabaki larria:
“Pekatu gabe dagonak tira
beza lenengo arria”.

1165

Jesus makurtu zan berriz ere
eta idazten jarraitu;
estuasuna zan gero ura,
etziran gutxi larritu.
Zarrenetik asita joan ziran,
itzikan etzan nabaitu,
aien lekuan arri-pilla bat
besterik etzan gelditu.

1166

Jeus zutitu zanean orra
laxter irripar-dirdira
jaio zitzaion. Emanik gero
andrearengana bira,
bakar ta erdian zegon andre
gizajoari begira,
errukiz zion: “Emakumea,
zure etsaiak non dira?”.

1167

“Ez dakit, Jauna”. “Etzaituzte il?”.
“Ez”. “Ez nik ere –diotsa–.
Zoaz pakean, ez pekatu-
rik egin”. Andrearen poza!
Maisuak ondo erakutsi zun
bere adimen zorrotza,
gizaldeari ere bai bere
maitasunezko biotza.

Jesus, munduaren argia

1168

Andik urrundu zaneko buru
makurka pekataria,
Jesus egin zuen berriro
ere oi u bat larria:
“Mundu ontako argia naiz ni,
bide-erakusle jarria;
nere ondoren datorren arek
badauka bizitz-argia”.

1169

Parisaitarrak, ezin etsirik,
beti an zebiltzan aurka;
oker ertetzen zitzaien dana
baña alare burruka.
“Zuk zere buruz aitor egiten
dezu –zioten oiuka–:
eta, jakiña, zure aitormen
orrek indarrrik ez dauka”.

1170

Maisuak ala erantzun zien
eta biziro gañera:
“Egia da: nik nere buruaz
egiten det aitorrera.
Ezin alare uka liteke
indar gabe dala bera,
baidakit nondik natorren eta
nora nijoan atzera.

1171

Ez dakizute ori're: dana
mundua epaitu bearra?
Ez det epaitzen; nik epaituko
banu ez litzake txarra.
Biali niñun Aita nerekin
dago, ez naiz ni bakarra;
legeak dionez, bi lagunen
epaiak badu indarra.

1172

Epaitu zuzen eguneroko
nere lanak ikusita,
zuen artean banabil ere
zuen Aitak bialita.
Nik nere buruz airtormen dagit,
nere Aitak ere baita".
Zorrotz galdetu zioten aiek:
"Eta non da zure Aita?".

1173

Jesusek berriz "Non dezu Aita?"
aiei entzun eta gero:
"Ainbeste bider esan ondoren
bada ordu onuzkero.
Beti gauz bera kontatu bear
al dizutet egunero?
Aita ezagutuko zenuteke
ni ezagutu ezkero".

1174

Diru-kutxa ondoan egin zun
Maisuak bere jarduna,
jendea nora, ara joaten bai-
zan erakustera Jauna.
Asmo txarreko etsai maltzurak
etzeuden andik urruna;
baña etzuen iñork atxitu,
ez baizan beren eguna.

1175

Jaunak berriz oiur egin zuen:
"Banijoa zuengandik,
aldi txiki bat pasa ondoren
zuen ondoan oraindik,
Billatuko nauzute, bai, baña
ez ni arkitu iñondik,
ni nagon lekura berriz ezin
joan ziñezteke emendik".

1176

Juduak berak nastuak zeuden,
ura ango berriketa!
Ezin ulertu zuten iñola
Maisu onaren izketa.
"Bere burua il nai ote dik?
-zioten pozez beteta-;
'noan tokira ezin etorri
ziñezteke' esan dik eta".

1177

"Ni goikoa naiz, zuek bekoak,
zuek lurtar, ni ez berriz;
pekatupean ilko zerate,
esaten dizutet egiz.
Bai, pekatuan ilko zerate
ni nor naizen ez sinetsiz".
"Nor augu, bada?" galde zioten
juduak amorru biziz.

1178

Jesusek ala erantzun zien:
"Esaten dizutedana
orixe naiz ni, ainbat berri on
orain artean emana.
Askoz geiago daukat oraindik
kontatu nai nukeana;
baña egitia dan Aitari
nik ikasi diodana".

1179

Maisuak jarraiz: “Giza-Semea jasotzen dezutenean, jakingo dezute nor naizen ni eta nere izenean ez detala ezer erakutsi, guzia Aitarenean; atsegin zaiona egin baidet orain arteko danean”.

1180

Arazoi auek entzundakoan sinistu zuten batzuak. “Iraun zazute sinismen ortan –eskatu zien Maisuak–, orrela izan zaitezten beti nere ikasletakuak. Egia maite, berak egingo baizaituzte askatuak”.

1181

Asarre xamar erantzun zuten, etzegon jende apala: “Isekaz ari al zera? Abranen ume ez al gera bada? Iñoren morroi ez gera izan, ez gera gaur ere ala; zergatik ari zera oiuka aske izango gerala?”.

1182

Beti bezela jardunaz Jesus egia erein ta erein: “Bene-benetan nik diozuet, jakin zazuten garbi bein: okerbidean pekaturen bat egiten duen edozein, damutu arte izango dala pekatu beraren otsein.

1183

Semea beti etxean dago, berea du ondarea; nagusiari lotua dago, berriz, beti mirabea. Semea aske bizi da, bera baida gauz danen jabea; beraz, onek egingo zaituzte bera bezela askeak.

1184

Abraanen ume zeratela ongi esana, egia; baña sinist nai ezik neri ken nai didazute bizia. Ez det besterik itzegiten nik: nere Aitari ikusia; jakiña, zuek ere bai noski zuen aitari ikasia”.

1185

Parisaitarrak kiskaltzen zeuden, beren betiko errita; bazter guzitan bazuten beti Jesusekin eztabaida. Jesusen itzez mindurik, beren buruak goratu naita, oiuka ala esan zioten: “Guk Abraan degu aita!”.

1186

“Egin orduan Abraanen lanak, ura aita badezute; nik Aitari entzuna esanta zergatik il nai nauzute? Abraanek etzula olakorik egiten badakizute, zuen aitaren egintzak zuek, bai, egiten dituzute”.

1187

Berotu ziran, gorrotoz lausu,
mingañak etzun galgarik;
esanak entzun nai ezik ezin
alkarri eman txandarik.
Oiuz berriro esan zioten
gora besoak altxarik:
“Ez gera sasikume, ez degu
Jainkoa beste Aitarik”.

1188

“Maiteko niñuzuteke zuen
Aita Jainkoa balitza;
argandik atera ta nator ni,
aren izenez gabilitza.
Zergatik da, ba, nere izket au
zuentzat ain ulerkaitza?
Ez baizerate Jainkoarenak
ezin entzun nere itza.

1189

Deabrukume zerate, aren
naikeritara etzanik;
gizon-iltzalle ta gezurtia
baida ura betidanik.
Deabru ori gezur beraren
aita sortzalle izanik,
zergatik neri ez didazute
sinisten egia esanik?

1190

Zuetako nork bota dezaiket
neri arpegira obenik?
Jainkoarenak ezin ukatu
Jainkoaren gauza danik.
Jainkoarena ez danak ez du
sinisten Jainkoarenik,
orregatik ez dezute zuek
sinisten nere esanik.

1191

Juduak aren arrazoi motzik
etzuten entzun sekula,
ala erantzun zioten zorrotz:
“Samaritar zaitugula,
ta inpernuko deabru danak
gaur zurekin dituzula
zuri deitzeko uste det naiko
arrazoirik badegula”.

1192

Maisuak berriz erantzun zien,
etzegon oso alai ta,
deabrudun esatea oso
arrazoi gaiztoa baita:
“Nik ez daukat deabrurik, beti
goresten det nere Aita;
zuek zabilzate maltzurkeriz
ni zapal erazi naita.

1193

Ez nabil nere itz ta lanetan
nere ospearen billa,
nere aintzaren billa beste bat
epai emanaz dabilla.
Bene-benetan nere itz auek
betetzen ditun umilla,
sinistu zaidazute ez dala
izango betiko illa”.

1194

“Orain badakigu deabrua
dezula –zioten sutsu–,
Abraan ta igerleak il ziran
ta zuk aitortu diguzu:
‘Nere itza betetzen duanik
ez da ilko’. Esaiguzu:
aiek baño aundiago al zera,
ordea? Nor zaitugu zu?”.

1195

Ikusten zana sinist nai ezik
biotzean zeukaten gau,
argatik egiten zizkioten
ainbeste galdera billau.
“Nere ospea billatzen badet
ezertxo ez da ospe au:
nere Aita ta zuen Jainkoa
dan orrek ni goratzen nau.

1196

Nere Aita dan zuen Jainkoa,
zeru ta lurreko Jauna,
nik ezagutzen detan ori da
ni beti goratzen nauna,
nere aintzako ori mirari
auek egiten dituna;
zuek Jainkoa deituagatik
ez dezute ezaguna.

1197

Nik ongi ezagutzen det Bera,
bete ere bai bere naia,
zuen asaba Aita Abraan
etzan bizitu lasaia
ikusi arte mundu ontara
ni etortzeko garaia.
Ikusi zuen eta atsegiñez
jauzi egin zun, alai.

1198

Juduak ala esan zioten
gorrotoz eta piakaitz:
“Nola liteke, berrogeitamar
urtez berakoa bai aiz?”.
Maisuak erantzun: “Ni nor naizen
jakin dezazuten garaiz:
bene-benetan, Abraan sortu
baño lenagotik banaiz”.

1199

Sumindu ziran parisaitarrak
itz auek entzundakuan,
arrikatzeko arri kozkorrak
artu zituzten eskuan.
Jesus ordea ixil-ixilik,
len askotako moduan,
aien aurretik jende artera
ezkutatu zan orduan.

Jaiotzatik itxua

1200

Utzirik bera il nai zutenak
aoa bete ortzekin,
Maisua lasai kanpora erten
zan bere ikasleekin.
Gorrotoaren maizterrak ziran,
il nai zuten, baño ezin;
bere ordua iritxi arte ez
Jesusekin jolas egin.

1201

Aztuaz dana, barkatuz dana,
Jesusen biotz xamurra,
erne bizi zan, ikusten zuen
juduen asmo maltzurra.
Alare beti, eman bitarte
mundu txar oni agurra,
an ikusiko zuten Maisua,
etzekin zer zan beldurra.

1202

Aitaren naia beti gogoan,
ori zan bere janari;
baztertu gabe jarraitzen zion
artu zuen bidetari.
Beti kementsu arpegi eman
zion etorkizunari,
erasopean azken jo arte
artua zeukan lanari.

1203

Kaleak barna zijoazela
betiko beren bidean,
itxu jaio zan gizon gaixo bat
zai zegon bazter batean.
Saso oneko mutil egiña
limosna baten eskean,
ordu luze ta aspergarriak
illunpearen mendean.

1204

Begiz itxua, buruz argia,
azalduko dan bezela;
astindu zitun parisaitarrak,
etzan au itxu motela.
Nabaitu zuen aldapak gora
jende-salla zetorrela;
oitura zunez, besoa luza,
eske asi zan berela.

1205

Baña bideak gora zetorren
munduko argia bera.
Ikasleekin batera urbil
zanean aldamenera,
sinismenaren argi-dizdiz bat
bere barrun illunera
sartu zitzaion, gozoro, ixil,
sinismena berotzera.

1206

Su bero batek bezela laxter
ernetuz itxu trebea,
bere lekutik oiuka zion
bear zunaren eskea.
Bazekin ongi Nazaretarra
zala emale merkea:
“Erruki zaite ta ken zadazu
begi auen illunpea!”.

1207

Norbaitek eman baizion Jesus
zetorrenaren abisu,
“Argi nazazu!” oiuka zion
itxuak, erdi betizu.
Ikus orduko apostoluak
galdetu zioten: “Maisu,
zeñek egin du emen pekatu
ori jaiotzeko itxu?”.

1208

Jesusek ala erantzun zien.
“Ez kulpik eman iñori.
Ez bera, ez guraso, ez dira
pekatupean erori.
Jaunaren aintza agertu dedin
itxua jaio da ori.
ortako baida Giza-Semea
mundu ontara etorri.

1209

Argi dan arte bial naunaren
lanak bear ditut egin;
aurki gañean dezute gaua,
ez da izango atsegin.
Eta gau ortan olako lanik
iñork iñola ere ezin,
mundu onetan nabillen arte
beko argi izan nadin”.

1210

Itz eder auek esan ondoren
txistua bota lurrera,
bide ondoko autsetan nasiz
lokatz biur zuen bera.
Lokatzen onekin bere begiak
igurtzeakin batera,
“Zoaz Siloeko ur-putzuan
begi oiek garbitzera”.

1211

Itxu-aurreko batekin joan zan,
esan bezela, gaixua,
Siloeko putzuan begiak
garbitutzera, txintxua.
Ango uretan garbi orduko
ikusten zula itxua,
oiu ta jauzi an etorri zan
agurtutzera Maisua.

1212

Bere auzoko ezagun danak
arritu ziran orduan:
“Ez al zan ori lenago eske
egoten bide onduan?
Nola ikusten du bada orain
ibillitzeko moduan?
Itxu jaioa, orrelakorik
ez da gertatu munduan”.

1213

Jaiotzatikan itxua zana
orain jauzika aurrean,
aren mirari arrigarririk
etzan gertatu lurrean.
“Bera da” batzuk, besteak ezetz,
eztabaida gogorrean.
“Bai; ni naiz eske aritzen nintzan
ura bide-bazterrean”.

1214

“Nola ikusten dek bada orain?”.
“Esker guziak Jesusi.
Lokatza egin, arekin nere
begi itxuak ikuzi;
Siloeko putzuan garbitu
orduko orra ikusi.
Igerlea da” zion itxuak
eta zoriontsu jauzi.

1215

“Non dek ura?” galdetu zioten.
“Ez dakit batere, jauna”
zorieko itxu argiak
eman zien erantzuna.
Sendatu zuen egun ura zan
larunbata, jai-eguna;
orretxegatik parisaitarrak
zeukaten kopet illuna.

1216

“Larunbatean zergatik orrek
egiten ote du lana?”.
Parisaitar itxuratia
etzegon oso otxana.
Artu ta txuxen eraman zuten
apaiz nagusiengana,
aien aurrean gerta bezela
kontatu zezala dana.

1217

“Nola egin dik?” galde zioten
parisau itxuratiak;
beldurrik gabe itxuak garbi
kontatu zitun egiak:
“Berak egin dun lokatz pixarrez
igurtzi dizkit begiak,
Siloeko putzuan garbituz
geratu zaizkit argiak”.

1218

“Gizon au ez da Jainkoarena
–batzuk etzeuden otxanak–.
Jainkoa nola goratuko du
jai egiten ez duanak?”.
“Pekatoriak nola egingo
ditu orrelako lanak?”
zioten besteak, ta etziran
batera etortzen danak.

1219

Oraindik iñork etzun ikusi
egiten olako lanik;
apaizburu ta parisaitarrak
berez maltzurak izanik,
aiek etzuten sinistea nai
ura itxu jaio zanik,
bere guraso izan ziranak
baietz esan gabetanik.

1220

“Au al da itxu jaio zan zuen
seme, eskale umilla?”
“Au gure seme itxu jaioa
dala egi biribilla”
“Nola ikusten du?”. “Ez dakigu”.
“Nork sendatu du mutilla?”
“Adiña badu. Galde berari.
Bera konpondu dedilla”.

1221

Zabaldu zuten sinagogatik
izango zala jauzia
Jesus Mesias zala aitortzen
zuen judutar guzia.
Beldur orrekin guraso aiek
apaizburuen auzia,
berak eskuak garbituz, zuten
semearen gain utzia.

1222

Berriro deitu zuten itxua,
esan zioten berari:
“Gora Jainkoa! Emaiok bere
ospea Jaungoikoari!
Ongi bazekigu gizon ori
nola degun pekatari”
Arek erantzun: “Ez dakit, baña
badakust, eskerrak ari”.

1223

Min artu zuten parisaitarrak
mirari eder arekin:
jaiotzez itxu, danen ezagun,
iñola ukatu ezin.
Larunbatean zuen gañera,
oitura bezela, egin.
“Nola sendatu au bada orrek?”
berriz zioten galdegin.

1224

“Ez al dizutet lenago esan?
Zertako galdetu berriz?
—erantzun zien, zirikatzaile,
itxu trebeak maleziz—.
Bere ikasle izan nai ote
dezute zuek ere egiz,
bere mirari eder oiekin
Mesias dala igerriz?”

1225

Itxu argiak irriz esana
etzaien ongi erori,
“Moises diagu maisu” erantzun
zioten zorrotz ta gori.
Jainkoak ari bezela ez bai-
ziok itzegin iñori,
iretzat nondik datorren iñork
ez dakin sasi-maisu ori!”.

1226

Itxu izanak erantzun zien:
“Gaixuak zuek, gaixuak!
Zuek zerate erriko buru
zuzen eta jakintsuak?
Zuek zerate nondik datorren
ez dakizuten maisuak!
Arrigarria: orrek argitu
dizkit berriz begi itxuak.

1227

Jainkoarekin zer ikusirik
ez dute pekatariak,
bere naia betetzen dutenak
baiditu maitagarriak.
Iñork argitu al ditu itxu
jaio dan baten begiak?
Jainkoarena ez balitz nola egin
orrelako mirariak?”.

1228

Itxuratiak pazientzitik
erten ziran orraatik,
min artu zuten itxu trebeak
esan zitun itzagatik:
“Aizen guzia pekatua aiz,
alix ori, jaiotzatic!
Ik erakutsi?”. Ta bota zuten
kanpora sinagogatik.

1229

Maisuak laxter jakin zuen zer
gertatu zan sinagogan,
eta berela itxu zanaren
bidera bera joango zan.
Au esan zion: “Sinisten dezu
Jainkoaren Semeagan?”.
Ark erantzun: “Nor dan esaidazu,
ori sinistu dezadan”.

1230

“Zuk ezagutzen dezuna, orain
izketan ari zaizuna”.
Itxuak ondo begiratuaz
dio: “Sinisten det, Jauna”.
Apal ta pozik bere aurrean
makurtu zuen belauna,
danen aurrean agurtu zuen
bera len sendatu zuna.

1231

Jesusek dio gizaldeari
goibel ta biotz minbera:
“Jainkoagandik etorria naiz,
bai, ni epai egitera,
ikusten dutenak itxutu ta
itxuak argitutzera”.
Parisaitarrak ala zioten:
“Gu itxuak ote gera?”.

1232

Maisuak ala erantzun zien:
“Obe itxu baziñate.
‘Guk ongi ikusten degu’ esanaz
danak or ari zerate.
Orretxegatik oraindik zuen
pekatuan zabiltzate,
ala iraungo dezute beti
neri sinistu bitarte.

Artzai ona

1233

Itxuarekin gertatu zanak
min eman zion Jesusi,
parisaitarren sinist nai eza
ongi baizuen ikusi.
Mirari aundi aien aurrean
ere berenari eutsi;
berak etziran iñoiz sartuko,
erriari ere ez utzi.

1234

Zapaldutako erri gaixoa
artzairik gabe zegoan,
apaizburuak dirua baizik
etzebilkiten gogoan.
Berak etzuten sartutzea nai
Jaunak zekarren jaurgoan,
erri gaixoa ondamenera
zijoan aien ondoan.



1799

Belaunikatu, auspez otoika asi zan Jainko-Semea,
gizontxo baten antzera izu, nekez, naigabez betea:
“Al baliteke urrun nigandik ontzi au, Aita maitea!
Alare bete dedilla, Aita, zure naia, ez nerea!”.

1235

Artzai lapurrak ziran benetan,
etzuten maite ardirik;
nai zutelako itxutu ziran,
ikusi nai ez argirik.
Erri xarreko irakasle ta
zuzentzalletzat jarririk,
alare etzuten entzutea nai
Jaunak zekarren berririk.

1236

Maisuak ala jarraitu zuen
begiratuaz errira:
“Bene-benetan nik diozuet:
atetikan artegira
sartzen ez diran artzai-ordeak
guziak lapurrak dira;
egokiera billa dabilta
zer arrapatu begira.

1237

Atetik sartzen dan ura berriz
ura da egiz artzaia,
irikitzeko noiz etorri zai
erne dago atezaia.
Ardiak ongi ezagutzen bai
dute bere dei alaia,
berealaxe somatu ere
etorriko dan garaia.

1238

Bere izenez deitzen ditu
banan-banaka guziak,
borda barrundik erten orduko,
beren artzai maitatiak.
Danen aurretik doa artzaia,
ondoren bere ardiak,
bere abotsa ezagutzen bai-
dute aien belarriak.

1239

Bere atzetik alai dijoaz
ardi xarra ta bildotsa,
batzuek larre gozoan jaten,
besteak jauzi ta poza.
Bañan alperrik etorriko da
aien artera arrotza:
danak igesi, ezaguna ez
dute-ta aren abotsa.

1240

“Ni naiz atea. Nere aurretik
onuntz etorri ta joana,
lapurretara besterik etzan
azaldu ardiengana.
Ni naiz atea. Salbatuko da
nigandik sartutzen dana,
sartu-erten aske izango du,
arkituko du zer jana.

1241

Atetik sartzen ez diran aiek
lapurretara etxera,
gogoan beti nai bat dakarte:
al dutena ostutzero.
Bizi ditezen nator ni berriz
nere ardien artera,
bizia izan dezaten, izan
ere bizitik aukera.

1242

Ni naiz artzai ona –jarraitu zun
Maisu zintzoak esaten,
entzuten duten ardi guziak
ondo ikasi zezaten–.
Ni naiz artzai ona, artzai ona
igesika ez da joaten;
ardien alde badaki artzai
onak bizia ematen.

1243

Artzai-morroia otso aurrean
laxterka igesi doa,
ardien ajol aundirik gabe
ematen baidu orpoa.
Laguntzik gabe utziz berea
ez dan artalde osoa,
arrapatuta il ta banatuz
lasai an dabil otsoa.

1244

Badakit ondo nere ardiak
ezagututzen nautela,
baita nik ere berak, Aitak ni
eta nik Aita bezela.
Ardien alde nere bizia
emango det nik berela,
izan dezaten bizitz-aukera
nere ardiak orrela.

1245

Ai zenbat diran nere ardiak
ez daudenak artaldean,
nere mintzoa entzun gabeak,
galduta atzerri aldean!
Aiek ere danak bildu bear
ditut artalde batean,
artalde bakarra izan dedin
artzai baten estalpean.

1246

Orretxegatik maite nau Aitak:
ardiengatik bizia
uzten detalako, artzekotan,
neronek naita utzia.
Iñork ez baidit bizia kentzen,
borondatez eskeñia,
utzi ta artzeko Aitak emana
det eskubide guzia.

1247

Jesus izketa xamur onetan
zalarik ari ta ari,
entzuten zuten judu artean
eztabaida zan nabari.
Gorroto txarrez isek egiñaz
au ziotenak ugari:
“Deabrudun eroa dek ori,
zertako entzun berari?”.

1248

Baña oso zan bestelakoa
beste batzuen erantzuna:
“Deabrudun ero batek ez du
orren izketa leguna.
Ainbat mirari ez luke egingo
au balitz deabruduna,
deabruak nola argitu itxu
jaio dan baten illuna?”.

Amar legenardun

1249

Samaria ta Galileatik
Jesus Jerusalemenera
zijoala bein, amar lepradun
erten zaizkion bidera.
Jesusengandik urrun geratuz
apal osasun-eskera,
oiuz: “Maisua, urrikal zaite!”
zioten danak batera.

1250

Jesusek laxter antz eman zien
danak lepradun zeudela,
“Zoazte apaizengana” esan
zient ikusi bezela.
Eta laxterka apaizengana
bidean zijoaztela,
danak batera sendatu ziran,
Jesusengandik berela.

1251

Beren buruak garbi ikusirik,
beratzi, esker txarreko,
etziran itzul Jesusi esker
mereziak emateko.
Bakar bat itzuli zan laxterka
oñetan auspez jartzeko,
ongille maitagarria agurtuz
onen biotza pozteko.

1252

Lagunak utziz laxter batean
Jesusengana etorri,
esker emanaz bere aurrean
auspez zitzaion erori.
Ala bear ta samariarra
itzuli zan bakar ori.
“Amar ez ditut –zion Jesusek–
apaizengana igorri?”

1253

Amar oiek ez al dira, bada,
beren bidean garbitu?
Arrotz onek bakarrik eskerrak
eman bear ote ditu?”.
Auspez zeukana besotik artuz:
“Zutitu zaite, zutitu
–esanaz–, zoaz pakean: zure
fedea salbatu zaitu”.

Jainko-jaurgoa

1254

Parisaitarrak galde zioten
andik berela Jesusi:
“Jainko-jaurgoa noiz jarriko da
mundu onetan nagusi?”.
“Bat-bateko lana ez da ori,
ezin liteke erakutsi;
Jainko-jaurgoa zuetan dago,
al badezute ikusi”.

1255

Gero Jesusek au esan zien:
“Giza-Semea badua
zuen artetik, eta oraindik
etorriko da ordua
izango dezutena aren egun
bat ikusteko gogua;
bañan alperrik, ez baizaizute
iritxiko egun ua.

1256

‘Ona Mesias!’ berak sinistuz,
ala esango dizute;
besteak berriz: ‘Ez, ez da ori;
an urruti daukazute’.
Baña ez joan andik aren billa,
egia danik ez uste,
Gizasemea uste gabean
etorriko baizaizute.

1257

Tximistak zeru alde batetik
bestera gau illunean
dizdiz bezela, Giza-Semeak
ere bere egunean.
Baña lenengo asko supritu
bear etsaien mendean,
luzatu gabe gizaldi onek
gaitzetsiko duanean.

1258

Asaba Noeren egunetan
gertatuaren moduan
gertatuko da, Giza-Semea
berriz datorren orduan.
Ondo bizi ta ezkondu naia
besterik etzan munduan,
bizi guzia galdu zan arte
ugoldearen onduan.

1259

Loten gaian gertatu zana:
jendea jan-edanean,
sal-erosketan, etxe-egintzan
eta ezkontza-lanean,
danak kiskal zitun arte zuffle-
-suak, erori zanean;
orixe gertatuko da Giza-
-Semearen egunean.

1260

Gauzak artzera ez bedi sartu
etxe gañean dagona,
zerbaiten billa ez etxeratu
landan ari dan gizona.
Oroitu Loten emazteari
an gertatu zitzaiona,
ordu estu artan bereziko
baidira txarra ta ona.

1261

Galduko baidu bere bizia
gordetzen saiatzen danak,
salbatuko du berriz bizia
egiz eskeintzen duanak.
Ordu artan bi lagun egongo
dira batean etzanak,
bertan utziko dute bietan
bat, bestea eramana.

1262

Bi emakume ariko dira
beren eiera-lanean,
bat artuko da ta utzi berriz
bestea aldamenean.
Erne egon zaitezte, bada, Giza-
-Semearen egunean,
ez baidio iñork ari antzik
emango datorrenean”.

1263

Entzuten zegon jende guzia
Jesusen itzen larrira,
ixil-ixilik begi-belarri
zegon begira-begira.
“Ori non, Jauna?” galde zioten.
“Gorputzak dauden tokira
–erantzun zien Jaunak– zeruko
arranoak biltzen dira”.

Epailari maltzurra eta alarguna

1264

Otoitza gauza bearra dala
goi-laguntzak irixteko,
gizonok ezer gutxi gerala
zirikaldiei eusteko,
aspertu gabe gau t’egun beti
otoitzean irauteko,
alegi au jarri zuen bere
indarra erakusteko.

1265

Epailari bat bazan maltzurra,
ajol gabeko lasaia,
Jainko-beldurrik gabekoa ta
lagun urkoen etsaia.
Alargun batek eskatzen zion:
‘Egin zadazu epaia;
zuzenbide au egiteko ba-
-dezu gaur gero garaia’.

1266

Alargunak nai, besteak ezetz,
biak zeukaten kataska;
alarguna an zun utsikan gabe
beti oiua ta marraska:
‘Egidazu zuzenbide, jauna’.
Egin zuen nazka-nazka:
‘Egingo diot, bada, etzaidan
arpegirik arramaska’.

1267

Epailari maltzur arek egin
bazion alargunari
eskatzen zuna, gure Jainkoak
nola ez egin eskari
itxaropentsu ta maitasunez
deika datorkionari?
Baita berela emango dio
eskatzen duna berari”.

1268

Baña ondoren illun da goibel
Maisuak, kexka txarrean,
au esan zuen, entzuten zeuden
judu guzien aurrean:
“Giza-Semea, ordea, berriz
mundura datorrenean,
arkituko al du sinismenik
gero lurraren gañean?”.

Parisai ta zergaria

1269

Orduan ere gaurko antzera
baziran gizon arruak,
beren lagunak ez bezelakotz
zeuzkaten beren buruak.
Berdintz au jarri zien Jesusek
jakin zezaten juduak,
arek ederki ikusten zitula
parisaitarren barruak.

1270

Bi gizon igo ziran bein batez
Jaungoikoaren etxera:
fariseo ta zergalaria,
biak otoitz egitera.
On-itxurako parisaitarra,
biotzez arroa bera,
otoitz egin zun garbi azalduz
bere barruko aukera.

1271

‘Biotz-biotzez eskerrak, Jauna,
badakizu ez naizela
nere atzean dagon zergari
ori dan bezin ergela.
Astean bitan barautzen det nik,
legeak dion bezela;
ta gauza guzien amarrenak
ordaintzen ditut berela’.

1272

Zergari ura atzean makur
an geratu zan urruna,
begiak gora jaso-beldurrak,
lotsati, biotz illuna,
bularra joaz, erakutsirik
egizko damutasuna,
ziola: ‘Urrikal zakizkio
pekatari oni, Jauna!’.

1273

Nik diozuet: au barkatua
biurtu zala etxera;
bestea, berriz, sartu zan baño
pekatariago atera.
Goratzen dana beratuko da
parisau onen antzera;
goratuko da, berriz, umilki
makurtzen dana beera”.

Jesus bere Jainkotasunez

1274

Garai batean Jerusalengo
jabe egin zan etsaia,
Makabearrak eskatu zuten
garaipen orren amaia.
Arrotzen mende zikindutako
eliz eder ta tantaia,
bedeinkatu zuten eguna zan
eliz-sagaratze jaia,
beti urtero ospatzen zana,
negua zuen garaia.

1275

Eliz-sagaratze jaiak. Jetxi
zan Maisua jauretjera,
zetozeneiri bere Aitaren
jaurgoaz itzegitera.
Asarre xamar urbil zaizkion
parisaitarrak aurrera:
“Beti zalantzan gauzkatzu; esan
garbi: Mesias al zera?”.

1276

Maisuak ala erantzun zien:
“Esan dizutet askotan,
izketan jardun geran lekuan,
amaika erri-txokotan,
eliz ontara etortzen naizen
aldiro ere Pazkotan.
Bañan alperrik: egirik ezin
sartu da zuen kaskotan.

1277

Nere Aitaren izen santuan
egindako mirariak,
oietzek dira nere aitormen
egiten duten argiak.
Zuek, ordea, ez sinistu nai
ageri diran egiak;
eta zergatik? Ez baizerate
nere bordako ardiak.

1278

Nere ardiak aditzen dute
nere deia, nere itza;
ezagutzen ditut ondo danak,
nere ondoren dabilta.
Ez dizkit inork arrapatuko,
zainduko ditut nik aixa;
azken egunean nik emango
diet betiko bizitza.

1279

Aitak berberak emanak ditut
ardi auk, ala naita;
ezin eraman lezazke inork
auk Ari ebatsita.
Eman dizkidan Aita guziak
baño aundiago baita,
bene-benetan nik diozuet
bat gerala ni ta Aita”.

1280

Arri kozkorak artu zituzten
aiek beren asarrean,
Jesusek die: “Ainbeste lan on
egin det zuen aurrean
Aitaren indarrez. Zerengatik
zabiltzate gogorrean
egoskor oiek, ajolik gabe,
arrika ni il bearrean?”.

1281

Juduak ala erantzun zuten
asarre, danak batera:
“Egindako lan on oiengatik
ez gatoz arrikatzera.
Biraoka ari zeralako zu
erotu baten antzera,
gizon argal bat izan ta zertan
Jainkotzat azalten zera?”.

1282

Jesusek, berriz: “Nere itzetan
ez dago gezur-izpirik;
‘Jainko-seme naiz’ esanagatik
zertako artu arririk?
‘Jainko-seme zerate’ ez dago
liburuan idatzirik?
Ori bera esan detalako
al zabiltzate ni il nairik?

1283

Jainko-seme badira aren itza
zaielako adirazi,
mundu ontara Jainkoak berak
bialita danak jatxi,
'Jainko-seme naiz' esan dulako
orrela zertako asi?
'Biraoka ari da gizon ori'
zertako egin karrasi?

1284

Ez neri sinistu, ez baditut
egiten Aitaren lanak;
egiten baditut, berriz, neri
ark egiteko emanak,
nigan Aita, argan ni nagola
jakin dezazuten danak.
oiei sinistu, naiz ez izan nai
sinistu nere esanak.

1285

Arrapatu nai zuten berriro,
baña tartetik atera
ta igesi joan zan lasai andik
Jordango beste aldera,
lenago Joan bataiatzen jardun
zan itxaso-bazterrera,
amorratuta zeudenetatik
basamortuko pakera.

1286

Andik-emendik jenderik asko
urbildu zan arengana,
ala zioten: "Joanek etzuan
miraririk egin, baña
egia erten da onengatik
arek esan zuen dana".
Gizon ugari bazebillen an
argan sinisten zuana.

Ezkontza ezin urratua

1287

Maltzur-maltzurak urbil zaizkion
ondora parisaitarrak,
beti sallean, zirikatzeke;
etzun biotzik bakarrak.
Ala galdetu zioten zorrotz
zirikatzeke azkarrak:
"Edozergatik utzi lezake
bere emaztea senarrak?".

1288

Beti bezela Maisu otخانak
legera jo zun zuzena;
galdegin zien: "Zer da legean
Moisek idatzi zuena?".
"Utzi aurretik agiritxo bat
idazten bazan aurrena,
andrea etxetik bialtzeko
Moisek eman zun baimena".

1289

Jesusek ala erantzun zien:
"Badakizuten bezela,
gizona sortu zunean, arra
ta eme egin zituela
gure Jainkoak; ta bikotea
bedeinkaturik berela,
une berean itz zorrotzakin
ala agindu ziela:

1290

'Utzi zitu bada gizonak
bere aita eta ama,
eta bilduko da betirako
bere emazteagana.
Alkarnatu ta bat egin dute
lendabizi bi zana;
beraz, ez dira orain bi lagun:
bat egin dute; ez bana".

1291

“Eta zergatik Moisek legean orrela agindu zuan?”.
Zuen biotzen gogortasuna ondo zedukan goguan.
Nork bere emaztea uzteko erreztu zuen orduan,
asieratik etzan ordea ori orrela munduan.

1292

Bene-benetan nik diozuet jakin dezazuten dana:
baldin norbaitek utzitzen badu emazteztako daukana,
lizunkeriagatik ez bada, urbil beste batengana,
ezkontza austen du; berdin onek: utzia artzen duana”.

1293

Etxean berriz ikasleak gauz beraz zioten galdegin.
“Berea utzi ta beste batekin ezkontutzen dan edozein,
ezkontz-ausle da; onek utzi dun emaztea ere berdin,
au bizi dala, ezkontzen bada beste gizonen batekin.

1294

Apostoluak Jesusen itzak zituztenean aditu,
ezkontzea ain zalla zalako etziran gutxi arritu.
Ala zioten: “Ezkontzeak ain lotura estuak baditu,
ez al du askoz obe izango batek mutil zar gelditu?”.

1295

Jaunak erantzun zieten: “Ori ez dute ulertzen danak,
asko badira gizonengatik ala geratu diranak.
Besteak zeru-jaurgoagatik beren buruak emanak”.
Ondoren oiue egiñaz dio: “Uler beza al duanak!”.

Jesus eta aurrak

1296

Andik berela aur txiki batzuk amak zituzten ekarri,
jende artetik pasa ondoren Jesusen oñetan jarri:
bedeinkatzeko buru gañean eskuak zitza ezarri.
Apostoluak asarre zeuden, galerazi nairik, larri.

1297

Ekartzalleak uxatu nairik zituanean ikusi
bere ikasleak purrustaka, naigabetu zan; ez gutxi.
“Ez galerazi umetxo oiei, nigana etortzen utzi”.
Ume garbiak poza ematen zioten beti Jesusi.

1298

“Auen antzeko diradenentzat baida zerua egiña,
aurtxo biurtzen ez dana ez da zeru-jaurgorako diña”.
Bedeinkatu ta laztan ondoren urrun zan andik ariña
beste batera, leku askotan baizeukan non itzegiña.

Zerua nola irabazi

1299

Andik bidera erten orduko
gizaseme eder bat ona
urbiltzen zaion, bere aurrean
auspez jarririk gizona.
Apal-apal ta modu onean:
“Esaidazu, Maisu ona;
zer egin bear det irixteko
betirako zoriona?”.

1300

Jesusek ala erantzun zion:
“Zertan ona deitzen nazu?
Eta on ori zer dan zergatik
neri galdetzen didazu?
Ona Jainkoa bakarra dala
gaurtikan ikasi zazu;
sar nai badezu zorionera
legeak gorde itzazu”.

1301

“Agindu oiek zein ta zein dira?”
gazteak zion galdegin.
“Ezkontzik ez autsi, iñor ez il,
lapurretarik ez egin,
ez gezurti izan, aita’amak maita;
oiek betetzearekin,
zalantzik gabe, gazte, betiko
bizitza dezu zurekin”.

1302

Mutil gazteak etzeukan ori
esango zion usterik,
eta berela erantzun zion:
“Ori guzia gazterik
asita, Maisu, gaurdaño daukat
bear bezela beterik.
Maisua esaidazu ea zer
egin nezaken besterik”.

1303

Maitatu zuen Jaunak mutilla,
etzan gezurretan ari.
“On-ona izan nai bazenduke
—esan zion gazteari—,
saldu dezuna ta eman dana
ondoren beartsuari;
izango dezu goian gordairu
ona, ta jarraitu neri”.

1304

Eskari ori entzun orduko,
gizasemea, apalki,
buru-makur ta naigabetua
zegon lekutikan jaiki,
ixil-ixilik, triste, joatea
andik zuen erabaki.
Jaunaren deirik etzun onartu,
txit aberatsa izaki.

Ai aberatsak!

1305

Gaztea triste andikan joaten
ikusi zuen orduan,
jende ugari nola baizeukan
entzun nairik inguruan,
Maisuak esan zien zeudenei:
“Eduki beti goguan:
ai, aberatsak nekez sartuko
dira zeruko jaurguan!”.

1306

Entzule danak arritu ziran
itz aiek entzundakuan,
Maisuak esan zuen berriro:
“Jaso zazute goguan
nekez sartuko dirala oso
zeruetako jaurguan,
beren biotza ondasunetan
jartzen dutenak munduan.

1307

Berriz ere berdin diozuet
—Maisuak bekoki laño—,
ene maiteak, artu gogoan
ta ez aztu egundaño:
aixago pasako da, aberatsa
zeruetan sartu baño,
kamellu bat orratzaren begi
batetikan besteraño”.

1308

“Nor sartuko da beraz zerura?
ikasleak ziotena.
Maisuak eman zien berela
orren erantzun zuzena:
“Jainkoak egin lezake aixa
gizonak ezin dutena;
gizonarentzat eziña dana
Jaunarentzat litekena”.

Gogozko beartsua

1309

Orduan Pedrok itzegin zuen:
“Ona! Utzi degu dana!
Ta zuk eskatu diguzulako
etorri're zuregana.
Erririk erri zure ondoan
gabiltza Judeak barna,
Zer izango da guretzat, Jauna,
ori danaren ordaña?”.

1310

“Bene-benetan nik diozuet:
zatoztenak jarraiz neri,
Giza-Semea pizten danean,
jaurgo-aulkian exeri,
beste aulkitxo bana emango
zaizute ere zueri,
izan zaitezten Israeleko
jendearen epailari.

1311

Ta neregatik gauz ta maiteak
emen uzten dituztenak,
betiko bizitza, ta gañezka,
zerbait utzi duten denak.
Orain lenengo diran batzuek
izango dira azkenak;
orain azkena ditugun asko,
berriz, orduan lenenak.

Mastiko langilleak

1312

Egunsentian langille billa
atera dan nagusia
bezelakoa degu zeruko
jaurgoaren irudia.
Langille batzuk bialtzen ditu
ematekotan saria
bere mastira, denario bana
jarririk bere neurria.

1313

Ordu gutxira joan zan berriro
nagusi jauna errira,
gizon batzuek arkitu zitun
erri-kalean begira.
Au esan zien: ‘Zoazte zuek
ere gaur nere mastira,
ta sarituko zaituztet gero
tokatzen zaigun neurrira’.

1314

Seigarren ta bederatzigarren
orduan joan zan plazara,
langille asko arkitu zitun
sartu ordurako ara.
‘Zoazte zuek ere emendik
nere masti xar artara,
illundu arte jardun zazute,
zuentzako ain lan bada’.

1315

Amaikagarren ordura berriz
joan zan masti-zale jauna,
asko an zeuden zai exeririk
lasai belaunik belauna.
‘Nolaz ordea daramazute
alperkerian eguna?’.
Nere mastira joan, ordainduko
dizutet zuzen zaiguna’.

1316

Illunabarrez masti-jabeak
zion: ‘Ordainketa egin
–artadunari–, denario bat
eta danentzako berdin’.
Azkenekotik lenbizikora
eskeñia bete zedin,
azkenekoak bialti zitun
denario banarekin.

1317

Aurrenekoak etorri ziran
ordain-lekura berela,
ustez seguru zeuden geiago
noski emango ziela.
Egun guziko neke ta zama
aiek igaro zutela,
baña denario bana ar zuten
azkenekoak bezela.

1318

Artu orduko gaizki esaka
guziak zioten ekin:
‘Azkenekoak ordubete lan
besterik ez dizute egin.
Egun guziko nekea pasa
degun langille auekin,
nola berdindu dituzu oiek,
danok sarituaz berdin?’.

1319

‘Adiskidea –onek erantzun–,
etzegok ongi esana;
ez al genian bada itzezin
biok denario bana?
To, ar zak ori, esan bezela,
ori dek irea dana;
edo iretzat gaizki al zegok
ni oparoa izana?’.

1320

Abotsa jasoz, txutik jarrita,
ingurukoei begira,
betiko lelo ulerkaitz ura
atera zuen argira:
“Orrela azken ziranak joango
dira lenengo tokira,
aurrenekoak ziranak berriz
azken geratuko dira”.

Lazaro gaixo

1321

Sendi eder bat bazan Maisuak
asko maitatzen zuena,
sendi aberats, sendi ongille,
Betanin bizitzen zana.
Urte oietan ostaturuz etxe
artara askotan joana,
zorionsua zan sendi artan
Jesusen biotz otxana.

1322

Iru senidek osatzen zuten:
Marta, Mari ta Lazaro;
guraso gabe iru bakarrik
bizitzen ziran luzaro.
Jerusalendik zijoanean
andikan Jesus igaro,
maite zuten auek ere Jesus,
onentzat bazan oparo.

1323

Parisaitarren etxe batean
Jesus gantzutu zuena
zuten Maria, sendi artako
alabarik gazteena.
Gaixo zeukaten bada Lazaro
beren anairik zarrena,
aizpen babesa eta etxeke
buruzagi zeukatena.

1324

Bazekiten non zebillen Jesus:
andikan naiko urruna;
mandatari bat bial zioten
Jesusi, esanaz: “Jauna,
oso gaixorik dago Lazaro,
zuk ainbat maite dezuna”.
Zai zeuden bada noiz iritxiko
Maisuaren erantzuna.

1325

Maisuak berri ori entzunik
orrela zien itzegin:
“Ez ikaratu, gaixo ori ez da
joango ondoez orrekin.
Nere Aitaren aintzarako da:
ni ara urbildu bezin
azkar, Jaungoikoaren Semea
goratua izan dedin”.

1326

Jesusek asko maitatzen zitun
Marta, Mari ta Lazaro:
ala ere leku artan bertan
bi egun zitun igaro.
Badago zer egin, Jesusentzat
arako presik ez dago;
asko laguntzen badiote ere
ordainduko du oparo.

1327

Ondoren esan zien ikasleei:
“Goazen danok Judeara”.
“Andik igesi etorri giñan,
zergatik joan berriz ara?”.
“Amabi ordu ez dira argiak?
Oietan ibiltzen bada,
ez da oztopo-beldurrik, ondo
ikusten da argitara”.

1328

Lazaro oso gaixo zegola
esan ta bi egunera,
die Jaunak: “Lo dago Lazaro,
banijoa esnatzera”.
“Lotan badago sendatuko da,
Jauna, gaixoa atzera;
gaizki ibili ziñuzten lekura
berriz zertan joango zera?”.

1329

Il zala esan nai zun Maisuak
“loak artu du” orrekin;
beldurak zeuden apostoluak,
etzuten ezer nai jakin.
Baña ondoren Maisuak argi
ta garbi zien itzegin:
“Lazaro il da, orain atozte
danak beregan nerekin.

1330

Lazaro il da ta zuengatik
pozten naiz an ez izana,
an gertatzen dana ikusirik
sinista zazuten dana”.
“Goazen gu ere Jesusekin
il gaitezen” arengana
lagunak bultza nairik asi zan
Tomas, *Bixki* zeritzana.

Betani bidean

1331

Apostoluak bazeuden ere
araño joateko izu,
Jerusalengo bidea artu
zuten danak itxu-itxu,
parisaitarren zemai-beldurrik
gabe ikasle ta Maisu,
Jesus berekin zuten bitarte
danetako ausarditsu.

1332

Atsekabetan egongo ziran,
bazuen aien kupira;
itzal aundiko pausoan joan zan
ainbat maite zun sendira.
Jesus iritxi zaneko bada
bereekin Betanira,
lau egun ziran Lazaro il da
sar zutela illobira.

1333

Jerusalendik inguru xamar
zegen Betani erria,
sendi au nola zan ezaguna
ta oso maitagarria,
inguru artan jakin zaneko
au il zanaren berria,
jende asko zan bi aizpengana
laguntzera etorria.

Marta ta Jesus

1334

Jakin zuneko bazetorrela
Maisua beren etxera,
Mari utzita laxterka erten
zitzaion Marta bidera.
Jende artetik urbil zanean
Jesus onaren aurrera,
auspez jarririk agurtu zuen
ta esan zion minbera:

1335

“Zu emen izan baziña, etzan
ilko anai ori, Jauna;
baña badakit Jaunak emango
dizula eskatzen dezuna”.
“Zure anaia piztuko da”. “Bai,
badakit: azken eguna
datorrenean” berela Martak
eman zion erantzuna.

1336

“Ni naiz berpiztea ta bizia,
goiztk naizena etorri;
nigan sinisten duna piztuko
da, naiz-ta illa erori.
Eutsiko diot nigan sinistuz
bizi dan gizon orori,
eta zuk, Marta, sinisten dezu
esan detan guzi ori?”.


1337

Martak erantzun zion bizi-
ro: “Sinisten dizut, bai, Jauna,
zu zerala Jainko biziaren
Seme, Ark bial zaituna”.
Ori esanik etxera joan zan
jendea arteak barruna,
aizpari zion: “Maisuak deitzen
zaitu; ez dago urruna”.

Mari ta Jesus

1338

Mariak ori entzun zuneko
zutitu zan bat-batean,
itzik iñori trukatu gabe
laxter jarri zan bidean.
Martak itzegin zion lekuan
zegoen Maisua artean,
naiko naigabe miña bazegon
Mariren biotz maitean.



1945

Bizkar gañean jarri zioten zokoan zegoen purpura,
arantzazko koroi mingarri bat sar indarrean burura.
Bazter batean billatu zuten kañabera bat eskura,
deabru oiek ipiñi zuten errege baten modura.

1339

Sendi maite ta ezaguna, il
zala jakin zutenetik,
jende ugari etorria zan
ara Jerusalemetik.

Maria bada erten zanean
presaka bere etxetik,
illobira zijoalako askok
jarrai zioten atzetik.

1340

Naigabe artan etzuten bada
gaixoa bakar utziko,
ari jarraituz etzan bestela
ainbat jende etorriko.
Ikus zuneko, bere oñetan
erori zan belauniko:
“Jauna, zu emen izan baziña,
gure anaia etzan ilko”.

1341

Eta Maria negarrez asi
zan Maisuaren oñetan,
au ikusita lagunak ere
negar zegiten benetan.
Korapillo bat lotu zitzaion
Jesusi biotz-muñetan,
malko ixillak dizdiz zegiten
Maisuaren begietan.

1342

“Zenbat maite zun! –zioten danak
au negarrez ikusirik–;
onek ez ditu bada ainbeste
lepradun utzi garbirik?
Ainbeste urgun ibilkari ta
ainbeste itxu argirik?
Ezin al zuen lagun maite au
il gabe gorde bizirik?”.

1343

Barrun-barrundik dardaratu zan
Jesus onaren biotza,
ta malkoak zerizkiola: “Non
jarri dezute?” diotsa.
“Etorri, bai, ta ikusi zazu;
gañean dauka ar-losa”.
Lau egun luze an zeramazkin
Lazaro zanak illotza.

1344

Arri bizian egiña zegon
Lazaroren illobia,
ondo gantzutu, zapiz bildua,
an zeukaten eortzia.
Maisuak laxter agindu zuen:
“Kendu zazute arria!”.
Zer gertatuko ote zan bada?
Jendeak zeukan larria.

1345

Martak, illaren arrebak, zion
itz auek entzun da gero:
“Lau egun luze or daramazki,
usteldu da onuzkero”.
“Ez dizut esan, Marta, Jaunaren
aintza, sinistu ezkero,
ikusiko dezula?”. “Badakit”
erantzun zun Martak bero.

Jesusek Lazaro pizten du

1346

Arri-los aundi ura kenduta
Jesus asi zan esaten:
“Eskerrak, entzun didazulako,
Aita, dizkitzut ematen.
Ez neregatik, ori banekin,
auek ikusi dezaten,
zuk bialia naizela onuntz
danak sinistu nazaten”.

1347

Lazaro ar-lospean zegola
lau egun ziran igaro,
zapi txuritan ongi bilduta
kirats dariola dago.
Jendea berriz zer ikusiko
zegon, baña ez luzaro:
ozenki oi u egin zun Jaunak:
“Erten kanpora, Lazaro!”.

1348

Bereala er ten zan illobitik
lau egun aietan illa,
esku ta oñak loturik arren
txutik lasai badabilla.
Jendea larri urduri zegon,
ixildu zan iskanbilla,
etzekin zer esan, zer pentsatu,
ikaraz ixil-ixilla.

1349

Mututu ziran ta ezin zuten
ixiltasun ura autsi,
begiak aruntz-onuntz zebiltzan
bein Lazaro, bein Jesusi.
Noizbait Jesusek itzegin zuen:
“Askatu ta joaten utzi”.
Orra Jesusek Jainkoa dala
garbi asko erakutsi.

1350

Ugari bazan Jerusalendik
etorritako jendea,
mirari onen aurrean askok
iritxi zuten fedea.
Bazan ordea beste talde bat
maltzurra, amorrüz betea,
apaizburuengana joan zana,
sinismen aundi gabea.

Juduen batzarra

1351

Sanedrintarrak bildu zituzten
berela batzar aundira:
“Orrek mirari asko dagizki,
alperrik gaude begira.
Danak sinistuko dute uzten
badiogu jira-bira,
eta orduan erromatarrak
onuntz etorriko dira:
jendea il ta ondamendia
ekarriko dute errira”.

1352

Kaifas zeritzan apaizburuak
esan zun txutik jarrita:
“Erriagatik gizon bakar bat
iltzea ohea baita
erri osoa galtzea baño”.
Apaiz buru izaki ta
egi eder au esan zuen, ez
berez, baizik igerrita.

1353

Etzan izango beren erria
bakarrarengatik illa,
mundu guzia birrerosteko
ilko zan Maisu umilla.
Ordu ezker o erne zebiltzan
aukera on baten billa,
bazter batera ezkutatu zan
ordea Jesus ixilla.

1354

Jaunak ikasi zuen eriotz-
-pena eman ziotela,
Efren aldetik basamortura
ezkutatu zan berela.
Egun batzuak ikasleekin
sendi batean bezela
pasa zituzten, juduengandik
iges egiñik orrela.

1355

Pazko eguna gañean zuten,
asko Jerusalemenera
aldez aurretik jetxitzen ziran
garbiketak egitera.
Jesusen billa zebiltzan auek,
danak zioten gauz bera:
“Juduen beldur ez da etorko,
noski, ez, jai-egunera”.

1356

Alkarrengana bilduta danak
jarduntzen ziran esaten,
ari zalako Jesus erria
beregana eramaten,
apaizburu ta parisaitarrak
nola agindua zeukaten:
ikusten zunak abisatzeko
Jesus atxitu zezaten.

Bere nekaldiaz mintzo

1357

Etzuten Jesus asko beldurtu;
judutarren Pazko-jai
Jerusalenen ospatuzeko
etorria zan garaia.
Beldurrik gabe an azaldu zan
gure Maisua, lasaia,
egun oietan beteko zuen
bere aspaldiko naia.

1358

Danen aurretik zijoan Jesus
Jerusalengo asman,
apostoluak atzera naika,
beldurrak, bere onduan.
Bere albora bildu zitun ta
kontatu zien orduan
zer gertatuko zitzaion laxter
jaurettxera joandakuan.

1359

“Lotuko naute. Sanedriner
izango naiz eramana.
Eriotz-pena eman ondoren
emendik jentillengana.
Auek zigortu ondoan gero
gurutzean josi, baña
iru egunera piztuko naiz,
ala baidago esana”.

1360

Askotan esan zien Maisuak
eguna joan ta etorri,
bañan alperrik: ikasleentzat,
illuna, *griego* zan ori.
Olako gauzik buruan ezin
sartu zitzaion iñori,
aiek etzuten entzun nai ere
Jesus zeikenik erori.

Zebedeotarrak

1361

Iru urte luze zeramazkiten
Jesusekin ikasleak,
baña zertako munduratu zan
ondo ikasi gabeak.
Jaurgo aundi bat egingo zuten,
mundu guziko jabeak,
amets orrekin txoratu ziran
ikasle aundi-zaleak.

1362

Mundu ontako jaurgoa zala
uste zuten bada dana,
orretxegatik urbil zitzaion
Santio ta Joanen ama,
bere semeak ondoan artu,
eskari Jesusengana.
Aietxek biak danen gañetik
ikusi naiak darama.

1363

Maisuak ura ikus zuneko
agurka bere onduan,
“Zer nai zenduke?” galdetu zion
aien amari orduan.
“Bi seme auek –onek erantzun,
amak dakiten moduan–
exer itzatzu ezker-eskubi
zure betiko jaurguan”.

1364

“Ez dakizute zer didazuten
eskatzen –entzun zuneko,
Maisu maiteak erantzun zien–
ori neri eskatzeko.
Gauz ote zerate nere edal-
-ontzitan edateko?
Edo laxter nik artuko detan
bataioz bataiatzeko?”.

1365

“Badezakegu” erantzun zuten
bi anai ausarditsuak.
“Ori noski badezakezute
–erantzun zien Maisuak–.
Baña jaurgoan ezker-eskubi
aukeratzeko lekuak
ez da nere gain, bereziak
baidauzka Aita Jainkuak”.

1366

Ori entzunik, beste amarrak
asi ziran marmarrean,
orrela beste guziak uzten
baizituzten baztarrean.
Jaunak orduan ondora deituz,
asarretu bearrean,
erakusbide bikain bat eman
zien pake ederrean.

1367

“Munduko berri badakizute:
geienak morroi daudela,
auei agintzeko nagusiak
eskubidea dutela.
Zuen artean ordea ori
ez bedi izan orrela,
aundien dana azaldu bedi
danen mendeko bezela.

1368

Gizasemea ez da etorri
serbitua izatera;
garbi ikusten dezuten bezela:
mendekoak serbitzera,
erosi-sari bere bizia
danengatik eskeintzera”.
Olaxe danak jolas ontan sar
ziran Jeriko xarrera.

Itxua sendatzen

1369

Jerikora urbil ziraneko
bakar, bide-bazterrean,
itxu gaixo bat jarrita zegon
zeturrenari eskean.
Jende-taldea bere aurretik
zijoala nabaitzean,
galdetu zien zer gertatzen zan
bere aurreko bidean.

1370

Norbaitek: “Jesus Nazaretarra
zeturrek bideak gora,
bere ikasle-salla berekin
dakarrela, Jerikora”.
Jesus urbildu baño len bera
eskean zegon ondora,
oiuka zion: “Jesus, Dabiden
Semea, nitzaz gogora!”.

1371

Bere aurretik zijoazenak
ixildu erazi naita,
kupirik gabe danak egiten
zioten zorrotz errita.
Itxuak orduan ta geiago
oiuka txutik jarrita:
“Jesus, Dabiden seme, urrikal
zaitea, itxua naiz ta!”.

1372

Jesusek deituz an etorri zan
besteren eskutik itxu,
urbil zaneko galdetu zion:
“Nik zer egitea naizu?”.
Bizi erantzun zion itxuak:
“Ikus dezadala, Maisu!”.
“Ikusi zazu, zure fedea
benetan on egin dizu”.

1373

Esan orduko ikusten zuen,
ura itxuaren poza!
Jauna goratuz eskertsu zeukan
Jesusengana biotza.
Ingurukoak ori ikusirik,
goraka ango abotsa;
danak alaitu ziran benetan,
an iñor etzan arrotza.

Zakeo

1374

Erromatarren mendean zegoen
aspaldin judu-erria,
jakiña, zerbait ordain bearra
zeukaten auek jarria.
Ori biltzeko ia erriro
bazan norbait zergaria,
judutarrentzat billau, maltzurra,
benetan pekataria.

1375

Gogo txarretik zeuden juduak
erromatarren mendeko,
eta juduak ziran gizonak
zerga-dirua biltzeko;
judu jatorrak etzun gogorik
jende oiekin nasteko,
aien lagun izatea aski zan
pekataritzat jotzeko.

1376

Oietako bat zan Jerikoko
gure Zakeo txikia,
erri artako zergari danen
buruzagi nagusia.
Oso aberats, baña erri xar
artan gaizki ikusia,
Judean ala zan etsaizentzat
lan egiten zun guzia.

1377

Bazun ark ere Maisu entzuna
nolabait ikusi gura,
txikia zan ta ezin iritxi
zergari aberats ura.
Ajolik gabe igo zan piko
xar baten adar-burura,
andik ikusiko zula Jesus
berak nai zuen modura.

1378

Pikopetik zijoan Maisuak
begiratu zuenean,
an ikusi zun gure Zakeo
piko xarraren gañean.
“Zakeo, jetxi zaitea ortik,
gaur ostatur zuenean
geratuko naiz”. Zakeok pozik
artu zun etxe barnean.

1379

Aren etxean sartu zalako
ura zan ango marmarra!
Arek egiten zuen guzia
gaizkitzat artu bearra.
Bañan alai ta pozik zebillen
Zakeo, zergari xarra,
biotz artan ere itsatsi zan
Jainko-maitasun-indarra.

1380

Zakeo txiki eskertsu aren
etxera sartu zalako,
Jesusi dio: “Ona ondasunen
erdiak beartsuntzako;
norbaiti zerbait ostu badiot
berarentzat lau alako”.
Orrela garbi erakutsi zun
etzula ostutzen asko.

1381

“Gaur sartu da osasuna emen
–Zakeori zion esan–,
au ere, jakiña, Abraanen
semeetakoa baizan.
Giza-Semea galdu ziranak
billatzera etorri zan”.
Parisaitarrak gaizki esaka
leku onean zebiltzan!

Amar minen berdintza

1382

Jende ugari zeukan Maisuak
inguruan marmarrean,
zalantzik gabe aietan ere
ez danak fede txarrean.
Gaizki esanen beldurrik gabe
ta ixildu bearrean,
berdintz txiki au kontatu zien
danei pake ederrean.

1383

Gizon aundizki bat atera zan
urrutiko lurraldera,
ango gizonen eskutik bere
erregetza artutzera.
Amar morroiak deitu zituen
lenengo bere aurrera,
berriz etorri arte zer egin
bear zuten esatera.

1384

Joaterakoan eskeñi zien
bakoitzari mina bana,
itzuli arte diru orrekin
emen egiteko lana,
zetorreanean jasoko zula
mina ta arek emana.
Orduan joan zan erritik urrun
adiskide batzungana.

1385

Bere erritarrak asarre zeuden
gizon egoskor arekin,
mandatariak bial zituzten
enkargu zorrotz onekin:
‘Ez degu emen iñork ere nai
ori errege jar dedin’.
Bañan alperrik eskatu zuten,
au errege zuten egin.

1386

Andik itzuli zanean bada
au erriko errege zan,
bere morroiei kontu artzea
lenengoa erregetzan.
Len emandako minaz gañera
irabazirik ote zan,
beren aotik argi ta garbi
guzia ikasi zezan.

1387

Lenengoak ala esan zion:
‘Mina bat zenidan utzi;
beste amar nik irabaziak’.
‘Ongi dago; ez da gutxi.
Gauza txikitan txintxo zera,
garbi dezu erakutsi,
jarri zaitez bada orain nere
amar erriren nagusi’.

1388

Bigarrenak ala esan zion:
‘Mina bat artu nun, jauna;
orra beste bost geiago, nere
lanak aurrerratu duna’.
‘Ederki dago, morroi zintzoa,
minakin egin dezuna;
ar zazu bada orain nere bost
erriren jabetasuna’.

1389

Irugarren bat etorri zan ta
esan zion ausarditsu:
‘Gizon garratza zera, badakit;
erein gabe badakizu
biltzen, argatik ez galtzeko ez
det jokatu itxu-itxu;
zapian gordea eduki det,
zurea dana torizu’.

1390

‘Erorren itzez galtzen aiz, motell,
morroi alper ta ergela;
esan dekanez, ondo badakik
gizon garratza naizela,
eta erein gabeko lekuan
uzta bildutzen detela.
Zergatik ez dek diru-maietan
jarri besteak bezela?’

1391

Kendu min ori –esan zion– ta
eman amar dauzkanari’.
‘Orrek len ere amar baditu’
zioten. ‘Asko dunari
emango zaio geiago ere
–zion erregek–, ugari;
kendu egingo diote, berriz,
pixarra, ez daukanari’.

1392

Erregek berriz agindu zuen
zorrotz bere asarrean:
‘Ni errege nai ez niñutenak
ekarri onuntz lorrean.
Ta bereala erruki gabe
il danak nere aurrean’.
Berdintz au bukatu ta urrun zan
Jerusalengo bidean.

Itxu bat sendatzen

1393

Bartimeoren seme Timeo,
itxua, bide-ertzean,
beti bezela, zetozeneiri
deika ari zan pakean.
Nazaretarra Jerikotikan
Jerusalenuntz joatean,
jende askoren abots-zarata
nabaitu zuen atean.

1394

Nazaretarra zetorrela ta
laxter asi zan oiuka,
jendea berriz ixil erazi
nairik berakin burruka.
Arek orduan eta geiago
egiten ziela aurka:
“Dabiden Seme, urrikal nitzaz,
itxu gaixo bat nauzu ta!”

1395

Aren oiuaak entzun orduko
urrikaldu zan Maisua,
deitzen zuela ta etortzeko
artu zuen abisua.
Soñeko xarra aidean jauziz
salta zan andik itxua,
bide ondoan zai zeukan Maisu
onarengana txintxua.

1396

“Zer nai zenduke nik egitea?”
galdetu zion berela;
itxuak ere laxter eskatu
oitua zegon bezela:
“Zer eskatuko dizut? Ikusten
nauzu itxua naizela?
Ikusi nai det, nere begiak,
Jauna, zabal ditezela”.

1397

Jesusek berriz: “Zure fedeak
benetan on egin dizu;
nik ere nai det: sinisten dezun
bezela gerta bekizu”.
Bertan argitu zan eskalea,
eskerrak emanaz, Maisu,
ondoren alai joan zan, eskari
jarduna luzaro itxu.

Madalena ta Jesus

1398

Juduen Pazko-jai iritxi
baño sei egun lenago,
Jerusalendik igesi Jesus
Betani xarrean dago.
Egun batzuk len sendi on artan
piztu baizuen Lazaro,
atea beti zabalik dauka,
danetik bada oparo.

1399

Apari on bat eskein zioten
esker emanaz Jesusi,
au maiburuan, Marta mirabe,
anai Lazaro ta guzi.
Maite zutela nolabait ere
nai zioten erakutsi,
maia gañezka, pakean danak,
maitasuna zan nagusi.

1400

Apalondoan, ontzi txiki bat
eskuan, sartu zan Mari,
usai gozozko gantzuz betea,
Akaratik zun ekarri,
garai artako onexkoena,
ez baizan txantxetan ari,
biotz-biotzez eskeñitzeko
maite zuen Maisuari.

1401

Lerden ta txutik joan zan aurrera
iñoren beldurrik gabe.
Jendeak zerbait esango zula?
Or konpon, aurrera alare!
Jesus bakarra ikusten zuen
bere biotzaren jabe;
bere maitasun garbia azalduz
egin nai zion mirabe.

1402

Zabalduz ontzi garesti ura
oñak zizkion igurtzi,
buruko illez txukatu, gero
ontzi eder ura autsi.
Burutik bera ixuri zion
zeukan guzia Jesusi
azkeneko tantaraño; etzun
nai besterentzako utzi.

1403

Ixur zunean burutik bera
bere ontzizka osoa,
apal-lekuko barrun guzian
ura zan lurrun goxoa!
Etzan alare askorik poztu
maiean zegon otsoa,
beste askoren artean, laxter
egin zun bere zantzoa.

1404

Biotz gaiztoak beren grin txarrak
laxter zituzten azaldu,
ango marmar ta gaizki esaka:
“Alperrik zertako galdu?
Ez al ziteken gantzukaria
irureun dirutan saldu?
Ori guzia erri ontako
beartsueiri zabaldu”.

1405

Judas geiena nabarmendu zan,
Jesus salduko zuana,
onen marmarrak berotu zuen
maieko jendea dana.
Saldu balute gutxi joango zan
andik beartsuengana,
diru-zaitzalle berak ostutzen
baizun danentzat emana.

1406

“Zergatik zuen marmarra? –zion
Maisuak, kopet illuna–.
Zergatik artu bear dezute
gaizki ondo egin duna?
Gantzutu egin baidit gorputza,
ez dago oraintxe urruna,
gantzutu duen gorputz au illa
eortziko dan eguna.

1407

Aurrera ere beartsu-paltik
ez da izango munduan;
ainbeste maite badituzute
on egin, nai dan orduan.
Ni banijoa, ez nauzute ni
izango beti onduan;
nere gorputza aurrez gantzutu
dit berak dakin moduan.

1408

Ez naigabetu emakume au,
ondo egin du benetan;
gañera entzun zazute ondo
zer adierazten detan:
Ebanjelio au erakusten
dezuten leku danetan
esango dala onek egiña,
bere oroitzapenetan.

1409

Judutar askok Jesus Betanin
zebillela ikasirik,
ikusi nai zuten au ez-ezik
Lazaro ere bizirik.
Apaizburuak larri zebiltzan
Lazaro bera il nairik,
onengatik Jesusengana asko
zoazela ikusirik.

Ereñotz-eguna

1410

Azken ordua urbildu zaio,
Maisuak badaki ori;
maiz aipatu du ilko dutela,
ordurikan ez iñori.
Ez du igesi egin, ez dabil
goibel ta biotz erori;
bulartsu, bera da bere etsaien
eskuetara etorri.

1411

Jerusalendik kanpora dio
ez dala iltzen profetik,
argatik dator uri santura
bulartsu, danen aurretik.
Danen aurrean, ez du gorde nai
etsai maltzurren artetik;
bere ordua iritxi arte ez
dute jasoko lurretik.

1412

Betaniatik egun-bezperan
Olibadiko mendira,
oitu bezela, Jesus ta bere
ikasleak bildu dira,
andik batean danak jexteko
Jerusalengo urira;
aspaldietan zegon Maisua
ordu onixe begira.

1413

Beko errira biali ditu
bi ikasle aukeratuta:
“Zoazte, arkituko dezute,
erri-atean sartuta,
estrain gabeko ume batekin
ast-ama eder bat lotuta;
beldurrik gabe aska zazute
eta ekarri artuta.

1414

Zuek ikusi ta norbait asten
bazaizute kargu artzen:
‘Zergatik ari zerate ortik
nere astoa askatzen?’,
esan berari: ‘Jaunak bear du,
ortara gaitu bialtzen’.
Beste gabe utziko dizute
astoa onuntz ekartzen”.

1415

Igerle batek esandakoa
ederki betetzen zala:
“Begira zazu, eta alaitu
zaite, Siongo alaba,
non datorkizun uri santura
zure Errege mazala,
estrain gabeko ast’ume baten
gañean goxo ta apala”.

1416

Bidalitako ikasle biak
errira ziran berela,
eta guzia an arkitu zuten
Maisuak esan bezela:
umea aske, ama lotuta,
bide ondoan zeudela.
Igerle ona zan Maisua, bai,
urrun ikusten zuela.

1417

Askatzen asi ziran orduko
batek artu zien kargu:
“Zer zabilzate? Orrek munduan
ni beste jaberik badu?”.
“Jauna onen bearrean dala
ta billa gaitu bialdu”.
Erantzun zien. “Eramazute,
baldin Jaunak bear badu”.

1418

Biak eraman zituzten bada,
antolatu ere jator;
asto gañean jarri zan Jesus,
ikasle danak alaikor.
Esana zegon: “Ez ikaratu,
Siongo alaba, orra or
zuen erregea; astakume
baten gañean badator”.

1419

Ikasleak etzuten ulertu
zergatik zan lenbizian,
Maisua il da piztu ondoren
orduan oartu zian
gauz auek danak garbi zeudela
idatzirik aspaldian,
ta berak izan zirala buru
bere joan-etorrian

1420

Ikasle berak oartu gabe
eman zuten asiera,
Pazkotarako etorria zan
jende guzia batera,
Jesus zetorrela ikasirik
erten zitzaion bidera;
eundoko gizataldeak egin
zion maitasun-arrera.

1421

Maisua geldi-geldi astoan,
bedeinkatuz erri xarra;
jende guzia itxumustuan,
Jesus ixil ta bakarra.
Aren arpegi gozoan etzan
nabarmendu irriparra,
laxter baidauka erri xar artan
bizia eman bearra.

1422

Erri guzia eroa dabil
oiuka ara-onera,
Lazaro pixtu zunari egin
nairik eundoko arrera.
Orain goratzen duen erriak,
andik bost bat egunera,
or erasoko dio oiuka:
“Gurutzer! Gurutzer!”.

1423

Aurtxoak ere oartu ziran,
zerbait bazuten goguan:
bide ondoko zugaitzetatik
abarrak moztuz orduan,
“Gora Dabiden semea! Gora!”
deadar bere onduan;
ospatu zuten igerle ona,
merezi zuen moduan.

1424

Zugaitz-abarrak gora jaszoz an
zebillen erri geiena:
“Bedeinkatua Jaungoikoaren
izenean datorrena!
Gora Dabiden semea! Gora!
Gora igerle zuzena!
Pake ta aintza goietan!”. Baña
goibel Jesusen barrena.

1425

Lazaro piztu zunean Jesus
ikusi zuen taldeak,
asto gañeko Jauna goratuz
aizkatu zitun goi-beak.
Palma-adar ta soñekoz estali
zituzten ango bideak,
baña irripar goxorik etzun
egiten Jesus maiteak.

1426

Erriak Jauna sutsu goratu
zuen jaszoz palma-abarrak;
baña an zebiltzan ezin jasanik
tartean parisaitarrak,
arrera on ura galerazi
nairik, erretxin xamarrak.
Buru-austeak ziran aientzat
erriaren deadarrak.

1427

“Ez degu ezer irabazten guk
–zioten goibel alkarri–.
Jende guzia orrekin doa,
iñor gabe gera sarri”.
An eta emen banatu ziran,
gizalde artean jarri,
ango deadar eta oiua
galerazi nairik larri.

1428

Alperrik zala etsi ondoren
Jesusengana jo zuten:
“Oien deadar eta oiua
ez al dituzu entzuten?
Galerazi zaiezu”. Maisuak
orrela die erantzuten:
“Arriak itzegingo luteke
auei ez bazaie uzten”.

Jesus negarrez

1429

Jesusen aide eta lengusu
judutarrak ziran danak,
Judean bertan sortuak zitun
aita-ordeko eta amak.
Bera an jaio zan, ainbat atzera-
-aurrera zitun emanak,
beraz benetan maite zun bere
erri au Maisu laztanak.

1430

Ez dute Jauna batere pozten,
an dator illun xamarra,
gainbera ikus zunean ainbat
maite zuen erri xarra;
bere biotza korapillatuz
samin egin zun negarra,
igerriz aurki erri xar ari
zetorkion ordu txarra.

1431

“Ai, Jerusalem biotzekoa,
nere erri xar kutuna!
Ai ezagutuko bazenu gaur
zure osasun-eguna!
Begiak naita itxi dituzu,
dana dakuszu illuna,
zure ondamen-ordu garratza
ez da oraintxe urruna.

1432

Inguratuko zaituzte zure
etsaiak armaz jarriak,
goi-beak jota galduko dira
dituzun apaingarriak.
Aien eskutan eroritzean
zure semeen larriak,
gaurko egun au zuk ezagutu
nai ezak erakarriak!”.

1433

Jerusalem ain zegon orduan
gañezka, jendez beteta,
etzan erreza ulertzen ango
jendearen berriketa.
Arriturik: “Nor da au? –zioten–.
Zer da emengo nasketa?”.
Gizataldeak, berriz: “Au degu
Dabiden seme profeta!”.

1434

Eliz barrura sartu orduko
ango iskanbil! Azoka-
-maiak irauli, diruak nastu,
eskuan arturik soka.
“Nere etxea otoitz-etxe da”
–ta eraso zien joka–.
Lapur-zulo bat egin dezute!”,
ta aurrean zitun bota.

1435

Andik-emendik angarilletan,
danak lagunduz alkarri,
itxu ta mutu, erren da gorrak,
ez dakit zenbat elbarri,
sendatu zitzan danak Jesusen
aurrean zituzten jarri.
Beti bezela, danak sendatu
zitun onek, maitagarri.

1436

“Gora Dabiden Semea! Gora!”
oiuka jendea sutu;
ta ikusirik mirari aiek
etzeuden etsaiak lausu.
Jende artetik, maltzur-maltzurak,
laxter zitun bere auzu:
“Maisu, oiek zer esaten duten
ondo aditzen al duzu?”.

1437

Aiekin nazka-nazka egiña
elizatik zan atera,
pake-pakean ikasle-salla
artuz berekin batera,
Jerusalendik urruti xamar,
Betani uri xarrera,
salketa txarren beldurrik gabe
bere maiteen artera.

1438

Urte luzetan itxaropenez
ordu orren zai jarriak,
asto gañean otxan sartu ta
ezagutu ez erriak.
Laxter etorko zaizkion bere
gañera egun gorriak,
orretxegatik negar egin zun
Igerle maitagarriak.

Pikondoa

1439

Biamonez, goizean goizik
Betanitik zetorrela,
gosetu egin zan Jesus, beste
edozein gizon bezela.
Piko eder bat ikusi zuen
bide-ertzean zegoela,
ostoz josia nola baizegon
aruntza joan zan berela.

1440


Osto ugari eduki baña
adarretan ez ziturik.
“Ain piko orritsu ta zitu gabe
leku goxoan sarturik?
Ez al dik bada igandik iñork
geiago jango pikurik!”
esan orduko, an geratu zan
pikondoa igarturik.

1441

Jerusalenuntz joan ziran andik;
sar zanean jaurettxera,
sal-erosketan arkitu zitun;
maiak irauliz gainbera,
ango diru-kutx, uso-kaiola,
nastu zituen batera;
aurrean bota zitun, etzuten
ezer berekin atera.

1442

Aiek biali ondoren esan
zun: “Au dago idatzirik:
‘Nere etxea otoitz-etxe da’.
Zuek azoka jarririk,
sal-erosketa, diru-kontua,
uso-saltzalez beterik,
nere Aitaren etxea ez da
lapur-zulo bat besterik”.



1953

Ixil-ixilik, burua txutik, an zegon Igerle ona,
zeru ta lurren erregetzako aukeratua zegona.
Pilatok zion danen aurrean: "Zuen erregea ona!
Zuek iltzera ekarritako ura nolako gizona!".

1443

Ori entzunik, parisaitarrak
asarre bizi zebiltzan,
Maisua nondik nola galduko
bere ondoren ixpitzan.
Kanpora joaten zan gabaz eta
egunez berriz elizan,
beldurrik gabe danen aurrean
beti irakasten ari zan.

1444

Biaramonez, goizean goizik
elizara zetozeela,
pikondo ura legorra zegon
ezur igarrak bezela.
Uraxe laxter igartu zala
ortaz pentsatzen zeudela,
Jesusengana urbilduz Pedrok
galdetu zion orrela:

1445

“Madarikatu zendun pikoa
dagoneko igartua?”
“Sinist zazute, Jaungoikoagan
izan sinismen gartsua.
Edozer gauza zalantzik gabe
sinismenez eskatua,
ziur egon ez dala izango
egundaño ukatua.

1446

Ezbairik gabe izan ezker
edozer ez du inportik.
Mendi au bera: “Itxasoruntza
oa moztuta ondotik!”
Sinisten badezute, mendia,
ertenaz erro-errotik,
amen batean itxas-zulora
erorko litzake ortik.

1447

Ez bada zalantz txarretan bizi:
eskatutzen dezutena
etzaizute iñoiz ukatuko,
baldin bada gauz zuzena.
Zuek otoitzez eska bezela
emango zaizute dena,
ortarako zalantz gabekoa
izan bear sinismena.

1448

Otoitz aurretik norbaitek badu
zerbait anaiaren aurka,
Jaunak berari barka dezaion
lenen barkatzea dauka.
Jaunak orduan ezin lezake
eskatzen zaionik uka,
berak urkoai bezela berdin
emango baizaio truka.

Noren eskubidez

1449

Egun batean ari zan Jesus
erriari erakusten;
jendea, berriz, biotz-biotzez
aren esanak entzuten.
Parisaitarrak etzuten ori
begi onakin ikusten,
eskubidea zeñek emana
zeukan ikasi nai zuten.

1450

Urbil zaizkion bada zearka
ta maltzur zioten ekin,
ustez ango nagusi, galdera
kaxkar au zioten egin:
“Maisu, garbi esaiguzu ea
noren eskubideakin
egiten dituzun lana auek;
ori nai genduke jakin”.

1451

“Nik ere bada galderatxo bat
egingo dizutet bertan:
Joanen bataioa zerutarra
edo lurterra ote zan?
Orri erantzun zaiozute; nik
ere orduan benetan
esango dizutet eskubide
ori nork emana detan”.

1452

“Ezin esan dezakegu bada
zala goitik etorria.
Au erantzungo digu: ‘Sinistu
ez ark zekarren berria?’.
Bekoa zala esan ezker
gañean degu arria,
zerutarra zala sinisturik
oso baidago erria”.

1453

Galdera txar ta biurria zan,
eziñik ainbeste maisu,
ezin erantzun zezaioteken
galderari itxu-itxu.
Danen aurrean erantzun txarren
bat artuko zuten izu,
igesbidetik aldegin zuten
erantzunaz: “Ez dakigu”.

1454

Ala erantzun zien Maisuak
parisaitarren moduan:
“Zuek bezela, ez dizutet nik
ere esango orduan
nondikan detan eskubide au”.
Jendea pozez onduan.
Berdintz berriak konta ta konta
irakasten jarrai zuan.

Bi semeen berdintza

1455

“Bi seme zitun guraso batek
esan zion zarrenari:
‘Oa mastira’. ‘Bai’. Baña etzan joan.
Ta gero gazteenari:
‘I ere joan adi’. ‘Ez det nai’
erantzun zion aitari.
Baña damutuz berela ekin
zion mastiko lanari.

1456

Aitaren naia bietako nork
bete ote zun auetan?”.
“Bigarrenak” erantzun zioten.
Bai Jesusek ere bueltan:
“Emagaldu ta zergalariak,
entzun zer esaten detan,
aurreratuko zaizkitzutela
zeruko erreinuetan.

1457

Etorri zan Joan, zuzenbidea
erakutsiz erriari;
zuek etzenioten sinistu,
irri esaten zunari.
Bitartean sinismen beroaz
emagaldu ta zergari,
aren bataioa artu ondoan
jarrai zioten berari.

Mastiko langille gaiztoak

1458

“Entzun zazute berdintz au ere
–Maisuak zion igerriz–:
Nagusi batek masti eder bat
inguratu zuen arriz.
Tolaretxo bat ere jaso zun
erdian dorre bat jarriz;
errentan eman zuen, etzala
luzaro etorko berriz.

1459

Mastizai batzun eskutan utzi
zun bada bere mastia:
bera zaintzea, bera lantzea,
nai zezaketen guzia,
urtero txintxo ordaintzekotan
jar zuten sari-neurria.
Gora-bera auek konpondurik
joan zan urrun nagusia.

1460

Uzta-garaia etor zanean
bete zezaten tratua,
biali zuen errent-eskari
morroi bat aukeratua.
Masti-zaleak etzuten bete
nai izan esandakua,
eskutsik bota zuten morroia
andik joka ondatua.

1461

Beste morroi bat biali zuen
nagusi jaunak orduan,
ea arrazoirik sartzen ote zan
masti-zaleen buruan.
Au ere artu, irañez bete,
joka zanpatu onduan,
andik eskutsik biali zuten
lenengoaren moduan.

1462

Morroi geiago biali zitun
ara nagusi otanak,
sari-ordaña eman zezaten
masti-morroi itz emanak.
Bañan alperrik biali zitun:
aruntz azaldu ziranak,
ordaindu orde, zanpatu, joka
il egin zituzten danak.

1463

Masti-jabea naigabetu zan
gertatuari begira:
‘Nere semea igorriko det,
izango dute kupira.
Seme bakar au an ikusita
urrikalduko al dira!’.
Ainbat maite zun seme bakarra
biali zien mastira.

1464

Langille aiek seme bakarra
ikusirik zetorrela,
pozaren pozez ura iltzeko
alkartu ziran berela:
‘Orra semea! Il zagun! Masti
au gurea dek orrela!’.
Mastitik kanpora bota ta il
zuten, morroiak bezela.

1465

Datorrenean zer egingo du
aiekin masti-jabeak?”.
“Il eraziko ditu guziak,
alako biotz gabeak.
Bere mastian jarriko ditu
sari-emale obeak,
bere garaian txintxo emango
duten beste langilleak”.

1466

“Ongi esana, ori egingo
du, bai, jabeak aiekin:
ilko ditu ta masti-tratua
egingo du besteekin”.
Parisaitarrak, berentzat artuz,
erantzun zuten erremin:
“Ez dedilla egundo gertatu
orrelakorik gurekin”.

1467

Jesusek, goibel begiraturik,
au zion urrikalgarri:
“Ez dezute bada idatzirik
dagon ura irakurri:
etxegiñak botatako arria
jarri zutela oñarri?
Jaunak egin du ori ta gure
begientzat arrigarri.

1468

Orregatik esaten dizutet
jakin dezazuten garbi:
kenduko zaizutela betiko
Jainko-jaurgoa zueiri;
eta emango zaiola beste
zuzenagoko arnari
askoz obeak emango ditun
atzerriko erriari.

1469

Ez da izango zuentzat ortik
iges egiten erreza,
ortik kanpora ezin billatu
dezakezute babesba.
Txirtxillatuko du arri orrek
azpian artu baleza,
erortzen dana txikituko du,
orra zuen ezereza.

1470

Ondo zekiten parisaitarrak
aientzako zetorrela
Jesusen masti-berdintza; atxitu
nai zuten bertan berela.
Baña eziñik geratu ziran
ordurartean bezela
erriaren beldur, baizekiten
igerletzat zeukatela.

Eztailarien berdintza

1471

Bertan jarraitu zuen Jesusek
bere dotriña zabaltzen,
zeru-jaurgoa nolakoa zan
gizaldeari kontatzen.
Aren goxo ta berdintz ederrak
Maisuak zitun asmatzen,
ezin aspertuz ondoan zeukan
jende guzia txoratzen.

1472

“Zeru-jaurgoa zerekin berdin
gentzake, bada, zerekin?
Semearen eztaiak atondu
zitun errege batekin.
Bere morroien bitartez lagun
guziei zien otsegin;
iñor etzan etorri, etzuten
ezer jakin nai arekin.

1473

Morroï geiago biali zitun
gure errege zuzenak,
etor zitezen oturuntzara
lendik deituta zeudenak.
‘Gerturik daukat, il ditut zekor
eta azienda gizenak;
esan bezela, atozte bada
eztai auetara denak’.

1474

Aiek etzuten aintzakotz artu
erregearen esana,
morroiak utziz joan ziran beren
garatzera banan-bana,
erregearen eztaiak baño
naiago zutela lana.
Askok il egin zuten morroia
aruntz deitzera joana.

1475

Asarretu zan ori entzunik
ta gudamutil-taldeak
biali zitun orduan aiek
garbitzera erregeak.
Eta berriro igorri zitun
deitzera mirabeak:
'Etxe au bete, ekarri onuntz
beartsu ezer gabeak.

1476

Zoazte danak dei egitera
bide-ertz ta karrikara,
sartu erazi aundi ta txiki
guziak eztaietara.
Bete zazute etxe barru au,
bete, inñolaz al bada;
len deiturik ez baida sartuko
eztai-oturuntz ontara.

1477

Joan ziran bada bere morroiak
karriketara berela,
eztaietara danak deituaz,
agindu zien bezela.
Andik-emendik aundi ta txiki,
erren ta urgun, orrela
erregeak nai zuen ezkeru
bete zuten eztai-gela.

1478

Ondoren sartu zan erregea
apaldarrak ikustera,
eztai-jantzirik gabe gizon bat
sartua zegoen jatera.
'Adiskide –esan zion– jantzirik
gabe nola sartu zera?'.
Erantzunik gabe geratu zan
erregearen galdera.

1479

Morroiei ala agindu zien:
"Artu ta kanpora jauzi!
Orko illunpe oietan esku
ta oñak loturik utzi!
Negar-marraska t'ortz-karraskara
izango dute nagusi;
deituak asko izanagatik
autatuak oso gutxi".

Jesus zirikatzen

1480

Parisaitarrak Jesus utzita
nonbait gorde ziran andik,
zelatariak utzi zituzten
galdu etzezatzen txandik.
Alkar itzegin, alkar adituz
etorko ziran oraindik,
salatutzeko entzun nairik itz
txarren bat Jesusengandik.

1481

Erodetarrakin nastu ziran
Jesus galtzeko ustean,
atzerri-zale auek arturik
zelataritzat tartean,
arrapatzeko asmoan Jesus
itz biurriren batean;
erregeari salatuz gero
lotu zezaten katean.

1482

Aspaldi artan Maisu otxana
nola galduko dabilta,
itxura onez iruzur nairik
azpikeri ta losintxa.
Orduan ere urbil zaizkion
erri-maitaleen gisa,
buru-makurka agur egiñaz
orrela zaizkio mintza.

1483

“Danok benetan aitortzen degu:
egitia zera, Maisu,
zer esanaren beldurrik gabe
garbi esaten baidezu,
Jainkoganako bidea nola
dan erakusten diezu,
Zesar-i zerga ordaintzea aske
dan edo ez esaiguzu”.

1484

Jesusek laxter antz eman zien
zirikalari aieiri:
“Itxuratiak, ez al nazute
zirikatutzen geiegi,
zuen asmo txarrak bete nairik
begiratu gabe ezeri?
Ikus dezadan, zerga-diru bat
ekar zadazute neri”.

1485

Denario bat eman zioten
begiratuaz berari,
Maisuak au zion: “Norena da
or dagon irudi ori?”.
“Zesar-ena” erantzun zioten.
“Eman orduan Zesar-i
Zesar-ena, ta Jainkoarena
berriz eman Jainkoari”.

1486

Jesus izketan arrapatzeko
leku onean zebiltzan,
danen aurrean ixilik utzi
zituen, betiko gisan.
Maisuak eman zun erantzuna
ain egokia baizan,
berriro ura zirikatzeke
etzuten biotzik izan.

Saduketarrak

1487

Parisaitarrak aldegin zuten
erantzunaz arriturik,
saduketarrak datoz ondoren
aien lekua arturik.
Danen artean utzi nai zuten
Jesus ixil ta muturik,
ezin asmatu ura ixilik
utziko zuen konturik.

1488

Saduketarrak lurkoiak ziran,
etzeukaten sinisterik;
etzan animik, aingerurik ez,
etzuten geroko usterik.
Eta auentzat, jakiña, etzan
il da gero berpizterik;
gizona etzan beraz auentzat
aragi-pilla besterik.

1489

Auek ere nai zuten Maisua
zerbaitetan arrapatu,
agurka makur, zirikatzaile,
zitzaizkion inguratu.
Beste munduko sinismen ori
nola baizuten ukatu,
lizun-usaia zeukan kontua
besterik ezin asmatu.

1490

Jerusalengo aundizki danak
alkar artuta zebiltzan,
erodetarrak ere nastuan,
danak Jesusen ixpitzan.
Ondo alkar artu zuten arren
indarrrik etzuten izan;
aragikeriz ekin zioten
beren ustearen gisan.

1491

“Anaien baten beste anaia
–au zan Moiseren legea–
iltzen bazan, utziz seme gabe
alargun bere emaztea,
agintzen digu ezkon dedilla
alargunakin bestea,
seme gabe il zan anaiari
sor zezaion ondorea.

1492

Baziran zazpi anai ezkongai
gure auzo-inguruan,
zarrena il zan ta seme gabe
alarguna utzi zuan.
Ondoren beste seirak onekin
ezkondu ziran orduan,
alarguna azken il zan aur gabe
zazpi senarren onduan.
Bestean noren emazte ote?
Zazpiena zan munduan”.

1493

“Gaizki ulertzen dezute zuek
Idaztiak dakarrena,
ain ezeretzat al daukazute
Jaungoikoaren almena?
Mundu ontan ezkonduko dira
gal ez dadin ondorena;
baña aingeru baten antzeko
izango da pizten dena.

1494

Andre-gizonak ezkontzen dira
ta ezkonduko munduan,
baña ñor ez da ezkonduko
bestean piztutakoan.
Ezin litezke il, ezkontzea
ez da bearrezko orduan;
Jainko-semeak dira piztean,
aingeru baten moduan.

1495

Irakur zazute Moisek bere
liburuan dakarrena,
Jainkoak suzko sasi ondoan
adierazi zuena:
‘Ni naiz Abraan, Isak, Jakoben
Jainko, baña ez illena’.
Arentzat danak bizi dira ta
Jainkoa da biziena”.

1496

Orduan lege-irakasleak
urbil zitzaizkion aizun,
agurtuz esan zioten: “Zeñen
ederki erantzun dezun!”.
Berriro ura zirikatze
iñortxok nai izan etzun,
erria berriz lilluraturik
an zegon entzun ta entzun.

Legeko agindurik nagusia

1497

Saduketarrak ixil-ixilik
urrundu ziran orduan,
alkarregana bilduz berriro
zirikatze asmuan.
Irakasle bat ikasi nairik
urbil zitzaion onduan:
ea legeko aginduetan
aundien nor dan munduan.

1498

“Israel, entzun zazu: bakarra
da zure Jaun ta Jainkoa,
biotz, anima, gorputz ta indar
guziz maitatutzekoa.
Auxe dezu legeko agindu
guzien aurrenekoa;
baña beste agindu bat ere
bada onen antzekoa.

1499

Maita ezazu lagun urkoa,
zere burua bezela,
jakizu agindu auek baño
aundiagorik ez dela.
Maita urkoa, Jainkorik ere
ez dezu maite bestela,
lege, igerle, agindu ontan
beren izana dutela”.

1500

Irakasleak au esan zion:
“Bai ederki erantzuna:
ez dagola Jainko bat besterik,
danen Egille ta Jauna,
gure almen ta indar guzikin
maitatu bear deguna.
Baita’re berdin gure buruak
bezela urko laguna;
erre-opari guziak baño
obe da alkar-maitasuna”.

1501

Erantzun orrek, entzun orduko
galde zunaren aotik,
Jesus onaren biotz gozoa
alaitu zuen gogotik.
Berari xamur begiratuaz
erantzun zion ondotik:
“Etzabiltza zu oso urruna
Jaungoikoaren jaurgotik”.

Kristo Dabiden Seme, nola?

1502

Jesusek, berriz parisaitarrak
bere ondoan zeudela:
“Mesiatzaz zer uste dezute:
au noren Semea dela?”.
“Dabiden Seme” erantzun zuten
parisaitarrak berela,
ordura arteko jakintsu danen
iritzia zan bezela.

1503

Maisuak ala erantzun zien
jauretxean ari zala:
“Nola diote irakasleak
Dabiden Semea dala?
Ez dakizute, Jaungoikoaren
Atsak bultzata, bein ala
Dabidek berak bere Jainkotzat
Mesias artzen duala?

1504

Ederki asko ala baidio
Dabidek salmo batean:
‘Jaunak diotsa nere Jaunari:
Jar nere eskubi aldean,
zure oinpeko aulki nik zure
etsaiak utzi artean’.
“Jauna” badio, ez dakit aren
Seme nola litekean.

1505

Etzuten noski ulertu ere
onek esandako itzik,
etzuten beste biderik izan
ixil geratzea baizik.
Andik aurrera galdetutzeko
etzuten izan biotzik,
aurrean zeukan erri apalak,
bai, entzuten zion pozik.

Kontuz irakasleekin!

1506

Gizaldearen aurrean berriz
bere izketa errezan
legeko irakasleen berri
jendeak ikasi zezan,
oitura zuen bezela, gauza
gogorak zizkien esan;
orduan ari an aurpegia
emango zionik etzan.

1507

“Lege-irakasleen aurrean
erne ibili begia;
oiek eta parisaitarrak ar
dute Moiseren aulkia.
Oiek bezela ez egin, bete
agintzen duten guzia;
ondo erakusten dute, bete ez
ordea erakutsia.

1508

Besteri bota bizkar gañera
ezin jaso duten zama,
berak ez dute jarri nai berriz
jasotzeko beatz bana.
Gizaldearen aurrean ondo
egiten dakiten lana,
ontzat azaltzearren, jakiña,
egiten baidute dana.

1509

Dabiltzan lekuetan itxura
baida egiten dutena:
larru-zerrendak buruan bera,
otordueta aurrera,
otoitzerako sinagogako
aulkitan ere lenena,
gizonengandik entzutea nai
luteke maisu izena.

1510

Maisu bakarria dezute zuek
danak anai izaki ta,
etzazutela egundo ere
maisu deitze ori maita.
Zuetako iñork ere ez deitu
munduan iñori aita,
zuen Aita zeru-goian dagon
uraxe bakarria baita.

1511

Irakasle bat bakarria dago:
Kristo zaizute autatu;
munduan irakasle izenik
etzazutela bada artu.
Zuen artean aundien dana
danen serbitzura sartu;
goratzen dana jetxiko baida,
jetxitzen dana goratu.

1512

Lasai dabiltza alargun gaixoen
ondasun guziak janez,
otoi luzeen itxurak egin
nai dituzte gero ordañez.
Beren buruak ontzat aizatzen,
itxurak aña izan ez;
auek artuko dute egiten
dutenen ordaña gañez.

Ai zuek!

1513

Pazientzia galdu zaiola
dirudi emen Jesusi,
itzaldi gogor onekin nai du
aiekin betiko autsi.
Berak ez dute argan sinistu,
erriari ere ez utzi;
ondamendira dijoaz danak
beren aberri ta guzi.

1514

“Ai zuek parisau eta lege-
-maisu itxurati oiri,
ixten diezutelako zeru-
-erreinua gizonairei!
Eta egundo zuek sartuko
etzeraten bide ori,
itxi egin diezute berriz
sartuko lirakeneiri.

1515

Ai zuei, lege-irakasle ta
pariseotar aizunak,
zuek irensten baidituzute
alargunen ontasunak!
Itxuraz otoi luzeak egin
eta mingañez legunak,
argatik epai zorrotzagoa
egingo dizute Jaunak.

1516

Ai zuei. lege-irakasle ta
pariseotar billauak,
inguratutzen dituzutenak
legor eta itxasuak
zuen fedekide batzun billa,
ta bein arkitutakuak
inpernukume egin zuek baño
milla aldiz gaiztoaguak!

1517

Ai zuei, aintzindari itxuo!
Zergatikan diozute:
'Elizangatik ziña egiten
dutenak zorrik ez dute?
Baña Elizako urreez zin
egiñak zorretan daude?'.
Eliz barruan dagon urrea
aundiago dala uste,
urrea bera santutzen duen
Eliza baño al dezute?

1518

Aldarez iñork ziña badagi
ori ez dago zorretan;
ango opariz zin egin dunak
ordea zor du benetan.
Itxuak alenak, oparia,
dagona aldare gañetan,
santutzen dun aldarea baño
aundiago dala ustetan!

1519

Orretxegatik aldare beraz
egiten dezuten ziña,
aldarez ezik, an bizi danez
ere berdin da egiña.
Zeruaz egin ta Jainko-aulkiz
ta an bizi danez, jakiña;
Israeleko Maisua izan
liteke au ez dakiña?

1520

Ai zuei lege-irakasle ta
parisau itxu alenak!
Badakizute ordaintzen bear
ez diranen amarrenak.
Atzera utzi berriz legeko
agindurik nausienak:
errukia ta zuzentasuna,
auk baidira lenenak!

1521

Auek egin bearrezko dira,
baña besteak ez utzi.
Ai gidari itxuratiak, noiz
bear dezute ikasi?
Eltxo txiki bat irentsi nai ez
ta kamellua irentsi,
bearrezkoen diran gauz auk,
egin itzatzu lenbizi.

1522

Ai zuei, lege-iraskasle ta
parisaitarrak! Gañetik
ontziak garbitzen dituzute,
baña zuen barrenetik
ordea ez da ageri lapur ta
lizunkeria besterik.
Lenen barrua, ta garbituko
dek gero kanpo aldetik.

1523

Ai zuei, maisu ta pariseo,
itxuratiak alenak,
zuritutako illobi oien
itxura daukazutenak:
kanpotik eder, baña ustelez
beteak zuen barrenak;
santu-itxura, baña barrundik
txarkeriz beteak denak.

1524

Ai zuei, maisu ta pariseo,
aizunak danen artean!
Arbasoak ildako igerle
ta santuen oroitzean,
aien oroitarriak jasutzen
dituzuten bitartean,
ala diozute: 'Gu bizi izan
bagiña aien garaiean,
ez giñan aiekin kutsatuko
igerleen odolean'.

1525

Zerok aitortzen dezute ondo
aien seme zeratela,
bete zazute bada gaurgero
aien neurria berela.
Subegorriak alenak zuek!
Uste dezute orrela
inpernuko epaiari iges
egingo diozutela?

1526

Onuntz biali dizkitzutedan
igerle ta jakintsuak,
oien artean azaldu diran
gizon zuzen ta maisuak,
gurutzean josita edo il
dituzute geientsuak;
asko zigortu, besteak iges
ibili ziran gaixuak.

1527

Abel zuzenarengandik asi
ta Zakariasenera,
zuek eliz ta aldare aurrean
il zenuten ura bera,
errurik gabe il diran oien
odola zuen gañera
etorriko da, gizaldi onen
bizkar gañera, gañera.

1528

Ai, Jerusalem, Jerusalem! Zuk
profetak iltzen dituzu;
zukan bialitako geienei
arrika eman diezu.
Ai zenbat aldiz nere egalpean
artu nai izan zaitut zu
kolkak bere txitoak bezela,
ta zuk uka egin duzu!

1529

Utzia geratuko da erri
au, ain maite dezutena;
ni ezagutu nai ez izanak
ekarritako azkena.
Ez bainauzute ikusiko ni
esan artean urrena:
Bedeinkatua Jaungoikoaren
izenean datorrena!"

1530

Agurtu zuen bada betiko
maite zuen erri xarra,
urrunduko zan ordu artean
zaindu zun Jainko-endarra.
Txikituko zuten Jerusalem,
laguntzik gabe, bakarra;
orretxegatik Maisuak egin
zuen naigabez negarra.

Andre alargunaren limosna

1531

Nai zuenak bota eliz zarrean
diru-kutxa bat zeguan,
askok ugari botatzen zuten
aukera zuten moduan,
alargun batek xemiko batzuk
bota zitun eltzetxuan,
Maisuak ikasleak beregan
deitu zituen orduan.

1532

“Andre alargun beartsu onek
kutzara bota duana,
besteena baño geiago da,
asko bota dute baña.
Eman dutena berentzat gañez
zeukatenetik emana,
alargun gaixo beartsu onek
bizitzeko zeukan dana”.

Jauretzea galduko da

1533

Agurtu ditu eriotz-pena
eman dioten etsaiak,
ezagutuzen ditu ederki
aien asmo eta naiak.
Ondo badaki laxter dirala
illunpearen garaiak;
ardi banakak berekin artuz
mendira jo zun artzaiak.

1534

Azken orduko oroipenetan
gañezka dauka biotza,
bere etsaien eskutan aurki
il bearra, ai zer lotsa!
Ainbat gorrota dutenengandik
artuko du eriotza,
baña ortikan etorriko dan
uztak dakarkio poza.

1535

Bere bizia uzteko ari
zaio garaia urbiltzen,
orduantxe bai asiko dala
jendea beregan biltzen.
Ereille batek bota dun gari-
-alea ez bada iltzen,
bere uztarik ekarri gabe
ez da bakarrik gelditzen?

1536

Oroimen auek ezin kendurik
Olibadiko mendira,
an exeri zan jauretzearen
aurrez, ixilik begira,
illunabarrez, mendi gañetik
Jerusalengo errira;
etorkizuna ikusten zuen
Igerleak urrutira.

1537

Illunabarra, bete-bete
eguzkiaren sarrera;
azken dizditzak zuzen zoazen
jauretzearen gañera.
Lilluraturik ikasle danak
ango edertasunera,
eliz aundia artzen baizuten
egal artatik gainbera.

1538

Jesus begira, ixil-ixilik,
biotz minduak tristura;
bere ondoren gaiztoa dakus
urte gutxiren burura.
Gurutz batean josirik berak
aldegingo du zerura,
kiskaliko baizuten orduan
ain maite zun erri ura.

1539

Egun gutxiren buru igoko
dute bera gurutzera;
ortarakoxe etorria da:
galdu zana salbatzera.
Bere garairik ezagutu ez
erri xarraren galera:
Salbatzallea berak ekarri
ta ondatuko da bera.

1540

Illunabarra ta aurki arrats,
muga gabeko arratsa;
argia beren artean bizi
eta illunpean datza.
Begiak naita itxu baiditu
ez dakus ordu garratza;
bera badoa laxter emendik,
ai, baña ez dago lasa!

1541

Urbil zaizkion ikasle batzuk
esanaz: “Maisu, begira
or bean dauden etxe bikain ta
gure jauretxe aundira.
Nolako etxe, nolako arri,
orko urreen dirdira!
Ederki landu ta apaindurik
benetan ederrak dira”.

1542

Maisuak, berriz: “Badakuszute
zuen begi aintziñean,
non dagon eder, dizdizka guri,
ori beko sakonean?
Adi zazute eta sinistu
gaurko nere esanean:
ez da or geratuko arririk
bata besteen gañean.

1543

Badakuszute orko dirdira
begiak itxutu-zori,
zillar-urreen bizitasuna,
eguzkia bezin gori?
Eliz-gain ortako ametsezko
edertasun guzi ori?
Arririk arri gañean gabe
danak bear du erori”.

1544


Exerita zegon Maisua, ain
zan arrats-giro epela;
bere ondora urbil zaizkion
ikasle danak berela:
gauz oien berri ikasi nairik,
oitura zuten bezela;
jarrita zegon Jesusi galde
egin zioten onela:

1545

“Esaiguzu, Maisu, noiz izango
dan gauz auen asiera,
nola ta zertatik ezagutuko
degun zure etorrera.
Ta zertan ezagutuko degun
mundu onen bukaera”.
Iru galdera egin dituzte
apostoluak batera.

1546

“Etzaitezte gero iruzurtu,
asko etorko baidira
nere izena artuz: ‘Ni Kristo naiz
ta garaia etorri da’.
Ez sinistu gero olakorik,
asko azalduko dira;
baña pausorik ez eman zuek
esaten duten tokira.



1972

Guda-mutillak oartu ziran bide gora aul xamarra
zijoala Jesus ta bazula lagun on baten bearra.
Orrentxengatik eman zioten lagun bat gizon azkarra:
baratz batetik bera zetorren Simon Zirineotarra.

1547

An t'emen guda-otsaren berri
zabalduko da lenena,
auengatik ez beldurtu, ez
galdu zuen sinismena.
Ori gertatu bearrezkoa
da ezaupide aurrena:
orra nik esan: oraindik ez da
ura izango azkena.

1548

Aberri danak su ta garretan,
enda guziak guduan,
lurrak ikara, gosete latzak,
izurriteak munduan,
izukariak ta ezaupide
arrigarriak zeruan,
miñen asiera dezute au,
ondo eduki goguan.

“Erasoko dizute”

1549

Auen aurretik etorriko da
zuentzat larri gogorra,
sinagoga ta baitegieta
ez da paltako zigorra.
Nere dotriña maite dun ura
ez da izango jatorra;
zuek ordea danean egin
zazute nere aitorra.

1550

Ezerengatik ez ikaratu
ta ez ibili kezketan
pentsatzen nola itzegin bear
dezuten larri oietan,
nola jokatu bear dezuten
ango galde-erantzunetan.
Esan beldurrik gabe gogora
datorkizutena bertan.

1551

Etsaiak gogor ezin egingo
dizuten jakinduria,
ordu artan izango zaizute
zeru goitik ixuria.
Zuen orde Espiritu Deunak
egingo baidu guzia,
ez larritu, bada, utzi aren
eskuetan zuen auzia.

1552

Etorko dira lagun maiteak
txartuko diran garaiak,
beren fedea uka ondoren
sinismenaren etsaiak.
Aitak semea, semeak aita,
anaia berriz anaiak,
itxutuko baiditu alkarri
eriotza eman naiak.

1553

Iruzur ondoren eramango
zaituzte eriotzera.
Isek egingo dizute nere
izenegatik gañera,
zuen buruko ille bat ere
ez da erorko galtzera;
jasan, nai badituzute zuen
biziak onik atera.

1554

Sasi-profeta asko azalduko
dira gaiztotuz laguna,
gaiztakeria gallenduko da,
galdu alkar-maitasuna.
Baña orduan azkeneraño
kementsu irauten duna,
ura bakar-bakarrik izango
da salbatuko zaiguna.

1555
Jainko-jaurgoaren Berri Ona
zabalduko da lenena,
eta munduan eman ondoren
Berri Onen aitormena,
orduantxe, bai, etorriko da
gauz auen danen azkena.
Nere itz auek beteko dira,
izan orren sinismena”.

Asperkunde-egunak

1556
Jarraitu zuen Maisuak garbi
bere betiko lanean:
“Jerusalen guda-mutil-taldez
inguratzen dutenean,
oroi zaitezte orduan danak
gaurko nere esanean:
Jerusalengo azken orduak
laxter dirala gañean.

1557
Daniel igerleak igerri
zuena garai batean,
ondamen-nazka eliz barruan
sartu dala ikustean,
oroi zaitezte nere itzetan,
bizi sinismen betean:
jauretze orren azken ordua
or dezetela gañean.

1558
Judean bizi diranak urrun
bitez orduan mendira,
etxe gañean dana ez jetxi
zerbait artzera azpira;
soroan ari dana soñeko
eske ez itzul baserrira,
nik esandako itz auek danak
txuxen beteko baidira.

1559
Urrundu bitez lenbailen bizi
diranak uri-txokuan,
baserrietan bizi diranak
errira ez bitez juan;
bengantz-egunak baidira oiek,
beteko dira orduan
igerritako gauz auek danak,
esana dagon moduan.

1560
Ai, egun artan aurdun diranak,
ez da izango atsegin.
Zuen igesa larunbatean
ta neguz izan ez dedin
obe dezute alde z aurretik
Jainkoari otoitz egin.
Jakiñaren gañean zaudete,
orra garbi nik itzegin.

1561
Mundua mundu izandu ez dan
añako larri, estura,
etorriko da egun aietan
erri xar onen barrura.
Nolanaikoa ez da izango
jendearen ertsidura,
orain arteko zemai guzien
betetzea baida ura.

1562
Errian bertan ezpata zorrotzez
du-ta askok il bearra,
asko an t’emen sakabanatu
gallenduz atzeritarra.
Ankapean zapalduko dute
gure Jerusalem xarra,
aldi luzean atzerrietan
egingo dute negarra.

1563

Egun latz aiek gure Jainkoak
laburtuko ez balitu,
orduan erri onen barruan
bizirik nola gelditu?
Aukeratuengatik Jainkoa
egingo da errukitu,
aiek salbatzeagatik egun
aiek laburtuko ditu.

Gezurrezko Kristo ta profetak

1564

Ez sinistu; azalduko dira
sasi-profetak munduan;
sasi-Kristoak ere, ezaugarri
asko egiñaz orduan,
autetsik berak okerbidera
eramateko moduan.
Aldez aurretik esan dizutet
euki zazuten goguan.

1565

Ez sinistu gero oien esanik,
sinistu neri; begira:
batetik besteraño zabaltzen
dan bezin tximist-dirdira,
Giza-Semeak ere alaxe
argituko du lurbira;
gorputz ustelak dauden lekura
arranoak biltzen dira.

1566

Estuasun latz aien ondoren
berela ezaugarriak
izango dira: izar, eguzki
ta illargian larriak;
eguzkia itzali ta ez du
argituko illargiak;
izarrak erori ta kolokan
zeruko indar guziak.

1567

Jende guzia larrituko da
datorrenari begira,
itxasoak orro egingo du,
uginak berriz gaindira.
Igartuko baidira gizonak
etorkizunen larrira,
zeruko indarrak berak ere
kolokan asiko dira.

1568

Ezaupide bat azalduko da
zeru-goietan orduan,
Giza-Semearen ezaugarri,
goiko odeien onduan.
Gizon guziak negar-zotinka
ariko dira munduan,
Giza-Semea agertuko da
arrigarritzko moduan.

1569

Eta entzungo da aingeruen
turut-ots sarkor, ozena,
andik-emendik bildu eraziz
auta zun jende zuzena.
Orduan zuek jaso biotza,
indartu itxaropena;
benetan poztu orduan, urbil
da zuen birrerospena.

Noiz ori dana?

1570

Zugaitzen adar eta ostoak
erne-mintzen diranean,
Badakizute udara-aldea
ez dagola urrunean.
Berdin, au dana gertatzen dala
ikusten dezutenean,
jakin zazute Jainko-jaurgoa
or dezutela gañean.

1571

Bene-benetan nik diozuet,
sinist zazute esana:
gaurko gizaldi onen gañera
eroriko da au dana.
Urteen buru zeru ta lurak
igaroko dira, baña
gertatuko da bere garaian
nik aitor dizutedana.

1572

Egun eta ordu artaz iñork
ezer ez daki munduan,
Semeak ere ez, aingeruak
berriz ain gutxi zeruan.
Aita bakarra dakina, baña
gertatuko da orduan,
utsegin gabe, Zeruko Aitak
agintzen duen moduan.

1573

Noe zanaren garai aietan
gertatuaren antzera
Izango da Giza-Semearen
mundurako etorrera.
Etziran zentzatu ugoaldea
etorri arte gañera;
Giza-Semeak berdin egingo
du bere azken sarrera.

1574

Bi nekazari ariko dira
beren lanetan soruan,
bietako bat artuko dute,
bestea utzi onduan.
Bi emakume ariko dira
gari eiotzen orduan,
bat aukeratu, bestea utzi
nekazaiaren moduan.

Erne egon, bada

1575

Ez jarri gero zuen biotzik
mundu ontako gauzetan;
erne bizi, ez ase gorputza
emengo jan-edanetan.
Uste gabean etorko baida
danentzako bat-batetan,
il da biziak bilduko ditu
Jainkoak bere saretan.

1576

Nik diozuet eta benetan
beti erne bizitzeko;
ez gero aztu nik agindua:
gogoz otoitz egiteko.
Berriro agindutzen dizutet
beti erne egoteko,
Giza-Semea datorrenean
arentzat gai izateko.

1577

Begira gero erne ibili
ta egin otoitz berua;
zalantz-izpirikan ez eduki:
etorriko da ordua.
Gutxina uste dezutenean
bukatuko da mundua,
erne ibili, eduki beti
gora jasorik gogua.

1578

Nagusi batek urrun joan baña
len deituaz morroiari,
eskubide ta egin bearrak
aukeratuz bakoitzari,
aldegin zuen bere lurretik
urrutira ibilkari,
erne egoteko agindua
emanaz atezaiari.

1579

Ez dakizute noiz etorko dan
nagusi jauna atzera,
arratsaldean, illunabarrez,
eguerdi edo goizera.
Uste gabean, lo zaudetela,
sartu liteke etxera;
erne egon, bada, gau eta egun
atezai orren antzera.

Nagusia eta morroia

1580

Oroi zaitzete: baldin etxeko
nagusi batek baleki
noiz etorriko zaion lapurra,
atea nola ereki,
bere etxea zainduko luke
gau eta egun ederki.
Giza-Semea noiz etorko dan
ordea inork ez daki.

1581

Nagusi jaunak etxe-barru ta
etxadiaren inguru,
dana zaitzeko jarri dun morroi
zintzo ori nor ote dugu?
Datorrenean dana beteaz
arkitzen badu, seguru
bera jarriko dula etxeko
ondasun guzien buru.

1582

Morroii biurri arek ordea
berakas pentsa baleza:
'Luzatuko dik etortzen, bete
dezadan nere lañeza'.
Mozkorkeritan galduko balu
nausiaren interesa,
oñazetara botako luke
alako morroi traketsa.

Amar neskatxak

1583

Argi-ontziak berekin artuz
amar neskatxa batera,
bost zentzudun ta bost zoro, senar-
-emaztegaien bidera,
oitura zuten bezela, ziran
gau illunean atera;
neskatx oien irudikoa da
zeru-jaurgoko sarrera.

1584

Neskatx zoroak argi-ontziak
berekin zituzten artu,
bañan an bear zuten olio
artzez etziran oartu.
Bost zentzudunak bear bezela
gauzak zituzten moldatu,
badaezpada zer gertatuko
etzitzaian ezer aztu.

1585

Senargairik etzan etortzen ta
neskatxak, luzetetsiak,
loak ar zitun; beren krisalluk
aldamenean utziak.
'Or senargaia! Erten bidera!'.
Esnatu ziran guziak,
eta berela danak zuzendu
zituzten argi-ontziak.

1586

Neskatx zoroak oartu ziran
oliorik etzutela,
beren lagunei arrenka eske
asi zaizkien berela.
'Obe dezute joan ta erosi,
guk egin degun bezela:
ea amarrok batere gabe
geratzen geran bestela'.

1587

Senargaia etorri zan, aiek
erosten ziran artean;
sartu ziran, ba, bost zentzudunak
eztaietara pakean.
Neskatx zoroak ere itzuli
ziran laxterka batean:
'Jauna, ereki zaiguzu!' bostak
asi ziran deika atean.

1588

Aien karraxi ta ate-otsak
iritxi ziran barruna,
ta senargaiak eztailekutik
eman zien erantzuna:
'Ez dakit nik nor zeraten ere,
etzaituztet ezagunak'.
Erne egon, bada, ez dakizute
ez ordu ta ez eguna".

Talentuen berdintza

1589

"Nagusi batek urrun joan nai zun
denboraldi baterako,
bere kontuak garbi konpondu
nai zituen joaterako.
Morroi guziak bere ondora
deitu zitun ortarako,
ta bakoitzari naiko dirua
eman zion lanerako.

1590

Lenengoari utzi zizkion
bost talentu, etzan gutxi;
urrengoari bi; besteari
bat bakarria zion utzi.
Bakoitza zan, nai zuena egin,
talentu oien nagusi;
zeturrenean jasoko zula
irabazia ta guzi.

1591

Bost talentu artu zituenak
jarri zitun korrituan,
eta aiekin berela beste
bost irabazi zituan.
Bi artu zitunak ere beste bi
irabazi ta kituan;
bat artu zunak gorde egin zun
talentua segituan.

1592

Puska batera etxeratu zan
morroi oien nagusia,
banan-banaka eskatu zien
danairi kontu garbia.
Lendabiziko urbil zitzaion
bost talentuak utzia:
'Bost talentu nitun, or beste bost
oiekin irabazia'.

1593

Mirabe onen jatortasuna
sar zitzaion biotzera,
eta nagusi jaunak berela
agindu zion atzera:
'Zintzoa izan zera gutxian,
askoren gain jarko zera;
morroi zintzoa, sar zaite zure
nagusiaren pozera'.

1594

Lenbizikoa sariarekin
etzan atera illuna;
aren ondoren sartu zan bada
urrengoa ere barruna,
urbil zitzaion bere aurrera
bi talentu ar zituna:
'Bi talentu ar nitun, or beste
bi irabaziak, jauna'.

1595

Laxter erantzun zion bertatik
nagusiak, biotz-bera,
bost talentu artu zitunari
esandakoa berbera:
'Gutxian zintzoa zeralako
gorago igoko zera;
morroi zintzo ori sartu zaitte
nagusiaren pozera'.

1596

Azkena berriz an urbildu zan
talentu bakarra ar zuna:
'Badakit uzta biltzen dezula
erein gabetanik, jauna.
Orregatik lurpean ezkuta
nuen eman zidazuna;
ona non dezun, bada, aurrean
zure-zurea dezuna'.

1597

Asarretu zan nagusi jauna:
'Morroi gaizto ta alperra!
Baakiken erein gabe biltzen
detala uzta ederra?
Korrituan ori ez jartzea
egin didaken okerra!
Morroi gaiztoa, ez aiz i nere
pozerako on dan maizterra.

1598

Ken zaiozute talentu ori,
eman amar ditunari;
dunari eman egingo zaio,
kendu berriz ez dunari.
Bota zazute illunetara
morroi alper alen ori,
negar-zotinka, ortz-karraskaka
illunpean dedin ari.

Azken epaia

1599

"Bere ospean Giza-Semea
berriz etortzen danean,
bere aingeru danen erdian,
garaiaren azkenean,
exeriko da aintzaz betea
ospezko aulki gañean;
munduko endak bilduko dira
beraren aldamenean.

1600

Artzai on baten gisa, berela
zuzenduko ditu lanak,
akerretatik betiko berez
utzirik ardi otxanak.
Ezkerretara akerrak eta
eskubira ardi diranak,
on eta gaizto alkarrengandik
berezten ditula danak.

1601

On da gaiztoak ezker-eskubi
berezten ditun onduan,
erregek berak esango die
eskubikoei orduan:
'Nere Aitaren bedeinkatuak,
sartu zaitetze barruan,
mundu ezkerre gerturik dagon
zuen betiko jaurguan.

1602

Goseak nintzan ta zuek eman
baizenidaten jatera,
egarri nintzan eta zuek eman
zenidaten edatera.
Arrotz ta billuts, ta zuek jantzi,
gero artu aterpera;
gaixo eta kartzelan, eta zuek
etorri bixitatzera.

1603

Auek orduan: 'Guk non ikusi zaitugu, Jauna, orrela? Eta laguntza eman dizugu, esan diguzun bezela?'. 'Jakin zazute -errege berak erantzungo du berela-; jakin urkoei egiña neri egiten zenidatela'.

1604

Ezkerrekoei ala esango die asarre betean: 'Madarikatu oiek, zoazte emendik danak batean! Sartu zaitzete deabru gaizto t'aingeru txarren artean, betiko aientzat gertaturik zegon leizeko katean!

1605

Goseak negon, etzenidaten eman alare ogirik; egarri negon, etzenidaten eman alare edaririk. Billotsik negon, etzenidaten alare eman zer jantzirik; arrotz nenbillen, etzenidaten etxean eman tokirik; gaixo ta kartzelan, etziñazten azaldu ni ikusi nairik'.

1606

Aiek orduan esango dute larri, ori aditzean: 'Noiz, non ikusi zaitugu, Jauna, egarri, gose pasean? Billotsik edo arrotza edo gaixo edo espetxean utzi zaitugu, lagundu gabe, Jauna, bakarrik atzean?'.

1607

Eziñik zebiltzan urkoetan zebillen ura ni nintzan, eta oieiri uko egiña neri ukatua baizan'. Oñazetara sartuko dira auek inpernuko leizan, besteak berriz atsegiñera beren betiko bizitzan''.

Jesus ta atzerritarrak

1608

Jai-egunean, emen Jainkoa gurtuz, Jerusalemenera, igo ziran atzerritar batzuk, gero alkartuz batera. Pelipekana urbildu ziran eskari au egitera: "Jesus ikusi nai genduke ta eramán bere aurrera''.

1609

Ta Pelipek orduan Andresengana jo zuen berela, onen laguntza nai zun, Jesusen adiskide zan bezela. Biak batera urbil ziran ta esan zioten onela: arrotz-erriko batzuak bera ikusi nairik zeudela.

1610

Ori entzunik, pozaren pozez, Jaunak egin zun oiua: "Orra etorri Giza-Semea goratuko dan ordua. Gari-alea ez bada iltzen, gari-ale bat galdua; ta alea iltzen bada, berriz, ekarriko du mordua''.

1611

Beti Maisuak billatzen ditu egokierarik onenak, gizaldeari erakusteko bere aolku zuzenak: “Galdu egingo dute bizia geiegi maite dutenak, eta betirako irabazi emen galdutzen duenak”.

1612

Atzerritarren bisitak jar zun Jesusen biotza bero: “Nere ikasle izan nai duna –jarrai zun izketan gero–, nere ondoren betor, ni nagon lekuan ura’re bego; Aitak maiteko du bera, nere ikaslea dan ézkero”.

1613

Au dio gero Maisuak: “Orain nasi egin zait barrena; salba nazazu ordu ortatik, betiko Aita zuzena. Baña ez al naiz ni ortarako mundura sortu naizena? Goratu zazu orain da beti, Aita, zedorren izena”.

1614

Oiu aundi bat dator zerutik, bere Aitaren abotsa: “Ospatu det eta berriz ere ospatuko det” diotsa. “Aingeru batek itz egin dio! Ez al zan ori ortotsa?”. Aitaren itzak lasaitu zuten Jesus onaren biotza.

1615

Maisuak ala itzegin zien: “Entzun dezute oiua? Zuentzat egin da ori, orain epaituko da mundua. Laxter kanpora bialiko da jabe dagon deabrua, etorri baida nere bizia emango detan ordua”.

1616

Jarraitu zuen Maisuak bere izketa-aldian aurrera: “Ta nik, berriz, lurretik jasotzen nautenean gurutzera, orduantxe, bai, bilduko ditut guziak aldamenara”, adieraziz zer eriotzez ilko zuten aurki bera.

1617

Jendeak ala erantzun zion: “Legean ikasi dugu Mesias beñere ez dala ilko; zuk nola esaten duzu Giza-Semeak gurutzean il bear dula? Esaiguzu, bein da betiko jakin dezagun: Giza-Semea nor dugu?”.

1618

“Aldi laburrez zuekin nago, zuen argi naiz oraindik; ibil argia dezuten arte, ez eman illunari txandik. Illunak utzi, sinistu, artu argia argiagandik, argikumeak zaitezten” esan ta aldegin zuen andik.

Juduen sinistu nai eza

1619

Aien aurrean ainbat mirari
egiñak zituen Jauna,
laxter dana utzi ta mundutik
baziyoala urruna.
Baña juduak etzun sinistu
ikusi eta entzuna,
ederki betetzen zan orrela
Isaiasek esan zuna:

1620

“Jauna, norbaitek sinistu ote
du guri entzundakua?
Nori agertu zaio munduan
Jaungoikoaren eskua?”.
Bere garaia beteta Maisu
otxana ixil badua;
ez da, ordea, sinis-beratu
judu maltzurren gogua.

1621

“Ez ikusteko aien begiak
utzi ditu itxutuak,
ez ulertzeko aien biotzak
jarri ditu gogortuak,
ez ditezen onera biurtu
ikusia ulertuak,
ez ditzadan nik sendatu aiek
gero onera biurtuak”.

1622

Judu arteko aundizki askok
sinistu zioten, baña
etziran iñoiz ere azaldu
argitan Jesusengana.
Sinagogatik botzeko beldur,
ori zuten kezka dana;
Jainkozko aintza baño geiago
maite gizonak emana.

1623

Bial naunari sinisten dio
nerea sinisten dunak.
Biali naun bera ikusten du
aurrean ni ikusten naunak;
mundutarrentzat argi naiz; nere
itzak sinisten ditunak
botako ditu bere bidetik
oztopo txar ta illunak.

1624

Iñork itz oiek entzunda neri
uzten ditunak atzera,
aintzakotz artzen ez baditu, nik
ez det epaituko bera.
Ez bainaiz onera etorria
ni mundu au juzgatzerá,
egiteko au bakarra dakart:
galdu dana salbatzera.

1625

Nik ez baidet epaituko neri
sinistu nai ez didana,
nere itz au da azken orduan
epaille izango dana,
ez bainaiz neretik ari, Aitak
erakusteko emana;
ori da emen bein eta berriz
esaten dizutedana.

1626

Ori da bada nik diodana:
ark agindua bakarra;
badute nere itzak betiko
bizitzarako indarra”.
Orrela aritzen zan beti Jesus
ta jendea barra-barra,
Olibadira, nabarmendu zan
ordurako illunabarra.

Juduak alkartzen dira

1627

Ori esanta Maisuak utzi
zuan betiko eliza,
bere barruan ez da entzungo
geiago beraren itza.
Etsaiak berriz alkartu dira
ta au il nairik dabilta,
mundu galdu au gaizkatzeko onek
eskeñiko du bizitza.

1628

Mendira bide dio Maisuak
betiko lelo txar ura:
“Badakizute Pazkoa dala
gaur bi egunen burura.
Giza-Semea salduko dute
atzerritarren eskura,
gurutz batean josiko dute
gizon-iltzalle modura”.

1629

Ordu berean erri-aundizki
guziak ziran alkartu,
ortarako apaiz-buruaren
etxean ziran batzartu.
Ondo konpondu ziran ta Jesus
iltzeko asmoak artu,
atzipez egin nai zuten dana,
baña nola arrapatu?

Judasen tratua

1630

Aspaldietan ilko zutena,
baña bazuten beldurra,
erriak asko maite baizuen,
or zegon beren makurra.
Nola ilko pentsatzen zegola
Sanedrin-jende maltzurra,
uste gabean egokiera
etorri zaien eskura.

1631

Amabitako bat zan, urtetan
Jesusekin zebillena:
diru-zalea, lapur gaitoa
ta Judas zuen izena.
Diruak arrunt itxutu zuen,
galdu bere sinismena,
maltzur au zuten egokiera
ori eraman ziena.

1632

Urbil zan bada apaizengana
Judas ikasle traketsa,
ez noski Jesus galtzeko pozez,
diruan zeukan ametsa.
Sartu orduko eskatu zien
zenbateko interesa
artuko luken, Maisua aien
eskutan jarri baleza.

1633

Benetan poztu ziran apaizak
ikaslearen eskariz,
tratua egin zuten ogei ta
amairu diru eskañiz,
kobratzekotan danak Maisua
aien eskura ekarriz,
uste gabean eta ixilka,
naspillik gabe al balitz.

1634

Zerratu zuten beren tratua,
biak artu zuten poza;
egokiera zai bitartean
geratu zan katamotza,
iskanbil gabe etsaietara
nola salduko bildotsa
pezeta batzun truke. Besterik
gabe bear da biotza!

Jesusen Nekaldia

1635

Iritxi da ordua:
Nekaldi-garaia;
aukera billa dabil
ondoan etsaia,
Jesusen urrats danak
zainduaz, lasaia.
Artaldeko ardi bat
galtzeko artzaia,
Maisuak beteko du
aspaldiko naia.

1636

Lagunik maiteena
etsaitzat onduan,
maltzurak ez dabilki
besterik goguan.
Iñor oartu gabe
aukera moduan
Maisu maitea nola
galduko ote duan;
eskeñia emango
diote orduan.

1637

Zenbatian sal-benta
aurrez erabaki,
kobratzeko lenbailen
nai luke ebaki.
Ixilka egin arren,
Jesusek badaki;
ez du bialiko au
zerbaiten aitzaki,
ez da igesi joango,
maitea izaki.

1638

Jerusalendik urrun
ez dala profetik
iltzen ikasi gendun
Jesusen itzetik.
Orrentxengatik lasai
zebillen lurretik,
borondatez etorri
zan danen aurretik,
ez da joango il arte
eliza xarretik.

1639

Ainbat aldiz aipatu
duan ordu latza
igaro arte, Jesus
ez dabil, ez, lasa.
Etsaien eskutatik
Nekaldi garratza,
laxter badatorkio
illunen arratsa,
borondatez emango
du azken arnasa.

1640

Oroituaz illuntzen
zitzaion biotza,
“Zoratzen ibili naiz
–alare diotsa–
edateko bein nere
edontzi mingotsa”.
Beretzat aukeratu
zuan eriotza,
naiago zualako
gizonaren poza.

1641

Ondo badaki arek
nola edo ala
gizonaren bizitza
nekaldi bat dala,
bere nekez gurea
onesten zuala,
jarraitzeko jarririk
bide bat zabala,
nai t'ez gizonak ortik
pasako giñala.

1642

Kristaua, irakurri
idazten zaizuna,
ausnartu zazu bere
Nekaldi astuna.
Itxitako atea
zabaldu zituna,
laxter baidator andik
sartzeko eguna,
Jesusek merezi du
gure maitasuna.

Pazko-aparia

1643

Gañean zuten Pazko-bildotsa
jan bear zuten eguna,
etzan lengoak bezin alaia,
bazan zerbaiten illuna.
Lengo urtetan bezela etzan
Maisu onaren jarduna,
ikasle berak igertzen zuten
aren urduritasuna.

1644

Deabru bera sallean zeukan
limosna danen lapurra,
bere sal-benta egin ta lasai
Judas, saltzalle maltzurra,
Ala iltzeko gizon aldetik
ere bazeukan beldurra,
oek danakin urduri zegoen
Jesusen biotz xamurra.

1645


Ondo zebiltzan bere ondoan
ikasle maite zitunak,
aien gañera etorko ziran
ordu garratz ta illunak.
Artzaia joko zuten etsaiak,
igesi berriz lagunak,
benetan errukarri zitzaizkan
bere ikasle kutunak.

1646

Baña bulartsu danen gañetik
Jauna badoa aurrera,
gurutz batean aurki josiko
duten Jerusalemenera.
Deiturik bada ikasle danak
beraren aldamenera,
“Pazko-eguna gañean degu”
esan zien, biotz-bera.

1647

“Badakizute gure oitura
bildots errea jateko”.
Pedro ta Joani agindu zien
erri aldera joateko.
Lengo urtetan bezela beraz
bildots errea jartzeko,
etorko zala ikasleekin
bera, ordua zaneko.



2013

Berela berriz: “Dana amaitu da”. Orra eriotz-ordua, begiak jasoz Aitarengana egin zun cundoko oiua: “Aita nerea, zure eskuetan uzten det nere gogua”, eta geldiro bular gañera makurtu zuen burua.

1648

Auek galdetu zioten: “Baña,
Maisu, nora joango gera?”.
“Gizon bat arkituko dezute
jetxi orduko kalera,
suil ura buruan daramala
jexten aldapak gainbera;
nere aldetik egin berari
Pazko-gelaren galdera”.

1649

Joan ziran, bada, esan bezela
arkitu zuten guzia:
barrun aundiko gela zabala,
tresnatua, egokia,
Maisuak bere ikasleekin
jateko apal-tokia;
bien artean atondu zuten
beren Pazko-aparia.

1650

Jetxi zan, bada, ikasleekin
Jesus ia illunean;
eta maiera exeri ziran
garaia eldu zanean.
Jesus mai-buru, amabi ikasle
beraren aldamenean,
tristura-antz bat bazegon noski
aien biotz barrenean.

1651

Ikasle danak goibel zebiltzan,
bazan zerbaiten beldurra,
Maisuak ainbat aldiz esana
etzan izango gezurra.
Jauna saltzeko egokiera
zai zegon Judas maltzurra,
danen mirabe egiña Jesus,
betiko gisa, xamurra.

1652

Ez da egundo ere aztuko
arrats artako jarduna,
danen gañetik nagusitu zan
Maisuaren maitasuna.
Esan baleike an agertu zan
Jainkoaren aultasuna,
ainbesteraño maite baizuan
gizonaren osasuna.

1653

Erdi ezkutu amairu lagun
jateko Pazko-bildotsa,
mundua mundu ez da galduko
arrats artako oroitza.
An bai oparo zabaldu zula
bere Jainkozko biotza,
ixillunean laxter entzun zan
Maisu onaren abotsa.

1654

“Zoratzen negon ordu onen zai,
nere Nekaldi-sarrera,
aurretik ospatzeko Pazko au
emen zuekin batera.
Egi-egitan diozuet nik:
mundu onetan ostera
ez baidet jango, igo bitarte
nere Aitaren etxera.

1655

Ondoren, ixil, edal-ontzia
artu, eskerrak emanik:
“Artu, edan ta bana zazute
zuen artean –esanik–.
Geiago ez det iñoiz edango
matsaren arnari danik,
mundu ontatik nere Aitaren
erreinura gabetanik.

Apostoluen eztabaida

1656

Iru urtean sallean dabiltz,
Jesus dutela gidari,
amabi ikasle egoskorrak,
etzan askorik nabari.
Ez diote asko begiratzen
aren eredu onari,
aiek biali bear al zitun
ondoren mixiolari?

1657

Jesusen ordu larri aietan
ere bazuten barrena:
apostoluak eztabaidaka
nor zan saillean aurrena.
Ordu gutxiren buru Maisuak
dauka munduko azkena,
apostoluak ez dute asko
goxatuko bere pena.

1658

Nolanaikoa etzan, ez, gure
Maisuaren eramana,
purrusta gabe apal ta goxo,
beti bezela otxana,
begiratuaz serio baña
maitasunez banan-bana,
itzegin zien gozoro: "Entzun
ondo diozutedana.

1659

Badakizute errege jaunak
danen nagusi daudela,
menpekoak ongille izena
ipiñitzen dietela.
Zuen artean ordea ori
ez bedi izan orrela,
aundien dana egin dedilla
danen mirabe bezela.

1660

Maiburua ala serbitzaria
bitan nor da aundiago?
Maiburu egiten duna noski,
ortan zalantzik ez dago.
Begira ondo: zuen artean
mai-serbitzari ni nago;
aundi nai duna ez da mirabe
nai duna baño geiago.

1661

Zuek nerekin iraun dezute
nere larri-orduetan,
eta nik gertu dauzkat zuentzat
aulki bana zeruetan,
luzatu baño len exeririk
zeruko jauralkietan,
Israelko amabi leñuak
epai ditzazuten bertan

1662

Eztabaidaka aritzen ziran,
arrokeria nagusi,
aundinai ori askotan zuen
apostolutan ikusi.
Ordu gutxiren buru beren gain
bearko zituen utzi,
eredu ona nai zien bada
egintzetan erakutsi.

Oñak garbitzen

1663

Maiean daude ospatu nairik
Pazko-jaien aurreguna,
badaki ondo bete duela
munduko eginkizuna.
Aitarengana igo baño len
bereak utzita Jauna,
azken orduan geiago ager
zien bere maitasuna.

1664

Apaltzen ari ziran pakean
begiratuaz aurrera,
an zegon Judas, gau artan bertan
salduko zuena bera.
Bere asmoak ondo betetze-
arren bildu zan maiera,
ezer ez dakin baten gisara
apostoluen artera.

1665

Bazekin Aitak gauz danak bere
esku uzten zituala,
Jainkoagandik etorri eta
Jainkoagan zijoala.
Jeiki zan bada, ur-ontzia artu,
gerrian berriz oiala,
apostoluen oñak garbitzen
asi zan Jesus apala.

1666

Ao-txabalka jarri zaizkio
ixil-ixilik begira,
ontzi ondoan txut ikusirik,
antxe jendea larri da.
Jesus zai dago eta iñork ez
du atera nai erdira,
ongi esanaz noizbait txandaka
urbildutzen asi dira.

1667

Baña Pedroren txanda zetorren,
lotsatu zan au benetan,
ikusirik ain apal ta txiki
Maisua bere oñetan.
“Zuk neri oñak garbitu? Ez, ez
egundoko egunetan!
Beñere ez dira jarriko nere
oñak zure eskuetan!”.

1668

“Dagidana, orain ez bada’re,
gero ulertuko duzu”.
“Alperrik ari zera. Ori ez!”
esan zion Pedrok sutsu.
“Oñak garbitzen ez badizkitzut
–Jaunak esan zion usu–,
orduan, Pedro, nerekoikoak
betiko egin dituzu”.

1669

Izutu zan itz larri aiekin
arro mintzatu zan Pedro,
eta Jesusi begiratuaz,
ondo pentsatu ta gero,
bere aurrean buru-makurka
ala esan zion gero:
“Oñak ez-ezik baita burua
ere, ortara ezkerro”.

1670

Jaunak erantzun: “Gorputz osoa
lendik garbitu duenak,
oñak garbitutzea aski du,
oiek dira zikiñenak.
Ta zuek berriz garbi xamarrak
zaudete, baña ez denak”.
Judasengatik esan zituan
itz oek Maisu zuzenak.

1671

Bukatu zuen oiñ-garbiketa
Jesus otxanak orrela,
soiñ-gañekoa jantziz berriro
maieratu zan berela.
Ikasle danak erdi lotsatu
aldamenean zeudela,
serio xamar jarraitu zuen
izketan beti bezela.

1672

“Badakizute zer egin detan:
Maisu deitzen didazute;
egi biribilla, alaxe naiz ta
ortan arrazoi dezute.
Jaun da Maisu naizen onek oñak
garbitu badizkitzute,
zuen artean ere ikasbide
au beti gorde zazute.

1673

Ez da beñere bere morroia
bere nagusia aña;
bialiak ez dio artuko
biali dunari gaña.
Gogoan jaso zazute beti
zuekin egin detana,
zorionsua auek ulertuz
ondo betetzen duana.

1674

Jesusek goibel saltzalleatzaz
pentsatzen zeukan burua:
“Baña ez da zuek danentzako
nik orain esandakua.
Nerekin dagon batek jasoko
du nere aurka orpua,
nere sallek, nere ikasle,
nik neronek autatua”.

1675

Urduri zegoan azken gau artan
maiean Jesus otxana:
“Aldez aurretik esan dizutet
gero gertatuko dana.
Ondo gogoan artu zazute
bada nik emen esana,
orduana sinist zazuten nor dan
zuekin gaur ari dana”.

1676

Era onetan jarraitu zuen
bere arian aurrera:
“Nik bialia maiteki artzen
duanak bere etxera,
ni artutzen nau; ta ni etxean
artutzen naunak atzera
artutzen du ni mundu ontara
biali naun Aita bera”.

Judas, salatua

1677

Itz samin aiek esandakoan
Jesus larritu egin zan,
salduko zuna aurrean zeukan,
gutxigorako ez baizan.
An zegoan Judas danen erdian
errubeko baten gisan,
aren buruan errukia ez
beste asmoak zebiltzan.

1678

Ixil-ixilik zeuden guziak,
ixil apal-toki dena,
orduana egin zuen Jesusek
triste bere aitormena:
“Orain nerekin mai ontan bertan
jan ta edaten duena
izango da ni etsaietara
aurki salduko nauena”.

1679

Etzan goxoa uste gabean
zabaldtu zien berria,
naigabetu ta izutu ziran,
ain zan ikaragarria.
Geienak garbi arkitzen zuten
ortatik kezkatagia;
baña Maisuak egia zion,
ortan zeukaten larria.

1680

Arpegirik arpegi urduri
zebiltzan aien begiak.
Bakoitzak: bera ote zan ori?
Mendean zeuzkan larriak.
Nor zan errudun etzun aitortzen
zekinaren arpegiak,
eta bildurrez: “Ni al naiz, Jauna?”
galdetzen zuten guziak.

1681

Danak galdetu zioten, bada,
izaturik, banan-bana:
“Esaidazu, Jauna: ni ote naiz
ori egingo detana?”.
“Nerekin ontzi onetan ogi-
puska bustitzen duana,
zuetako bat, etsaietara
gaur ni salduko nauana.

1682

Bai: badijoea Giza-Semea
mundu ontatik bestera,
artaz igerri zuten bezela
Idaztien esanera.
Baña gaixoa saltzen nauena
nere etsaien mendera!
Askoz obe zun orrek ez bazan
sortu bizien artera”.

1683

Gero ta geigo larritzen ziran
itz oekin, ta etzan gaitz.
Ez ordea Judas; onek ere,
danen galderari jarraiz,
lotsarik gabe galdetu zion:
“Maisu, ori ni ote naiz?”.
Jesusek ala erantzun zion:
“Edorrek diok; bai, i aiz”.

1684

Ez dakit keñu egingo zion
edo Judas zegon gertu,
Jesusen itzak etzitun iñork
Judasek bestek ulertu.
Judasen asmo txarrak indarrez
etzituen nai okertu,
orrenxengatik errudun nor zan
bistara etzan agertu.

1685

Jesusen itzak txunditu zuten
Pedro, Jesus maite zuna;
baña maiean Jesusengandik
zegoen naiko urruna.
Bere ondoan erdi lo zegon
onen maitale kutuna,
oni galdetu zion ixilka
nork salduko zuen Jauna.

1686

Jesusen bular gañean berriz
bere burua eratzan,
galdetu zion Jesusi onek
ea saltzallea nor zan.
“Ogi au emango diodana”
aopean zion esan;
busti ta Judasi eman zion,
beraz saltzalle ura zan.

1687

Ikaratu zan Joanen biotza,
au baizan galdetu zuna;
onek ederki ezagutu zun
bere barrunbe illuna.
Pedro ordea nola baizegon
onen ondotik urruna,
baratzara arte etzun ikasi
zein zan saltzalle aizuna.

1688

Judas etzegon ondo lekuan,
erdi beldur, erdi zora,
jan ondorean deabru danak
sartu zaizkion kolkora.
“Egin bearra egin zak orain”
Jesusek berriz gogora;
danak utzita ixil-ixilik
laxterka joan zan kanpora.

1689

Maiean iñork etzun ulertu
Jaunak agindu ziona,
au zuten beren gauzen erosle,
diru-zaitzalle zegona.
“Biarko gauzak erosi itzak
gaur bezperatik, gizona;
edo bestela eman akiek
beartsueiri limosna”.

1690

Larri urrun zan Judas, jan bazun
jan zun ogi-mokaua;
deabru danak sartu zaizkion
autsi zuneko baraua.
Bere asmoak nola beteko
erne zebillen billaua,
gaua zan eta Judasentzako
argituko etzun gaua.

1691

Judas atera zanean Jaunak,
lasaituz, zion onela:
“Orra ospatu Giza-Semea
ta arengan Jainkoa bera.
Eta Jainkoa arengan orain
ospatua dan bezela,
onek ere ospatuko du Giza-
-Semea, eta berela.

Eukaristiaren sorrera

1692

Jaunak biali egin nai zuen
andikan Judas maltzurra,
bere saltzalle ta eltzetxoko
limosna danen lapurra.
Bhurri arek egin zunean
apal-tokitik agurra,
lasaitu zaio lotua zeukan
Jainkozko biotz xamurra.

1693

Mai inguruan ari zirala
apaltzen pake-pakean,
Jesusek artu zuen ogia
bere eskuen artean.
Bere Aitari eskerrak eman
ta onetsi ondorean,
apostoluei eskeñi zien
au esanaz bitartean:

1694

“Artu zazute eta zabaldu
zuen artean jateko,
nere gorputza baida emango
dana zuek salbatzeko.
Eta au bera zuen artean
dagizuten bakoitzeko,
orain da beti egin zazute
nere oroitzapeneko”.

1695

Ta berdin-berdin, apalondoan,
edalontzia zuela,
Aitari eskerrak eman eta
onetsi zuen berela,
apostoluen artean zabal
lenago ogia bezela,
barren-barrenetik banaka itz
auek esanaz onela:

1696

“Edan zazute guztiok ortik:
nere odola benetan,
Itun Berriko odola zuen
obenen barkamenetan
ixuriko dana. Au egiten
dezuten leku danetan
egin zazute, orain ta beti,
nere oroitzapenetan”.

1697

Ikasle bakar aien aurrean
eman zun lenengo meza,
ardo-ogi odol-gorputz biur
ulertzen ez da erreza.
Il da gerora ere izan nai
baizuen gure babesa,
orrela berak indartzen zuen
gure maitasunik eza.

Alkar maite

1698

“Ene maiteok, aldi laburrez
oraindik zuekin nago,
ez nazute ba zuen artean
ni luzaroan izango.
Juduei esan niena bera
zuei dizutet esango:
saiatu arren nagon lekura
etzeratela joango.”

1699

Agindu berri bat damaizuet:
alkar maite zaitetzela,
maite zaitetze benetan alkar
nik zaituztedan bezela.
Agindu ori bete ezkerro,
atzerritarrak berela
ezagutuko baidute nere
ikasleak zeratela”.

Jesusek Pedrori

1700

Arro xamarra izaki nunbait,
min eman zion Pedrori
maite zula zalantzan jartzeak,
etzaion ondo erori:
“Bazoazela? Nora zoazen
jakin genezake ori?”.
“Gero etorko zera baña orain
ezin ziñezke etorri”.

1701

Jesusen itzak zorrotzak ziran,
Pedrok min artu zuen, min;
ala erantzun zion: “Ta orain
zergatik jarraitu ezin?
Prest nago, Jauna, ni espetxera
joateko ere zurekin,
zugatik nere bizia pozik
emango nuke beñepin”.

1702

Gizona itzetan beti arro
baña egintzetan aula;
Jaunak bazekin pentsatu gabe
errex botatzen zitula.
“Zer ari zera, Pedro, nigatik
bizia emango dezula?
Naizu ollarrak jo orduko iru
aldiz ukatzen nauzula?”

1703

Ai, Pedro, Pedro! Bestelakoak
dira Satanasen naiak,
zu astintzeko eskubidea
eskatu baidu etsaiak.
Otoi egin det iraun dezaten
zure sinismen-sustraiak,
zuk itzulirik noizbait sendotu
ditzazun zure anaiak”.

1704

Jesusek larri xamarra dakus
bereen etorkizuna,
ala dio: “Oroitzen zerate
bakar, erriak barruna,
ezertxo gabe, predikatzer
bial ziñuzten eguna?
Ezeren paltik izan zenuten?”.
Danak diote: “Ez, Jauna”.

1705

Jaunak berriro goxo ta goibel
jasorik bere abotsa,
mai inguruan biotz-erori
dauzkan maiteei diotsa:
“Baña orain bide-zorroa ezik
artu beza diru-poltsa;
ta, soinpekoa salduz, ez dunak
eros ezpata zorrotza.

1706

Nitzaz esana gertatuko da
berela bete-betean
idatzi ura: “Ipiñi zuten
gaizkigilleen artean”.
Oraintxe neri dagokidana
laxter da errematean”.
“Ona bi ezpata emen”. “Aski
da” esan zien pakean.

Apalondoko itzaldia

1707

Ordu gutxira Jesus maiteak
dauka munduko atzena,
gurutz batean izango baidu
dan eriotzik latzena.
Piztu nai luke ikasleetan
geroko itxaropena,
ala die: “Jainko ta nigan ez
galdu zuen sinismena.

1708

Ez bedi nasi zuen biotzik;
nere Aitaren etxean
leku asko dago; ala ez balitz,
esango nizutekean.
Jainko ta nigan sinist zazute,
bizi zaitezte pakean,
Aitagan joan ta zuen lekua
nik atondu bitartean.

1709

Etorriko naiz zuen lekua
atontzen detan orduan,
berriz artuko zaituztet danak
betiko nere onduan,
bizi zaitezten zuek guziak
ere ni nagon lekuan.
Badakizute bidea, baita
ere ni nora nijuan”.

1710

Tomasek ala erantzun zion:
“Nora zoazen jakiñ ez
eta bidea jakingo degu?”.
Jesusek maitasun fiñez
erantzun zion: “Ni naiz bidea,
egi ta bizia ziñez,
Aitagan iñor ezin liteke
joan, ez bada nere bidez.

1711

Ni ezagutzen baninduzute,
Aita ta ni bat baigera,
ezagutuko zenuteke ere
ondo nere Aita bera.
Zertan ukatu? Ezagututzen
dezute, ondo gañera;
bera ikusteko ere izan
dezute egokiera”.

1712

Pelipek: “Erakus zure Aita eta ori aski dugu”.
“Ainbat denboran zuekin nago ta ez nauzute ezagutu? Ni ikusten naunak Aita ikusten du. Nolaz esaten duzu, bada, Pelipe, oraindik ere: ‘Aita erakus zaiguzu?’.

1713

Aita eta ni bat geradenik ez al duzu sinistatzen?
Ez ditut itz bakar auk ere nik nere baitan asmatzen.
Egiten ditudan lan guziak Aitak baidizkit moldatzen, bestela nola ez diezute nere lanei begiratzen?

1714

Sinisten dunak egingo ditu aundiagoak oraindik, nere Aitarengana igoko bainaiz laxter ni emendik.
Zuek eskatzen dezuten dana iritxiko det nik andik, nere Aitak artu dezan bere ospea Semeagandik.

1715

Erakutsi, nere aginduak, betez, zuen maitasuna, Aitaren bidez nik bialiko dizutet andik Ats Deuna, izan dedilla betiko zuen baitako bizi-laguna, betiren beti zuen artean izango baidu jarduna.

1716

Mundu txar onen begietatik beti ezkutuan datza, ezagutuzten ez duelako artuko ez duen Atsa.
Zuengana, bai, etorriko da maitasunez aberatsa, zuen baitako ixil-unean izan dedin zuen gatza.

1717

Ez ikaratu, etzaituztet nik iñoiz umezurtz utziko; zuen garaia bete orduko natzaizute etorriko.
Aldi labur bat eta munduak ez nau berriz ikusiko; zuek bai, bizi bainaiz ta zuek ere zerate biziko.

1718

Ni etorko natzaizue bada garai danean berela, orduan ondo ezagutuko dezute au, dan bezela: nere Aita neregan eta ni nere Aitagan gaudela, eta berdin ni zuengan eta zuek nigan zaudetela.

1719

Maite banazute bete ondo nere agindua dana, nere Aitak ere maiteko du ni maitatuzten nauana.
Nik ere berdin maiteko baidet Aitak maitatzen duana, egitan azalduko naizela ni berriro arengana.

1720

Orduan Judas, Iskariote ez,
besteak zion Jesusi:
“Baña zergatik egingo dezu
ori: guri erakutsi
zere burua, eta mundua
erakutsi gabe utzi?”.
Beko errege izango zala
uste au zegon nagusi.

1721

Jesusek berriz: “Ni maite naunak
gordeko du nik esana,
maiteko du Aitak ta egoitzez
etorko gera arengana.
Ez da nere maitalea itz au
begiratzan ez duana,
ez baida nere itza; biali
nauna da mintzatzen dana.

1722

Zuekin nagon bitarte esaten
dizutet orain au dana,
nere Aitak bialiko baidu
Arnas Deuna zuengana,
Etorritzean erakutsiko
dizute ark banan-bana,
zuen gogora ekar eraziz
orain arte nik esana.

1723

Nere pakea uzten dizutet
pakean bizi zaitezten;
ez, munduak ematen dun gisa
ez dizutet nik ematen.
Nere pakea uzten dizutet,
berriz dizutet esaten;
lasai zaitezte, ez beldurrik izan,
ez utzi bururik nasten.

1724

Esan dizutet banijoala
baña etorko naizela,
poztu zaitezte baldin maite ba-
nazute bear bezela.
Aita ni baño aundiago da,
jakin zazute orrela,
au gertatzean, aldez aurretik
dana esan nizutela.

1725

Gaurtik aurrera ez det itz asko
egingo emen zuekin;
beko jabea badator, ez du
zer ikusirik nerekin.
Baña nik Aita maite detala
munduak bear du jakin,
eta beraren agindu danak
beti ditudala egin.

1726

Orain txutitu gaitezen danok
eta atera gaitean”.
Esker-otoitza esan ondoren
atera ziran pakean,
lendik askotan bezela gora
Olibadiko bidean;
urduri xamar ikasle-salla
ere berekin batean.

1727

Apal-lekutik erten zan Jesus
emanik azken agurra,
bereak ezin utzirik dabil
Jesusen biotz xamurra.
Apostoluak kezkatu doaz,
bada zerbaiten beldurra;
bitarte ortan gauzak moldatzen
zeletan Judas maltzurra.

1728

Danaren berri badu Maisuak,
txuxen badijoa Jauna
Olibadiko baratzatxora,
Judasentzat ezaguna.
Laxter itzuli bearko ditun
bide-laxterrak barruna,
aurrera doa ataka danak
igarota maitasuna.

1729

Judasek sartu dion ezpata
zistaka ari da, zorrotza;
ainbeste maite zunaren lanak
erdibitua biotza.
Zalantzan dauden apostolutan
piztu nai du bere poza,
ixillunaren ondoren xamur
Maisuak ala diotsa:

1730

“Ni egiazko matsondoa naiz,
Aita mastizaia, berriz;
nigan uztarik ez dun abarra
kentzen du, andik ebakiz.
Uzta dakarren mats-adar dana
utzi, txukunduta jarritz,
orrela gero eta geiago
zamatatu dedin arnariz.

1731

Nere itzaren bidez zaudete
onuzkero garbiturik,
zuengan nago ni, bazaudete
zuek nerekin baturik.
Mats-adarrak ez lezake eman
iñoiz ezeren ziturik
ondotik berez; zuek ere, ez ba-
zaudete nigan loturik.

1732

Ni naiz matsondoa, eta zuek
berriz nere mats-adarrak;
nigan dagon eta ni naukanak
badakaz frutu azkarrak.
Nigan ez dagona berriz bota
eta, mats-adar igarrak
kiskaltzen diran bezela, danak
erreko ditu sugarrak.

1733

Zuek nerekin bazaudeteke
nere itzari itsatsita;
eska, emango zaizute edozer,
otoitza altsua baita.
Orrela ospatuko dezute
mundu ontan nere Aita:
nerekin batu ondoren uzta
oparoa ekarrita.

1734

Aitak maite nau, nik ere zuek,
iraun maitasun orretan;
maite nau ni txuxen dabillanak
nere agindu danetan.
Ni ere nabillelako nere
Aitaren aginduetan,
beraren maitasunean nago
eta maite det benetan.

1735

Lenago esan dizutet baña
entzun berriro alare:
alkar maite, nik zuek bezela,
maitatu neurririk gabe.
Bere bizia ematen dunak
bere adiskideen alde
baño geiago mundu onetan
iñork ere ez du maite.

1736

Bete nere aginduak, izan
zaitezten nere lagunak;
ez morroi, ez; morroiak ez daki
zer egiten duen jaunak.
Goxoagoko itzak dabilzki
benetako maitasunak,
jakin erazi nai dizkitzudet
nere Aitari entzunak.

1737

Nik aukeratu zaituztet zuek
ta neregana ekarri,
ta ez zuek ni: nik berezi ta
nere artaldean jarri,
nere ondoren joan zaitezten ta
eman zazuten arnari;
ez edozein moduzkoa, uzta
iraunkorra ta ugari.

1738

Nai dezuten guzia Aitari
eskatu orduan, bai, ta
dana emango dizute Arek,
alguztiduna da Aita.
Baña agindu bat bete bear
nere bidean jarraitu:
dana lortuko dezute baña
ortarako alkar maita.

1739

Munduak iguintzen bazaituzte
min geiegirik ez artu,
munduak ez al niñuan bada
ni lenbiziko bazartu?
Munduak bere duena baizik
ezin lezake onartu,
nik kendu zaituztedan ezkeru
munduak ezin maitatu.

1740

Oroi zaitetze lendik askotan
esaten nizuedana:
morroia ez da iñola ere
bere nagusia aña.
Neretzat ezik zuentzat ere
ez da paltako iraña,
neri entzun badidate entzungo
dute ere zuek esana.

1741

Baña neregatikan egingo
dizute ori dena,
entzun nai ere ez duelako
munduak nere izena,
ez baidute ondo ezagutzen
onuntz biali nauena.
Ori izango da neretzat zuen
maitetasun-aitormena.

1742

Pekaturik ez luteke onuntz
ni etorri ez banintza,
eta ez balute entzun izan nik
erakutsitako itza.
Ez daukate orain aitzakirik,
alper-alperrik dabilta,
nere Aita iraintzen baidute
ni iguintzen nauten gisa.

1743

Oien aurrean ez banu egin
orrelako miraririk,
etzuten pekaturik; baña bein
oiek danak ikusirik,
Aita eta ni isekatzeko
ez daukate aitzakirik;
merezi gabe iguingo naute,
ala dago idatzirik.

1744

Nik bialiko dizutet laxter
Arnas Deuna Aitagandik,
eta Aitaren Ats Deun ori
etor dediñean andik,
orduan arek bete-beterik
neri aitor egingo dit,
beti nerekin zaudetelako
zuek ere bai oraindik.

1745

Gero gaizbide ar etzazuten
aldez aurretik berriak
jakin erazi nai dizkitzuetet,
datozen gertakariak.
Ni urruntzean etorko dira
zuentzat ordu larriak,
neregatik igaro bearko
baidituzute gorriak.

1746

Zigortuz bota ondoren zuek
Sinagogatik urruna,
badator zuek il da orrekin
goratzen dutela Jauna
zuek iltzen dabiltzan etsaiak
usteko duten eguna,
Aita ta ni, arek bialia,
ez gaituzte ezaguna.

1747

Gauz auek esaten dizkitzuetet
izan zazuten goguan
nola kontatutzen nizkitzuten,
gertatzen diran orduan.
Ez nizkitzuten asieratik
esan, ni zuen onduan
bizi bainintzan oraindik ere,
zuen zaitzalle munduan.

1748

Orain ordea banijoa ni
atera nintzan lekura,
andik mundu ontara biali
niñuanaren ondora.
Baña alare ez dit galdetzen
iñork: "Nora zoaz, nora?".
Au entzunakin triste zaudete,
tristura sartu gogora.

1749

Garbi alare esaten dizutet:
ez naiz gezurretan ari;
on zaizute nik aldegittea,
ez leku eman kezka.
Gora orduko nik bialiko
dizutet zuen pozgarri
Aitarengandik Arnas Santua,
ni emendik joan banadi.

1750

Mundu oni bere arpegira
arek dizkio botako
bere pekatu gaiztoak, nigan
sinistu ez dualako:
zuzentasuna, mundu ontatik
Aitagana noalako;
ta epaiketa, mundu-jabea
epaitua dagolako.

1751

Gauz asko dauzkat oraindik ere
zuei esateko, baña
zuen burua ez da oraindik
oiek ulertzeko aña.
Arnas Santua datorrenean
ark azalduko du dana;
ez du beretik esango, baizik
nigandik artu duana.



2072

“Ez ikaratu, ondo dakigu gurutzean josi zana,
gantzutu naiean zatoztela Nazaretarrarengana,
Bañan alperrik zabiltzate emen, bete da askotan esana;
zertan billatu illen artean betiko berpiztu dana?”

1752

Arek benetan goratuko nau
nerea jakin eraziz,
Aitaren gauzak nereak dira
Ark nere eskutan jarritz.
Orrentxengatik esan dizutet
gauza au bein eta berriz:
arek nerea artuko dula
ura zuei iragarritz”.

1753

Jarraituz Jesus iltzera doan
ama on baten antzera:
“Ez nazute zuek ikusiko
aldi laburtxo batera.
Beste aldi bat ta ikusiko
nazute emen ostera;
banoa laxter mundu ontatik
nere Aitaren etxera”.

1754

Ikasle danak alkarrizketan
Jesusen bazterrik bazter:
“Aurki ez nazute ikusiko,
bai ordea andik laxter...
Eta Aitarengana noa... Zer
esan nai du orrekin, zer?
Ez dakigu zer esan nai digun,
ez degu ulertzen ezer”.

1755

Jesusek laxter antzeman zien
galdetu nai ziotela:
“Aopekotan ari zerate
izutu batzuk bezela,
‘aldi labor ori zer ote da?’
alkarrik diozutela;
‘aurki ikusi ez, andik laxter bai’
zer ari zaigu orrela?”

1756

Orra egia: ez da paltako
zuentzat negar samiña;
bitarte ortan poztu egingo
da berriz mundu ariña.
Ez ikaratu: orduan zuen
atsekabe ta eziña
luzatu gabe biurtuko da
zuentzat poz atsegiña.

1757

Emakumea ere larri da
aurra jaiotzerakuan,
arentzat oso une larria
estua baida orduan.
Gizon berri bat sortu dalako,
aurra jaio dan onduan,
igarotako atsekabeak
amak ez dauzka goguan.

1758

Orain zuentzat ez da paltako
atsekabe ta negarrik;
baña etorko naiz, etzaitzuet
utziko emen bakarrik.
Poztuko zerate, ez da poz ori
kenduko duen indarrik,
eta orduan ez du izango
iñork galdetu bearrik.

1759

Eskatu nere Aitari, baña
nere izenean eska;
sinistu emango zaizutela,
kendu biotzetik kezka.
Oraindik zuen artean iñor
eskatu duenik ezta;
eskatu zuen poz ori, bete-
-betea dedin gañezka.

1760

Gauz auek danak adierazteko
bota det ainbat alegi,
baña askotan zer esan nai nun
ez diozute igerri.
Orain da ordu argi ta garbi
dana agertzeko zueiri,
orain alegi gabe emango
dizutet Aitaren berri.

1761

Ordu artan nere izenean
itxaropenez beteak
egingo dizkioztute goiko
nere Aitari eskeak.
Iñoren bitartekorik gabe
zabalik daude ateak,
ni maite nauzutelako Aitak
zaituzte oso maiteak.

1762

Sinist dezute, nik erakutsi
dizuetedan modura,
Aitarengandik etor nintzala
zuen artera mundura;
eta berriro banijoala
etorri nintzan lekura;
orrenxengatik maite zaituzte,
baidauka zuen ardura”.

1763

Ikasleak erantzun zioten
ondo ulertzen zutela;
dana zekila, etzula iñork
galde bearrik orrela.
Argi ta garbi, alegi gabe,
itzegiten zun bezela:
“Orrenxengatik sinisten degu
Aitagandik zatozela”.

“Iges egingo dezute”

1764

Zer gertatuko zan esateko
orra aukera polita,
eta ala dio: “Orain sinisten
dezute? Ordua baita.
Danak banatuko zeratena
ni bakar-bakar utzita,
baña alare ez nago bakar,
nerekin baidago Aita.

1765

Ordu latz ortan gaizbidetuko
zerate nekin guziak,
esana dago: ‘Artzaia jo ta
banatuko dira ardiak’.
Piztu ondoren ordea pozez
aztuko dira larriak,
berriro Galilean egingo
ditugu ikustaldiak.

1766

Sutzen zan Pedro iges-kontua
entzuten zun bakoitzero,
asarre xamar erantzun zion
bertatik sutsu ta bero:
“Danak iges egiñagatik
an geratuko da Pedro,
etsai guziekin aurrez aurre
zurekin iltzeko gero”.

1767

Arro xamarra zebillen Pedro,
ain erantzun zuen sutsu;
Jesusek ere, urrikalkalduaz,
pakean eta burutsu:
“Ai, Pedro, Pedro! Esango dizut
garbi, jakin nai baduzu:
ollarrak bitan jo baño len zuk
iruz ukatuko nauzu”.

1768

Etzuen Pedrok ori sinisten,
gero eta arroago:
“Etzaitut ukatuko, zurekin
iltzeko ere prest nago”.
Beste ikasle guziak ere
zer esanikan ez dago:
aiek mingañez egingo zuten
al zuten baño geiago.

Jesusen otoitza

1769

Jesusek lasai jarraitu zuen
bere izketa-modua:
“Gauz auek esaten dizkitzutet
estuasuunen ordua
datorrelako; baña ez galdu
orrekkin zuen burua:
biotz on izan, nik betirako
garaitu baidet mundua”.

1770

Bere ikasle maiteak goibel
zeuden, urrun zegon poza;
ixil-ixilik etorkizunen
beldurak zegon bakoitza.
Itz eder auek esandakoan
Aitagan jaso biotza,
era onetan asi zun bere
apaiz nagusi-otoitza.

1771

“Aita nerea, orra ordua:
Semea ospatu zazu:
era berean zure Semeak
ere ospatu zaitzan Zu.
Gizon guzien gairdiko esku
bidea eman didazu,
nik gizonei betiko bizia
emateko autu nazu.

1772

Betiko bizia, ezagutu
zu zaitugula Jainkoa,
danen gañetik jarrita zauden
bakar eta betikoa.
Ta ni naizela zure Semea
ta benetako Kristoa,
mundu ontara au salbatzera
ortik bialitakoa.

1773

Nik ospe eman dizut lurrean,
bete det zure esana,
bukatu ere emen egiteko
zuk eman zenidan lana.
Eman zaiozu zuk Semeari
ospea, Aita laztana,
mundu au asi baño lenago
betiraundik zeukana.

1774

Aita maitea, mundu ontatik
zuk neretzat bereziak
zureak ziran, neri emanak,
neri zaintzeko utziak.
Zure izena ta zure berri
ikasi dute guziak,
bete dituzte, sinistuz zure
itzak dirala egiak.

1775

Ikasi dute detan guzia
zuregandik datorrela,
zure itzak erakuts dizkiet
neri agindu bezela.
Aiek artu dituzte benetan
ezagutuaz orrela
zugandik atera nintzala ta
zuk bialia naizela.

1776

Oien alde, ez munduaren alde,
ari natzaizu otoika,
zureak dira ta zuk dauzkatzu
nere kontura utzita,
zurea dana nerea da ta
nerea zurea baita,
eta nik oien baitan arkitu
det nere ospea, Aita.

1777

Mundu onetan ez naiz egongo,
zugana noa berela,
ondo dakizu auek munduan
bizi bearako dutela.
Aita nerea, gorde itzatzu
ta bat izan ditezela
zuk eman dizkidatzun auek, zu
ta ni bat geran bezela.

1778

Zuk emandako ikasle auek,
nenbillen arte munduan,
nik zaindu ditut, gaizkirik gabe,
pakean nere onduan.
Oietako bat bakarra galdu
zait azkeneko orduan,
nai ta nai ez *gal-semea* zana,
idatzirik baizeguan.

1779

Nere ordua orra iritxi,
banijoa zuregana,
mundo ontan bizi naizen arte
esaten dizut au dana.
Nerekin dauden guziei izan
bezaie, Aita laztana,
nerekin nik detan atsegin au
bete-bete eman.

1780

Artu dute danak zure itza,
munduak ez ditu bere,
nere antzera ez baidituzu
mundutarrak auek ere.
Ez mundutik ken, zaindu itzatzu,
egin zaiezu mesede;
munduan bizi bear dute, ez
eskutik utzi beñere.

1781

Donetu itzatzu egietan,
egia da zure itza;
nik bialitzen ditut mundura
zuk biali nauzun gisa.
Oiengatik santuesten det nik
munduan nere bizitza,
donetu bitez egitan, Aita,
oien alde nauzu mintza.

1782

Baña ez dauzkat auek bakarrik
otoitz onetan goguan,
auen bitartez datozen aiek,
zu ta ni geran moduan.
Eskatzen dizut izan dezaten
biotz bat danak munduan,
zuk mundura biali nauzula
sinist dezaten orduan.

1783

Biok geran bezela bat, oiek
ere izan ditezela.
Zu nigan bezela, oiengan ni
ezagutu dezatela
guziak mundu onetara ni
zuk bialia naizela,
ta benetan maite dituzula
ni maite nauzun bezela.

1784

Aita, zuk neri emandakoak,
nere ikasle-taldea,
nai det ni nagon lekuan bertan
oiek ere egotea.
Ikusi dezatela zuk neri
eman didazun ospea,
mundua asi baño lenagotik
izan bainauzu maitea.

1785

Aita zuzena, mundu txar onek
zu etzaitu ezaguna;
nik bai, auek ere ni naizela
zuk biali ninduzuna.
Len ezik berriz ere erakutsi
nai diet zure izen deuna,
ni oiengan ta oiengan dedin
zuk didazun maitasuna.

Jesus Jetsemani-n

1786

Otoitz eder au egin ondoren
badoa Jesus aurrera,
ikasle-salla ondoan, Zedron
latsaren beste aldera,
Olibet-mendi zeritzan baratz
txiki baten barrenera,
ordu larrian sartu baño len
ixil otoi egitera.

1787

Goibel ta beldurrak doa Jesus,
ondo badaki berela
bide artatik itxumustuan
ekarri bear dutela
sokaz lotuta, birao artean,
gizon-iltzalle bezela;
bere nai utsez, aixa igesi
egingo luke bestela.

1788

Urruti gabe an egongo zan
Judas ere zelatari,
baratz artara ote dijoan
begira Jesus onari,
laxter abisu emateko zai
daukan gudari-sallari,
ea orrela azken ematen
dion artu dun lanari.

1789

Ori guzia badaki Jaunak,
alare zuzen aurrera;
biziaren ajol aundi gabe
sartu da baratz xarrera.
Etsai guziengatik Jesusek
ez du egingo atzera,
iltzea baño mingarriago
zaio Judasen galera.

1790

Judasek ere ikusiko zun
Jesus txuloren batetik,
erne zebillen gure maltzurra,
etzuen galduko betik.
Gudari-salla berekin artuz
laxter an zuen atzetik,
Jainkoak libra gaitzala diru
galgarri orren gaitzetik.

1791

Larri zebillen Maisu maitea
ikasle aien artean,
au esan zien sartu orduko
baratz xarreko atean:
“Zaudete emen ixillunean,
lasai jarrita pakean;
egin, bai, otoitz zuek ere nik
otoitz egin bitartean”.

1792

Ordu larria gañean zuen,
zetorkiona goguan;
arturik bada Pedro, Santio
ta Joan beraren onduan,
gogo-illuntzen asi zán izuz
arrigarrizko moduan;
eta ikaraz au esan zien
ikasleeiri orduan:

1793

“Iltzerañoko atsekabetan
au biotzaren tristura!
Txutik eziñik, ain nabil larri
ordu latz onen izura.
Zaudete, bada, emen exeri
ta otoitz egin zerura,
sar etzaitezten gaurko gau gaizto
ontan tentaldi estura”.

1794

Pake-pakean zegon mendia,
danean olibo zarrak,
zain kozkordunak, urtez beteak,
an eta emen bakarrak.
Zeru-ortzean illargi bete,
dizdizka berriz izarrak,
aiek ikusi t'entzun zituzten
Jesusen otoi-negarrak.

1795

Ixillunea, kinkiorik ez,
Jerusalen bertan dago,
bere kale zar estuak zenbat
aldiz ez ditu igaro?
Eliz santua txut aurrez aurre
danak baño arroago,
bere barruan Maisuak ez du
itzik egingo geiago.

1796

Ai, Jerusalem, erri gaixoa,
ainbeste maite duana!
Bera zuzendu ta onbidetzen
egin du amaika lana.
Bere itzaldi, bere mirari,
alperrikan ori dana,
egin dizkion on danengatik
eriotzera darama.

1797

Ai, Jerusalem, erri gaixoa,
gañean zuen azkena,
artu nai izan etzuelako
Jesusen bide zuzena.
Ederki asko ikusten zuen
zetorkion ondarena,
Jesusentzat etzan izan ori
naigaberik txikiena.

1798

Iru ikasle aiek utzita
urrun zan andik gordera,
arrikadaren bat bide inguru,
olibo zarren artera.
Estu ta larri, beldur-ikaraz
gizontxo baten antzera,
Nekaldi aurrez bere Aitari
antxe otoitz egitera.

1799

Belaunikatuz, auspez otoika
asi zan Jainko-Semea,
gizontxo baten antzera izu,
nekez, naigabez betea:
“Al baliteke urrun nigandik
ontzi au, Aita maitea!
Alare bete dedilla, Aita,
zure naia, ez nerea!”.

1800

Otoitz au bera egiten zuen
auspezka bein eta berriz,
ordu gutxiren buru gañera
zetorkiona igerriz.

Gero ta aspertuago ari zan
doi-doika il-zori jarritz,
bere nekaldi ura kentzeko
baldin iñola al balitz.

1801

Larritasunez eroria ta
bakardadean illuna:
“Guzia dezakezu-ta, Aita,
bota ontzi au urruna.
Baña, Aita, egin bedi orain
ta beti zuk nai dezuna”.
Zerua ixil, etzion Aitak
bialitzen erantzuna.

1802

Etsaia laxter gañean zuen
eta, bakarrik zegola,
otoi ta otoi ezin lasaitu
zuen biotza iñola.
Auspez lurrean Jainko-Semea
izerdia zeriola,
lur ta jantziak bustitzeraño
ixuri zuen odola.

1803

Izugarria ikusten baizun
zetorkion eriotza,
ala zegola nabaitu zuen
aingeru baten abotsa:
Aitarengandik zetorrela ta
onek eman zion poza,
Aitaren naia oso egitera
makurtu zuen biotza.

1804

Otoitz ondoren jeiki zan Jesus,
ikasletara jo zuen,
naigabez, lotan arkitu zitun
bata besteen onduan.
Jesusen larri-estualdirik
etzebilkiten goguan,
danen buru zan Simon Pedrori
au esan zion orduan:

1805

“Lo zaude, Simon? Ordu bat esna
nerekin ezin igaro?
Jeiki lenbailen ta otoi egin,
egon zaite erneago.
Zirikaldian sar etzaitezen
egizu otoi geiago,
gogoa erne badago ere
aragia nagi dago”.

1806

Joan zan berriro bakardadera,
kaliza, Aitak emana,
azkeneko pixarretaraño
agortutzeko etzana.
Otoitz egin ta biur zanean
bere ikasleengana,
lo gozoan arkitu zitun ta
ixil-ixilikan dana.

1807

Aiek etzeuden otoitzerako
loak baizeuzkan mendean,
etzekiten zer erantzun ere.
Jesus, bere naigabean,
danak utzita irugarrengoz
jarri zan otoi-bidean,
bakar-bakarrik geratu baizan
etsai guzien artean.

1808

Berriro ere an zuten Jesus
ainbeste otoitz egiña,
danak zurrungan arkitu zitun
pake gozoan, jakiña.
“Egizute lo” agindu zien
ikusiz aien eziña;
ikasleetzaz oroitutzen zan
aztuaz bere samiña.

1809

Aldi labur bat igaro ondoren
pakean atsedenetan,
“Aski da, orra ordua –Jesus
erne baizegon zeletan–.
Jarriko dute Giza-Semea
etsaiaren eskuetan,
jeiki ta goazen bere bidera,
saltzallea ona bertan”.

Jesus lotzen dute

1810

Jaunak itz auek esan orduko
jeiki ziran bat-batean,
ikusgarri bat agertu zaien
baratz xarreko atean:
nola zetozen aldapak gora,
bide txigorra betean,
argi ta makil, ixil-ixilik,
gora, gabaren pakean.

1811

Apostoluak arritu ziran
arratsaren illunean
baratz barruan ainbeste jende
ikusi zituztenean.
Beren krisallu eta lastargi
aiengana zuzenean,
aiek zertara ote zetozen
eta zeñen izenean?

1812

Guda-mutillak asko zetozen
beren ezpata ta guzi,
parisaitarren morroiak ere
bazetozen, ta ez gutxi.
Arrigarria: Judas billaua
zeturren danen nagusi,
etzebiltzan, ez, oker, bazuten
bidea nork erakutsi.

1813

Beren ondora ziran orduko
ezagutu zuten garbi,
apaiz nagusiak bialita
beren krisallu, lastargi.
Guda-mutil ta beren morroiak
Judas zekarten gidari,
gaua zan baña demoniñua
etzebillen oso nagi.

1814

Aurretik Judas zekarten bada
bidea ondo zekiña,
Jesusekin an bertan amaika
itxoginaldi egiña.
Garai batean bere ikasle
eta bere maite-miña,
gaur etsaiekin bera lotzera
etorri dan arakiña.

1815

Pedrorengandik urruti xamar,
kontu danak aterata,
asi baño len Jesus lotzeko
joan-etorri ta zarata,
aldegiteko asmoan andik
kuadrilla bertan lagata,
apal-tokian ikusi baizun
Pedrok zekarren ezpata.

1816

Ezpata, makil, morroi biurri,
ainbat guda-mutil zakar,
Maisua ezagutzen ez duen
jendea Judasek dakar.
“Musu ematen diodana da
–danak artu zuten alkar–.
Igesi joan baño len, mutillak,
lotzen al dezute azkar!”.

1817

Ikasle danen aurrean txutik
Maisua an zegon lasai,
zekarren koadrillaren aurrean
Judas billaua ere bai.
Bat musu billau bat emateko,
bestea berriz artu zai;
deabruaren musutik etzun
arpegirik aldendu nai.

1818

Urbildu zan ta bere ezpañak
luzaturik arpegira,
laztandu zuen lixtu zikiña
ixuriz musu garbira.
“Agur, Maisua” esanik, gero
Jaunak begira-begira:
“Musu batekin saltzen al nauzu
etsai maltzurren erdira?”.

1819

Jesusek ondo bazekin laxter
zetorkiona gañera,
pake-pakean urrats bat eman
ondoren danen aurrera,
“Nor atxitu nai dezute?” egin
zien bertatik galdera.
“Jesus Nazaretarra” erantzun
zioten danak batera.

1820

Ikusi zuten nor zan Maisua
nola ordea atxitu?
Urrats bat emateko beldurrak
begira ziran gelditu.
“Ni naiz” entzutean lur jo zuten,
etziran gutxi larritu;
Jesusek, berak nai duenean,
indar bereziak ditu.

1821

Berriro ere galdetu zien
lurrean zeuden artean,
“Nor atxitu nai dezute emen
onenbest gizon batean?”.
“Jesus Nazaretarra” erantzun
zuten beldurrak aidean.
“Nere billa bazabiltzate utzi
oeiri joaten pakean”.

1822

Ederki bete zan Idatziak
esan zuena, orrela:
bat galdu gabe ari emanak
danak zaindu zituela.
Aieiri joaten utzi bearra
Jaunak agindu bezela;
nai zuelako aurreratatu zan
lotu zezaten berela.

1823

Ta erantsi zizkieten bertan
beren eskuak Jesusi;
Idazki Deunak dion bezela,
illunak ziran nagusi.
Iges nai ezik aien eskutan
bein zutenean ikusi,
apostoluak ekin zioten
beren ezpata ta guzi.

1824

Begira egon gabe artu zun
Pedrok ezpata eskuan,
beroa baizan “Jotzera noa!”
oiu egin zun orduan.
Maitatzen zuen Jesus besterik
etzebilkin ark goguan,
eta jo zuen bere ezpataz
lenen zeukana onduan.

1825

Malko zeritzan apaiz nagusi
baten morroia zan ori,
eskuin belarria utzi zion
txintxilik, erdi erori.
Jesusek laxter asarre xamar
agindu zion Pedrori:
“Zaude geldirik eta ez egin
orrelakorik iñori!

1826

Sartu ezpata bere zorrora,
esan dizudan bezela;
jakin ezpataz iltzen duena
ezpataz ilko dutela.
Ez dakizu, nai izan ezkerro,
nik eskatu ta berela
amabi aingeru-talde laxter
etorriko lirakela?

1827

Nola beteko litzake bada
liburuan idatzia?
Ez det edango Aitak bialtzen
didan nere edontzia?”.
Errukitu zan eta sendatu
zion bere belarria,
etsaientzako ere bazuen
Maisu onak errukia.

1828

”Zuek zertara zatozte onuntz
arratsaren illunetan,
lapurra banintz bezela, makil,
ezpata, modu onetan?
Egunero ez nengon zuekin
eliza xarrean bertan,
zetozen daneiri erakusten,
pake-pakean izketan?

1829

Zergatik etziñazten orduan
urbil eliza xarrera,
zuen artean izketan ari
nintzan bitarte lotzera?
Au da zuen ordua, illunak
berriz orain du aukera.
Baña gertatu bearra baizan
Idazkien esanera”.

1830

Otsoen gisa jausi zitzaion
ainbesteko jende-pilla,
ango bultza ta birao zikiña,
ango zarat, iskanbilla!
Jaunak eskuak luzatu zitun
lotzeko, umil-umilla,
deabru aiek eramán zuten
Jesus bakar ta ixilla.

1831

Orduan bere ikasle danak
joan ziran andik igasi,
etzan granorik ere ezpataz
jo ta ebakitzen asi.
Artzaia jo ta ardiak nasten
diran gisa arkaitz, sasi,
Jesus atxitu zutenean bein
ikasleak ere nasi.

1832

Baña norbaitek jarraitu zion
ixilik bere bidean,
danen atzetik ta estalia
izara txuri batean.
Guda-mutillak eldu zioten
berari uste gabean,
izara utziz larru gorrian
ezkuta zan illunpean.

1833

Illargi betea zeru goian,
ondoan izarrak dantza,
txakur batzuen urrungo zaunka,
zoragarritzko arratsa,
olibo xarren itzalen mende
Jetsemaniko baratza;
gu salbatzeko Jaunak asi du
bere nekaldi garratza.

Anasen aurrean

1834

Gora igo zan bidean bera
dakarte Jesus errira,
ordurako gaberdia zan ta
iñor etzegon begira.
Etzan Jesus geiago igoko
andik Olibat mendira,
bere munduko azken orduak
bukatzen ari baidira.

1835

Uri aundia ixilik zegon
loaren mende, illuna,
bizia zunik etzan ikuste
ixil kaleak barruna.
Illunpe artan ondo lotuta
badakarte maitasuna,
Jerusalenek zoritxarrez ez
du ezagutu eguna.

1836

Ixil-ixilik badaramate
jendea oar etzedin,
bada ez bada, bestela etzan
antxe izango atsegin.
Bazekiten danak etzegola
jolasterik Jesusekin,
illun-semeak illunpean nai
zuten beren lana egin.

1837

Oek kalera jetxi aurretik
ixilka, bazterrik bazter,
apaizetara etorria zan
Judas etzebillen alper.
Lengo lagunen igasi noski,
bere diruaren maizter,
abisatzera bazekartela
lotuta Maisua laxter.

1838

Judasen berri jakin orduko,
morroiren batzuk ixilka
ibili ziran aterik ate
eta karrikaz karrika,
Jesus laxter bazekartela ta
Sanedriñerako deika;
danak etziran bilduko baña
bai mordoskatxo polita.

1839

Baña etzeuden loaren mende
Jerusalenen guziak,
batzarrean bilduta an zeuden
larri apaiz nagusiak,
ikasi nairik mendi aldetik
etortzen ziran berriak;
beren etsaia ekarriko ote
zuten bada gudariak?

1840

Lenengo, guda-mutillak zuten
eraman Anasengana,
iseka, irain, tratu gaiztoen
artean Jesus laztana.
Etzan ordea urte artako
apaiz nagusia Ana,
onen ederra egitearren
egin zuten ori dana.

1841

Sendi batean zegon aspaldin
ango apaiz nagusitza,
orduko apaiz nagusia zan
onen sui Kaifas murrizta.
Aitagiarreba eta sua
biak txandatur dabilta,
baña Anas zar ta billau onen
eskuetan zegon giltza.

1842

Oni eraman zioten bada
Jesus, jetxi zuteneko,
noski Kaifasek nai zuelako
onen eder egiteko.
Onek etzeukan gauza oietan
eskubiderik sartzeko,
eta gutxigo oraindik ari
zer zebillen esateko.

1843

Eskubiderik batere gabe,
ez baizan apaiz nagusi,
Anas maltzurak eskatu zion
danen aurrean Jesusi
ikasleen berri lenen, gero
ea zer zun erakutsi.
Jesusek etzun erantzun gabe
sudur sartze ura utzi.

1844

“Danen aurrean jarduna naiz ni
erritarrakin izketan,
beti irakatsi det agerian
jauretxe, sinagogetan,
beldurrik gabe, judu guziak
biltzen diran lekuetan;
ez naiz iñontxo ere oraindik
ni jarduna illunpetan.

1845

Zertara zatoz neri galdezka?
Zer da jakin nai dezuna?
Askotan entzun didan jendea
ez dago oso urruna.
Oieiri galde, oiek esango
dute zer dan neri entzuna”.
Egokia ta zorrotza Jaunak
eman zion erantzuna.

1846

Anasen morroi maltzur bat zegon
bertan Jesusen zaindari,
kupirik gabe masalleko bat
eman zion Maisuari,
nagusiaren eder egite-
arren, esanaz berari:
“Orrela erantzuten al diok
ik apaiz nagusiari?”.

1847

Morroii txarraren masallekoa,
onek emana indartsu,
gaizki erori zaion Jaunari,
erantzun zion kejatsu:
“Baldin nik oker itzezin badet
zertan erakuts zaidazu;
zuzen itzezin badet berriz nik
zuk zergatik jotzen nazu?”.

1848

Bada ez bada Anak etzuen
pasa nai ortik aurrera,
aurreragi sartzen bazan nola
gero onikan atera?
Lotuta laxter biali zuen
bere suiaren etxera;
berri onak zirala-ta bera
patxaran lo egitera.

Jesus Sanedriñean

1849

Gau artan ondo erne zebiltzan
illunpearen indarrak,
errugabeko gizon gazte bat
iltzeko zeñen azkarrak!
Pasea bazan ere gaberdi,
Sanedringo aiton zarrak,
Jesus ekartzen zuten orduko
epaitu nai zun batzarrak.

1850

Jesus zekarten berria noski
bazuten batzar-buruak,
ondo itxiak zeuzkaten ango
sarrera eta zuluak.
Guda-mutil ta morroiz beteak
Sanedringo inguruak,
andik igesi etzezan egin
zainduko zuten juduak.

1851

Etxeko barlan sua piztuta,
otza bazuten arratsa,
guda-mutil ta morroi-taldea
berotzen ari zan lasa.
Izketa narrats, itza ta putza,
erdi mozkorren jolasa,
Jesus ekartzen zuteneko zai
guziak denbora pasa.

1852

Neskameak ere aruntz-onuntz
etxe barruan ugari,
eten gabeen buru ematen
ango artu-emanari.
Ate aundiko sarrera zaintzen
iru-lauren bat gudari,
kargu artzeko baimenik gabe
ara urbiltzen zanari.

1853

Anas maltzurak utzi orduko
badakarte batzarrera,
ainbeste aldiz lotu naiean
ibil diranen aurrera.
Gorroto gaiztoak asetzeko
orain badute aukera,
sanedrintarrak urrikaldu ta
ez dute egingo atzera.

1854

Eskuak ondo lotuta orra
Maisu beldurgarri ura,
guda-mutilen erdian ixil
gizon-iltzalle-modura.
Danen aurretik eraman dute
auzitegiko barrura,
epai zorrotz bat egitekotan
bilduta dauden lekura.

1855

Aien atzetik urruti xamar,
zearka eta ixilla,
an dator Pedro ate aurrera
lagun batekin, umilla,
bere burua arraiskatuaz
Maisuaren berri billa,
bere itzalaren ere beldur
len ain arro zan mutilla.



2136

Uste gabean kale-ertzetik urbil zitzaien laguna,
irugarren bat, iztun ederra, baña etzan ezaguna.
“Baña zergatik daramazute orren kopeta illuna?
Jakin liteke zuen artean daramazuten jarduna?”.

1856

Apaiz-buruen ezaguna zan
ikasle bat zun laguna,
atezaiari onek eskatuz
sartu zan Pedro barruna.
Gizon kankallu, indartsua ta
aren kopeta illuna,
laxter oartu ziran guziak
etzala ango ezaguna.

1857

Etzuten bada beren bistatik
galdu nai kankallu ura,
nork aginduta sartu ote zan
Kaifasen etxe barrura?
Urduri xamar, zerbaiten billa
ixpi zebillen modura,
laxter urbildu zan su ondora,
morroiak zeuden lekura.

1858

Bitarte artan bere Maisua
an zeukaten batzarrean,
ainbeste aldiz atxitu nairik
ibil ziranen aurrean.
Iñolaz bada galdu nai zuten
onean edo txarrean,
bere aurkari lekuko batzuk
ekarrita indarrean.

1859

Arrats otza zan, su ondoraño
aurreratuz, gure Pedro
beste morroien tartean nastu
zan, etzegon-eta bero.
Urbildu zan neskatx bat, begira
zeukana sar zan ezkerro:
“Aizu, kankallu: orren ikasle
ez ote zaitugu gero?”.

1860

Arro-kankallu izanagatik,
Pedro, neskaren onduan,
beste edozein bezela, beldur
ta daldaraka zeguan.
Jesussek aistin ezan ziona
etzeukan noski goguan.
“Ez naun” erantzun zion ixilka
neskameari orduan.

1861

Eraso txarra pasa zalako
gizona lasai xamarra,
morroi lizunen ondoan berak
lasai egiten zun parra.
Ikasi nairik zertan bukatzen
ote zan ango batzarra,
bakar-bakarrak aien erdian
etzeukan alderdi txarra.

1862

Beste neskame batek ikusi
zuen non zegon urruna
Pedro jarrita, sutan berotzen;
etzun bere ezaguna.
Batzar-lekura beti begira
aren bekozko illuna,
zorrotz galdetu zion: “Zu ere
etzera orren laguna?”.

1863

“Zeñen lagun dion?”. “Or dagon
Nazaretar Jesusena”.
“Ez naun. Ez diñat oraindik nik
aditu orren izena”.
Eta kanpora abiatu zan
ate aunditik txuxena,
orduan jo zun ollarrak lenen
kukurruku bat ozena.

1864

Lekuko asko urbildu ziran
apaiz-buruen aurrera,
Jesusekiko gorrotoz berak
zekitena esatera.
Baña etzuten gauza garbirik
aien aotik atera,
gezur kontari sartu ziranak
ez baizetozen batera.

1865

Urbildu ziran bada laxter bi
lekuko Sanedriñean:
“Entzun diogu: Bota dezaket
eliz au nai detanean,
ta gizonak egin gabeko bat
jaso iru egunean”.
Etzun balio, etzetozen bat
biak beren esanean.

1866

Beste batzuek ere zutituz
egin zuten aitorrera:
“Bota dezaket gizon-eskuzko
eliz aundi au lurrera.
Gizon-eskuzko ez dan berri bat
jaso iru egunera”.
Indar gabeko aitormena zan
ez baizetozen batera.

1867

Judu-erriko aundizkienak
osatzen zuten Sanedrin,
olakoetan batzar batera
biltzen ziran alkarrekin.
Apaiz, maisu ta parisaitarrak
zarrak nasturik auekin,
erriko gora-beretan auek
zegiten autsi edo egin.

1868

Kaifas maltzurra zan bada urte
artako apaiz nagusi,
aundi-zalea, diruz aberats
eta sinismena gutxi.
Lekukoen esanetan etzun
pulamenturik ikusi,
orduan danen aurrean berak
galdetu zion Jesusi.

1869

Arrokerizko galdera zital
au bota zion berela:
“Zergatik zaude buru-makurka
ixil-ixilik orrela?
Ez dakizu zure aurka ainbat
kargu botzen dituztela?”.
Len bezin ixilla geratu zan
entzun ez balu bezela.

1870

Arritu xamar begira zegon
batzar guziko jendea,
nolanaikoa etzan Kaifas apaiz-
-buruaren aserrea.
“Jainko biziaren izenean
–zion gorrotoz betea–
esaiguzu zu al zeran Kristo,
Jaungoikoaren Semea”.

1871

“Bai, alaxe naiz –Jesusek bizi
erantzun zion berela–.
Ara zer diozutedan: aurki
ikusiko dezutela
Giza-Semea odei gañean
Jainko-Semea bezela,
bere Aitaren eskui aldean
exerita datorrela”.

1872

Soñekoak urratuz, oiuka
asi zan Kaifas aizuna:
“Zertako ditugu lekukoak?
Orra or birao astuna!
Zerok ederki entzun dezute
aurrean bota diguna.
Zer derizkiotzute?”. “Iltzea
zor du!” danen erantzuna.

1873

Eriotz-pena eman zioten,
bukatu zuten auzia;
baña ez baizan osoa bildu
beren batzar nagusia,
berriz goizean biltzen zanean
beren Sanedrin guzia,
erabakiko zuten noiz nola
Jesusi kendu bizia.

Pedrok Maisua ukatu

1874

Bitarte ortan larri zebillen
gure Pedro buru austen,
aien artean sartua zan ta
etzioten joaten uzten.
Ango morroi ta neskame danak
ondo dantzarazi zuten:
“Aietakoa zera zu ere”
besterik etzan entzuten.

1875

Pedro igesi zijoan, bada,
nai zuen andik atera,
gizarte gaizto ura utziaz
bakardadeko pakera.
Etxe barruan zebiltzan danak
ar zuten beren tartera,
andik-emendik txakur goseak
ekin zioten batera.

1876

Neskame batek eraso zion
irriparezka Pedrori:
“Oietakoa zera zu ere
eta onuntza etorri?”.
Pedrok asarre erantzun zion
lepo-zañak lertu-zori:
“Agon ixilik! Nik etzekiñat
nor dan ere gizon ori!”.

1877

Abiatu zan berriro ere
bazterrik bazter igeska,
neskame batek galdetu zion
Pedrori irriparezka:
“Zu ere orren laguna zera”.
Pedrok bazun naiko kezka.
Erantzun zion purrustadaka:
“Nor dan etzekiñat, neska!”.

1878

Au gertatu ta andikan laxter,
gure Pedroren gaubela
garraztearren, morroi zar batek
galdetu zion orrela:
“Orren ikasle augu noski, ik itz
egiten dekan bezela,
ezin ukatu ezake, motel,
galilearra aizela”.

1879

“Etzekit nor dan” erantzun zion
biraoka Pedrok sutsu,
beste batek esan zion berriz
gero, Malkoren lengusu
zanak: “Egia, goiko baratzen
nik ikusi baizaitu zu.
Izkuntzak ere salatzen zaitu,
ezin ukatuko duzu”.

1880

Estu artu zuten gure Pedro,
nastu zitzaion barrena;
etzekila nor zan ere bota
zun biraozko arrena.
Ta zin egiñaz ukatu zuen
Jesus beraren izena,
ollarrak laxter jo zun bigarren
kukurrukua ozena.

1881

Sanedrintarrak aldegin zuten,
egin zuten beren lana,
ondo lotua bazeramaten
bestera Jesus otxana.
Bitarte artan begiratu zun
errukiz Pedrorengana,
orduak gogoratu zitzaion
Maisuak aistin esana.

1882

“Irutan ukatuko nauzu gaur
ollarrak jo orduko bitan”,
kanpora erten ta gau guzian
negar egin zun egitan.
Andik aurrera ere ollarra
entzuten zuen guzitan,
negar egiten zuen errollak
egiteraño begitan.

Jesus morroien mende

1883

Aundizki danak aldegin zuten,
etzan goiz arte batzarrik;
Pedro're nonbait ibiliko zan
ezin agortuz negarrik.
Morroi mozkor ta galdu batzuen
eskutan Jesus bakarrik,
oni ezertan lagundutzeko
etzuten izan indarrik.

1884

Bakar-bakarrik an geratu zan
bere etsaien mendeko,
Jainko-almenak ezkuta zitun
nai zutena egiteko.
Morroi mozkor ta ajolagabeak,
deabrua bitarteko,
arrats guzian jolas, etzeuden
oni pakean uzteko.

1885

Eskuak ondo lotu ondoren
eraso zioten joka,
masallekoak eten gabean
ta txistu zikiña bota.
Danak nai zuten berena egin
ura zan danen pelota;
danen mendeko zebillen Jesus,
etsaiak berriz erronka.

1886

Gero begiak estaliz jarri,
aurretikan, banan-bana,
jolastu nairik urbiltzen ziran
txandatur Jesusengana.
Jo ta ala zioten: “Igerri zuk
ea nor dan jo auana!”
Burua makur, dana barkatuz,
ixilik Jesus otxana.

1887

Txanda bat pasa orduko, berriz,
etzuten itxi begirik,
iltzeko zegon zigortuari
ere ez utzi geldirik.
Arrats guzian etzan amaitu
morroi mozkorren iririk;
dana ixilik eraman bear,
an etzegon errukirik.

1888

Orduak eta orduak pasa
zituzten danak orrela,
onentzat etzan besteentzako
bezin alaia gaubela.
Astindu zuten Maisu otxana
burubeko bat bezela;
aspertuxea zegon, eguna
etzan etorri berela.

1889

Mingañak ezin konta lezake
gaur artan gertatu zana,
oroi gaitezen itzala baizik
ez dala emen esana.
Nolanaikoa etzan izango
Maisuaren eramana,
Jaungoikoaren maitetasunak
gugatik egin zuana.

Berriz batzarrean

1890

Atsedeen bikain baten ondoren
berriro sanedrintarrak
batzartu ziran: apaiz nagusi,
parisaeo eta zarrak.
Jesusen lanak bukatu nairik
oso zebiltzan azkarrak,
erria konturatu ote zan zan
beldurrak estu xamarrek.

1891

Bart artutako erabakiak
aztertu ziran aurrena,
eta iltzeko erabakia
artzea zuten urrena.
Jesus deitu zuten, oñazez
pasea gaurik geiena;
alare andik ateratzea
Jesusentzat atsedena.

1892

Eraman zuten bada Maisua
ondo lotuta aurrera,
arrats guzia esna pasea,
Sanedringo batzarrera.
Eta berriro egin zioten
bart egindako galdera:
“Jaunaren izenean galdetzen
dizut: Mesias al zera?”.

1893

Maisuak ondo zekin alperrik
zala, egiña zegola;
igesbiderik etzeukala arek
aien eskutik iñola.
Zuzen edo oker gauz bat nai zuten:
Jesus beraren odola,
erru gabe izana etzion
gorrotoari ajola.

1894

“Ez didazute sinistatuko
egia esan ezkerok,
nik galdetzen badizuet ez det
erantzunikan espero.
Badakit alare ez nauzutela
aske bialiko gero;
Giza-Semea Jainko-eskubira
exeriko da gaurgero”.

1895

Danak batera: “Beraz, orduan
Jainkoaren Seme zera?”.
Jesus sek garbi erantzun zien,
etzuen egin atzera:
“Bai, zuek diozute; ala naiz:
esan dezutena bera”.
“Aski da ori, birao egin du”
zioten danak batera.

1896

Eriotz-pena eman zioten
bart, goizerako utziak;
baña onartu bear zun ori
erromatarren auziak.
Txutitu ziran bada berela
ango batzar nagusiak,
Jesus artu ta Pilatogana
joan ziran andik guziak.

Pilatosen aurrean

1897

Orduan ere gaurko antzera,
gizona beti da berdin;
Jesus galtzea nai zuten aiek
bildu ziran alkarrekin.
Etixerik etxe jardungo ziran
bata besteei otsegin,
aien eskera Jesus iltzeko
Pilatos makurtu zedin.

1898

Adiskideak alkarnatuta
an zer egin ta zer esan,
Erromako jaurlearengana
baño len erabaki zan,
danen iritzi eta eskeak
berdiñak zitezen izan,
gezur kontari etzetozela
garbiro ikusi zezan.

1899

Ixil, Jesusen adiskideen
beldurrak, gordean dana,
eraman zuten ondo lotuta
andik Pilatosengana,
etxe aurrean biltzen zalarik,
ezkutuka, banan-bana,
Jesusen etsai-moltsoa lendik
joateko parte emana.

1900

Pilatos zuten beren jaurlea,
Zesar-en orde zegona,
zeru ta lurren Jabe zanari
epai egingo ziona.
Atzerritarra ta zapaltzalle,
juduentzat etzan ona;
arro xamarra ta egoskorra,
kezka gutxiko gizona.

1901

Eraman zuten Maisua gizon
aul aren auzitegira,
orrela salduz beren buru ta
aberria atzerrira.
Baña etziran aurrera sartu,
kanpotik zeuden begira,
Jesusen aurka erasotzeko,
jaurlearen jauregira.

1902

Oso goiza zan, erne zebillen
judua beren lanean,
beren jendea bildu eraziz
jauregi aldamenean.
Baña etzegon alako presik
auzitegi barrenean,
mutur illuna zeukan jaurleak
noizbait azaldu zanean.

1903

Asarre xamar azaldu zan ta
Pilatos eskall-buruan,
jendetza gaitza ikusi zuen
itxogiten inguruan.
Gizon eder bat ondo lotua
zeukaten beren onduan,
jaurleak aurrera pasatzeko
agindu zien orduan.

1904

Juduen legez orbana baizan
sartzea jentil-etxera,
Pazkoa laxter zutela ta ez
ziran ausartu sartzera.
Pilatos bera nazkatu xamar
erten zan balkoi-ertzeraz:
“Zer dezute orren aurka?” egin
ziren lenengo galdera.

1905

Juduak laxter ekin zioten
oiuka balkoi-burura:
“Gaizkillea ez balitz, ez genun
ekarko dagon lekura”.
Jaurleak zerbait usandu zuen,
etzun gogozko lan ura;
erantzun zien: “Epai zazute
zuen legeen araura”.

1906

Banan-banaka bildu zuten sail
artan gorrotoa dabil,
danak batera erantzun zuten
sutsu, oiua ta iskanbil:
“Ezin gentzake, legetan iñor
iltzea ez baizaigu zil”,
adieraziz zer eriotzez
nai zuten gizon ura il.

1907

Berriro danak ekin zioten
eroen gisa karrasiz,
apaiz nagusi, irakasle ta
parisaitar danak nasiz:
“Dana nasten du Zesar-i zerga
ordaintzea galeraziz,
ta bera Kristo errege dala
erriari adiraziz”.

1908

Ain salaketa astunik etzun
Pilatok entzun beñere,
auzitegira sartu zan gero
sar eraziz Jesus ere.
Besterik gabe galdetu zion:
“Egin zadazu mesede:
ea zu zeran auek salatzen
duten juduen errege”.

1909

“Norbaitek esan al dizu ori
edo zuk zerez diozu?”
erantzun zion Maisuak eta
Pilatok berriro sutsu:
“Nola jakingo det zure berri?
Ni judua ote nauzu?
Zure erritarrak ekar zaituzte
nigana. Zer egin duzu?”.

1910

“Zuk diozuna: errege naiz ni
–zion Maisuak benetan–;
baña ez emengoa, bestela
nere morroiak armetan
altxako ziran, eror ez nadin
etsaien atzaparretan.
Errege, baña nere jaurgoa
ez dago mundu onetan”.

1911

“Beraz, errege zera?” Pilatok.
Jesusek: “Bai, alegia.
Errege nauzu ta ortarako
naiz mundura etorria:
egiaren aitor egiteko
erakuts zer dan egia;
egi-maitale diranak entzun
nai dute nere berria”.

1912

“Zer da egia?” galdetuz joan zan
andik kanpora zuzenik,
garbi esanaz: “Baña onengan
ez det arkitzen obenik”.
Aiek salatzen ari zaizkion
artu gabe atsedetik,
Maisua ixilik, etzirudin
entzuten ere zuenik.

1913

Kargu txarrenak esan ta esan,
etzioten txandik uzten,
Pilato bera arritzeraño:
“Ez al dituzu entzuten
apaiz nagusiak zuregatik
nola esaten dituzten?”.
Baña ixilik zegon Maisua,
etzun itzik erantzuten.

1914

Baña juduak oi u ta orru
zegiten danak karrasiz:
“Ez da gelditzen bazter guziak
iruzurtu eta nasiz,
eliz nagusi, sinagogetan,
gauz berriak erakutsiz
Judea alde auek barrena,
Galileatikan asiz”.

1915

Pilatok etzun eskurik sartu
nai Jesusen epaiketean,
jakiñik Jesus galilearra
zala poztu zan benetan.
Erodegana biali zuen
zuzen orduantxe bertan,
Jerusalenen Pazkotan baizan
au ere egun aietan.

Erodesenean

1916

Galileako errege zan au
erromatarrak jarria,
aspaldidanik atzerritarren
mende baizegon erria.
Asko bezela Pazko-egunak
ospatzera etorria,
Jesus onengan eraman zuten
Pilatossek igorria.

1917

Onen aita zan Belen aldean
aurtxoak il erazia,
orduko Jesus errugabea
galdu naiean asia.
Semeak ere ongi bete zun
aita zanari ikasia,
amaika gizon gizarajori
kendu bazion bizia.

1918

Onen aitari eman zioten
Erodes Aundi izena,
aren urrengo erregea zan
au: *Erodes bigarrena*;
bazkari eder baten ondoren
Joan Bautista il zuena,
au berpiztua zalako Jesus
ikus nairik zebillena.

1919

Jakin zunean Pilatogandik
Jesus ara zekartela,
aundizki eta adiskideak
deitu zituen berela.
Jesus ar nai zun bere etxean
azti gaixo bat bezela,
uste zuen aren bizkar naiko
parra egingo zutela.

1920

Ondo lotuta, guardi artean,
ixil, kaleak barruna,
Erodesgana badaramate
Maisu igerle entzuna.
Bere ondoren apaiz-taldea,
Jesus galtzea nai zuna,
ongi-etorri bat eman nairik
zai-zai errege lizuna.

1921

Bere aundizki danak bilduta
zegon errege alai,
arekin itz bi egiteko're
orra etorri garaia,
pasako zuten bere ustetan
ordu erdi bat lasaia.
Ari zer zion? Askatuko zun,
ez baizan bere etsaia.

1922

Sartu zan bada Jesus txut-txutik
erregeren jauregira,
berela danak jarri zaizkion
beren aulkitik begira.
Erodek deitu zun maitekiro
aurrera danen erdira;
etsaiak, berriz, kezka, etzuten
galtzea nai egokira.

1923

Erodes jaunak egin zizkion
ez dakit zenbat galdera,
antxe zeukala bere doaiak
erakusteko aukera.
Etsaiak, berriz, ekin zioten
oiu ta oiu batera;
Jesus ixilik, aren aotik
etzan itzikan atera.

1924

Burugabea zala ura ta
Jaunak alako irririk,
bañan alare etzun azaldu
onekiko errukirik.
Pilatogana biali zuen
berriro txuriz jantzirik,
etzion onek ere arkitu
zigortutzeko gaizkirik.

1925

Txuriz jantzia ta parregarri
badoa Jesus apala
Pilatogana, apaiz-buruak
bere ondoren dirala.
Asarre omen ziran Erodes
eta Pilatos zitala,
Jesusi esker etsai ziranak
adiskidetu zirala.

Jesus eta Barrabas

1926

Pilatok uste zuen Erodek
bukatuko zula lana,
orretxegatik biali zuen
Jesus erregerengana.
Baña berriro an ikusi zun
lotuta Maisu otxana,
otso amorratuen erdian,
edozertako etzana.

1927

Gogo txarretik bederen deitu
zitun guziak batera,
amorratuta zebiltzan etsai
aiek beraren aurrera.
“Naspillatzalle bezela ekar
didazute au onera,
ez diot txarrik arkitzen oni,
egiñik ainbat galdera.

1928

Dakizutenez Erodek ere ez,
azterturik luzaruan,
ez dio txarrik arkitu ainbat
galdera egin onduan.
Eriotz-penik ez du merezi
ikusten degun moduan,
zigor gaizto bat eman ondoren
askatuko det orduan”.

1929

Judu artean bazan oitura,
Pazko-jaiak ospatzeko,
jai aundi orren grazi bezela
presoren bat askatzeko.
Igo ziran ba auzitegira
Pilatori eskatzeko
kartzelan zegon loturen bat, nai
zutena aukeratzeko.

1930

Pilatos ustez buruz zebillen,
etzuen gaizki pentsatu,
juduen atzaparretatik nai
baizuen Jesus askatu.
Argatik gizonik gaiztoena
ortarako aukeratu;
gorrotoa zebillen nagusi
eta etzuen asmatu.

1931

Kartzelan zeukan atxilotua,
Barrabas zeukan izena,
beldurgarria omen zan oso,
ezagutu zan txarrena.
Matxinadan beste batzuekin
gizonen bat il zuena;
onekin Jesus salbatuzeko
bazeukan itxaropena.

1932

Ondo bazekin Pilatok Jesus
errugabekoa zala,
ta bekaizkeriz iltzeko asmoz
ain presaka zebiltzala.
Iñondik ere salbatu nai zun,
egingo zun egiñala;
baña benetan ariña zan, ain
zun borondate argala.

1933

Gizataldea urbil zan, bada,
auzitegi-bazterrera,
presoren baten askatasuna
Pilatori eskatzera;
balkoi gañera Barrabas eta
Jesus zituen atera:
bi aietatik bat, nai zutena,
aske zezaten aukera.

1934

Kanpo aldean asi baño len
apaiz-buruen zarata,
Pilatoren emaztea urbil
zan onengana eskaka:
“Etzaitte nastu zuzen orrekin,
biali, aske lagata;
amets gaiztoak egin baiditut
bart gizon ori dala-ta”.

1935

Apaiz-buru ta parisaitarrak
beldur gaiztoa zeukaten;
asi ziran berela gizalde
tarteetan, banaka nasten,
aurrean zeuzkaten gizonetan
nor aukeratu esaten,
Barrabas aske utzi ta Jesus
aurrera bota zezaten.

1936

Ustez Pilatos ondo ari zan,
asmatu zun oraingotik;
galdetu zien: “Nor nai dezute
askatzea biotatik?”.

Eta aurrean zegon jendeak
oiu egin zun gogotik:
“Barrabas nai degu askatzea,
kendu beste ori ortik!”.

1937

“Zer egingo det zuen errege
Jesusez?” zien galdera,
Jesus askatu nairik, Pilatok
balkoi gañetik ostera.
Berotutako beko jendeak
oiu egin zun batera,
gorrotoz itxu: “Ken ori ortik!
Gurutzera! Gurutzera!”.

1938

Aula zalako buruausteak
zetozkion Pilatori:
“Eriotz-pena merezi dunik
ez dio egin iñori.
Oitu bezela txeatuko det
aske dezadan igorri”.
Jendeak gero ta indartsuago:
“Kendu! Gurutzera ori!”.

1939

Antz eman zion entzunik ango
jendearen zarat-otsa
gauza okertzen zoakiola;
eta goibel, erdi lotsa,
ura ekarri eraziz eta
eskuk garbituz diotsa:
“Ni ontan garbi nago, zuengan
bedi orren eriotza”.

1940

Bazirudin jendea deabru
txarrak artuta zegola,
errugabeko bat illagatik
etzien asko ajola.
Berriz jendeak oiuegin zun
abots batean ziola:
“Gu ta gure semeen gañ eror
dedilla orren odola!”.

1941

Pilato aulak amor eman du,
jarri da aien naiera;
ango zaratak beldur gaiztoa
sartu zion biotzera.
Barrabas aske utzi, ala zan
jendearen eskaera:
askatu nai zun errugabea
kupi gabe zigortzera.

Jesus arantzaz buruntzatua

1942

Pilatok zeuzkan guda-mutillak
ar zuten beren eskura,
eraman zuten andikan txuxen
zeukaten zigor-lekura.
Zutoi zar bati eskuak lotu,
ala baizuten oitura,
gañetik bera txeatu zuten
berak nai zuten modura.

1943

Odol gorritan sar zuten andik
aizitegiko barlara,
bere ondoren guda-mutil-sail
osoa bildu zan ara.
Jesusen bizkar egingo zuten
nai aña jolas-algara,
erruki-izpirik ez baizan sartzen
biotz legor aietara.

1944

Bizkar guzia odol gorritan
zedukan oraindik Jaunak,
zigortzalleak gogoz baiziran
ura txeatzen jardunak.
Oñaze-miñez auldua zegon,
txutikan doi-doi belaunak;
alare jolas egin nai zuten
arekin gudari aizunak.

1945

Bizkar gañean jarri zioten
zokoan zegon purpura,
arantzazko koroï mingarri bat
sar indarrean burura.
Bazter batean billatu zuten
kañabera bat eskura,
deabru aiek ipiñi zuten
errege baten modura.

1946

Aulki batean exeri zuten
jazkera artan jaun umilla,
dana pakean supritzeko prest,
danen erdian ixilla.
Guda-mutillak erdi mozkorrak
eskubi-ezker urbilla,
Jesus ixilik bazegon ere
sortu zuten iskanbilla.

1947

Guda-mutillak jolas-algara,
txandaka bere aurrean:
“Agur, juduen errege” esanaz
belaunikatuz lurrean,
txistu tiraka ta kañaberaz
buruan jo indarrean,
laxter iltzera zijoan bati
lasai utzi bearrean.

1948

Aren oñaze aurrean etzan
aien biotzik kupitu,
ekin zioten jolas txarretik
ere etziran gelditu.
Lotsagarrizko zigortze ura
etzan oraindik amaitu,
txarragoak ikusteko zegon
Jesus, ez balute deitu.

“Ona emen gizona”

1949

Ekarri zuten bada berriro
Jesus Pilatorengana,
gizon-itxurik gabekoa ta
joka txeatua dana.
Azken mugaño irixteko prest,
edozertako etzana,
zigor guziak baño aundigo
zan Jesusen eramana.

1950

Erten zan bada berriz Pilatos
danak ikusi zezaten,
errugabea dala ari da
bein eta berriz esaten.
Alare errugabeko bati
ainbeste supri arazten,
aula izaki eta ez dio
askatasunik ematen.

1951

Atera zuten Jesus kanpora,
berriro eskal-burutik,
erruki gabe, danen aurrera,
artuta zigor-lekutik,
zegon bezela ain lotsagarri
jaurle beraren eskutik,
otxan-otxana, beti bezela,
bere burua txut-txutik.

1952

Buru gañean arantz-koroia,
odola zerrendan gorri,
arpegi eder artatik bera
geldi tantaka erori.
Bizkar gañean trapu zikin bat,
kañabera bat zitori,
erririk erri zebillen gizon
ongille ura al da ori?

1953

Ixil-ixilik, burua txutik,
an zegon Igerle ona,
zeru ta lurren erregetzako
aukeratua zegona.
Pilatok zion danen aurrean:
“Zuen erregea ona!
Zuek iltzera ekarritako
ura nolako gizona!”.

1954

Urak tantaka-tantaka bere
betiko eroritzean,
urteen buru zulo sakona
egiten du arkaitzean.
Erruki-tantik etzan sartutzen
judu aien biotzean,
danak batera eskatu zuten:
“Josi, josi gurutzean!”.

1955

Pilatok, nazka-nazka egiña,
geiegi amor emana:
“Ementxen zuen aurrean bertan
galdetu diogu dana.
Baña ez diot txarrik arkitu.
Non dago onen orbana?
Artu zerok, josi gurutzean,
ez etorri neregana”.

1956

Juduak arro erantzun zuten,
berena zuten auzia:
“Guk badegu lege bat aspaldi
asaba zarrak utzia.
Jainko-Seme dala dio berak,
birao gaizto itxusia.
Orrentxengatik il bear degu
gurutz batean josia”.

1957

Ordura artean saiatu ziran
Pilatos iruzurtzera,
Zesar-en etsai azalduz Jesus
errege baten antzera.
Zergatik orain egia garbi
bota diote aurrera:
birao-esale gisa eraman
nai dutela gurutzera?

1958

“Jainko-Semea dala-ta bera
birao gaiztoa dario;
legea degu, orrentxengatik
nai degu gurutzera io”.
Pilato jauna ikaratu zan
pentsakizunez serio:
“Ala ote da?”. Besterek ez dun
zerbait arkitzen baidio.

1959

Aren berdiñik etzun ikusi,
gizon aparta zan ura;
jentil izanik, Jainko-Semea
ote dan zaio burura.
“Nongoa zera?” galdetu zion
sartu eraziz barrura;
baña etzion erantzun ere,
bere betiko modura.



2200

Esan bearrak amai ondoren eraman zitun kanpora,
bosteunak artu bere aurrean, Betaniako ondora.
Besoak jasoz ta bedeinkatuz polliki gora ta gora,
danen bistatik ezkutatu zan Jesus betiko zerura.

1960

Pilatok bizi diotsa: “Neri ez didazu erantzuten? Zu gurutzean josi erazi edo zu lokabe uzten, nere eskuan dana dagola ez ote dezu ikusten? Apaiz-buruen salatze ori ez ote dezu entzuten?”.

1961

Arrokerizko itzak entzunik Maisua etzan ixildu; ala diotsa: “Etzenduke, ez, nerekin zertan agindu, agintaritzan goiko Jainkoak baldin jarri ez bazindu. Argatik zugarri ekarri naunak oben larrigo egin du”.

1962

Ordu ezkeroko beldur, Pilatok askatu nai zuen Jauna, laxter entzun zan judu maltzurren oiuraxi aizuna: “Ori askatzen duen jaurlea ez da Zesar-en laguna. Aren etsai da bere burua errege egiten duna”.

1963

Entzun zuneko Pilato jaunak juduen oiuraxi zorrotza, aula izaki ta amor eman zun, jausi zitzaion biotza. Epai-aulkian exeriz: “Ona zuen errege!” diotsa. “Ken! Gurutzera ori!” entzun zan eundoko burrunda-otsa.

1964

“Zuen errege josiko al det?” zion maleziz beterik. Aiek erantzun: “Ez degu inor Zesar beste erregerik!”. Iltzeko eman zien orduan, etzun nai buruausterik; aula izaki, bestela etzun galduko errugaberik.

1965

Apaiz nagusi maltzurak, beren gorrotoa osatzeko, etzuten izan kezka-izpirik beren erria saltzeko. Ain gutxi berriz atzerritar bat beren errege artzeko. Jesusek bere burua, berriz, eskeñi zuen iltzeko.

Kalbariora

1966

Artuak artu, egiñak egin, Jesus maitea umillik, etzuen egin oiuraxi gaiztorik, etzun egin iskanbillik. Arkumetxo bat bezin otxana, buru makurtuz ixillik, zetorrenari bizkarra eman, bidean jarri erdillik.

1967

Apaiz-buruak lasaitu ziran, iritxi zuten berena, ainbat umil zitunari eman zioten eriotz-pena. Erromatarren eskutik orain izango zuen azkena, aren salatze txarrik gabe ar zezaketan atsedena.

1968

Atzerritarren gain geratu zan,
aien eskutan utzia,
juduak galdu zuten arengan
beren aginte guzia.
Baña alare kontentu ziran
irabazirik auzia,
laxter ikusiko zuten iltzen
gurutz batean josia.

1969

Ar zuten, bada, guda-mutillak,
an etzegon errukirik;
gudari zakar aietan inork
etzun arkitzen grazirik.
Purpura zarra kendu ta bere
soñeko xarra jantzirik,
atera zuten gurutz astun bat
bizkar gañean jarririk.

1970

Beste bi gizon ere baziran
gurutz bana bizkarrean,
neketan gora zijoazenak
Maisuaren baztarrean.
Gurutz-buruak sorbaldan eta
atzea berriz lorrean,
oiu ta isek gaizto artean
laxter ziran gallurrean.

1971

Atze ta aurre lantza ta guzi
ez dakit zenbat gudari,
apaiz-buruak ere an ziran
alai-alai ibilkari,
nai zuten aña isek egiñaz
eziñik doan Jaunari.
Laguntzallerik etzan agertu,
etsaia berriz ugari.

1972

Guda-mutillak oartu ziran
bide gora aul xamarra
zijoala Jesus ta bazula
lagun on baten bearra.
Orrentxengatik eman zioten
lagun bat gizon azkarra:
baratz batetik bera zetorren
Simon Zirineotarra.

1973

Ar zuen, bada, onek Jesusen
gurutz astuna aidean,
eta berriro geldi-geldirik
jar ziran mendi-bidean.
Birao ta isek, txistu ta bultza
juduak eten gabean,
ajola aundi gabe iltzera
zoanaren naigabean.

Jerusalengo emakumeak

1974

Eriotzera eramán zuten
Jesus goizaren lenean,
bere etsaiak bakarrik bildu
zituzten aldamenen.
Beren naiera jardunak ziran
etsairik gabe lanean,
lagunak ere azaldu ziran
noizbait, berandu zanean.

1975

Andik emendik urbildu ziran
lagun batzuk zer ikusi,
ezin ordea laguntzik egin
zezaioteken Jesusi.
Zerbait eskeñi nai zionari
sartutzen utzi ain gutxi,
erromatarren guda-mutillak
ziran orduan nagusi.

1976

Jerusalengo emakumeak
ikusitun onduan,
nola zetozen negar ta negar
Madalen baten moduan.
Urkoentzaz oroitzen zan, etzun
bere bururik goguan;
gurutze gabe zijoan noski,
au esan zien orduan:

1977

“Ez negar egin, Jerusalengo
alabak, nigatik beintzat:
egin zazute, bai, negar zuen
ta zuen seme-alabentzat.
Egin negar, bai, ta ar itzazute
gaurko nere itzak aintzat:
etorko dira zuen gañera
laxter larritasun gaitzak.

1978

Zorioneko esango dute
aurrik gabeko agorrek,
zorioneko esnerik eman
ez duten bular legorrek.
Muñoak, jausi gure gañera;
irauli, mendi-tontorrek;
ezean au badagi, igarrean
zer egingo du zigorrek?”.

Jesus gurutzean

1979

Iritxi ziran urkamendira
Jerusalendik aldean,
Ezurtegia deritzaiona,
mendixka txiki batean.
An zegoan Jesus ixil-ixilik
bi gaizkilleen artean;
une garratza, baña alare
otxan, apal ta pakean.

1980

An edatera eman zioten
edari nazkagarria:
oitu bezela, ardo ta mirra
beazuñakin nasia,
eriotzeko oñaze-miñak
arintzeko edaria,
gurutzetuta il bear zuten
zigortuentzat jarria.

1981

Murtxatu zuen, edan ez; etzun
nai oñaze-arintzerik;
bere soñekoak erantzita
iltzatu zuten bizirik.
Isekaz ari ziran etsaien
aurrean larru gorriarik,
bere aotik etzan atera
karraxi ta ai-ots larririk.

1982

Zutitu zuten danen aurrean
ta bi lapurren erdian,
danak ikusi zezaten iltzen
Ezurtegiako mendian.
Etsai maltzurak ara-onera
bere inguru guzian;
maite zutenak, beldurrak noski,
triste zeuden urrutian.

1983

Bederatziak ingurua zan
zutitu zuten orduan,
Idatziak betez jarri zuten
gaizkigilleen lerruan.
“Barkatu, Aita, ez dakite zer
dagiten” guruz-buruan
bere gaizkille guzien alde
maiteki otoi beruan.

1984

Jerusalendik inguru xamar,
bi lapur aldamenean,
danen gañetik ageri zana,
jende ugari oñean.
Idazkitxo bat ere bazeukan
gurutze-buru gañean,
apaiz-buruak asarre ziran
irakurri zutenean.

1985

“Jesus Nazaretarra juduen
erregea” idatzia,
adieraziz zergatik zegoen
gurutze artan josia.
Ebreo, latin, griegoz, iru
izkuntz oetan jarria,
apaiz-buru ta pariseuentzat
naiko umillagarria.

1986

Apaiz-buruak urbildu ziran
orduana Pilatogana:
gaizki idatzia zegoala gurutz-
-buruan agertzen zana.
“Juduen errege naiz esan du”
idatzi bear zuana.
Pilatok erantzun: “Idatzita
bego idatzi detana”.

Soñekoaren zozketa

1987

Lau guda-mutil gurutz ondoan,
aiek baiziran nagusi,
oñazez iltzen zeudenak zaintzen
beren ezpata ta guzi.
Jendea berriz inguruetan,
danak begira Jesusi
maitasunez ta gorrotoz asko
ta besteak zer ikusi.

1988

Guda-mutillak oituak zeuden
lendik olako lanetan,
eseri ziran bada patxaran
iltzen zeudenen oñetan.
Aien jantziak berex zituzten
oi bezela lau pusketan,
nori zer tokatutzen zitzaion
aukeratuaz zozketan.

1989

Soin gañekoa osokoa zan,
josturarik etzuana,
Semearentzat maitetasunez
Amak egindako lana.
Predikalari erririk erri
beti ibiltzen zuana,
bere biziz gañera onekin
utzi zuen zeukan dana.

1990

Au ere bada zotz egin zuten
lau mutillak alkarrekin,
Liburu Deunak esaten zuna
orrela kunplitu zedin:
“Nere jantziak banatu eta
soin gañekoa zotz egin”.
Bertan jarrita jarraitu zuten
iñor urbildu etzedin.

Jesus isekatua

1991

Larru gorririk irurak zintzil
gurutzean oñazetan,
iltze zorrotzak ondo sartuak
bi esku eta oñetan.
Odol-tantoak banan-banaka,
arnas artzeko neketan,
gurutzeratu zuten etsaiak
jira-biraka an bertan.

1992

Ikusi arren gurutze artan
Jesus onaren eziña,
etzuten errespetatu etsai
billauak bere samiña.
Azken ordua larriagotzen
egin zuten alegiña,
ordu latz artan bazun etsaitik
gorrotoak eragiña.

1993

Lagunak gorde baziran ere
ez arranetan etsaiak,
isekatuaz bere aurretik
pasatzen ziran alaiak.
Beste asmorik gabe zebiltzan:
uraxe zapaldu naiak;
aukera zuten, aiek baiziran
illunpearen garaiak.

1994

Danak txandaturik parisaitarrak,
irakasle zar eta apaiz:
“Erri oietan entzun diagu
edorrek aipatuta maiz:
'Ni naiz Kristoa, ni naiz Mesias,
Jainkoaren Semea naiz’.
Jetxi adi sinista dezagun
Jainkoaren Semea baaiz”.

1995

Apaiz-buruak, argi-ollarrak,
ara-onera dabilta:
“Ik ez al uan bada egingo
iru egunez eliza?
Orain zintzilik gurutzan ago
beste edozeñen gisa;
igan sinista dezagun danok
salba zak ire bizitza”.
“Barka zaiezu, Aita” gozoro
gurutz-burutik otoitza.

1996

Etziran lege-irakasleak
ere ixilik gelditu:
“Ainbeste eri, ainbeste gaixo,
ainbeste il ere piztu.
Josita dagon gurutz ortatik
orain ezin da mugitu;
bere burua ezin salbatu,
besteak salbatu ditu”.
“Barka zaiezu, Aita” gozoro
guziak zuten aditu.

1997

Parisaitarrak ere txandaturik,
irakasle bezela:
“Amaika bider entzun diagu:
'Jainko-Semea naizela’.
Argan dekala itxaropena,
i jextera datorrela;
orduan sinistuko diagu
benetan ala aizela”.
“Barka zaiezu, Aita” entzun zan
gurutzetik zetorrela.

1998

Zarrak zioten: “Jainkoarengan
uste osoa zeukala,
Kristo bezela gu salbatzera
arek bialia zala.
Ainbeste maite badu Jainkoak
orain salbatu dezala,
orduan danak sinistatuko
diogu Kristoa dala”.
“Barka zaiezu, Aita” zetorren
gozoro otoitz apala.

1999

Guda-mutillak ere kutsatu ziran eredu txarretik, ozpiña edateko eskeñiz kañabera txar batetik. Danak batera esan zioten agur egiñaz aurretik: “Juduen erregea aizela? Jetxi adi gurutzetik!”. “Barka zaiezu, Aita” Maisuak zion biotz-biotzetik.

2000

Ondoan iltzen zeukanak ere esaten zizkion gaitzak: “Mesias baldin baaiz, salbatu ta gu ere salba gaitzak”. Baña laguna xamurtu zuen Jesus onaren otoitzak, eta etzitun ontzat ematen gurutz-lagunaren itzak.

2001

Gaizki esaka ari zanari zorrotz begira jarririk: “Ez al aiz i Jainkoaren beldur zigor bera edukirik? Guk merezi digu, ez dek gure txarren ordaña besterik; baña ori errugabea dek, ez baidik egin gaizkirik”.

Jesusen azken itzak

2002

Gero eskari au egin zion: “Joatean zure jaurgora, zurekin emen iltzen naukazun onetzaz, Jauna, gogora”. Xamur zitzaion biotza lapur zanaren otoi berora: “Gaur bertan –zion– Paradi-soan artuko zaitut ondora”.

2003

Gurutzearen ondoan zeuden txutik begira jarriak iru emakumezko, Jesusi jarraituaz etorriak. Aien artean Ama maitea, ixil, malkotan begiak, ikusirikan gurutz-buruan Jesus onaren larriak.

2004

Mari Madalen ta Kleofasen andrea zitun lagunak, Jesus onaren laguntzalleak, bere betiko kutunak; predikalari zebillenetan oni laguntzen jardunak; ta ikasle bat zegon aiekin asko maite zuna Jaunak.

2005

Ama ikusiz urrikaldu zan benetan Jesus otxana, gurutz-burutik etorri ziran itz goxo auek banan-bana: “Emakume, or zure semea”. Oni: “Orra zure Ama”. Ordu ezkeru ikasle onek artu zuen beregana.

2006

Eguerdi inguru xamar, gogor isekaz ari zirala, jetxi zan geldu mundu guzira beldurgarizko itzala, gauaz bezela mendi guzia illun-illun jartzen zala. Ixildu zan gaizki esaleen mingain zorrotz ta zitala.

2007

Illunak artu zuen mendia,
ixillune bat zorrotza,
etzan besterik entzuten iñoiz
gurutz-burutik ai-otsa.
Arnas estua, larri zebillen
Maisu onaren biotza;
ara sartzeko baimen-eskari
baizebillen eriotza.

2008

Illunpe artan ixil-ixilik
aldegin zuten errira
gurutzeratu zuten etsaiak
gertakizunen larrira.
Mingain zorrotzak mututu ziran,
etzebiltzan jira-bira,
zer ikusi igo diran aiek
bakarrik daude begira.

2009

Ordu luzeak bazijoazten,
illuna eta ixilla,
lotsaren lotsaz estali baizan
zeru gañeko dizpilla.
Geratzen ziran etsai banakak
ikusi nai zuten illa,
lapur gaixoak ai-oska eta
ixilik Jesus umilla.

2010

Aspergarrizko illunpe artan
ta irurak bezelatsu,
jendea ixil-ixil zegola
eta mendia itzaltsu,
“Eli, Eli, lama sabactani”
oiu egin zun indartsu.
“Ene Jainkoa, ene Jainkoa,
zergatikan uzten nauzu?”.

2011

Guda-mutillak, gurutz ondoan
zebiltzanak jira-bira;
gurutz gañean iltzen zegonak
egin zun oiur larrira,
ala zioten: “Utzi pakean.
Eliasi deika ari da.
Ia jexten dun”. Ta danak jarri
ziran begira-begira.

2012

Baña Maisuak bazekin laxter
zala danen bukaera;
dana bete zedin: “Egarri naiz”
oiu egin zun minbera.
Batek orduan ozpin mikatza
eman zion edatera,
esanaz: “Utzi, ea Elias
etortzen zaion jextera”.

2013

Berela berriz: “Dana amaitu da”.
Orra eriotz-ordua,
begiak jasoz Aitarengana
egin zun eundoko oiua:
“Aita nerea, zure eskuetan
uzten det nere gogua”,
eta geldiro bular gañera
makurtu zuen burua.

2014

Ortotsak orru, lurak ikara,
arkaitzak berriz zartatu,
eliz aundiko estal-zapia
goitik beraño puskatu.
Bere samiña erakuts gabe
etzan ezertxo geratu;
larri zebillen ango jendea,
etzan gutxi ikaratu.

2015

Illobi asko zabaldu ziran
Jesus illakin batera,
eta santu askoren gorputzak
piztu ondoren atera.
Jesus berpiztu zanean jetxi
ziran Jerusalemenera,
azaldu ere bai geroago
gizon askoren aurrera.

2016

Ortotsak orru, tximistak dizdiz,
zurrunbulloz mendebala,
arkaitzak zarta, lurak ikara,
danak larri zebiltzala,
egun argiak uxatu zuen
illunpearen itzala.
Orduan danak oartu ziran
Jesus otxana il zala.

2017

Bi gaizkilleen erdian zegon
buru-makur ta illotza,
odol-zerrendaz gorritua ta
goitik beraño billotsa.
Aldameneko bi gaizkilleak
eten gabeen ai-otsa;
larri dabilta aiek ere, ez
dute urrun eriotza.

2018

Basamortuko sube antzera
zintzilik jarria dago,
bizitz laburra, baña betea,
ona egiñaz igaro.
Beretzat ez du ezertxo egin,
guretzat berriz oparo,
fedez begiratutzen dionik
ez dedin galdu geiago.

2019

Il dan orduko eguna sortu,
sinistunentzat eguna,
mundu onetan eta bestean
betiko iraungo duna.
Berak dun dana ematen digu,
zer da eskatzen diguna?
Bera Jainkoa dana sinistu
eta alkar-maitasuna.

2020

Egun argia ager zaneke
ango jendea pozturik,
baña lentsxego gertatu zana
etzedukaten azturik.
Aurrez aurre zeukan eun-buruak,
karraxi ura aditurik:
“Benetan Jainko-semea zan au!”
zion biotz-damaturik.

2021

Eun-buru onen mendean zeuden
guda-mutillak batera,
damutuz zioten eun-buruak
esan zuena berbera.
Gertakariak ikusitako
jendea ere gain-bera,
bularra joka jetxi zan ixil,
damutua ta minbera.

2022

Bere lagunak geratu ziran:
Ama, Mari Madalena,
eta lenago lagun zioten
emakume-sail geiena.
Auek, gaixoak, oraindik ikus
nai zuten danen azkena,
besteren esku illa uztea
etzan izango zuzena.

Saietsa zulatzen

2023

Ostiralean il zuten Jesus,
Pazko-jaiaren bezpera,
bestela ere juduentzat jai,
larunbata zan gañera.
Joan ziran, bada, apaiz-buruak
jaurle jaunaren aurrera:
gorputz aiek kendu erazteko
Pilatori eskatzera.

2024

Egun aundia zan juduentzat,
jai ospetsua benetan
egiten zana, Jaunaren esker
batzuen oroipenetan.
Ezin zitezken aiek an utzi
uri santutikan bertan,
zetorren jende danen aurrean
zintzilik gurutz aietan.

2025

Laxter joan ziran guda-mutillak
gurutzetuak iltzera,
ta ortarako indarrez beren
zanko-ezurrak austera.
Bi gaizkilleak zanpa zituzten
oitura zuten antzera,
eta Jesusi, illa zegolako,
lantza sartu biotzera.

2026

Lantzaz zulatu zuten orduan,
Joan begira zegola,
bere begiak ikusi zuten
zauritikan zeriola
tantaka-tantaka lurreraño
ur pixka bat eta odola;
ikusi zunak aitortzen du ta
badaki egi diola.

Jesus illa obiratzen

2027

Jesus gurutzean josi zuten
bi gaizkillereren erdian,
aiek antzera antxen il zedin
lapur bezela mendian.
Aien tartean nasi nai zuten
Jesus ere illobian,
aren izena betiko galdu
zedin juduen errian.

2028

Nai zuten dana egin zioten
gurutz-buruan Jesusi,
bein il zanean Jainkoak etzun
aien eskuetan utzi.
Uste bezela etziran egin
gorputz illaren nagusi,
besteren batek aurrea artzeak
etzitun samindu gutxi.

2029

Arimateako Jose gizon
zuzen ta aberats utsa,
Pilatogana joan ta eskatu
zion Jesusen gorputza.
Nikodemo izeneko gizon
bat ere joan zan aruntza,
gorputza obiratzeko onek
eskeñi zion laguntza.

2030

Egun osoak iñoiz pasatzen
zituzten oñaze-miñez,
pizti gaiztoak kozkatzeraño,
zintzilika, il eziñez.
Bi gizon aiek joan ziralako
aren eskea egiñez,
ura il zala entzunik jaurle
jauna arritu zan ziñez.

2031

Eun-buruari dei egin zion
Pilato jaunak orduan;
baietz il zala, bere-berean,
ordu batzuren buruan.
Dirua ere joango zan noski
oitura zuten moduan,
Pilatok pozik utzi zien il
zala jakin zun onduan.

2032

Igo ziran, ba, Golgotaraño;
presaka xamar lanean,
maindire aundi batean bildu
zuten, jetxi zutenean.
Usai gozozko ura ixuriz
ondoren gorputz danean,
eortzitzera eraman zuten
illuna baizan gañean.

2033

Inguru xamar bazan baratz bat,
baratz ortan illobia,
Arimateak arri bizian
beretzako ebakia.
Illobi berri, oraindik iñor
eortzi etzan tokia,
presaka xamar onen barruan
utzi zuten eortzia.

2034

Emakumeak, igo ziranak
gurutz-bidean mendira,
non jartzen zuten ikusi arte
danak an zeuden begira.
Estaligarri arri aundi bat
iraulirik illobira,
andre ta gizon danak batera
laxter joan ziran errira.

Illobia zaintzen

2035

Apaiz-buruan izutu xamar
jetxiak ziran gain-bera,
illunpe aien beldur-ikaraz
goitik Jerusalenera.
Iskanbil aiek amai ondoren
mugitu ziran atzera,
orduan bear zuten laguntza
Pilatori eskatzera.

2036

Aundizki batzuk urbildu ziran
Sanedriñen izenean:
iruzurtzalle arek esana
askotan, bizi zanean,
piztuko zala berriro il da
irugarren egunean;
guda-mutillak jarri zitzala
illobi aldamenen.

2037

Guda-mutillak ura zaintzea
aien ustez komeni zan,
apostoluak andik ostu ta
gero piztu zala esan,
lenengoa baño gerokoa
txarrago etzedin izan.
“Orra or guda-mutillak, zaindu
zerok dakizuten gisan”.

2038

Berriro joan ziran bada gora,
sellatu zuten arria,
aldamenen an geratu zan
ura zaitzeko guardia.
Gizagaixoak ar nai zioten
gauza guziei neurria,
luzatu gabe jakingo zuten
uste gabeko berria.

Utsuna

2039

Negarrez zauden orrek
galdurik laguna,
zure biotza pozez
asetzen zizuna,
artaz pentsatu beti
arrats ta eguna,
jakingo dezu zer dan
uzten dun utsuna,
asetzekeroz bear
aren maitasuna.

2040

Pentsatu gabe ordu
bat ezin igaro,
betiko bein aztuko
baluke naiago.
Baña ain da goxoa,
zenbat ta geiago
aren gauzak ikusi,
bera ez badago,
zure biotzak daukan
utsa sakonago.

2041

Jesus obiratuta
ixil-ixil Ama
emakume-sail arek
berek in darama.
Atsekabe miñetan
egia da, baña
itxaropen osoa,
biotza otxana,
ta oroituaz laxter
gertatuko zana.

2042

Emakume gaixoak
al luken moduan
alaitu nai lituzke
beraren onduan:
laxter piztuko zala
neurri zun orduan.
Baña ori ezin zan
sar aien buruan,
il zala etzebilkiten
besterik goguan.

2043

Itzik egin nai ezik
sar ziran etxean,
Kalbario tristea
utzirik atzean.
Danak pentsatzen zuten
igande-goizean,
batzuk Jesus berriro
gantzutu-pozean;
Ama ikusteko zai
Jesus, piztutzean.

2044

Apostoluak berriz
non ote zebiltzan?
Bat Amarekin gora-
-bera ibili zan.
Zer gerta ezkututik
besteak ixpitzan,
katuaren igasi
saguaren gisan,
etzuten azaltzeko
ausardirik izan.

2045

Orra bukatu iru
urteko jarduna,
aien amets gozoak
joan ziran urruna.
Gerokoa aientzat
ain zegon illuna,
ondo gabea berriz
zeukaten utsuna,
argitu zan artean
pozaren eguna.

2046

Bukatu zan betiko
ango iskanbilla.
apostolu bakoitza
bizimodu billa
ibiliko zan aruntz-
-onuntza ixilla,
begiratu txarra ta
biotza umilla,
entzun zuten bitarte
pozaren ezkill.

Piztuera

2047

Ostiral-gaua ezkerok ixil
ezkutuan zegon Ama,
gertatu zana oroitzu triste,
baña lasai ta otxana.
Bazekin laxter etorko zala
Semea berarengana,
ai, bai pozik emango ziola
piztu zanari laztana!

2048

Emakumeak berriz urduri,
argitzeko zoramena;
gauza guziak ezin atonduz
an zebillen Madalena.
Etzuten aiek lorik ere egin,
laxter aldapak barrena
igoko ziran zuzendutzero
len oker utzi zutena.

2049

Guda-mutillak an zeuden lasai
illobiaren onduan,
gurutzean il zutena zaintzen
agindu zien moduan.
Ezer gertatu bear zanik an
etzebilkiten goguan,
zulo artatik ura ostuko
zunik etzala munduan.

2050

Oraindik goiza, parisaitarra
amets gozotan lasaia,
eztabaidaka bere aurrera
ez da etorko etsaia.
Pazko egunak igaro ondoren
atsedentzeko alaia;
ainbat gorroto zioten ura
iltzeko bazan garaia.

2051

Apostoluak danak etsita
Maisua ezin azturik,
aietan asko arekin ala
ibilia damaturik.
Etzuten orain zergatik bizi
lengo antzera baturik,
etzuten berriz ikusiko, ez,
beren Maisua pizturik.

2052

Oskarbi zegon bete-betea,
zeru-goian illargia,
laxter gertatu bear zunari
goitik begira jarria.
Bere mendean pake gozoan
zeuden mendi ta erria,
gabeko pake artan egin zun
lurrak ikara larria.

2053

Saltatu ziran guda-mutillak
entzunik ango dardarra,
iñor bazebillen an laxter zun
bere gañera indarra.
Bere oietik lurrera jausiz
larri zan parisaitarra:
“Zergatik egin ote du lurrak
olako jauzi zakarra?”.

2054

Une artantxe piztu zan Jesus,
berak esan zun moduan,
ezer ukuitu gabe atera
zan illobitik orduan.
Guda-mutillak zer gertatuko
larri zeudela onduan,
Jesus piztua etxean Ama
maitearekin zeguan.

2055

Egungentia nabarmendu zan
uxa nairik laxter gaba,
aingeru eder batzuk etorri
ziran zeru-goitik ara.
Dizdizlariak azaldu ziran
guda-mutillen bistara.
Nor ote ziran bi gazte aiek?
Aien orduko ikara!

2056

Arri aundia irauli zuten,
exeri bere gañean,
arpegi aiek dizditzen zuten
tximista batek añean.
Guda-mutillak, arpegi aiek
ikusi zituztenean,
lilluratuta geratu ziran
beraien aldamenean.

2057

Onera etor ziranean bein
guda-mutillak gain-bera,
beldur-ikaraz aizkatu ziran
laxter Jerusalemenera,
goian ikusi zutena apaiz
nagusiei esatera.
Emakumeak, berriz, aldapak
gora illobi aldera.

2058

Laxter asiko ziran errian
gora-berako laxterrak,
laxter entzungo ziran errian
ipui ta kontu ederrak.
Egun batzutan astindu ziran
Jerusalengo bazterrak,
ikusi zuten emakume ta
guda-mutillei eskerrak.

Emakumeak

2059

Mari Madalen, lagun Salome
ta Santiagoren ama,
larunbata-biaramonean
zoazten kaleak barna,
usai gozoak berekin artuz
geldi Maisuarengana;
lasai egin nai zuten lenago
presaka egin zan lana.

2060

Oraindik ere goiza zala ta
karririk zeuden illunak,
alare maldak gora mendiruntz
dijoaz iru lagunak,
beren artean triste kontatuz
ostiraleko jardunak,
atsedenean lotan egoten
ez baidaki maitasunak.

2061

Jesusen Ama etzan tartean;
zertan joango zan mendira,
bere Seme illaren gorputza
etzegoan illobira?
Seme piztua danen aurretik
an zuen egunsentira,
itxaropenez orduaren zai
Ama zedukan tokira.

2062

Iru andreak badoaz gora
ausarditsuak benetan,
leku bakarti aietan barna
ta oraindik illunpetan.
Maisua beste oroitzenpenik
ez dago biotz aietan,
arri aundia nork irauliko
gaixoak naiko kezketan.

2063

Arri aundia nork irauliko
aldapak gora larririk,
lurpean zegoen Jesus maitean
beren biotzak jarririk.
Aiek etzuten jakingo noski
guda-mutillen berririk,
bestela iru aiek etzuten
artuko mendi-biderik.

2064

Uritik alde xamarra zegoen,
irurak, egunsentira,
asmoak bete naiean igo
ziran Golgota mendira.
Lenengo beren begiratua
zuzen-zuzen illobira,
arri aundia kendua zegoen.
Zeñek? Antxe larri dira.

2065

Eguzkiaren lenengo printzak
zetozen aldapak bera,
beren dizdiren edertasuna
jauziz Jerusalemenera.
Gantzu gozoak eskutan artuz
iru andreak batera,
Jesus gantzutu naiean igo
ziran Golgota gañera.

2066

Amai gabeko egun gozoa,
egun on baten jaiotza,
egun orretan pentsatuz il zan
gizon askoren biotza.
Egun gozo orrek sinistunentzat
zekarren betiko poza,
eta sinisten ez dutenentzat
zoritxarrez eriotza.

2067

Maisuak ainbat aldiz esana:
irugarren egunean
piztuko zala, alperrik, etzan
sartzen aien barrenean.
Illobi utsa mendira igo
ta ikusi zutenean,
beste usterik etzegoen: ostu
zutela gau illunean.

2068

Zabal baizegon sar ziran danak
geldi-geldirik barrura,
begiratuaz urduri xamar
Jesus jar zuten lekura.
Zapi guziak an zeuden baña
palta gorputz maite ura;
dana ain txukun bazegon, norbait
ibilitako itxura.

2069

Zeñek atera ote zun andik?
Non ote zeukaten bera?
Apostoluak joan ote ziran
illobitik ostutzera?
Piztu zeikenik ezin pentsatu,
galdera eta galdera;
laxter jakingo zun Madalena
erten zan erri aldera.

2070

Besteak bertan geratu ziran
illobiaren onduan.
Non ote zegon illa? Besterik
etzebilkiten goguan.
Arritzen ziran ikusiz dana
ain txukun, zegon moduan;
jakingo zuten apostoluak
etortzen ziran orduan.

2071

Pentsakizunez emakumeak
zer egin etzekitela,
apostoluak noiz etorriko
zai berriketan zeudela,
bi gizon ager ziran argituz
eguzki batek bezela;
aingeruak ziran ta itzegin
zien bieiri onela:

2072

“Ez ikaratu, ondo dakigu
gurutzean josi zana,
gantzutu naiean zatoztela
Nazaretarrarengana,
Bañan alperrik zabiltzate emen,
bete da askotan esana;
zertan billatu illen artean
betiko berpiztu dana?”

2073

Ez dago emen. Piztu da Jesus.
Sartu zaitezte barrura,
ta begiratu zazute bera
eortzi zuten lekura.
Bizi zalarik esaten zuna
ekar zazute burura:
komeni zala bera iltzea
gaizkille baten modura.

2074

Giza-Semea jarriko dute
etsaiaren eskuetan,
ta gurutzean josiko dute
oñazez il arte bertan”.
Emakumeak sar ziran berriz
sinistuz aien itzetan;
baña etzuten illik arkitu
illobiko illunetan.

2075

“Jetxi zaitezte bere ikasle
guziengana berela,
eta mesedez gure aldetik
esaiezute onela:
‘Ez dago emen, piztu da Jauna,
esaten zuen bezela’.
Galilea aldera joateko
an ikusiko dutela”.

2076

Sinistu zuten aiek esana;
illobitikan atera
itxaropenez eta beldurrak
begiratzeko atzera.
Dana utzita laxterka iges
joan ziran andik gainbera,
triste zebiltzan apostoluei
berri ona ematera.

2077

Askoz lenago joan ta aurrea
artu zien Madalenak,
Pedro ta Joani samin kontatuz
bere biotzeko penak:
“Palta da Jesus eta ez dakit non
jar duten ostu dutenak”.
Aizkatu zitun onek beldurrak
ixil gordean zeudenak.

2078

Etzuten auek beste bearrik,
jo zuten biak mendira,
eta laxterka bizian biak
beren pozaren eztira.
Joan, gaztegoa, lenen iritxi
zan illobi-atarira;
begiratu, bai, begiratu zun,
etzan sartu illobira.

2079

Ondoren Pedrok ere arnaska
jo zun Golgotako gaña;
palta zan Jesus, bere barrua
ongi azter zuten baña.
Garbi zegon etzala lapurren
batzuk egindako lana,
txukun-txukun ta bere lekuan
bilduta baizegon dana.

2080

Onen ondoren sartu zan ere
Joan, bere bide-laguna,
bere laxterkan gazte zalako
illobira lenen juna.
Eta sinistu zuen ainbeste
aldiz Jesusi entzuna:
illen artetik piztuko zala
zion Idazki Deuna.

2081

Gero etxera joan ziran biak
pozez itxaropenetan,
Pedro beñepein arritutzen zan
ikusi zunez benetan.
Joan-etorriarik etzan paltako
ondorengo egunetan,
itxaropena piztu nai baizun
Jaunak aien biotzetan.

Madalenari agertzen zaio

2082

Maitatzen zuen benetan baña
aula bere sinismena,
illobia uts ikus zuneke
au biurtu zan lenena
apostoluei adierazteko
goian ikusi zuena;
baña berriro laxter igo zan
illobira Madalena.

2083

Ezin egona, ezin lasaitu,
maitasunak eragiña,
gora ta bera laxterka dabil
neskatx gazte au, ariña.
Gauz bat bakarria nai luke onek:
Jesus, ta arkitu eziña;
danei galdeka, arkitu nairik
ura non dagon dakiña.

2084

Negarrez ari zan Madalena
illobiaren onduan,
ala bear ta begiratu zun
bere barrura orduan.
Goizean arekin igo ziran
emakumeen moduan,
bi gizon eder ikusi zitun
txuriz jantziak barruan.

2085

Aingeru aiek esan zioten
illobi bi aldetatik;
“Emakumea, negar ta negar,
jakin liteke zergatik?”.
Emakumeak ere bizi-
erantzun zien bertatik:
“Nere Jauna eraman dute ta
non jarri duten ez dakit”.

2086

Orduan neskak bere atzera
begiratu zun berela,
eta gizon bat ikusi zuen
baratz artan zebilela.
Eta galdetu zion neskari
errukiturik bezela:
“Zergatik negar ta noren billa
zabiltza emen orrela?”.

2087

Baratza-zaia zalako ustez,
onek, maitasunez lausu
eta negarrez, erantzun zion
baratza-zaiari sutu:
“Baldin nere Jauna zuk emendik
bestera kendu baduzu,
nik eramango det. Mesedez, non
jarri dezun esaidazu”.

2088

Jesus besterik etzan arentzat,
gure Madalen gaixua!
Galde ta galde billa zebillen
maitetasunez itxua.
Jesus bera're, beti bezela,
biotzak pozten txintxua:
“Maria!” zion. Bere oñetan
auspezka onek: “Maisua!”.

2089

Eta besoak luzatuz bere
oñak artu nai dizkio,
beti bezela Jesus txut-txutik
bere aurrean serio.
Sua darion Madalenari
ala erantzuten dio:
“Ez neri eldu, oraindik ez bai-
-naiz Aitarengana io.

2090

Zoaz, ordea, nere anaien-
gana Jerusalemenera;
esan: Banoa nere Aita ta
zuen Aitaren etxera,
nere Jainko ta zuen Jainkogan,
etorri nintzan antzera”.
Laxterka jetxi zan Madalena
agindua betetzera.

2091

Pekataria zan Madalena,
pekatari ezaguna,
bazkai batean bere Maisua
olioz gantzutu zuna.
Ordu ezkeron iritxi zuen
Maisuaren maitasuna,
Amaren urren oni azaldu
zitzeaion piztua Jauna.

2092

Neke-beldurrik gabe jetxi zan
berriro erri aldera,
txokoan triste gordean zeuden
apostoluak poztera,
Jaunak agindu zion bezela
berri ona ekartzera:
“Piztu da Jesus! –zion bizirik–.
Nik ikusi baidet bera!”.

2093

Eraso txarra igaro berri,
naigabeari lotuak,
oso siniskaitz zeuden orduan
apostoluen goguak.
Aren esanak alperrik ziran,
alperrik aren malkuak,
apostoluak ala zioten:
“Emakumeen kontuak!”.

Jesus beste andreei azaldu

2094

Emakumeak arin zebiltzan
beti gora ta beraka,
daneiri berri ona zabaltzen
atera gabe zarata.
Ikasleeri berri ematera
zetozelarik presaka,
Jesussek agur bero bat egin
zien bidera aterata.

2095

Ezagutu ta agurtu zuten
oitura zuten bezela,
pozez beterik bere aurrean
biak auspezka zeudela.
“Ez beldurtu –zien–. Jetxi t’esan
apostoluei berela
Galileara joateko, bai, ta
an ikusiko nautela”.

2096

“Ikusi degu Jesus piztua,
berak agur egin digu”.
Apostoluak asarre zeuden:
zer zan ainbeste istillu?
Gizon batek ere etzun ikusten,
emakumeak testigu:
“Zeñek sinistu txorakeriak?
Erotu ote zaizkigu?”.

Judas

2097

Amabietako bat zan Judas
Jesussek aukeratua,
bere ikasle bezela onek
bere sallean artua,
itxaropenez ibiltzen zana
eta asko maitatua,
Maisuaren mirari geienak
berak ikusitakua.

2098

Jesusek biltzen zitun limosnen
kutxa-zaitzalle zegona,
diru ortatik beti beretzat
zerbait ostutzen ziona.
Diru-zalea eta lapurra,
lotsa gutxiko gizona,
Itun Zarrean aurrez *Galseme*
izenez deritzaiona.

2099

Geiegi maite zuen dirua,
benetako lapurra zan,
Jesusen aurkako eztabaida
danetan zebillen saltsan.
Deabrua deitzeko Maisua
etzan egoten zalantzan,
musu batekin onek saldu zun
etsaietara baratzan.

2100

Lan gaizto ura egin ondoren
Judas galdu zan berela
illunpetako ixillunera,
lurrak jan balu bezela.
Garbiro dagon gauza da bere
sallean etzeturrela,
an edo emen aren berria
azalduko zan bestela.

2101

Musu beltz ura eman ta laxter
Judas Jerusalemenera
joango zan bazekartela esan
ta saria kobratzera.
Berriro ere ezkutatu zan
andikan illun beltzera,
berak asi zun lan txarra zertan
bukatzen zan ikustera.

2102

Danen beldurrak ibiliko zan
ezkututik ezkutura,
etzun ikusi nai Maisuaren
arpegi atsegin ura.
Etzun oroitu nai ere bere
lengo lagunen tristura,
danen igesi ibiliko zan
Kain zanaren modura.

2103

“Musu batekin saltzen al nauzu?”
dabil bere belarritan,
ixil zistaka datorkiona
bere atsedenalдитan.
Biotza lotu, burua nastu,
lorik ez dauka begitan,
bere barruan inpernu bera
dauka gaixoak egitan.

2104

Biotz-muñetan kezka gaiztoa,
ondo gabeko illuna,
bere lan beltza gogoratuaz
ezten txarraren jarduna.
Gaua pentsatzen igaroko zun,
igesi berriz eguna,
ondo beazun biurto zaio
diruaren maitasuna.

2105

Kobratu duen diru pixarrak
erretzen dizka beatzak,
eten gabeen zulatzen dio
kezkategiko orratzak.
Ikaratzen du egunak eta
ikaratzen du arratsak,
samin ta luze beldugarriak
dijoaz ordu garratzak.

2106

Nola bukatu bear ote du?
An dabil bazterrik bazter;
Maisua nora, bera're ara,
ixil, illunari esker.
Ikasiko du eriotz-pena
eman diotela laxter.
Nastua dauka bere burua.
“Ez al det pentsatu oker?”.

2107

Usteko zuen Judasek Jaunak
iges egingo zuala,
baña kukuak oker jo zion,
ez baizan gertatu ala.
Ikusi zuen eriotzera
umil-umil zijoala,
orduan bai Judas bere lanez
benetan damutu zala.

2108

Benetan damu zitzaion Jesus
aien eskutan utzia,
zertako zuen diru pixarra
tratuan irabazia?
Errugabea saldu, utsean
gañera! Artu zun etsia;
mundu ontatik ezkutatzeko
bukatu nai zun bizia.

2109

Bere Maisua ain zan otxana,
ain zuen biotz goxua,
gogoratuko zaion baratzan
luzatu zion musua.
Maite-itxuran saldu gañera,
nola zegon ain lausua?
Ainbeste maite zuna saltzeko
nola eman zun pausua?

2110

Ikusi zuen gurutz batetik
zintzil, oñazetan iltzen;
apaiz nagusiak etzirala
gaizki esaka ixiltzen.
Zerua illun, lurak ikara,
arkaitz penditzak txikitzen,
il da gerora bere maiteak
gurutz ondora urbiltzen.

2111

Illa utzita ixil dijoaz
erriruntza banan-bana,
ixil dijoaz Madalena ta
onen besotikan Ama.
Apostoluak igesi dabiltz,
ustez galdu dute dana.
Madarikatuz bere burua:
“Orra egin detan lana!”.

2112

Gauak ekarri zuen mundura
bere ixiltasun otza,
baña taupaka eta ikaraz
dabilki bere biotza.
Egundo baño zorrotzagoa
zistaka ezten zorrotza,
orrela bizi baño ez al da
obegoa eriotza?

2113

Ixil ueña etorri zan ta
bere biotza kezketan,
berak naita're ezin pentsatu
egin zuenaz bestetan.
Beti gogoan, ezin alaitu,
ezin atsedan ezertan,
egun luzeak igaro ditu
inpernuko oñazetan.

2114

Joan dira iru egun ixilik,
baña igande-goizera
Maisua piztu dan otsak datoz
bere belarri-ertzera,
eta benetan egia dala;
erotu baten antzera,
dana utzita badijoa andik
bere burua galtzera.

2115

Guda-mutillak ikusi ditu
laxterka jexten goizean,
luzaro nola egondu diran
apaiz-buruen etxean.
Guda-mutillei eman diela
zerbait ezkutu-antzean,
naigaberen bat bazegola aien
arpegi ta biotzean.

2116

Illunzerako dana badaki,
Judas etzegon itxua,
guda-mutillak nola ekarri
zuten beren abisua.
Andre, ikasle danak zioten
pozez: “Piztu da Maisua!”.
“Nora gordeko ote naiz orain ni?”.
Etzegon lasai gaixua.

2117

Nasi zitzaion bere burua,
biotz barruan ikara,
presaka joanda bere diruak
bota zitun elizara.
“Oben egin det errugabea
salduz zuen eskutara!”.
Esan zioten: “Or konpon! Guri
zer? Ori zure lana da!”.

2118

Ara-onera eroa dabil
egin dunaren beldurrak,
atsedenikan ez du billatzen
gure limosna-lapurrak.
“Billaua alena!” oiuka ari
zaizkio zero ta lurrak,
azkenean asmorik beltzena
artu zun Judas maltzurak.

2119

Itxaropena galdu zun oso,
kezka txarrez erotua,
biotz barruan lotu zitzaion
etsiaren gorrotua.
Errugabea saldu zun, etzan
barkatzen zan pekatua,
bere burua urkatu zuen
soka batetik lotua.

2120

Soka lepoan, jauzi batean
zugaitz gañera igota,
bere burua an indarrean
zuen andik bera bota.
Bere ererikoan etenta
bi puska egin zan soka,
bere erraiak aidatu ziran
gorputzetik, lurra jota.

2121

Soka autsita ererikoan,
bere gorputza lerturik,
nastakatuak geratu ziran
bere erraiak zabalduak.
Jesus onaren ikasle zana
itxaropena galdurik,
etzan barkamen-eske ausartu
pekatuaz damaturik.

2122

Gero apaizak bildu zituzten
diru pixarrak elizan,
odol-saria zan ta etzuten
kutxara sartzerik izan.
Eltzegille zan baten baratza
salgai zeukatena baizan,
ura erosiz atzerritarren
kanposantua egin zan,
danok dakigu *Odol-baratza*
jendeak nola deritzan.

Guda-mutillak

2123

Emakume eta ikasleak
zebiltzan joan-etorrian;
juduen beldur, gizonak erdi
gordeka, naiko larrian.
Baña menditik laxterka jetxiz
baziran egunsentian
uste gabeko bisitatxo bat
egin zutenak errian.

2124

Ostiralean jarri zituzten
illobi-aldamenean
guda-mutillak, illa zaitzeko
Sanedriñen izenean.
Lilluratuta geratu ziran
Jesus berpiztu zanean,
baña ondoren apaizengana
jetxi ziran zuzenean.

2125

Kontatu zuten argi ta garbi
aiek ikusi zutena:
uste gabeko berri kaxkarra;
ura larria aiena!
Il zuten baña orain bai gaizki
atera zaiela dena,
guda-mutillak zaintzen jarria
bazeukaten naiko pena.

2126

Maisua bizi zala gorroto
gaiztoak zitun itxutu,
garbi egia ikasi arren
etziran asko estutu.
Errugabea il zutelako
ere ez pekatuz damutu,
egingo zuten modua gauzak
nola eduki ezkutu.

2127

Batzartu ziran Sanedriñean,
entzun zan gertatzen zana.
Zer erabaki? Ipurdiz gora
atera zitzaien dana?
Deitu zituzten guda-mutillak
ezkutuan berengana,
apaizen diruak egin zuen
andik aurrerako lana.

2128

“Esan zazute apostoluak
gabaz ebatsi dutela
bere gorputza, ixilik joanta,
zuek lotan zaudetela.
Zuen jaurleak jakin baleza,
oitura degun bezela,
diru emanaz arekikoa
egingo degu berela”.

2129

Guda-mutillak ar zuten, bada,
dirua esku betean;
baietza eman ondoren laxter
joan ziran andik pakean.
Esan bezela kontatu zuten
Jerusalengo partean,
eta geroztik Judean berri
ori dabil gaur artean.

Emausko ikasleak

2130

Jakin orduko berpiztu zala
berak gurutzean illa,
diruz estali erazi zuten,
itxi zuten maratilla.
Baña Maisua ara-onera
zebillen ixil-ixilla,
txokorik txoko berak beretzat
berexi zitunen billa.

2131

Jerusalenen itxita zeuden
apostoluak gordean,
andik kanpora ateratzeko
danak beldurrak aidean.
Emakumeak aruntz-onuntza
joan-etorriko bidean,
gordeta zeuden apostoluak
nolabait poztu naiean.

2132

Leku itxian aspertu ziran
zalantza ta esamesa,
emakumeak esaten zuten
gauzik sinistu nai eza.
Ikasle askok etzuten maite
barrun artako babeseta,
illun-urratzez Emaus aldera
egin nai zuten igesa.

2133

Biotz-erori eta goibelak
andikan Emausera,
kilometroren batzuen bidean
zeukaten beren etxera.
Eskutan makil bana artuaz,
kale aietan aurrera,
illuntzerako irixten ziran
beren txoko epelera.

2134

Buru-makur ta zearo goibel,
urrun zegon andik poza,
emakumeen kontuak ezin
lasaitu aien biotza.
Piztua zala, etzala piztu,
bazebillen noski otsa;
ainbesteraño sentitu zuten
Maisuaren eriotza.

2135

Bazijoazten alkarrizketan
aurrera gure lagunak,
triste oroituz igarotako
Jesusen gertakizunak.
Egiak ote ziran goizean
emakumeei entzunak?
Aiek kaletik ertetzera
bera egin zun egunak.

2136

Uste gabeen kale-ertzetik
urbil zitzaien laguna,
irugarren bat, iztun ederra,
baña etzan ezaguna.
“Baña zergatik daramazute
orren kopeta illuna?
Jakin liteke zuen artean
daramazuten jarduna?”.

2137

Irugarrena Jesus bera zan,
sartua aien tartera;
beti bezela maitagarria
eta goxo, biotz-bera,
Jerusalendik iges doazen
aien biotzak poztera.
Baña etzuten Emaustarrak
ezagutu nor zan bera.

2138

Biak batera geratu ziran,
triste zeukaten biotza,
eta Kleofas zeritzan batek
arrituz ala diotsa:
“Baña zu bakarrik al zaitugu
gaur erri ontan arrotza
gertatu danik ez jakiteko?
Ori da danen abotsa”.

2139

“Zer bada?” berak galdetu zien
ezjakin batek bezela.
“Nazaretoko Jesus Jaun ori
–aiek zioten berela–.
Arrapatu ta zakar apaizak
gurutzean il dutela;
guk uste genun berriz Israel
ark askatuko zuela.

2140

Igerle aundi ta ospetsua
genun gizon au benetan
Jaungoiko ta gizonen aurrean,
bizi izan zan egunetan.
On ta mirari asko egiña
zebillen leku danetan,
jakinduria ta maitasuna
zeuzkan biotz-ezpañetan.

2141

Apaiz-buru ta aintzindariak
etzuten gogozko izan,
aspaldi ontan arrapatu ta
iltzeko asmoz zebiltzan.
Eriotz-pena eman zioten,
gurutze batean il zan
bi gaizkilleren erdian, bakar,
aietako baten gisan.

2142

Erri xar au onek askatuko
zulakoan gure poza,
erri-buruak eman zioten
lotsagarri eriotza.
Itxaropena ezin galdurik
goibel daukagu biotza;
ez jakiteko gauz auek, nola
zaitugu orren arrotza? *

2143

Guk uste genun Mesias zala,
gu askatuko ginduna;
ostiralean il zuten bera,
gaur irugarren eguna.
Gurekin bizi zan bitarte ain
biotzez maite genduna,
orra bukatu; orain biotzak
tristura eta illuna.

2144

Andretxo batzuk aizka gaituzte
egunsentian esanik
illobia zabal t'etzegola
gorputzaren aztarrenik.
Guretakoak egia dala
diote, bertara joanik;
baña oraindik ez degu iñor
bera ikusi duanik.

2145

Itxaropenez an egon gera
zer ikusiko goizean,
etsi degu ta etxe aldera
atsekabez arratsean,
beldurrak daudenetatik iges,
zerbait lasaitu-pozean.
Buelatik ez daukan naigabe ori
dago gure biotzean”.

2146

Irugarrenak eraso zien
bien erdian jarririk:
“Buru-gogorak zerate zuek
ez sinisteko egirik”.
Itun Zarrean esandakoa
goitik beraño nasirik,
nai t'ez Jesus il bearra zala
agertu zien garbirik.

2147

“Egia, Jaunak igaro bear
zitula olako lotsak;
ez ikaratu: etorkizunik
ez du moztu eriotzak”.
Ari entzunik ikasle biak
pilpil zeuzkaten biotzak,
zalantz gaiztoak joan ta gero
leku artu nai zun pozak.

2148

Emausera iritxi ziran
alkarrizketa beruan,
irugarrena berak utzita
aurrera bere pausuan.
“Ori ez, jauna. Atoz gurekin
–esan zioten orduan–;
gaua gañean degu ta gera
zaite gaur gure onduan”.

2149

Maitasunez ar zuten arrotza,
exeri ziran maiera,
ogia artu ta bedeinkatuz
ezkeñi zien jatera.
Jan zuteneko aien begiak
zabaldu ziran batera,
eta Maisua zala berela
ezagutu zuten bera;
baña bistatik, une berean
estali zan illunpera.

2150

Ala zioten gogoratuaz
beren bideko jarduna:
“Etzegon sutan gure biotza,
lenago otz ta illuna?”.
Dana utzi ta Jerusalemuntz,
naiz egon andik urruna,
jo zuten biak, adirazteko
maieko gertakizuna.

2151

Etxe barrura sar ziraneko
ango artu eta tori,
danak itzegin nai, etzioten
txandik ematen iñori.
“Egia da, bai, emakumeak
esaten ziguten ori;
benetan piztu da Jesus eta
azaldu zaio Pedrori”.

2152

Kontatu zuten bi oiek ere,
txanda eman zienean,
nola joan ziran Emausera
arekin bide danean.
Ezagutu zutela ogia
bedeinkatu zuenean.
Baña etzun iñork sinistu nai
izan aien esanean.

Jesus berriro agertzen

2153

Jesus piztu zan eguna geldi
bazijoan arratsera,
ikasle asko ateak itxiz
bilduak zeuden batera.
Beste izketik etzan nabari:
Maisuaren gora-bera;
siniskaitz zeuden geienak, gauza
garbirik etzan atera.

2154

Apaiz-buruak goizean artu
zuten eundoko zarrata,
diruaren truk ordukotz beintzat
ixildu zuten zarata.
Jerusalenen asia zegon
zurrunbulloan enbata,
oraindik saltsak etorko ziran
gurutzetua zala-ta.

2155

Emakumeak nekatu ziran,
illuntzera erretira;
baña berriro saltako ziran
guziak egunsentira.
Beste konturik ez dabil noski
belarritik belarrira,
zerbait berria gertatzen dala
danak konturatu dira.

2156

Atez barruan ondo itxita
eundoko ikasle-pilla,
piztu dala ta ez dala piztu
ari zuten iskanbilla.
Iñork ezertxo oartu gabe,
iñork ezer etzekilla,
danen aurrean an agertu zan
Maisua ixil-ixilla.

2157

Izutu ziran an zeuden danak,
etzegon antxe atsegin,
buru-gogorak ziran geienak:
ikusi ta sinist ezin.
Ezin atera beren zalantza
txarretik, ezin aldegin;
orduán berak itzegin zien:
“Pakea bedi zuekin”.

2158

Alare aiek zalantza txarra
mamu txarren bat ote zan;
ezin sinistu zuten iñola
Jesus onaren baietzan.
Maisuak berriz betiko aien
zalantza uxatu zezan:
“Ez ikaratu! Ez dizutet len
ere ni naizela esan?”.

2159

Ikusten zuten, ikusi ondo,
baña etziran ametsak?
Illa piztea! Etzun neurririk
aien sinistu nai ezak.
“Ukuitu nere esku ta oñak,
ukuitu nere saietsak”.
Egoskor aiek etziran sinis-
-beratzen oso errezak.

2160

Bertan arpegira bota zien
beren siniskaitz aizuna,
sinistea nai etzutelako
ikus zutenei entzuna.
Illak bere burua piztea?
Ain zan gertakari illuna!
Etzan argitzen ura ote zan
gurutzean il zan Jauna.

2161

Arrai-zati ta ezti-puska bat
ikasleak eskeñirik,
bertan jan zitun buru aietan
sinismena piztu nairik.
Alaitu ziran, bada, benetan,
il zana berriz bizirik
bere begien aurrean ala
berpiztua ikusirik.

2162

Agurtu zuten beren aurrean
zegona beren naiera.
“Pakea bedi zuekin –esan
zien Maisuak osterá–.
Nere Aitak ni mundu ontara
biali niñun antzera,
bialitzen zaituztet nik ere
zuek mundu zabalera.

2163

Artu Ats Deuna eta barkatu
itzazute pekatuak,
emen barkatzen diranak beude
goian ere barkatuak,
emen lotutzen diranak beude
zeruan ere lotuak”.
Joan zan utzirik apostoluak
atsegiñez zoratuak.

2164

Apostoluak banatu ziran
bein Maisua il zanean,
bizimodua ateratzeko
bakoitzak bere lanean.
Alkarrekin an zeuden batzuak
agertu zitzaientean,
baña etzegen Tomas sallean
lagunen aldamenean.

2165

Sallera bildu zanean, bada,
esan zioten batera:
“Ikusi degu Jesus piztua,
sartu zitzaigun etxera”.
Tomasek etzun makur nai izan
bere lagunen itzera,
eta berela erantzun zien
egoskor baten atzera.

2166

“Nik ez badiot ikusten esku-
-oñetan iltze-zulorik,
nik ez badiot ikusten zauri
egña bere kolkorik,
nik ez badiot sartzen eskua
zaurian oso-osorik,
Tomasek ez du sinistuko, ez,
beñere orrelakorik”.

2167

Zortzi egun gutxi gora-bera,
danak zeudela alkarrekin,
eta sinistu nai etzun Tomas
ere sallean aiekin,
danen erdian an azaldu zan
apostoluen atsegin.
Beti bezela au esan zien:
“Pakea bedi zuekin”.

2168

Gero Tomasi au esan zion:
“Etorri zaite aurrera:
esku-oñetan orra zauriak,
sartu beatza onera.
Luzatu zazu zure besoa,
sartu nere saietsera,
egundo etzaite sinis-gogor
izan, baizik sinis-bera”.

2169

Tomasek ala erantzun zion:
“Nere Jainko, nere Jauna!”.
Baita Maisuak ere aguro
merezi zun erantzuna:
“Ai, Tomas! Ikusi nauzulako
egin zera sinistuna?
Zorionsua benetan ikus
gabe sinistuko duna!”.

Tiberiades ondoan

2170

Galileako pake gozora
joan ziran ikasle danak,
aldez aurretik Maisuak berak
ara joateko esanak.
Jerusalengo etsai artetik
igesi araña joanak,
geienak baiziran Galilean
jaio ta bizi ziranak.

2171

Askotan Jesus ikusten zuten
leku emanaz pozari.
Zer jana etzan berez sortutzen
eta jaleak ugari,
gorputzak berriz eskatzen zuen
bear zan ainbat janari;
eta, jakiña, bizitzezkeroz
eraso bear lanari.

2172

Simon zeukaten buru bezela,
arrantzalea gañera.
“Arrantzara noa” esan zien
illunarekin batera.
Besteak ere baietz zioten,
etzuten egin atzera,
pake-pakean joan ziran danak
Tiberiades aldera.

2173

Arrats guzia igaro zuten
beren arrantza-lanean,
goseak jota zeuden guziak
eguna agertu zanean.
Legor aldera urbildu ziran
bein aspertu ziranean,
arrai bakar bat etzegon berriz
beren ontzi barrenean.

2174

Egun-urratzak azaldu ziran,
nabarmendu zan eguna,
itxas gañean arin zebillen
goizeko ipar leguna,
ugin banakak joan-etorrian
itxas gañean barruna...
Gizon bat txutik ikusi zuten
itxas-ertzean urruna.

2175

Kea zijoan zerrendan gora,
gizona zegon ondotik,
Jesus zan beren zai zeukatena,
etorria lenagotik.
Ura ikusiz apostoluak
arritzen ziran gogotik,
baña nor izan ziteken ezin
ezagutu itxasotik.

2176

Arraunak karrank, besoak nekez,
gora-beraka gorputza,
itxas gañean aurrera zoan
bein tira, bestean bultza.
Arrats guzia lanean pasa
neketan ta ontzi utsa,
bere lagunen erdian Pedro
etzegon oso urusa.

2177

“Zer jatekorik bai al dezute?”
itxas-ertzetik galdera.
“Ez da naiaren paltik; alare
ez degu ezer atera”.
Gizonak ala agindu zien:
“Bota eskubi aldera,
ta nere ustetan aterako
dezute ortik aukera”.

2178

Esan bezela egin ondoren
sare xarra autsi-zori,
aspaldian etzan sare artan
ainbestekorik erori.
Mirari onen aurrean Joanek
ixilik zion Pedrori:
“Zalantzik gabe, ezin besterik,
gure Maisua da ori”.

2179

“Jesus da ori” entzun zuneko
Pedro jantzi ta urera,
soin-gañekorik gabe baizegon;
salta zuen buruzpera.
Besteak berriz bere ondoren
geldi narran bazterrera,
bertan baizegon; sarea arraiz
betea zuten atera.

2180

Ontzi ta guzi bein ikasleak
legorrera ziranean,
ikusi zuten sua piztuta,
arrai erre bai gañean.
Ogi-koskor bat ere bazeukan
beraren aldamenean,
atseden pixar bat ar zezaten
beren neke ta lanean.

2181

Maisuak ala eskatu zien:
“Arrai batzuak ekarri”.
Naiko lanakin atera zuten
legorrera, larri-larri.
“Nola etzaigu sarea autsi?”
zioten pozez alkarri.
Maisuak nola bazkatu zitun
ikasleak maitagarri.

2182

“Urbil zaitetze ta jan zazute”
agindu zien berela;
ogia artu ta berak puskatu
oitura zuen bezela.
Danak benetan sinisten zuten
Maisuarekin zeudela,
“Nor zaitugu zu?” galderatxo au
gingo zuten bestela.

Pedro Elizaren buru

2183

Jan ondorean Pedrori Jaunak
galdetu zion maitetsu:
“Simon, Jonaren seme, bestea
baño maitego al nauzu?”.
“Badakizu maite zaitudala”
erantzuten dio sutsu.
Eta Jesusek: “Nere arkume
txikiok zaindu itzazu.

2184

Simon, Jonaren seme, bestea
baño maitego al nauzu?”.
Onek, beti bezela, biziki
pentsatu gabe, erdi lausu:
“Badakizu maite zaitudala”
erantzuten dio sutsu.
Eta Maisuak berriro: “Nere
bildotsak zaindu itzazu.

2185

Simon, Jonaren seme, bestea
baño maitego al nauzu?”.
Goibeldu zan oso Pedro: “Jauna,
zuk dana ikusten duzu.
Badakizu maite zaitudala”
kezkaz eta ez ain sutsu.
Maisuak ere bertatik: “Nere
ardiak zaindu itzazu”.

2186

Zedorrek lotzen zendun gerria
gaztetan, sasoi zendula;
nai zendun lekura joaten ziñan,
ez baiziñan zar ta aula.
Jakin zartuta besterek gerri
ori lotuko dizula,
zedorrek nai ez dezun lekura
ark eramango zaitula”.

2187

Nola ilko zan esan nai zion;
ondoren: “Atoz nerekin”.
Eta salletik aurrera biak
zijoazten alkarrekin.
Jaunak maite zun ikaslea're
ixil salletik aldegin,
atzeraxeagotik gordean
geldi zijoan aiekin.

2188

Ikusi zun Joan, atzetik, itzik
trukatu gabe iñori;
aren berri ere jakin naia
sartu zitzaion Pedrori.
Eta galdetu zion: “Jauna, zer
gertatuko zaio orri?”.
Jaunak: “Ni berriz etorri arte
eduki nai badet ori,
zuri ajola gutxi, Pedro. Zu
nere ondoren etorri”.

2189

Orretxegatik ordu ezkeru
jende artean zegona:
Jesus etorri arte etzala
ilko zabaldua sona.
Etzan ordea izan orrela
Jesusen esan ziona:
“Etorri arte eduki nai badet
ere, zuri zer, gizona?”.

Ikasle askori

2190

Jesus piztu zala iritxi zan
berrogeigarren eguna,
oraintxe Jaunak bukatuko du
emengo eginkizuna.
Apostoluak emen utzita
zerura joango zan Jauna,
baña ixilpe beti gurekin
eukiko zuen jarduna.

2191

Ikustaldi asko egin zitun
luzego eta motxago,
zein menditara joan bear zuten
erakutsirik lenago.
Agur ontara bilduko ziran
bosteun eta geiago,
zer gertatuko ote dan bertan
jendea urduri dago.

2192

Azaldu zaien danen aurrera
bosteunak ikusirik,
gurutzean il zuten Maisua
piztuta berriz bizirik.
Alare asko zalantzan zeuden,
ezin sinistu egirik;
azkenekoa, etzun egingo
beste etorri-aldirik.

2193

Jende ugari erne zeukala
eskubi ta ezkerrean,
ezbaidan asko, ezin sinistu,
naiko kezka, beldurrean.
Maisua jarri zitzaien bada
patxaran beren aurrean,
esanaz: “Eskubide osoa
eman zait zeru-lurrean.

2194

Zoazte, beraz; zabal zaitezte
danak munduak barruna,
Irutasunaren izenean
bataia sinisten duna.
Erakutsi ta bete erazi
gaur arte neri entzuna,
mundua mundu or naukazute
zuekin zuen laguna.

2195

Zoazte mundu zabalak barna,
predikatu erriz erri,
salbatuko da bataiatutzen
dana zueri sinetsiz.
Eta sinisten ez duen dana,
zuen esana gaitzetsiz,
ta bataiatu nai ez duena,
kondenatuko da, berriz.

2196

Mirari asko egingo ditu,
berriz, nere sinistunak:
nere izenez txerrenak uxa,
itzegin izkuntz illunak;
ez dio kalte egingo, ez, jan txar
ta ez sube pozoidunak,
eskuak jarritz sendatu gaixo,
eri ta legenardunak.

2197

Nitzaz Moiseren lege, igerle
ta salmotan idatzia,
mutur batetik bestera bete
bearra zala guzia,
ori esaten nizuten beti,
ori zan nere bizia;
zuek ordea oraindik ezin
ulertu erakutsia.

2198

Kristok il bear zula ta piztu
irugarren egunean,
obenen damu ta barkamena
ere aren izenean
predikatuaz, Jerusalemdik
asi ta mundu danean,
zuek, ikasle oiek, zaudete
gauza auen jakiñean.

2199

Nik bialiko dizutet andik
Ats Deuna zuen gañera,
zuek ordea jetxi zaitezte
azkar Jerusalemenera.
Otoi zazute uri xar artan
eta ez andik atera
Ats Deuna jetxi bitarte, zuen
indar izan dedin bera.

Jesus zerura

2200

Esan bearrak amai ondoren
eramán zitun kanpora,
bosteunak artu bere aurrean,
Betaniako ondora.
Besoak jasoz ta bedeinkatuz
polliki gora ta gora,
danen bistatik ezkutatu zan
Jesus betiko zerura.

2201

Lilluraturik begira danak
ixil-ixilik zerura,
agurtu zuten biotz-biotzez
ainbat maite zitun ura.
Gorde zaneke beren biotzak
batera poz ta tristura;
esan bezela, Jauna goratuz
joan ziran uri santura.

2102

Kristau maitea, ikasi dezu
Maisu onaren dotriña?
Arek bezela zuk ere egin
erakutsi ta egiña,
ori baidezu ate txikira
bide bakar ta berdiña,
ortik joanaz iritxiko dezu
zerutako atsegiña.

Aldaketak

(Itzaurrean esan bezela, *Jesusen bizi-tza*-ren bi idazketa egin zituan Atañoek: aurrena eskuz eta bestea makinaz. Bigarrenengo oni kopiatu dizkiogu bertsoak. Baiña ona emen leenengo ortan arkitu ditugun aldaketak. Gisa ontako lanak astunak eta aspergarriak diran ezker, baditeke gure arreta moteldu eta aldaketaren bat edo beste ez ikusi izana. Utsegite oiek barkatuko al dizkigu irakurleak!)

1, 2, 3-garren bertsoak eskuzko idazketatik artuak ditugu. Makinaz idatzita-koan ez daude.

4/2: Goteuna, iru pertsona.

4/8: gañez daukan zoriona.

4/10: egiña zuen gizona.

5/5: Arrats beltz batek estali zuan.

6/10: tristea zala benetan.

8/1: Egun berri bat jaio zitzaigun.

8/3: maitasun berak lasaitu zuan.

8/6: gure atsedeen-kaiara.

9/5: mingain aul ontan jarri oparo.

10/4: ain zapaldu ta illuna.

11/7: Lurrak, ler zaitezte ta sor bedi.

12/4: zegon erruki-moduan.

12/8: galdu zituzten orduan.

13/1: Erodes Judeako errege.

13/2: zegon urte-garaietan.

13/3: bazan Zakarias izeneko.

13/4: apaiz zuzena benetan.

13/8: txintxuak ar-emanetan.

13/9: bañan aurrikan etzutelako.

15/5: Berri eder bat ematen dizut.

16/3: Joan jarriko diozu izena.

16/9: datorrenari ardi galduak.

16/10: bere bordara ekarriz.

18/8: orain asi ta aurrera.

18/9: obek gertatzen diran bitarte.

19-garrena, esku-idatzian bakarrik. Makinaz idatzitakoak ez du.

20/3: zoriontsu ziran alare biak.

20/8: egon zan ama ezkutu.

21/10: eskeñita zedukana.

22/9: pentsatzen zegon bere baitan zer.

22/10: izan ote zitekean.

23/4: baizaitu, zuk ala nairik.

23/7: aren jaurgoak ez du egundo.

23/8: izango bere amairik.

24/7: agorra aurdun, gaur da seigarren.

24/10: dana badaki burutzen.

25/10: nere agintzari ura..

26/2: ditu zeru eta lurra.

26/5: maitetasunez berotu zaigu.

28/1: Bakar-bakarrik mendiak barna.

28/2: Ama ezin da lasaitu.

28/3: arraisku txarrak, bide luzeak.

28/4: badaki nola garaitu.

28/5: Jaungoikoaren barrun-bultzada.

28/6: biotz-muñetan nabaitu.

28/10: Aurra santutuko baitu.

30/3: bedeinkatua zure frutua.

30/8: agurrakin bat-batean.

31/1: Mariak etzun asko pentsatzen.

31/5: Aurrea artu zion besteak.

31/8: Ama gaztea izanik.

32, 33 eta 34-garrena esku-idatzian bakarrik. Makinaz idatzitakoak ez ditu.

35/7: lengusu maite ziran ezker.

36/5: Gauz obek danak gertatu ta andik.

37/3: seme eder bat jaio zun, ori zan.

37/9: zorioneko guraso aiek.

38/5: Joanen izena daukanik ez da.

38/8: zun berari galdetzian.

38/9: biak batera zetozen, danak.

38/10: benetan arritu zian.

39/5: Ari entzunik beldurrez zegon.

39/7: Judea aldeko jende geienak.

- 39/9: "Nor degu aur au?" zioten danak.
39/10: Jauna arekin baizeguan.
40/5: bere erri xar au ikustatu.
40/7: Dabid morroiaren etxean sor.
45/7: an bizi izan zan ixil, ezkutu.
45/9: Goiko Arnasak bere lekura.
47/9: Kezka guziak bota zitun ta.
48/3: zenbat zituzten ikasi gero.
48/6: sorterritara biltzeko.
48/8: beren izenak artzeko.
51/3: beste laguntzik gabe sortu zan.
51/4: munduan Jesus sotilla.
51/6: aberats naiaren billa.
51/7: Bere gurasoen biotzetan.
51/9: etxetik urrun jaio zalako.
51/10: ain beartsu ta umilla.
52/1: Triste xamarrek geratu ziran.
52/3: Jainkoaren Seme izaki ta.
52/4: munduak arrera otza.
52/7: berak egin zun mundura jetxi.
53/1: Jesus Aurtxo argira zaneko.
53/2: astinduz beren eguak.
53/9: triste zeudenak alaitu zitun.
54/1: Negu zan baño artzai gaixuak.
54/3: larrean besteren artaldeak.
54/7: inguratuaz, izutu ziran.
54/8: artzai gaixoak orrela.
54/9: aingeru baten abots goxoak.
54/10: lasaitu zitun berela.
55/1: Ez ikaratu, artzai maiteak.
55/7: askan oialez bildua dago.
55/9: Dabiden Seme onen lekuko.
56/6: Jaungoikoari goietan.
56/7: eta lurrean pakea aren.
56/9: Polliki aitzuz kantu onen ots.
57/9: alai ta pozik biurtu ziran.
59/3: aingeru oiek goratu dute.
60/8: ixildu-zale etzian.
60/9: Mariak berriz dana jasotzen.
60/10: zuan bere biotzean.
63/3: izar berriren bat ikusi ta.
63/9: zer adirazi nai ote zuan.
63/10: izarraren abisuak.
66/5: Guztiok bere ondoren gatoz.
66/10: bitarte etzegon lasaia.
67/4: sartzen baizien beldurra.
67/9: crantzun zuten lege-maisuak.
68/8: badet bera agurtu naia.
69/1: Erregeren itz obek entzunik.
69/7: estalpe gañean kokatu zan.
- 69/8: lekuraño ziranean.
70/10: zala Aurraren jaiotza.
72/5: eman zioten maiteki Jesus.
72/7: Erodesen beldur ziralako.
72/8: utzirik bide laburra.
72/9: alai ta pozik beste bidetik.
72/10: jo zuten sor ziran lurra.
73/10: bete nairik txintxo dana.
74/5: Santutasunez jantzia zegon.
74/8: omen zion agerpena.
74/9: Kristo ikusi gabe etzula.
75/1: Espiritu Santuaren bultzaz.
75/3: jauretxean ordu batzuk pasa.
75/6: sartu ziraneko ara.
75/7: Ona Kristoa –dio zoriontsu.
76/5: Eraman zazu Zugan morroi au.
76/6: Jauna, bete zure itza.
76/9: erri guzien argi zuria.
77/9: orduan, triste, Simeon zarrak
78/1: Israelgo jende askorentzat.
78/5: Beste batzuak galduko dira.
79/7: zetozeneari adieraziz.
79/10: Jaunak bialtzen diguna.
80/3: pentsakizunez itzuli ziran.
80/4: Makinazkoan: *Nazaret erri kaxkora.*
Baiña artean Belenen zan Famili Santua.
Ala, Ierro au eskuzkoari kopiatu diogu.
81/3: beren biotzak asetzen ditun.
81/4: ondoan zuten Aurtxuak.
81/5: Baña luzaroko atsedenek.
82/9: Ejitotik deitu det Semea.
83/3: sutu zan oso, laxter artu zun.
83/5: bi urtez berako mutil danak.
83/6: il azteraño, maltzurra.
83/7: oien artean erorko zala.
83/8: errege nai zuten Aurra.
83/10: zun Belen xarreko lurra.
84/6: negar ta negar baita ari.
86/5: Onen semea zegon errege.
87/3: azu alian santutasun ta.
88/6: Jainkoaren onginaia.
89/1: Etorri ziran bada irurak.
89/9: Jesus ordean an geratu zan.
90/4: naigabetuak orduan.
90/9: bere jakinduriz arrituta.
91/9: Ez gaizki artu, nere Aitaren.
92/1: Obek etzuten ezer ulertu.
93 bertsoa: esku-idatzittik artua. Makinaz
idatzitakoak ez du.
95/5: Ille ta bizar dana nasian.

- 95/8: baña sua dariona.
 95/10: dala omen dago sona.
 97/7: Aita betikuak arengana.
 98/8: geientsuenen biotza.
 99/4: pariseo ta maisuak.
 99/8: danak ditu berdintsuak.
 101/5: Bataio ondoren danciri zien.
 102/3: etziran obek ere itzultzen.
 102/4: Bautistari eskatzeke.
 102/8: esandakua ainbeste.
 103/9: bataiatzalle onek ere bai.
 104/5: Beti zai zeuden noiz agertuko.
 105/9: ea nor zan bera esateko.
 106/9: nere atzetik laxter badator.
 107/3: nere ondoren dator beste bat.
 107/7: arek badakit bere antxume.
 107/8: ta ardiak nola berexi.
 107/10: ere nik ez det merezi.
 108/2: gauza ez dana mozteko.
 108/3: frutu ematen ez dun bakar bat.
 109/7: Aruntz-onuntza zebillen ango.
 110/1: Urrun oraindik ikusi zuen.
 110/2: Joanek argan zetorrela.
 110/5: Espiritu Santuaren argiz.
 111/1: Alkarrengandik urrun biziak.
 112/4: agindutzen dizu zuri.
 112/6: komeni baizaigu guri.
 113/2: zabaltzen zeru urdiña.
 113/10: Zugan nere atsegiña.
 114/1: Aitak egin zuan bere Seme.
 114/2: maitearen aitorrera.
 114/7: Ats Deunak andik ezkutatu zun.
 114/8: ixil basa-baztarrera.
 115/2: gauz txikienik ere jan.
 115/6: jakiña, gosetu baizan.
 115/9: ekin zioten bada zirika.
 115/10: berak bazekiten gisan.
 116/3: Jainko-Seme baaiz ogi biur zik.
 116/4: arri obek danak, ona.
 116/5: Bazekin Jesus gose zegola.
 116/7: Eta Jesusek erantzun: "Au dek.
 116/8: idatzirikan dagona.
 117/9: aldamenean jarrita maltzur.
 118/1: Jainko-Seme baaiz salta zak bera.
 118/3: aingeruak dauzkala Jainkoak.
 118/4: zai-zai bidean jarririk.
 118/5: jasoko aute, bera oala.
 119/3: mundu ta bere aunditasunak.
 119/4: azalduz une batean.
 119/5: "Dana nerea dek ori, dana.
 119/10: auspez jarririk lurrean.
 120/5: Idatzirik zegok: "Zure Jauna.
 120/10: egin zioten zoriontsu.
 121/5: Sortu zun dena, bizi beregan.
 122/3: Jordan ondoan bataiatutzen.
 122/4: zuan bat, oso zuzena.
 122/5: illunpe ontan argi-dizdiz au.
 123/7: aren bidez egin zan mundu au.
 123/8: eta sortu dan guzia.
 124/2: illun beltzean zeudenak.
 124/5: Bere semetzat berexi ditu.
 124/7: ez odol, aragi ta gizonen.
 125/7: ikusi degu egi ta graziz.
 125/10: dagi Joanek, artaz mintza.
 127/6: apaiz obek: "Zu nor zera?".
 127/10: egin zuan aitorrera.
 129/1: "Ni naiz -erantzun zun- Isaias.
 129/2: profetak esan zuana.
 129/9: bialiak, zer zan jakin nairik.
 130/3: baña azalez bakarrik onak.
 130/4: aizun biotzez geienak.
 130/5: Moises ordeko erriko buru.
 130/7: gaizkilleak zigortzeko ere.
 131/3: Kristo edo profetan bat ez ba-
 131/5: "Urez bataiatzen det nik baña.
 131/9: oñetakoak ari kentzeko.
 131/10: ere din ez naiz ezertan.
 132/4: zoruntsu bere biotza.
 132/7: ingurukoci argi ta garbi.
 132/9: Ona pekatuak kentzen ditun.
 132/10: Jaungoikoaren bildotsa!
 133/7: ez nun ezaguna, baña urez.
 133/8: bataiatutzera nator.
 134/2: Joanek bere aitorrera.
 134/5: Ura ixuri nuaneko nik.
 134/9: bataiatzera bultza niñunak.
 135/1: Auxe zan gure Jainkoak neri.
 135/2: biotz barrura esana.
 135/8: nik gertatzen ori dana.
 135/9: ziñez aitortzen det orain: Au da
 136/6: zebillen leku danian.
 136/7: bere lekuan aiek uzteko.
 137/8: ongi ar zuten goguan.
 137/9: Joanen aginduz bere ondoren.
 138/7: Egun osua an igaro zuten.
 138/10: beren Maisutzat bezela.
 139/7: ikus zuncko zion Maisuak.
 140/5: Baña Pelipe betsaidatarra.
 140/8: beste iruren artean.
 140/10: apostoluen sallean.

- 141/3: Moises ta profetak aspalditik.
 141/5: arkitu digu: nazaretarra.
 141/8: andik? Erri txarra baita”.
 142/7: Nazaretetik atera zala.
 142/9: Laxter igerriko zion arek.
 143/1: Ikus zuaneko Jesusek sartzen.
 143/5: “Nola dakizu?”. “Pikondopean.
 143/6: ikusi zaitut gordea”.
 143/7: Orduan dio Natanaelek.
 143/8: biziro pozez betea.
 144/2: nik ikusi zaitudala.
 144/4: ikustekua zerala.
 144/5: konta dizudan gertakizuna.
 144/6: sarrera baizik ez dala.
 145/3: bere ikasle-salla ondoan.
 145/7: sartzen zan leku danetan poza.
 148/10: ain illun ezkonberriak.
 149/1: Bazkai erdian zeuden oraindik.
 149/6: zenbait ibilliko zana.
 149/9: Mariak ondo baizekin Arek.
 150/3: “Seme, ardorik ez dute obek.
 150/9: baña iritzi ortarakua.
 151/3: gordean, iñor oartu gabe.
 151/9: lotsagarri geratuko ziran.
 152/2: urez ontzi-pil au dana”.
 152/3: Sei ontzi ziran, arriz egiñak.
 152/7: onetsi zitun ontzi guziak.
 152/9: eta: “Eraman orain ori mai-
 153/3: ezkonberrieiri itz egiñaz.
 153/6: Orra jokatu burutsu.
 153/9: Jakin al leike: ardo bikain au.
 153/10: nondik ekarri diguzu?
 154/3: serbitzalleak ondo zekiten.
 154/4: nondik atera zan ua.
 154/7: Jesusen esan zunez ez bazan.
 154/8: oraindik bere ordua.
 155/1: Au izan zan Jesusek egin zun.
 155/8: Judea aldean barrera.
 156/9: Pazko-eguna laxter zala ta.
 157/1: Jerusalemgo jauretze deuna.
 157/5: Azoka zala zirudin ura.
 157/6: zan ango artu-eman.
 157/7: ura ikusiz asarretu zan.
 157/8: Jesus, berez ain otxana.
 157/10: laxter bukatu zun lana.
 158/3: diruz beteta zeuden mai danak.
 158/9: astindu ere bizkarra zenbait.
 159/9: Maisuak eliz artan egiñak.
 160/2: urbil zaizkion Jesusi.
 160/3: “Zuk orain egin dezun lan ori.
 160/4: ez ote dago itxusi?
 160/5: Eliz au egin zanetik ez da.
 160/6: beste onenbest ikusi.
 160/7: au egitea libre zaizunik.
 160/8: ez diguzu erakutsi.
 160/9: eskubiderik bai ote dezu.
 160/10: jartzeko emen nagusi?
 161/3: Bota eliz au, iru egunez.
 161/6: urte bear zituztela.
 161/9: Ori sinisteko uste dezu.
 161/10: burutik joanak gaudela?
 162: Makinaz idatzitakoak ez du bertso au.
 163/3: mirari asko nola egin zun.
 163/5: Jende ugari omen zeukala.
 164/2: orain asi da gertatzen.
 164/5: askok oztopo egin dute or.
 164/7: Jesus dalako, Israeleko.
 166/8: aien barrunbe illunak.
 167/5: Danok dakigu Maisuak itzez.
 168/4: bestien aldean ona.
 168/6: pentsakizunez zegona.
 169/2: Esku-idatziak: *Jainkoak gabon dizu-
 la*; Makinaz idatzitakoak: *Jaunak egun on
 dizula*. Baiña Nikodemo gauetz joan bazan
 Jesusengana, esku-idatziak dion bezela be-
 ar du, eta orrela jarri degu.
 169/5: Ezagutzen det Jainkoa ere.
 170/5: lenago jaio danak berriro.
 171/1: Oso arritu zan Nikodemo.
 171/7: amaren sabelera oster.
 172/5: Ur ta espirituz berriro.
 172/8: nik dakardan erreinura.
 173/1: Aragitikan datorren arek.
 173/5: Ostera jaio bear dezula.
 174/8: datorren edozeñekin”.
 175: Makinaz idatzitakoak ez du bertso au.
 Esku-idatziak onela ditu 176, 177 eta 178
 bertsoak:
 176/1: “Egiz diotzut: ez naiz izketan.
 176/2: ari ezjakin ta itxu,
 176/3: len ikusia ta dakidana.
 176/4: kontatzen ari natzaizu.
 176/5: Ai, Nikodemo, Israeleko.
 176/6: errian etzera maisu?
 176/7: Emen kontatzen dizkizudan gauz.
 176/8: obek ez al dakizkizu?
 177/1: Lurreko gauzak kontatuta ez.
 177/2: dezute nai sinisterik?
 177/3: Zerukotaz bai al dago zuen.
 177/4: aurrean itz giterik?

- 177/5: Inor ez baita zerura igo.
 177/6: ta ez du izan jexterik.
 177/7: zeruan dagon t'andik jetxi dan.
 177/8: Jainko-Semea besterik.
 178/1: Basamortuan Moisesek jaso.
 178/2: zun subearen moduan.
 178/3: Gizasemea jasoko dute.
 178/4: gurutze baten buruan.
 178/5: danak bizia izan dezaten.
 178/6: aren aurrean orduan.
 178/7: Ez da galduko egiz Arengan.
 178/8: sinisten dunik munduan.
 179/1: Betiko Aitak mundu galdu au.
 179/2: ainbeste maite izan du.
 179/3: salbatutzeko kupirik gabe.
 179/4: bere Semea eman du.
 179/5: Argatik gurutz batean bear
 179/6: ditu besoak zabaldu.
 179/7: Argan sinisten duan bakarrik.
 179/8: ere ez dedien galdu.
 180/3: baña bai bere bitartez emen.
 180/4: galdu zana salbatzera.
 180/7: Jainko-Semeaz sinisten ez dun.
 182/8: ederki zuzentasuna".
 184/1: Judea aldera joan zan Maisua.
 184/6: ere bataiatzen berdin.
 185/5: jende ugari joaten baizaion.
